

Fermin Mihura

Bertsuaren eremua

**Bat-bateko bertsuak
eta idatziak**

(1987-2013)



- 326 Joxemari Iriondo
Xalbadorren itzalean,
Hamar urte
- 327 Joxemari Iriondo
Basarri. Zarauzko berriak
1931-1936
- 328 Joxemari Iriondo
Basarri. Gerraurrean kazetari
1931-1935
- 329 Joxemari Iriondo
Basarri. Gerratean kazetari
1936-1943
- 330 Joxe Mari Otermin
Fernando Amezketarra
1764-2014
- 331 Mikel Atxaga
Joxinixio gudaria
- 332 Pello Esnal
Antonio Zavala, zauria hauspo
- 333 Joxe Ramon Zubimendi
Txerokiak denbora pasa
- 334 Nikolas Zendoia
Odei guztien azpitik
- 335 Fermin Mihura
Bertsuaren eremua
Bat-bateko bertsuak eta idatziak
1987-2013



Bat-bateko bertsularitza.

Ikusiz jendeek poz hartzen dutela guk molda-
tuko bertsuekin, nolazpait neuk ere parte hartzen
dut giroaren berotasun hortan, eta diot hortako
bereko balio duela bertsulari izaitea.

Bertsularitzak berekin izpiritu bat badauka,
edo filosofia bat. Hortan ongi egin nahiz indar egi-
teak satisfamendu haundiak ekartzen ditu entre-
namenduan berean. Eta ez da bakarrik edo bai-
tezpada ondorioa edo kalitate maila konda. Ber-
tsulari bezala ez bada, bertsuzale bezala bederen,
gozatzen gare eta horrek niretzat anitz munta du,
batere urrunago joan gabe ere.

Indar egin gabe ez baita abantzatzen, gutien
bat eskatu behar zaiote gazte hoieri, baina gero
nere ustez eskolako lanean baino anitz libroago
utzi, bakotxak bere neurria har dezan.

F. Mihura
1996an

335

Bertsuaren eremua

Fermin Mihura

Bertsuaren eremua

Bat-bateko bertsuak eta idatziak

(1987-2013)



Fermin Mihura (Azkaine, 1946-2013)

Azkaingo Nausienborda etxean sortu zen,
1946an, eta herri berean bizi eta zendu,
2013ko irailaren 29an.

Bat-bateko bertsolaria zen, eta Iparral-
deko bertsolari gehienekin ibilia herriz her-
ri. Hala ere, azkenengo hamabi-hamabost
urtean, gehienik Txomin Ezponda, Xanpun,
Mixel Xalbador, Laka, Mendiburu, Ernest
Alkhat, Arrosagarai eta abar izan ziren bere
bertsolari lagunik aipagarrienak. Inoiz edo
behin Amets Arzallus, Sustrai Colina, Xu-
mai Murua eta belaunaldi gazte horietako
bertsolariekin ere ibili zen.

Bat-bateko bertsularitza ez ezik ber-
tso-idatzien alorra guztiz maitea zuen, eta
bere idazlan asko *Herria* astekarian argita-
ra eman zituen. Beste asko, berriz, etxean
gordetako kaiertan, liburu honen orrietan
ikusiko duzunez.

Euskal dantza eta ohiturak, pilota, herri-
kirolak eta han-hemen egiten diren lehiake-
ta eta zeingehiagokak (artzain-xakurrenak,
adibidez) guztiz maite zituen, antolatzaile/
aurkezle-lanak beregain hartuz sarritan.



Fermin Mihura



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Fermin Mihura

Bertsuaren eremua

Bat-bateko bertsuak eta idatziak

(1987-2013)

Auspoa Liburutegia

335

MIHURA, Fermin (1946-2013)

Bertsuaren eremua : bat-bateko bertsuak eta idatziak : (1987-2013) / egilea, Fermin Mihura ; bertsuaren eremua, Fermin Mihura ; aurkezpena, Joxemari Iriondo ; aitzinsolasa, Jean-Louis Laka. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia/San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, 2017.

371 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 335)

Aurkibidea

LG SS 831-2017. - ISBN 978-84-7907-767-9

I. Iriondo, Joxemari (1938-). II. Laka, Jean Louis (1954-). III. Gipuzkoa. Diputación Foral. IV. Izenburua. V. Saila.

821.361-1"19"

821.361-1"20"

Egilea: Fermin Mihura (1946-2013)

Bertsuaren eremua: Fermin Mihura

Aurkezpena: Joxemari Iriondo

Aitzinsolasa: Jean-Louis Laka

Argazkiak: Mihura familia, Olivier Iglesias, Annie Dumay, Arroka eta Errobi
Kanta abesbatzak, Beñat Laxague, Charles Oyarzabal.
Olivier Iglesias eta familiak hautatu eta landuak

Azaleko argazkiak: Biriatun: Charles Oyarzabal; Larrun eta erretratua:
Olivier Iglesias

Bertsoak jaso eta sailkatzea: Xabier Mihura eta Jean-Louis Laka

Edizioa eta zuzenketak: Joxemari Iriondo

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

ISBN: 978-84-7907-767-9

Legezko Gordailua: SS-831-2017

Fotokonposizioa: Imanol Tapia

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L., Gudarien etorbidea, 8.
Andoain (Gipuzkoa)

Fermin Mihura

Bertsuaren eremua

Bat-bateko bertsuak eta idatziak

(1987-2013)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ORAIN
GIPUZKOA

Donostia/San Sebastián, 2017

Askok ezberdin ikusten dugu
bertsuaren eremua,
baina hizkuntzaren aldetik du
beti hartzen estimua.

Aurkibidea

Aurkezpena	17
Aitzinsolasa	23
Hirurogoita bost urte, eta oraino amets bat betetzeko	39
Euskara eta euskal kultura. <i>Herria</i> kazeta	41
Euskara zertarako?	41
Haurrak karrikan frantsesez.....	42
<i>Bele xuriak</i> liburua idatzi berri duen Jean-Battitt	
Dirassarri	43
Artzain ona, edo xaharra artzain hori!.....	44
Ferminen erantzuna Leon Erramouspe apezari.....	46
Saletarik jendeetara.....	47
<i>Herria</i> kazetaren edertasunari	48
Aire ahizpak kantari Ortzainen.....	50
Hiztegi berria Xuberotik jalgia.....	51
Edertasuna.....	53
<i>Herriaren</i> besta.....	54
Ezpeletan <i>Herria</i> kazetaren biltzarrean kantatuak	55
<i>Euskaldun Gazteriaren</i> egutegirako.....	56
Pariseko orroz.....	57
Gerla edo injustizia.....	58
Lana.....	59
Bazko	59
Sarako liburu-feriatik	62
Bat-bateko bertsularitza	65
Xahar-etxean sartu eta gero berriz ikasten hasi	65
Trakeskeriak	67
Mezulariak edo txantxalariak.....	68
Donostian telebistatik.....	70
Aiziritzen, 2005-X-9.....	71
Aiziritzen, 2010-XII-12.....	79
Liburu berria	87
<i>Zuhaitzak Euskal Herrian</i> liburua	89

Esnatsuko jatetxe batean bazkal-denboran.....	90
Xalbadorren eguna Urepelen	92
Urepelera tekoan gogoratuak	93
Zer litzake Euskal Herria kirol eta kultura gabe?	94
Sokoa lantegian akziodun	95
Bertsularien Txapelketan.....	96
Etxahun Iruriren omenaldia	97
Nafarroa eta Iparraldeko Bertsularien Txapelketa	100
Zuraideko trinketeko bertsu-saioa, Euskal Irratiek grabatuta	102
Omenaldiak (ezagunenak)	107
Xalbadorren eguna	107
Mattin Ahetzekoa.....	108
<i>Herria</i> kazetaren bilkura.....	109
Basusarriko omenaldia.....	111
Jean-Pierre Soudre <i>Larrekoren</i> ehorzketetan.....	113
Jan-Battitt Lekuona Biriaturkoa	114
Manex Pagolaren omenez.....	116
Omenaldia Baionan	117
Berriz ere omenaldia.....	118
Ernest Alkhaten ehorzketa.....	120
Joxe Mari Aranalderen ehorzketa.....	121
Manex Bergara gogoan	122
Mixel Lekuonari esker onezko ekitaldia Makean.....	124
Xanpun zenari.....	125
Jean-Mixel Bidart zenari.....	126
Reyes Corcostegi zenaren oroimenez	129
Otxalderi omenaldia	130
Xanpunen omenaldian.....	131
Bertsularien Lagunak	132
Etxahunen omenaldia eta euskal kantu-txapelketa.....	133
Piarres Larzabal zenaren omenez	135
Popaul Peryren 60 urteak	136
Kanboko Jean-Marie eta Yvette Biscay 40 urte ezkondurik	138
Battitta eta Maddi Zaldunbideren diamantezko ezteiak.....	139

Mugerreko omenaldia	140
Abadieren etxean 60 urte bete eta erretretan sartzea	143
Armand eta Germaine Ostizen urrezko ezteiak.....	144
Jean-Pierre Iciagak 50 urte.....	145
Santa Ageda kantari, Miarritzen eta Baionan	147
Miarritzen, 2011-II-5	147
Baionan. 2011-I-29	150
Santa Ageda eskea Miarritzen, 2010-II-6.....	152
Santa Ageda eskea Baionan, 2010-I-30.....	156
Miarritzen Santa Ageda kantari, 2008-II-2	157
Santa Ageda kantari Miarritzen, 2005-II-5	159
Baionako Santa Ageda, 1997	161
Artzain-xakurren lehiaketak Ipar eta Hegoaldean	163
Atariko xakurra	163
Baserrian bizi zarenez, zein duzu abere gustukoena?.....	164
Azkainen, 2013-VIII-11	165
Baigorriko txapelketa, 2013-VII-21	166
Biriaturko eguna gogoan, 2012-VIII-5	167
Esnatsuko Mentan bazkaria artzainekin, 2010-X-31	168
Itsasun, 2007-VIII-4	169
Urrixkan, 2005-X-23	170
Sarako bestetan, 2005-IX-12	171
Iratiko Pedro txaletan lagun arteko bazkaria, 2003-IX-10 ..	172
Larresoron, 2003-VIII-24	174
Azkainen, 2003-VIII-10.....	175
Itsasun, 2003-VIII-9	176
Donibane Garazin, 2003-VIII-3	177
Baigorri, 2003-VII-20.....	178
Aiherran artzainekin, 2003-VI-29	179
Izuran, 2002-VIII-18.....	180
Azkainen, 2002-VIII-11	183
Itsasun, 2002-VIII-10	184
Baigorri, 2002-VII-21.....	185
Iratin Pedoren txaletean, 2001-IX-2.....	187
Xakur-sariketan Senperen, 1998-VII-26	188
Artzain-xakur ikusgarriak hogoi urte, 1995	189

Iholdin, 1991-IX-1	190
Oñatin, bazkaltzean, 2012-IX-23	191
Oñatin 50. aldia, 2009-X-27	192
Oñatin, 2004-IX-26	193
Oñatin euskal artzaineri monumentua, 1998-IX-20	194
Oñatin, Xebastian Lizasorekin, 1996-IX-22.....	195
Fermin bere buruaz	197
Lehenengoz hegazkinean	197
Jauzgailuan.....	198
Zoe Brayek bertsulariak marraztu zituelarik, Andoni Iturriotzek manaturik	200
Laster erretreta duzua, Fermin?.....	201
Euskadi Irratiak deiturik	202
Familia: Azkainen, Bidarrain, Urnietan	203
Zer herentzia zinuke zure haurrei uzteko?	203
Aita	203
Ama.....	204
Marracq elizaren inguruan, Maddiren bataioko besta Baionan.....	205
Maitaneren bataioan Azkaingo elizan	205
Xabier semearen eta Eliseren ezkontza	206
Sortetxeari.....	208
Mattin Mihura bere anaiaren ehorzketan elizan kantatuak.....	209
Urnietako ahaideekin bazkaria	210
Gracieren despedidako afaria Arruntzan	212
Leonie eta Mixelen diamantezko ezteiak.....	213
Nire izeba eta osabari	214
Mixel eta Leonie Etcheverryren urrezko ezteiak.....	215
Ama zenaren ehorzketan	217
Frantxua eta Baberen ezteietan	217
Azkaine eta auzotarrak	221
Auzokoen elkartzea bazkari batean.....	222
Azkaingo plazan	222
Ikastolak 40 urte Azkainen	223

Herri-bazkaria Azkaingo kirolen gelan.....	224
Bihotz onekoen bazkaria Azkainen.....	224
Gure Irratiarentzat <i>Gure bazterrak</i> emankizuna.....	225
Azkaingo ihauterietan.....	226
Leihotik besten irekitzea Azkainen.....	227
Azkaingo Martintxon afaria.....	228
Azkaingo errugbilariak Frantziako txapeldun.....	230
Berrogeita hamar urteko azkaindarrak bildurik.....	233
Azkaingo ikastolak 22 urte.....	234
Azkaingo Uhertsiko zubiari.....	235
Nortsu diren Azkaingo jende famatuak.....	236
Sebastien Gonzalez txapeldun.....	237
Xala txapeldun haundi.....	238
Andde Elissalderen omenez.....	240
Lionel Landart apeztu.....	242
Piarres Larzabalen omenaldia.....	243
Parropia	
Xalbat Martinon apezak 75 urterekin kargu berria.....	245
Zergatik dituzu haurrak hain maite?.....	245
Parropiatik.....	246
<i>Piarres Larzabal</i> izena derama Azkainen apezetxe	
berrituaren gela nagusiak.....	247
Azkaingo elizan.....	248
Xeruenbordako gurutzean.....	250
Azkaingo elizan Euskal Telebistarekin.....	251
Anitarentzat katiximarako prestatuak.....	252
Ogibidea, lankideak, enpresa, erretreta	253
Arruntzan Marzel Laxagueren erretretan sartzea.....	253
Ziburun Battitten erretretan sartzeko lagun arteko afaria...	254
Lantegiko estreinaldian <i>Errobi Kanta</i> taldearekin.....	255
Lantegiko despedidan.....	256
Jeannot-k 50 urte.....	258
Euskal Herria, euskalduna	261
Urritzen ari omen gira.....	264
Iparraldea.....	264

Euskal Herriari.....	265
Hendaian Sokoia lantegiaren 40 urteak ospatzea.....	266
Euskal Herriko Laborantza Ganbara sei urteren buruan	266
Aurore Martin Espainiaratzeko baimena eman du	
Paueko auzitegiak.....	267
Garraldako ezkerparetean.....	268
Herriko bestak eta militantzia.....	269
Euskaldunak munduan.....	270
Aezkoa eta Garaziren arteko hitzarmenaren izenpetzea ..	271
Euskal Herriko Laborantza Ganbararen lehen	
urteburua eta auzibideak	272
Argi-izpi bat Hegoaldean	274
Goraki abesbatzak hogoita hamar urte	275
Senperen pilota eta euskara	278
<i>Ongi heldu Euskal Herrian</i> lehiaketa	279
Oihantzaina.....	280
Eliza, Arantzazu, Angelu, fedea	283
Jainko bazina zer egingo zinueke?.....	283
Behin batez herriko erretora hurbildu zen gure talderat.	284
Gerla-lekurat abian zira misiolari	284
Aitatxi batek hiltzerakoan gogoeta eta kontseilu.....	285
Omiásaindu.....	286
Jatsuko Frantses Xabierrekoaren beilan.....	287
Abesbatzen besta Garaziko Jatsun	288
Leon Labayen jaun erretorak apezturik 50 urte bete	289
François Gastambide jaun erretorari	291
Joan Paulo II gogoan	292
Arantzazun beila.....	294
<i>Denak Argian</i> aldizkarirako.....	297
Nafarroaren egunean Baigorriko elizkizunean	298
Pierre Molerés Baionako apezpikuarekin.....	298
Angelun Trinitateko elizan	299
Haurren Sinodorako	300
Angeluko hardoitarren besta	301
Oxobiren omenaldia Bidarraiko elizan	302

Gizarte gaiak	303
Zer egin bakea lortzeko	303
Ezkontza denentzat legeaia	304
Gero eta depresio-kasu gehiago. Zer pasatzen da?	305
AHTren kontrako manifestaldira bidean.....	306
Frantziaren zorra	308
Gaurko gazte batzuen joera	311
Sarkozyri	312
3B eskualdeari deputatuek ezetza eman dakote.....	313
Ministroen ibilerari so.....	314
Mundua	317
Mundua zirko bat dela diote	317
Etorkinak egoitza berria kausitu.....	317
Munduko agintarieri.....	318
Aberastasunak nola banatu?	319
Hogoi urteko emagalduari.....	320
Munduko kopatik bertsoetara	321
Kamikazeak.....	322
Mundualizatzea edo mundutzeaz.....	324
Mende zahar, mende berri	326
Gure mundua.....	327
Hauxe garaia	328
Funtsezko gaiak eta gogoetak	331
Libertatea	331
Mina, oinazea	333
Diruak egiten al du zoriona?	334
Ezkonberriei predikua	335
Herioa	335
Bakea	336
Amodioa tristea dea?	339
Gaurko gazteak	340
Onez onean hobe	341
Izadia	345
Primaderari	345
Babazuzak edo babaxizkorak loreak xehatu ditu	346
Negua.....	348
Zer dio kukuak?	349

Umorearen haria	351
Andregairik ezin duzu aurkitu itsusia zirelako	351
Ezin diozu arnoari utzi	352
Irriari	352
Bertze gai eta gogoetak	355
Kartzelan zaudela, urrunerat txori bat begiztatzen duzu kaiolan dagola	355
Hamabortz urtez haurra ezin ukanik, gaur esperantzeta zaude	356
Haur sortu berriari	357
Anitz maite duenak anitz sofritzen du	357
Haur sortu berria hil	360
Zergatik hiltzen dituzu abereak?	361
Amaren bularra	362
Amaren besta Senpereko Ibarrunen	363
Donadoen abantailak	364
 Fermin Mihuraren ehorzketa eta elizkizunean kantatu bertsuak	 367

Aurkezpena

Aspalditxo hasitako lana burutu du Auspoak eskuartean duzun liburua argitara emanda, “*Askok ezberdin ikusten dugu bertsuaren eremua / baina hizkuntzaren aldetik du beti hartzen estimua*” oihu eginez, egilearekin batera.

Baina labur-labur kontatu behar dizugu liburua osabetzeko nondik eta nora ibili garen, irakurketan buru-bihotz murgildu zaitezten baino lehen.

2014ko urriaren 18-19an, larunbata eta igandea, *Deiadarra* taldeak antolaturik Xalbadorren eguna genuen Urepelen, Fernando Aire *Xalbador* eta Pierre Bordazarre *Etxahun Iruri* omenduz. Igande goiz hartan, urteoro bezala, han zen Jean-Louis Laka bertsolari eta kantari ezaguna ere, eta lehenengo diosala egin bezain azkar horrelako lagunekin biltzen garen bakoitzean gehienetan egin ohi dugun bezala, hitzetik hortzera eraso nion:

–Laka, bi eskari egin behar ditiat gaur bertatik bertara: a) meza ondoren Xalbadorren hilobian biltzen garenean bertso bat edo bi kantatu behar dituk; eta b) honez gero izango duk ba hik ere liburu bat egiteko hainbat bertso Auspoa sailean argitara emateko... Edota bestela, hortxe ditiagu, baztertuta, orain urtebetetsu hil zen Fermin Mihura, Joanes Arrosagarai eta beste zenbait bertsolari eta bertso-jartzaile ere. Bazekiat liburu bat egiteko hainbat bertso eta kontakizun eder badutela horiek. *Herria* astekarian eta argitara emanda bertso asko ikusi ditiat. Beraz, zertan hago? Hasi lanean serio, Jean-Louis!

–Esango dizut ba –erantzun zidan–. Laster erretreta hartzekotan nago, eta eguneroko lanari uzten diodan bezain laster hasiko naiz Fermin Mihuraren bertsuak biltzen, bere seme Xabierrekin batera. Bat-bateko bertso gutxi izango da jasota –maila horretako bertsularien saio gutxi grabatzen

zen garai hartan zoritxarrez-, baina Ferminek bertso eder asko idatzi zuen. Esan duzun bezala, *Herria* astekarian eta argitaratuta daude asko. Bertze asko, berriz, etxean gordeta, eskuz idatzitako kaieretan. Liburu gotor bat egiteko adina bertsu badago, bai, eta mereziko luke horiek argitaratzea. Auspoan argitaratuko zenituzkete?

Baietz erantzun nion, serio, eta hitza hartzen niola, besterik gabe. Baina erretreta hartzen zuen bezain azkar hasiko nintzaiola eske, ahazten bazitzaion ere. Horrelaxe egin nuen. 2014ko udazkeneko egun hartatik hona zenbat posta elektronikoko ez ote dizkiot bidali agindutakoa zorra dela gogoraziz.

Lakak bete du emandako hitza. Duela urtebete edo gehixeago posta elektronikoko bidez bidali zidan Fermin Mihuraren bertso-bilduma ederra. Ferminen seme Xabierrek eta biok egin dute biltze, aukeratze eta sailkatze-lana, saio askotako sarrerak eginez, handik eta hemendik bertsoak jasota. Ez nolanhiko bilduma egin ere, alafede! Lakaren aitzinsolasa eta guzti liburu honetan sartu ditugunak eta beste horrenbeste badira, gutxienez. Ausporen artxiboan jasota hortxe geldituko dira liburuaz gainerakoak, gaur edo bihar berriro ere astindualdi bat emateko Azkaingo bertsolari zenari, hainbat saiatu zen eta.

Fermin Mihura Azkaingo Nausienborda baserrian jaio zen, 1946an. Gero Saskoenea baserrira joan zen guraso eta senideekin. Lau haurridetan bigarrena zen. Laborari-lanik gustatzen ez eta Baionan auto-salmentan atera zuen bizi-modua. 1972an esposatu zen Gracie Etcheverry erizain bidarraitarrarekin. Artzain Izarra etxe berria egin, eta han bizi izan ziren, 2013ko irailaren 29an hil zen arte, gaixoaldi gogor baten ondoren, erretreta hartu eta lasai bizitzeko urterik onenak gozatu behar zituen garaian.

Bertso-bilduma honetan zehar ikusiko duzunez, bertsozale eta euskaltzale oso eta sutsua zen Fermin. Euskara

zuen bere begietako ninia, eta Euskal Herri euskalduna bere ametsa. Bertsolari saiaturia zen bat-batean eta idazten, dantzari egokia nonbait, txistularia, korrikalaria, eta Iparraldeko hainbat ekintza, ardi-xakurren lehiaketa eta abarren antolatzailea. Herriko parrokiaren haurrei katixima erakatsi eta fedean hezitzen ahalegindu zen, *euskaldun fededun* le-mari eraginez.

Zertan ez zen saiatu Mihura, “*gizon luze, mehats eta gazte haren moldea*”, Lakak bere aitzisolasean dioen bezala?

Auspoa sailak omen eta ohore dagio gaur Mihurari liburu hau aitzakiatzat hartuta, eta eskuartearen duzun bertso-bildumaren aurkezpena egitean, esan nahi dizugu ere Xabier Mihura eta Jean-Louis Lakaren bertso-biltze, sailkatze eta osatze-lana biziki eskertu eta errespetatzen ahalegindu garela, nahiz eta askotan bateratze-lan batzuk egin behar izan ditugun, betiere biltzaileekin harremanean. Hala ere, Azkaingo bertsolari eta bertso-jartzailearen arauak zehatz-mehatz errespetatu ditugu, ohartuko zaren bezala.

Joxemari Iriondo
2017ko uda



Euskal Herria Euskal Artzainari monumentuaren estreinaldia, Oñati, 1998.



Aitzinsolasa

Oraino maiz gogorat heldu zautan adiskide mina

Noiz eta nola ezagutu nuen

1976ko uztaileko igande arratsalde batez lehen aldikotz deliberratu nuen artzain-xakurren txapelketa baten ikusterat joatea Baigorri-Etxauzeko pentze haundira. Urrunetik baizik ez banuen ikusten ere, biziki gustatu zitzaudan txapelgoa kudeatzen eta aurkezten zuen gizon luze, mehats eta gazte haren moldea. Ez dut uste egun hartan gogoan hartu nituen haren izen-deiturak. 1978an Euskaltzaleen Biltzarra Kanbon antolatu zuen sariketa bat zoinek Xalbadorren bertsu gehiago ikasi. Sariketa hura Azkaingo Fermin Mihurak irabazi zuela erran zautan Mixel Itzaina Kanboko Herriko Etxeko idazkariak. Berehala asmatu nuen irabazlea orenak eta orenak arizana zitaikeela *Odolaren Mintzoako* bertsuen ikasten.

Handik hilabete batzuetara Leon Haissaguerrek, Baigorriko bikario euskaltzaleak argibide zorbait salatuz, ni ere atrebitu nintzen bertsuen idazterat, eta halako batean bertsu-sail bat igorri nakon E.H.A.S. alderdi politikoak argitaratzen zuen *Euskaldunak* hilabetekariari. Kazeta hartan atera eta irakurtu orduko, Jean-Pierre Mendiburu heletar bertsulariak gutun bat helarazi zautan laburzki bezain zehazki esplikatuz bertsubugintzaren teknika. Erran gabe doa Heletako Ospitale baserrirat joan nintzakola eskertzerat eta solastatzerat. Liluratuta, ikusiz Mendiburuk gaia nola menperatzen zuen, proposatu nakon Baigorrirat etortzea jende gehiagoren aitzinean bere jakitatearen berri emaiterat. Hark onartu bezain laster finkatu ginituen lekua eta eguna: 1979ko urtarrileko igande eguerdi bat, Manexenea ostatuan. Betidanik ospe handia ukan duen jate txeko aretoa ederki bete zen bertsu-

lariz eta bertsuzalez. Mendibururen hitzaldiari oraino balio erantsi bat eman zakon, ezagutzen diogun talenduarekin Eñaut Etxamendi kantagile paregabea mintzatzen hasi zelaririk bere kantuzonbaiten moldatzeko eraz. Gure mahai eta jarlekuetarik altxatzean, hurbildu zitzaudan ordu arte deneri adi egona zen izpiritu argiko gizon gazte luze bat. Bere izena emanik eta erranik ni bezala garai hartan Baionan bizi zela, proposatu zautan noiztenka elkar ikustea bertsu-ariketa batzuen egiteko. Hitza eman eta atxiki. Horra nola abiatu zen Fermin Mihuraren eta nire arteko harremana.

Zerbait gisaz bertsu-ikasketa horien berri jakinik, lehen denbora batez juntatzen zitzauzkigun Urepeleko Jean-Leon Lantziari eta Bankako Jeannot *Ñafar*. Geroxago, aldiz, Kexus Arzallus eta Andoni Zelaia hendaia bertsulariekin biltzen hasi ginen, horrela aberatsagoak baitziren esperientzia-trukatzeak.

Saskoeneako lurrari eta artzainer josia. Nortasun suharra

Fermin Mihura sortu zen Azkainen Nausienborda baserrian, Esnaur mendiaren mazelean, 1946an. Ama, Maixan Elo-segui, 1915ean Azkainen sortua zen, Xeruenbordan. Aita, Koxe Mihura, 1912an sortua, Beran (Nafarroa). Haurrideak: Mattin, 1940an sortua; Marie-Jeanne, 1950ean; eta Marie-Dominique, 1958an sortua.

Nausienborda denetarik sobera urrun baitzen, 1956ko San Martin egunean familia osoa jin zen etxetiar gisa Saskoenea baserrirat, Azkaingo plazatik hurbilago izaiteko.

Fermin eskolan ikasle ona zen, memoria haundiarekin. Irabazi zuen urte batez Azkaingo etxaldean izenen lehia-keta, bere eskolak antolatuz. 14 urtetan estudio-egiaztagiria lortu zuen.

Fermin gazte argia izanki, bere errieta zen apez bikarioak nahiko zukeen eskolan segi zezan, baina etxean laguntza beharra izanki eta, burasoek ez zuten onartu. Alabaina, laborantzarentzat gustu guti izanik, 16 urtetan Baionako zurgintz-eskolan sartu zen, CAPa ukaiteko. Hemeretzi urte arte ofizio hortan aritu zen Donibane Lohizunen, arratsetan etxean lagunduz.

Adin hortan armadara deitua izan zen, eta jauskari gisa egin zuen bere zerbitzua, Baionan. Gainera ikasi zuen tele-transmisioa ere morse kodarekin.

Armatatik atera eta, *Renault* enpresako zuzendari azkaindar Andde Luberriagak proposatu zakon Fermini Baionan beretzat lan egitea, Azkaingo bertze gazte batzuekin. Hala, Fermin sartu zen auto-pieza saltzaile Baionan, ondotik Donibane Lohizunen eta azkenik *Peugeot Gambade* etxean, erretretarat arte.

Ferminen nortasun puntu azkarra eta borondate haundia zuen. Kultura-gaietan, kirolean nahiz ikasketan, zerbaitetan hasten zelarik, behar zuen bururaino eraman bere ahal hoberena eman arte. Eskola-denboran euskal dantzari eta txistulari izan zen, solfeoa bere baitarik ikasiz. Bertzalde bere bizi guztian maite izan zuen dantzatzea, mutxiko, paso, rock eta bertze ongi ikasi eta bereiziz.

Borondate berarekin, esku-pilotan, txirrindularitzan ("Le guidon bayonnais" elkartearen lizentzia harturik), lasterraldietan, beti teknikak estudiantuz hobetzeko. Zonbait urtez, Sarako kontrabandisten lasterketan eta Azkaine-Larrungo lasterketan parte hartu zuen. 1969an izan zen Larrungo lehen lasterketa, Andde Luberriagak antolatutik. Fermin arribatu zen lehenik Larrun kaskorat, baina Gaby Etchart hazpandarrak aitzindu zuen jaustean. 1973an hirugarren egin zuen.

1972an esposatu zen Baionako ospitalean lanean ari zen Gracie Etcheverry bidarraitar erizainarekin. Elkarrekin bi

seme ukan zituzten: Marc (1975) eta Xabier (1978). Ezkondu eta laster Ferminek erosi zuen Saskoenea etxea, jabeak saltzen zuelakotz, eta 1980an Saskoeneko lurretan eraiki zuten Artzain Izarra etxe berria. Ferminen aita, Koxe Mihura, artzaina zen eta xakurren hezten afizione gaitzekoa.

Artzain-xakurren txapelketetan lehiatu zen osagarriak lagundu zueno. Fermin, berriz, sariketa guztien aurkezle eta artzainen eta epaileen arteko bitartekari izan zen, 1975etik 2013ko agorrila¹ arte. Lehiaketa guztietan bezala, gerta zitaizken tirabira oren jabaltzaile ezin hobea zela denek airtortzen dute. Ikaragarri gustatzen zitzakon artzainen artean izaita, eta aholku batzuk emanaz gazteak bultzatzen zituen xakurren heztera. Oroz gainetik estimatzen zuen artzainen arteko giro euskalduna, heietarik izanki zombait kantari, istorio-kondalari eta ditzolari ere.

Bere 60 urte betetzearen karietara, artzain lagun guztiak beren espos lagunekin bildu zituen Bidarrain, Gracie bere andrearen sorterrian. Gu senar-emazteak gomitatu gintuen besta eder hartarat, adiskide gintuelako, eta nahi baitzuen biok elkarrekin bertsuka ari gintezen bazkaltiarren agusatzeko.

Txapelketako azken agerraldia Biriatur egin zuen, 2013ko agorrilaren 4an, ordurako eri haundi eta xutik doi-doia egonki zelarik. Bururatzean, despedidako bertsu hunkigarri bat bota omen zuen iragarriz egun hartan betirako utziko zuela lan hori.

Kirolaria eta artista

Ez baitzen espantugile ez balentrien kondatzaile, bere hurbilekoek salbu hain segur, jende guttik zakien Fermin Mihuraren dohainen berri. Goazin lerrokatzera laburki:

¹ Abuztua.

Lasterkaria: Gorputz luzea, mehatsa eta lerdena; abantail guztiak zauzkan lasterkari ona izaiteko. Larrunerat harekin joan nintzen aldi batez nihaurek frogatu nuen nolako hatsa, zalintasuna eta iraupena zuen. Bereiziki lanbidea utzi zuen pundutik eritasunak jo arte egun gehienez ibilalditxo bat erdi lasterka egiten omen zuen Larrungo inguruetan.

Pilotaria: Nahiz esku soraioagoak ukaiteko maizago arizan beharko zukeen, behin Baionako trinketea harritu ninduen zer-nolako jokoa zuen eta zoin aise helden zen piloten harrapatzerat.

Txirindularia: Berak erranik dakit, gazte-denboran txirinduz ibiltzea omen zuela bere kirolerarik maiteena. Adibidez, lehenik zurgintz-eskolan eta geroago soldadu zelarik, Azkaine-Baiona joan-jinak bizikletaz egiten zituen, bere gustuz.

Irrati-telebisten eta *Herria* astekariaren bidez segitzen zituen gaurko pilota-partidak eta bertze kirolarien balentriak. Haatik, dopatze-kasuak entzutean guztiz okazaturik egoiten zen. Bertze gauza bat ere ez zuena hain ongi atxemaiten: gero eta maizago antolatzen dituzten “ultra trail” delako mendi-lasterkaldi izigarri luze horiek. Erokeriatzat zaukan gizakiaren gorputza neurritz kanpo horrela bortxatzea.

Dantzaria: Fandango eta dantza jauzitan ari, askotan ikusi dugu nolako dantzari egokia eta liraina zen. Erran gabe doa bere gorputzaren traka lagungarri zuela horretan ere.

Txistularia: Txistua jotzen ikasia zuen, dantza-taldeentzat; eta jotzen omen zuen, adibidez, “Dios te salve” kantariekin, edota familiako besta-okasionetan...

Egiazko euskaltzalea

Lehenik erran dezadan Koxe Mihura ezagutzeko dohaina izan dudala, zorionez. 1980ko hamarkadan, noiztenka afa-

londoko bertsu-ariketa batzuk antolatzen zituen Ferminen Azkaingo etxe berrian. Komunzki lau bertsulari izaiten ginen: Fermin, Kexus Arzallus, Andoni Zelaia eta nihaur. Badakizue gehienik zerk pizten zaukun kantatzeko gogoak? Bertze lau entzule on eta maitagarriren presentziak. Izenda ditzadan: Koxe eta Mattin Mihura aita-sembleak, eta Lazaro auzotarra bere koinatu Koxe Marirekin. Azkaindar hunek gauak-gauari mobiletaz egiten zuen gure bertsu-ariketa-rako joan-jina. Isiltasun haundienean nola ez zituzten entzuten gure bertsu xuxen eta makurrak! Solasean hasten ginelarik, zer gizon goxoak, alaiak eta eleketariak! Aspal-diko bertszuleak ziren. Bertsulari gehienak ezagutzen zituzten eta denen gainetik Basarriren bertsulari-maila eta haren hitz egiteko dohaina miresten. Ez zituzten segurki hutsegitekoak Loiolako Herri Irratiak eta Euskadi Irratiak zabaltzen zituzten *Nere Bordatxotik* Basarriren hitzaldiak. Irakurtzen zuten ere *Herria* astekaria.

Aise ulertzen da horrelako lagunartean loriatzen zenak nahi zituela bere haurrak euskaldunki altxatu. Garai hartan ikastolako burrasoer engaiamendu haundia galdatua zitzaien, baina Fermin eta Gracie ez ziren lotsatu beren bi semeentzat hautua egiteko mementoan. Fermin izan zen bi urtez Azkaingo ikastolako burraso-elkartearen lehendakari.

Euskaldun fededun

Ferminen burrasoak eta etxeak elizari biziki jarraikiak ziren, eta Ferminen ez zuen huts egiten igandeetako mezarik. Loriatzen zen elizkizuna euskara hutsean izaiten zelarik. Fede haundia zuen Jainkoaren onezian. Etxean zombait urtez teologia landu zuen liburuen bitartez, bere fedea barnatzeko. Azken urteetan azkarki hunkitua izan zen Thomas d'Ansembourg-en liburu bat irakurtuz. Liburu horren gaia indarkeriarik gabeko komunikazioa zen, jendeek



Saskoenea. Mihura familia, 1960. Artzain-xakurren lehiaketan: Koxe Mihura erdian, Oñati, 1972. Koxe eta Maixan Mihura, 1972. Fermin eta anai-arrebak, 1998 (arg. Olivier Iglesias).

elkar aditzea, heien artean harreman onak ukaitea. Behin batean Baionarat joan zen idazle horren hitzaldi baten entzuterat. Liburu hori landu eta gai berdineko bertze batzuek erosi zituen. Biziki poztu zen Fermin jakitean aditu batzuek gai horiek sakondu eta gako batzuk aurkitu zituztela. Eta erraiten zuen: «Hori da ebanjelioa praktikan ezartzea! Hainbertze gauza ikasten dira eskolan eta deus ez jendeek elkar ongi aditzeko! Alta gizarteak gain-gainetik horren beharra duelarik». Fermin hunkitua zen, zeren hainbat urtez ahallegina egin zuen bereziki artzainen artean eta Bertsularien Lagunak elkartean kideek elkar ongi adi zezaten.

Leon Labayen Azkainen erretora eritu zelarik, Fermin oraino lantegian zen, eta apeza ordezkatzuz hasi zen seigarreneko haurreri katixima euskaraz erakasten. Lantalde batean arizan zen katiximako ikasgaien itzulpenak egiten, eta 2012-2013an Jean-Mixel Barnetche apezaren inguruan berriro. Anitz maite zuen haurreri transmititzea fedea, bai eta haiekin elkarrizketan aritzea. Azken hilabeteetan eri eta ahuldua izanik ere, katixima segurtatu zuen, 2013ko ekaina arte, eta hurrengo urteko egitaraua xehe-xeha prestatu zuen ordezkatzaillearen lana erresteko.

Bertsularien aldetik, gure denboran apez euskaltzale-andana baten ezagutzeko zortea ukan dugu gure inguruetan. Denak ezin aipatuz, bat bereiziko dut: euskaltzaina, *Herria* astekariaren buruzagia, herriko kantore-burua, gai-emailea, bertsularien zoingehiago askotan epailea, bertsu-jartzailea eta ene herritarra gainera: Emile Larre. Hau izan zen lehenbiziko apeza bertsularier fededunen otoitza kantarazten Bazkoz, Aiherran erretor zelarik, elizako koralen elkarretaratzeko mezan. Bertze apez euskaltzale batzuek, Etxegorri, Bascans, Lekuona, Oxarango, Larzabal, Idiart anaiak, Labaien, Heguy, Garat... Emile Larrereren bidea jarraitu zuten beren herrian ospakizun bereiziren bat zagoenean. Eta honela, Iparraldeko bertsulari guztiek ukan dugu elizetan kan-

tatzeko parada. Elizkizun batera bertsuen kantatzerat deituak izaiten ginen aldi bakotxean Fermin etortzen zen igande hartako ebanjelioa irakurtu eta kasik ikasirik. Zonbat aldiz ez zaukun ebanjelio hura laburbiltzen elizan sartu aitzin, nahi baginuen gure bertsuen bazka han kausitu.

Bertsularitza jendarteratuz

1980an, Filipe Oyhamburu eta Peio Ospital kantariek Mi-lafrangan muntatu Euskal Herriko artisten bilkura batean aurkitu nintzen Ernest Alkhat zenarekin. Eta biltzarrea burutzean Etienne Sallaberry idazle eta kalonje zenak bulztatu gintuen bertsularien elkarte baten sortzerat. Aholkua entzun, gomitak igorri eta, jende-multxo pollita etorri zen Kanboko Herriko Etxerat, Iparraldeko bertsulari eta bertszuleen arteko elkarte berriaren sorlekura. Deitu ginuen Bertsularien Lagunak, eta Ernest Alkhat izendatu elkar-tearen lehendakari. Zonbait urteren buruan, Ernest Alkhat eta Txomin Ezpondaren ondotik, Fermin Mihura izan zen elkar-tearen hirugarren arduraduna. Ni, aldiz, batean idazkari, bertzean diruzain izanez, Ferminekin maiz hitzartzen nintzen elkarteko harat-hunat guztien hurbiletik segitzeko.

Urte parrasta bat berantago, Ferminek Aitor Sarasuari utzi zakon lekukoa lehendakaritzarako. Jean-Pierre Mendi-buruk idatzi *Bertsutan ariz ikasten* liburua bulta bat hartan agortua baitzen, Ferminek akuilaturik eta zatirik haundiena berak idatzirik, 1997an argitaratu ginuen *Bertsularen Artea* izeneko bertze liburu bat, beti Iparraldeko ahal bezenbat euskaldun bertszuletzeko xedearekin.

Omenaldiak, urteroko txapelketa eta bertsu-saio bereiziak elkar-teak antolatzea beharrezkoa iduritzen bazitzakon ere, ohartu zen berak denbora gehiago eskaini behar zakola euskara sakontzeari, irakurtzeari, neurtitzen lantzeari eta doinu berrien ikasteari eta bat-bateko bertszugintzan trebatzeari. Azken puntu hori ez baitezake norberak bakarrik

errexki segurta, ez dut nehoiz aski eskertuko Fermin ene akuilatzaile zorrotz izana. Ordurako hura Azkainen eta ni Baigorri bizi izanez, ez nintzen hain segur mugitu naizen bezala mugituko nintzenik hark ez balaut bere zintzotasun guztia agertu eta froga ekarri nere ongia ere bilatzen zuela. Hark ariketarako gaiak ere prestatuak ukaiten zituen, hots, nik egin behar lana errextua.

Bai fededunen eta bai artzainen munduan biziki eza-gutua baitzen, maiz eskatzen zakoten bertsu batzuen kantatzea. Horrelako lekuetan bertsulari lagunik gabe aurkitzen baitzen, bere burua hertsatzen zuen bakarrik kantatzeko gai izaiterat. Kantari gabiltzanok ongi dakigu bertsulari lagun batekin baino nekeago dela bakarrik bat-bateko lan on bat egitea, oroz gainetik bertsu gutti baizik ez direlarik kantatu behar. Jaialdien antolatzaile asko ez dira ohartzen bertsulariek giroan sartzeko eta izpirituaren xalointzeko denbora behar dugula, pilotari bati eskuen berotzeko astia utzi behar zakon bezala.

Ferminen azken asteak

59 urte betetzean, *Peugeot Gambade* etxetik erretreta hartu zuelarik, erran nakon ongi zitaikeela bere bertsuekilako liburu bat atera zezan. Baina haren erantzuna: “Osagarria duguno bertsu-kantatzeari behar diagu denbora eskaini. Liburuaren ordua geroago etorriko duk”. Osagarri-kontu hori barreneraino sartua zuen, eta norbaitek bere burua eta gorputza zaintzen bazituen, hark egiten zuen: eguneroko irakurketa eta lasterkaldiak, neurritz kanpoko jan-edanik ez...

2013ko martxoaren 23an Basusarrira deituak ginen Jakes Casaubon eta Filipe Oyhambururen omenaldian kantatzerat, lehen aldikotz gurekin kantatzen zuela Haritza Camblong bertsulari gazteak. Geroago aitortu zautan sukar haundi batekin etorria zela, baina egun hartan ohiko bertsu-saioa egin eta, ez baitzuen deusik erakusterat utzi,

gu ez ginen deusetaz ohartu. Hamabortz egun berantago, Herriaren biltzar nagusiaren kariatara, Pausuko Xaia jate-txean izan zen gu bien arteko azken saioa. Bertzeak bertze, Jean Haritxelar, hura ere azken aldikotz gure artean zena, omentzen ginuela. Saioan zehar bertsu ederrak kantatu zituen, baina sukarrak errautsia baitzen, lanik aski bazuen xutik egoiten ere. Hurrengo astean jakin nuen nolako gaitzak hartua zuen, odoleko minbizi gaizto batek. Tratamendu bortitzenak jasanik, sei hilabeteren buruko gorputz zen.

Laurogoita hamar urtetan, Jean Haritxelar ere odoleko bertze minbizi-mota batek hamabortz egun barne eraman zuen, 2013ko irailaren 1ean. Baionako eritetxean heriotze horren berri jakitean Ferminek Xabier bere semeari erran zakon: “Haritxelar bere denbora untsa beterik joan duk; neri, aldiz, gelditzen zaidak oraino lan-andana bat egiteko”. Hara nola ari zen borrokan herioaren aurka.

Handik zonbait egunetara, bisitaz joan nindakon batez, hauxe erran zautan: “Medikuak uzten banik heldu den aste-hondarrean etxera joaiterat, ekarraraziko diat Franck Dolosor, jakin dezan non dauzkadan ene bertsurik hoberenak”. Fermi izigarri gustatu zitzakon Franck Dolosorrek Matxin Irabola senpertarraren bertsuekin atera zuen liburua. Fun-tsean, Matxinen omenaldian Ferminek kantatua zuen Mixel Xalbador, Amets Arzallus eta Sustrai Colinarekin. Gaiak eman zazkona, Joana Itzaina.

Ororen buru, ez baitzuen etxerat itzultzeko baimenik ukan, banakien bere xedea gauzatu gabe gelditua zela. Kan-boko Annienean, zendu baino bi egun lehenago, buruilaren² 29ko arratsean, oraino nahi zuen bizitzeko itxaropen-izpi bat atxiki.

Ez nakon nehondik ere aitortu nahi ez ginuela berriz elkar ikusiko. Halako batean hauxe erran nakon: “Hire ber-

² Iraila.

tsuen biltzeari lotu behar diat, bai baitakiat heiekin badela liburu eder baten gaia”. Hitz egiteko indar eskasez, erdi aha-petik ihardetsi zautan: “Milesker, Jean-Louis!”. Eta zonbait segunda berantago: «Hik jakinen duk zoin bertsu hautatu”.

Ehorzketa eguna

Urriaren 2an, haize hegoa eta larrazkeneko iguzkiak gogor jotzen zuen. Asteazken arratsaldea izanagatik Azkaingo elizan koka ahala baino jende gehiago bildu ginen Fermini azken agurra egiterat. Aldarean apez euskaltzale multxo bat. Predikari, Martinon Azkaingo erretora, eta herriko abes-batza kantari. Lekukotasun hunkigarrien artean hunkigarriena Xabier semearena. Txomin Ezponda, Xumai Murua, Eneritz Zabaleta, Jean-Louis Errexil, Imanol Lazkano eta nihaurek bertsu bedera kantatu ginion. Hilerrian azken bertsu baten kantatzerat atrebitu nintzen. Elizkizuna hasi aitzin, Mixel Xalbadorrek gibelerat joan behar ukan zuen, ama hilzorian zuela abisua ukanik. Ehorzketan ziren bertze bertsulariak, Kexus Arzallus, Jose Luis Gorrotxategi, Ekhi Erremundegui, Haritza Camblong.

Bat-batekoan nolako bertsularia

Ferminen neurtitzen edo errimen hiztegi bat beretzat moldaturik eta memoria ona ukanki, ez zuen neke haundirik errimen atxemaiteko. Nahi ukanez geroz, erdal hitz eta betegarri zonbait sartuz, bertsu arin edo funts guttiko batzuek aise atera zitzaizken. Baina Ferminen beti bilatzen zuen bertsuen bitartez euskara garbian entzulegoari mezu zonbaiten zabaltzea. Ordea, lan horren egitea anitz kostatzen da, eta ez gira beti nahi bezala heltzen. Hortaratzeko, bertsulariak bere buruari baldintza gogorak ezartzen dizkio: azken leerroan agertzen den arrazoinaren indarra, irudien asmatzea, leerro guztien arteko jostura, neurtitzen aberastasuna, doinuaren neurria errespetatzea eta abar.

Fermin bere hurrengo bertsua borobildu aitzin adi egoiten zen bertsulari lagunak botatzen zuena entzuten, eta elkarrizketa errespetatuz, berea araberan borobiltzen zuen, lan horrek bi bertsuen arteko isiltasun apur bat eskatu behar bazakon ere.

Azken hamabi urteetan bertsu-saioetan Mixel Xalbadorrekin eta nihaurekin ibili zen gehienik. Gertatu zen ere Amets Arzallus, Sustrai Colina eta bere herritar Xumai Muruarekin. Lehenago parada asko ukan zuen Mendiburu, Alkhat, Arrosagarai eta Xanpun zenarekin kantatzeko. Xanpun Donibane Lohizunen bizi zen. Gizon gozoa, errotik lagunakina eta omore onekoa izanki, lasaitasun haundiarekin moldatzen zituen bere bertsuak, eta sekula arrazoin txarrik bota gabe, entzulea beti gustura uzten zuen. Funtsean, hortarako zen euskaldunen ganik hain maitatua. Ferminen miresten zuen Xanpunen gaitasun hori. Baina hura ere uste-kabea joan zitzaukun mundu huntarik, 72 urtetan.

Ferminen eta nik Iparraldeko herri anitzetan elkarrekin kantatzeko zoria ukan ginuen. Zonbait ospakizunetan, Abesbatzen Biltzarrean, Baionako eta Miarritzeko Santa Agedatan, Hardoitarrak pilota-batasunaren urteko bestan, Alkartasunaren egunean eta abar. Bertze askotan, noizetik noizerat, Baigorriko Nafarroaren egunean, Ibañetako ekitaldian eta abar. Ukan ditugun gai-emailerik maitatuenetan zauzkan Gilen Zaldunbide eta Manex Pagola, bertzeak bertze.

Ferminen bazakien entzulea aspertu gabe isiltzeko tenorea noiz zen senditzen. Gizon saindu baten pare, ez dut egundaino entzun norbaiti piko txarrik botatzen, ez eta hasarretuta ikusi. Horiek kalitate haundiak dira.

Horiek horrela, aitortzen dut, oreka bat atxikitzen den bezala, gisa hartako kasuetan ausartzia doi bat ukaiteak bidea libratzen diola bertsulari lagunari, ororen buru, hori ere eskertzen duela entzuleak.

Euskal irratiak eta telebista ez baitira bertaratzen bertsulari izenak ospetsuak direlarik baizik, zorigaitzez Ferminen bat-bateko bertsu gutti izan dira grabatuak. Gaineratekoak haizeak eramanak ditu. Liburu huntan agertzen direnak bereizi ditugu, eskuratu ditugunetarik.

Bertsu-jartzaile eta epaile

Gazterik hasia zen bertsu-jarriak *Herria* astekarian argitaratzen. Gehienetan bizitzako edo Euskal Herriko gertakari ezberdiner lotuak, edota berdin alegiazko gai baten inguruan. Edozoin gisaz ere, beti *Fermin* izenpetzen zuen, sekula ez Fermin Mihura. Urgulua eta harropuzkeria ez ziren hark asmatuak.

1986an Euskal Herriko Bertsularien Txapelketa nagusian, Iparraldearen izenean epaile izaita onartu zuen. Hain zuzen, urte hartan epaile bakotxak behar zuen publikoari erakutsi bertsu bakotxari emaiten zakon puntuazioa. Baina erranaldi ezaguna da: buru bezenbat aburu. Ederlan gutzietan bezala, bertsegintzak bai baitauka alderdi subjektibo bat, eta denen gustua egitea ezinezkoa da. Punduak ikustean, epaileer zenbat txistu ez zakoten jotzen entzuleek! Epaiketa-lan hura oso gogorra izan zen Ferminentzat, bertze asko epailerentzat bezala. Funtsean, esperientzia hura ez zen errepikatu hurrengo aldietan.

XXI mendeko lehen urteetan, Urdiñarbeko musikarien egunean bertsu jarrien lehiaketa bat antolatua izaiten zen. Horren arduraduna Dominique Aguegarai laborari bertszalea zen. Urte andana batez Jean-Louis Davant, Beñat Soule, Fermin Mihura eta nihauri egokitu zitzaikun epaile izaita. Gure betiko buruhaustea: bertsu-sail eder haietarik zoin izenda lehen, bigarren eta hirugarren? Gure satisfamendua izaiten zen hiru irabazle izendatuek beren bertsu jarriak kantatzen entzutea. Gure damua eta samina, gainerateko bertsu-jartzaileer zer erran ez jakitea.

Fermin Mihurak aspaldi hartu zuen bere bertsuak kaieretan idazteko ohitura. Bat-batekoen kasuan hauxe nahi ginuke erran: plaza batean kantatuak etxerat sartu orduko beroan bero idazten omen zituela, biharamunaren goaitean egon gabe. Bazuen memoria gaitza ukan gaiaz eta berak kantatuez orroitzeko. Bistan da, bertsulari lagunek kantatuetaz ez zela orroitzen. Beraz, ez gira heiek agertzeko moduan, salbu euskal irratiek grabatu saio bakarretako batzuk. Bertsu grabatuak guri helarazteagatik eskertzen ditugu Beñat eta Marzel Laxague, Jesus Telletxea, Irulegiko Irratiko Peio Soule, eta Euskal Kultur Erakundeko Maite Delia.

Jean-Louis Laka

Hirurogoita bost urte, eta oraino amets bat betetzeko

Hirurogoita bost urte betetzean ere Ferminék bazuen beti bat-batekoan eta bertsu idazteari jarraikitze gogoa. Bazakien ere noizbait lotu beharko zukeela bertsu hoberenen bereizi eta ordenagailuan sartzeari, gero heiekin liburu bat argitaratzeko. Alabaina ez zakien laster eritasunak ametsa betetzerat ez zuela utziko.

Askok ezberdin ikusten dugu
bertsuaren eremua,
baina hizkuntzaren aldetik du
beti hartzen estimua.
Ta nik liburu baten bidez gaur
bota nahi nuke keinua.
Amets eder hau beteko dela
badut sineste fermua.

Arinkeria bakarrik ez da
izanen bertsuarekin,
nahiz goxo den inoiz badugu
gisa hortan irri egin.
Bertze batzutan bihotzak ere
nahiko baitu eragin.
Neureak dion hau partitza
banuke anitz atsegin.

Nere ustean idazlaneko
naiteke oraino gauza.
Nerezkoa dut, buru-lanari
dezaket errexki bultza,
ta eginbide gisa hartzen dut
bihotzak dionaren funtsa.
Gainera, goitik ez datorkita
izar on baten laguntza?

2012

Euskara eta euskal kultura. *Herria* kazeta

Bihotzaren barrenean zeraman Ferminék euskara eta Euskal Herri euskaldunaren ametsa. Behin eta berriz aipatu dauku euskararen kezka eta larria, gure hizkuntzak eta ohiturak iraun dezaten familian eta gizartean, ondorengo saioetan nabarmen ageri denez.

Euskara zertarako?

Euskararentzat batzuek dute
ikuspegia arina,
erdararekin konparaketan
hortxe baitira arrima.
Ongizatean dun balioa
ez dezakete estima.
Horrela dute fite gutiesten
gur'herriaren arima.

Lehiazele dira errotik,
bilatzen dute fortuna.
Zoritzarrean ez dute sendi
hizkuntzan goxotasuna.
Euskarak gaitu anai finkatzen
landuz gure nortasuna,
dirutan ezin baita ordaindu
horren aberastasuna.

Biziak badu filosofia,
zentzua zaio hartzeko.
Batzuren gose klasea ez da
sekula santan aseko.
Bizitzekoa baldin badugu
ez ote estimatzeko?
Eta euskara lagungarri da
hobeki elkar maitatzeko.

Herria kazetan argitaratua,
2012

Haurrak karrikan frantsesez mintzo

Haurrendako normala dugu fantasia,
hola nahi baitute frogatu bizia.
Nahiz euskaraz aski trebe ikasiak,
erdaraz mintzo dira, ai, zer oasia!
Baratzea uste ta izanen sasia.

Etxean ez bezala nahi dute mintza.
Lehen errana dugu, fantasia gaitza.
Jakintsunak balira bezala dabilta,
baina ez du argitzen ez horrek bizi-ta.
Intimitatea ezin horrela zerbitza.

Elkarrekin goxoki dabil haur-taldea.
Mintzairarentzat hoier ez egin galdea,
ez ohartzen erdara ez dela geurea.
Batzutan badirudi hunek uholdea.
Barne gozoarentzat euskara hobe.

Hoiiek ikusiz ez naiz batere poztua,
baina zer ari diren ez dute neurtua.
Eskerrak ez direla ez harropuztuak,
bihar gurekin izan daizke adostuak,
euskararentzat berriz bildurik gustua.

2012

***Bele xuriak* liburua idatzi berri duen Jean-Battitt Dirassarri**

Euskaraz argitaratzen zen liburu anitz erosten eta irakurtzen zuen Ferminék. Bistan da ez zuela huts egitekoa *Herria* astekarian artikulua askoren idazle den Jean-Battitt Dirassarriren liburu berria, ondotik bere ikusmoldea bertsutan astekari hortan berean argitaratzeko.

Jamattitt Dirassar hau da zuzendaria,
bertze frango bezala zein agurgarria.
Berriki idatzi du hor *Bele xuriak*,
eta argitzen daki nehungo beltzuriak.

Satorrak, kukusoak respetagarriak,
nola ikusten duen omen da begiak.
Aberé basak berdin hunentzat garbiak.
Oilategian eman zagun axeria...

Jakitateaz ere zer bide gardenak,
ta ustekabekoak berdin ekarpenak.
Hemen xaharrek aspaldi erraiten zutena:
Eskolatu hoietan tonto haundienak!

Aipatzen duelarik euskara maitea,
errexazaut bai adi-adi egoitea.
Plazerrez hartua dut hauxe jakitea,
euskarak dezakela ireki atea.

Urruñar porru haien erosle noblea,
bere funts bururaino eramane bidea.
Oraino huntaz ohartu zaiken bai, ordea:
Porru buruzuriak buztana berdea!

Doi bat aztertuturikan liburuan forma,
nahiz ta ez den izan barnatze sakona,
gakoa ikustea gauzen alde ona.
Elkartasun hauxe da gure zoriona.

2013-III

Artzain ona, edo zaharra artzain hori!

Ferminen ezaguna zuen Leon Erramouspe pilotari ohia, 38 urtez Bankako apezgoa segurtatu zuena. Hau ez zen Bankako apezetxean bizi, baina han errezebitzen zituen herri-tarrak. Haurtzaindegi bat eraikitzeko apezetxea berritzeko xedea jakinarazi zuten Leon Erramouspek bertsu hauek argitaratu zituen *Herria* astekarian. Zonbait aste berantago atera zen Ferminen ihardespene, eta jendeak luzaz mintzatu ziren bi bertsu-sail horietaz.

Airea: Antton eta Maria

Laurogoita sei urte egin ditut aurtan.
Eskerrak Jainkoari, hemen bainau uzten.
Ene apez-lana dut elizan egiten,
otoitzean artzeak daut indar emaiten. (bis)

Hameka urte ditut ez nizala ertor.
Apezpikuari'tut orain eskerrak zor.
Badakit ez duela ene ordain nehor.
Apezik ez delarik ez ditaike igor. (bis)

Ertor-etxea baitut nik laster utziko,
haur ttipien etxetzat da bilakatuko.
Ez dut deusetan ere plana trabatuko,
sakristian dut apez-lana segituko. (bis)

Sakristian nauzue orain atxemanen,
ene bulegoa dut harat eramaneen.
Eskailerak baitira, kasu dut eginen.
Lanjerra garaitzeko eskuz naiz loturen. (bis)

Aldude, Urepele, Banka ta Baigorri,
Irulegi bortzgarren, lotuak elkarri.
Artzain Ona izena baitzaio ezarri,
ontsa doakiona ardileku horri. (bis)

Noblia, Etcheverry ta ni hiru gira.
Bortz eliza horiek gure esku dira.
Elkar ikusten dugu al bezain ardura.
Bortz herri, baina sosen kexa da bakarra. (bis)

Apezen xuhurtzea denek aipu dute:
Eskas dira, ez baita Jesus aski maite.
Ene partetik ere ez dakit noiz arte,
ezen ditudan gaitzek xahutzen bainaute. (bis)

Maingu eta herrestan nauzue ikusten.
Makila har dezadan dut usu aditzen.
Manu hori segituz naiz orain ibiltzen,
baina ene maingua ez da ez sendatzen. (bis)

Jainkoari galde bat nahi dut helarazi,
anitz urtez oraino hemen nezan utzi.
Orain arte bezela beti uros bizi,
ta zerurat joaitea dezadan merezi. (bis)

Leon Erramouspe apezak
idatzia *Herrian*, 2011

Ferminen erantzuna Leon Erramouspe apezari

Airea: Lurraren pean

Leon apeza, zuretzat badut aspaldiko mirespena,
eta *Herrian* agertu duzu bertsu-sail bat pollit, gardena.
Batetik diozu gaur bezalaxe askitsu uros zarena,
baina bertzetik zombait ernegu, pisua adinarena.
Zer duintasun goxoa gero denean agertzen dena!

Apezetxea berritze hori ote zagon aproposa?
Ez dakit, baina gaurko beharrek manatzen ahal zombait gauza.
Arranguratu gabe halere sendo daukazu bihotza.
Otoitza eta jende giroai esker zindezke urosa.
Opatzen dautzut zorion hortaz luzaro dezazun goza.

Maiz aipatua dela diozu gaur apezaren eskasia.
Hauk dira guti segitzen, baina zein tristea gabezia!
Alta Jainkoa ganik ditugu maitasun eta bizia.
Eta jakinik Jesusendako Elizak dun garrantzia,
kristautasuna ezin da galdu, gaur du pasaia hertsia.

Zangoek neke ukanik ere aitzina bizi gudua,
opaten dautzut izan zaitezen hurbiletik lagundua.
Hainbat prediku badukezu bai zuk esperantzaz ondua.
Ta egun batez nahiz ta utzi beharko dugun mundua,
gu baitan dagon bizi-pindarra ezin daike ilaundua.

2011-XI

Saietarik jendeetara

Peio Jorajuriak *Herria* astekariaren editoralean moldatu zituen bertsu batzuetarik ukan zuen abiapuntua bertsu-sorta hunek, saiak farandolan, hain xuxen.

Lehengo batez *Herrian* sai gaiztoen berri
Peiok bertsutan arras argiro du jarri:
«*Behiak aratxe bat mundura ekarri...*»
Harrapariak laster baitziren etorri
ahulak garbitzera, lurra utziz gorri.

Arrain haundiak omen du ttipia jaten.
Aberre gaiztoek zer nausitasun duten!
Jendetan berdin dela baitute erraiten.
Aburu horrek zenbat duen bai irauten.
Gaur horren kontra egin nahi nuke azalpen.

Batek irabaztea bertzea mendratuz,
molde onena ez da, errex daike ikus.
Goiz edo berant baita bertzea mendekuz
altxatuko, amorru biziena hartuz.
Halabeharrez lehena bortizki zafratuz.

Hunen alternatiba on da orroitzea.
Zorionez badaike elkar ulertzea,
bortizkeriz ez ote daukagu ase
batek irabazteko bertzeak galtzea?
Azkeneko denentzat da odoltxartzea.

Erasoaldietan egonikan bare,
nahiz behartuko den pazientzia ere,
mespretxuen parean jo duintasun alde.
Eta giroa itzul daike, alafede,
bide bat aurkitzeko nehork galdu gabe.

Jendea joka bedi bai jendetasunez.
Posible da joaitea manera txukunez.
Saiarena baztertu borondate onez,
iturri onetik haziz, hori ahal dugunez,
gehiago irabazten baita maitasunez.

2009-IX-10

***Herria* kazetaren edertasunari**

Azken urte hauetan, *Herria* hamasei orrialdetako astekaria bilakatua da. Gaurko mendeak eskatzen duen bezala, artikulak argazki frangoz beztiturik agertzen dira.

Gure begiek miresten dute eguzki eta izarra.
Berdin miresten mendi, itsaso, urrea edo zilarra.

Edateko den ura,
estimatzeko ardura
ta beharrezko sugarra.

Pentsa zer daiken kreaizaileak daukun maitasun ederra!

Margola bati begi zabalik pausatzen diogu soa,
ta musika bat ozen entzunik alegrantzia jasoa.

Berdin zizeladura,
ai, nolako itxura,
hola artisten kasura.

Ez dea eder hoiengatik langintza ta duten barneko sua?

Edertasunez jauntzirik dago segurki Euskal Herria.
Dantza, jauziak, pilota, kantu... Guretzat ez da berria.

So egin ikurriña,
pollita eta fina,
gora bedi ezarria.

Perla ederren bat dugularik euskara maitagarria.



Fermin, artzain-xakurren lehiaketa bat aurkezten.

Gu ere hola moldatzen gira gure bertsuen lanean,
zerbait atsegin banatu nahiz ingurune zabalean.

Bada zombait abisu,

baina ote askitsu?

Konprenitzeko denean

edertasuna dei bat dugula maitasunaren bidean.

2003-X-30

Aire ahizpak kantari Ortzaizen

Xalbador zena mundutik joana

gaurkoan ere domaia,

trixturatikan ateratu ta

jarri baitzaiken alaia.

Hemen kantari Paxkalin, Miren,

hirugarrena Amaia.

Hauek bai segur ein dezakete

beren aitatziren nahia.

Moldatu dira hiruen arte

eta talendu gaitzeko.

Zerbait behar du uda guztia

bestaz besta ibiltzeko.

Hau ikusirik guk Xalbadorri

berriz mezu bidaltzeko:

Pinddar bat deno Euskal Herriaz

ez dugula etsitzeko.

Sortu duzue zaletasuna
ta sortu alegrantzia.
Fruitu ematen nola ari den
gaur Xalbadorren hazia!
Konplimendua zinez zinuten
errotikan merezia.
Zuen kar hortaz kutsatu bitez
hemen euskaldun guztiak.

Oraino ere gustu izanez
joka zaitezte kantari,
gaur entzulea gustatu dela
horixe baita nabari.
Baina, jakina, berez ez da sortzen
daukazuen grazi hori.
Orain txaloak jo itzazue
hauen aita ta amari.

1994-IX-25

Hiztegi berria Xuberotik jalgia

Ferminek euskal hiztegi gehienak eskuratuak zituen. Xuberoari ere atxiki baitzen, frangotan entzun dakogu erraiten hango jakintsun haundienetarik zeukala aita Junes Casenave Harigile. Pentsa hunen hiztegia untsa ikertu zuela.

Gure hizkuntzak duen altxorraz jasorik zombait oharpen, amestu izan dut aritzea inguruan erakasten. Gainera gaurko erabilpena nola arras garbi ez den, erdarazko hitz mamu batzuek baidatoz bazter nahasten. Horien aurka hastera noa hiztegi baten gorensten.

Hiztegi hauxe gure baratze huntan landare berria,
bere egile suharra dela xiberotar ekarria.
Urtetan zehar batzuek nola dakiten lantzen harria,
hunek hogoita hamairu urtez, oi!, zer lan izigarria
ibili duen bil eta xorrotx euskarazko hitz garbia.

Frantsesetikan euskararako nahiz ez izan bakarra,
liburu hunen mamiak badu nonbait bertute ozarra,
erdarak utzi kutsu lizuna garbituaz barra-barra.
Ta euskarari barnetik kenduz sarturik zagoen harra,
hitz-erro zaharrak hartu ta jauntziz hemen da uzta ederra.

Guti erabilitako hitzez ederra dago zatia.
Lehen guretzat ezezagunak, orain zoinen egokiak!
Hitz berrietan ezagun berriz jakintsunaren hunkia.
Martxa hunetan ez gindaizkela luzaz egon lotsatiak.
Erakaspenez beteta zagon Xuberoko euskalkia.

Euskal Herrian har bat badago ari dena desmasian.
Eskolan haste, kale, baserri... Ahal duen leku guzian.
Guri bai kosta adierazpenak hitz teknikoen sasian.
Hainbat euskaldun erdaraz mintzo ari gabe fantasian.
Oi, zer herstura ta behartzea jakitate eskasian!

Atseginekin eta jostetan gaur ikertuz hiztegia,
euskararentzat ari zait beti doi bat hobetzen begia.
Dakit anitzek hor miatuko dute berentzat argia.
Irratilaria, idazlariak, ikasle, bertsulariak...
Orroitz aita Junes ez dela izan langile nagia.

Gizon jakintsun ta baliosak ardura dira apalak.
Gaur aipu dutan jaun hunekin ez daiteke izan bertzela.
Apezgoaz gain herriarentzat da zerbitzari leiala.
Orroit hogoita hamahiru urtez Kristoren bizieta zela
aita Junesek denbora hortan jalgi hiztegi zabala.

Zazpi anaien zerbitzurako liburu hauxe dagonez,
jakingo ahal dugu barnatzen bakotxaren gogo onez.
Gidari suhar, kartsuak segi dezazkegu zorionez.
Biharkoan da gure esperantza, gaurko sailetan iraunez.
Zerbitzu miresgarriarentzat esker mila, aita Junes!

1990

Edertasuna

Bertze guztiek bezala, bertsulariok ere gure begiekin miresten
baitugu Euskal Herriaren edertasuna, bertsuka lehiatzen gira
hori ahal bezain ongi erakusterat. Horretan ahalegintzen zen
Fermin.

Gure begiek miresten dute eguzki eta izarra.
Berdin miresten mendi, itsaso, urrea eta zilarra.

Uraren eragina
dugu gauza bat fina,
eta oraino sugarra.

Hoiek guztiak banatzeko zuen Jaunak maitasun ederra!

Margolan bati hain goxokiro pausatzen diogu soa,
ta musika bat ozen entzunik alegrantzia jaso.

Berdin zizeladura
hortan hainbat itxura
artixta onen kasua.

Edertasuna guri eskaintzeko dute barreneko sua.

Edertasunez jauntzia dago segurki Euskal Herria.
Dantza, jauziak eta pilota ez dirade ez berriak.

Ta bertan ikurriña,
airos eta arina
aurrean da ezarria.

Ta edertasun-eredu fina euskara maitagarria!

1994-XII-25

Herriaren besta

1994ko larrazkeneko igande batez *Herria* astekariak Baionan ospatu zuen bere 50. urteurrena. Meza San Andreseko elizan izan zen, eta bazkaria Moderne trinketean. Ferminenk eta Iparraldeko bertze bertsulari multzo batek bertan parte hartu zuten.

Elizan kantatuak:

Ongi etorri, anai-arrebak, San Andresko elizara,
besta eder bat ospatzegatik multxo nasaia bagara.
Ta jaun apezpikua
dugu agurtzekua.
Emaiten daukun bultzada
kartsutasunez nola ez aurki guk saildutzeko parada?

Bihotz guztiaz hasiak gira hemen euskaraz kantari,
meza sailduak zero ta lurra gero juntatzen elkarri.
Ta *Herria* kazetan
diren idazkietan
herri-bizitza ageri.
Ditugun poz ta penak ditzagun eskain zeruko Aitari.

Bazkal-denboran kantatuak:

Berroita hamar urte ospatzen, eta Modernoan punpa.
Janari goxo frango badago ta edari on hurrupa.
Bertsulariak beti oihuka dezake euskara aupa,
eta *Herria* izango dugu hau salbatzeko txalupa.

Lehen aurkitu izana dugu holako zombait gai pollit.
Lafitte kalonje zena dagoke guri begira zerutik.
Hura zen euskaltzaina,
zinez gizon bikaina,
herrian Piarres Lafitte.
Hari eskerrak daukagu bada oraino *Herria* xutik.

Harek zakien ongi osatzen berdin mami ta azala,
eta lanean hain jarraikia zen xinaurria bezala.

Zer jakintsun haundia
ta nortasun-haria,
baina izaitez apala.

Larrek ziona, gainean dugu gaur segur haren itzala.

1994-XI-27

Ezpeletan *Herria* kazetaren biltzarrean kantatuak

Fermin Mihura Azkaingo berriketaria baitzen *Herria* kazeta-
rentzat, Ezpeletan iragan urteko biltzar nagusian eta bilku-
ratik lekora bazkarian ere parte hartu zuen. Eta ondorengo
bertsu hauek idatzi zituen gero.

Komeni bada, jaun-andereak,
huna bertsozko zombait hitz,
gaurko biltzarre loriosa ez
dadien gelditu murriz.
Herriaren goresteko ez naiz
sobra osaturik mihiz.
Bertzalde, berriz, euskararentzat
bada arrangura anitz.
Jakin gibelo izanen zela
Herria izan ez balitz.

Aitor dautzuet, elkarte hauxe
zeraut hain maitagarria.
Zuen lumaño hoiekin berriz
artikulu pizgarriak.
Kostarik ere, ai, zer gustuaz
ixuriaz izerdia!
Ogia bezain beharrezko du
idazki hori herriak.
Euskara eta *Herria* bitez
euskaldunen lokarriak!

Laurogoita hamalaugarrena
da urtealdi izarra.
Berrogoit'hamar urteen gainetik
kukurruku deiadarra.
Hemendik agurtu dezazkegu
hegoa edo iparra.
Ta bertzaldiko gure andreak
'tugu komita beharrak.
Hola doblatu laike errexki
gure *Herriaren* indarra.

1994-III-19

Euskaldun Gazteriaren egutegirako

Zonbait hamarkadaz *Euskaldun Gazteria* elkarteak argitaratu ukan du egutegi bat. Eta sarri bertsuak galdatzen zauzkiguten Iparraldeko bertsularier. Urte ezberdinetan Ferminék idatzi hauentzat bezala, batzuetan gaia emaiten zaukuten.

Pariseko orroz

Denen aho-mihitan baita Roland Garros,
telebistan ikusiz ez zaigu ez arrotz,
teniza bertzerik ez baita egun oroz.
Asetzen gaituzte hor Pariseko orroz.
Euskaldunek pilota maiteago gogoz.

Amarentzat ukanik estimu gorena,
zenbatek hori ezin aitortu, zer pena!
Hitz goxo eskaintzea dener ez emana.
Lore-sorta hartzean zuk pentsatu, ama,
dela sentimendu bat gehio dirauena.

Gizona ta txoria ez daizke konpara.
Halere mezutxo bat heldu da gutara.
Herran bizitzeko gu eginak ez gara.
Hobe barnez bagina txorien gisara,
maitasuna gozatuz hartzeko patxada.

Dirua eta patxada truke nortasuna daike saldu,
Aberri-hitza baztertu eta hizkuntza ere apaldu.
Amets gaixtoak jotzean bihotz argiak oihuz dihardu:
kanpokoekin ongi izaiteko etxekorikan ez galdu!

Gure auzoan euskaldunentzat beldurtuak omen daude.
Gizaki salbai jasangaitzak ta nonbaiko lehoinen pare.
Aizu, kargudun frantses, zu zare euskaldunen adixkide.
Errozute garela Europa ta irekiduren alde.
Euskal Herria osa liteke Frantzia apurtu gabe.

Abertzaleen ikuspegira batzuk ez nahi hurbildu.
Ezin konpreni herri-amets bat nola daiken biribildu.
Ikus bezate kanpotik dela guretzat on guti heldu.
Hobe norberak maitasun eman eta zoriona bildu.
Hori bekatu ez da izango, ez bedi nehor kixkildu.

Politikako ele zuriez bortzetan gira ilusi.
Hitz ederrak bai aldiz ekintzak sanoak guti ikusi.
Euskara bera hameka bider nahi ukan dute irentsi.
Ta bizipide hortan berean zer jokamolde itsusi!
Hemengo frango Parisen mutil, Paristarrak hemen nausi.

Kultura eta fede bizia elkar ontzaile direla,
Aita Sainduak du ateraldi hauxe botatu hunela.
Kultura batek Eliz osoa dio aberasten duela,
eta hizkuntza baten galtzea Kristorendako goibela.
Nork uste Aita Saindua ere gure aldekoa zela!

1992

Gerla edo injustizia

Bortizkeri ezarekin badu kristau finak aski auzi.
Bake-mezuan finkatu nahi ta bertan zenbat injustizi!
Herria defenditzera baldin badoa arma ta guzi,
maitasunaren manu onari ezin dio berriz eutsi.
Europarekin irtenbidea ahal bagineza kausi,
gizatasuna bertzerik ez du Jaunak nehoiz erakutsi.

Ene maitea, beti maiteko zaitudala dizut zina.
Zutan sarritan gozatua dut nere bihotzaren mina.
Beti zurekin ezin egonik, zer amets ez dut egina!
Bakardadean dagon gizonak ere zutan atsegina.
Bide galduko gau illunetan zaitut oskarbi urdina.

Alde batetik poza, bertzetik nigarra,
nortasunak emaiten du barnean garra.
Baina euskararentzat eske joan beharra.
Laster nausitu bedi arrazoin-indarra,
barnez gaztetu dadin Euskal Herri zaharra.

Lana

Nahiz umorezko kontuak diren langile ta alferrenak,
denek dakigu ba lanarekin gorabehera dagoena.
Eta nork asma garai batean gaur orok badakitena:
Lana bilatzen izango zela gaurko lanik haundiena?

Ogibidean lan behar hori Jaunak jarri zuelako,
jardunaldia gizonarentzat on da dohainen hazteko.
Baina lanean itotzea ez daike bere onerako.
Nahiz izerdia bota, burua altxa bizitzekotz bapo.
Lanaren auzian lehentasuna bedi presunarendako.

Batzuk euskara jakinki eta zergatik ez duten mintzo?
Bihozdun dena penaz egoiten egunero horrier so,
hitz erdaldunak ezin itzuliz nozbait lotsaturik oso...

Euskalki arteko pauso

berdin iduritzen faltso.

Mintzaira landu eskasak dauku sortzen hainbertze arazo.
Idazlariak hoiek gaindituz badauka zorion gozo.

Bazko

Pobre, umil, apalik, oi, nola hasia!
Kristoren bizitza bai aski nahasia.
Mirari denengatik zen hilarazia.
Baina nausitu behar halere biziak:
Herioan garaile munduko Nausia!

Ebanjelioko hitza bada nehork ezin erran omen
zeruetako erreinuaren parabola hau nola den.
Tratulari bat gau eta egun perla bilatzen zebilen,
denak saldurik hau erosteko behin kausitu ondoren.
Baina delako tratularia apeza bide zagoen.

Oihanak beztiturik zoin eder berdura,
pentzetan loreak jin ekarriz freskura.
Txoriak ttinttetan dabilta gustura.
Hara, urrundu zaigu negu garratz hura.
Primaderak bultzatu gaitzala kantura.

Presunena deus ez dela norbait orroitzen ez bada hartaz,
zer erran daike orroitzen garen gerlako gure hilketaz?
Hainbat gudari bertzalde joak hemen gaztigu apartaz.
Hobendun daizke urrun joanik herri-maitasun ausartaz.
Ekaitz zitala errexitzeko Jauna bakarrik da kapaz.

Oi, laborari, zutaz naiz gogoetan ari.
Europaren garaia ez da beti argi.
San Isidro zerutik begira da zuri,
ez dezazun, ba, jasan sobera miseri,
anitz hartzen baituzu emanaren sari.

Baigorrrin urteroko ohitura dagonez,
artzain-xakur jokoan betea lagunez.
Xakur maiteak dabiltz denak begirunez.
Jabeak berriz xerrent ez manu illunez.
Hor ere gehio lortzen baita maitasunez.

Emil Larre jaun erretora bat, Izeta jauna hurrena.
Omentzen dugun hirukotean bertzea Hernandorena.
Bertsuzaleak amorratuak, ta langile dotorenak.
Erleen gisa egin lan horrek zer fruitua dakarrena,
bebingoan harrotzeko're jakin motiboa duzuen!

Udatiarrekin dena ez dago itsusi.
Plaian lore pollitak ta erdi biluzi,
gogo onez gorputzak nahiz erakutsi.
Gure bihotzik behintzat ez zazue ebatsi.

Liburu Feria da Saran jiten ontsa,
erakusketa eder bat nola den bultza.
Ahozko mintzo hutsez gaur anitzen lotsa!
Ez bezate gutiets idazki-laguntza.
Indar einez daiteke salbatu hizkuntza.

Larrazkena badugu mozkinen denbora,
bizikizunez dago gizona're gora.
Zahartu dela ez beza beti eman gogora.
Badauka non zerbitza eta non zer obra.
Ariketen medioz fresko egongo da.

Gure artetik lagun onenak joatea zen deitoratu,
baina herio illuna ere Kristok zeraukun garaitu.
Hiltzearekin bizia, beraz, ezin daike bururatu.
Hemen balire bezala zagun sainduen besta ospatu.

Egunak labur, izotz ta elur, neguak dakar okerrik;
haize minduan ta euritean behartzen da supazterrik.
Izadiaren orekan dago eginta ere nigarrik.
Funtsean nola guk estimatu udaberriko ederrik
aitzinean ez baginu jasan negu zital ta kaxkarrik?

1992

Sarako liburu-feriatik

Bertsularien Lagunak elkarteko lehendakari zen denboran, Fermin Mihurak elkartearen liburuekin salmenta-mahai bat atxikitzen zuen pazko astelehenez izaiten den Sarako liburu-ferian.

Airea: Oihan beltzian

Elkarretaratze bat iragan dugu zinez pozgarria.
Eskertzekoa lehenik Sara, zoin herri maitagarria!
Aberri-egun hori iragan ordu, liburu feria.
Nork erranen du ez dela gero martxan gure Euskal Herria?

Liburu berri, liburu xahar, ai, zer parada laketa!
Idazlearen ezagutzeak errexten du gogoeta.
Hortaz konturatu ditaik ibili den jendeketa,
irakurtzea gaur egunean hain beharrezkoa baita.

Mundu berri bat jalgi ditaik segurki're liburutik.
Idazlearen izarra, otoi, ez baztertu ingurutik.
Bortizkerian gehien-gehienek ezin konprenitu tutik.
Herria salbatzekotan pasa behar du izpiritutik.

Baxenabarrek, Lapurdik eta berdin gure Xuberoak,
lore ederrez hornitzen dute oraino euskaldungoa.
Kontzientzi bat apalxko dela, hori erran gabe doa.
Halere, hobe antolatzea anaitasunez giroa.

Arbason ganik ditugun erro hoiek ezin daizke bazter.
Liburuetan doi bat ikertuz beha zenbat gauza eder.
Kontzientzia nola sortu ez bada kulturari esker?
Bide hortarik asma nezake batasun-indarra laster.

Nahiz ta giza eskubideen kantua ez den gaurkoa,
gizona ganik bereizi nahi lukete ingurukoa.
Gure nortasun eta euskarak die erakustekoa
mugak direla jendek eginak, herriak aldiz Jainkoak.

Gernikan dagon arbol sailduak badauka bere grazia,
herri-maitasun berroz orratzen baitaiku bihotz guzia.
Liburugintza, dudarik gabe, haren fruitu berezia.
Horreri esker guk berpizteko gure zazpi probintziak.

Idazle lagun, dener dautzuet bihotzez nere agurra.
Bide guti da, egia erran, zuena bezain zuhurra.
Biba Sarako herria, baitu goraltzen euskal kultura!
Gora idazle buruargiak ta euskal literatura!

1988-IV-5

Bat-bateko bertsularitza

Ikusiz jendeek poz hartzen dutela guk moldatuko bertsuekin, nolazpait neuk ere parte hartzen dut giroaren berrotasun hortan, eta diot hortako bereko balio duela bertsulari izaitea.

Bertsularitzak berekin izpiritu bat badauka, edo filosofia bat. Hortan ongi egin nahiz indar egiteak satisfamendu haundiak ekartzen ditu entrenamenduan berean. Eta ez da bakarrik edo baitezpada ondorioa edo kalitate-maila konda. Bertsulari bezala ez bada, bertsuzale bezala bederen, gozatzon gare eta horrek niretzat anitz munta du, batere urrunago joan gabe ere.

Indar egin gabe ez baita abantzatzen, gutien bat eskatu behar zaiote gazte hoieri, baina gero nere ustez eskolako lanean baino anitz libroago utzi, bakotxak bere neurria har dezan.

F. Mihura, 1996

Xahar-etxean sartu eta gero berriz ikasten hasi

Gure ustez, hurrengo hiru hauek bertsu jarriak dira, bere etxean idatziz moldatuak. Interesgarri zitzaiokeen aski goiz pentsatzea xahar-etxean ere bertsuak kanta zezazkeela, egun batez han sartzera behartua izaiten baldin bazen ere.

Xahar-etxean dira
hunetaz harritzen,
ikasten nola dutan
aitzina segitzen.
Bizitzan bertsulari
atera bainintzen,
usaia honen galtzea
laiteke murritzen.
Joko huntan ikastetik
nehoiz ez da gelditzen.

Xalbadorren bertsu hau
zitzaidan gustatu,
gogo bihurria ezin
nolanahi gozatu.
Zerbait horrelakok nau
ni ere kutsatu.
Bake geldoan ez naiz
sekula usatu.
Katzakatu ta gero
eginen dut kantu.

Bertsularia hemen
naiteke bakarra.
Hargatik, otoi, ez jo
gaur neri adarra.
Ikas ta irri egin,
ez dea ederra?
Bihotzean dakarkit
bai bizi-oldarra.
Hunen bidea beti
da landu beharra.

2012

Trakeskeriak

2010eko Bertsularien Txapelketa Nagusiko finalean entzun zuen zombait esaldik arras mindu baitzuten, honako bertsuak paratu zituen berehala, bere barreneko mina erakutsi eta hizkuntzaren erabilera zabarra salatuz.

Iragan Bertsulari Txapelketa hori,
plazer egin duena euskaldun askori,
baina hizkuntza aldetik zenbat trakeskeri!
Iparraldetik behintzat ezin ongi segi.
Erdarak sartu dio mamu beltz gehiegi.

Emozionantea, hau adibidea.
Guapo ta Espuela, ai, zer kolorea!
Hola engainatu nahi ote da jendea?
Epaimahaiak libro uzten du bidea.
Garbizaleentzat hau da gusturik gabea.

Koblariak eredu behar luke berez.
Gipuzkera, batua, ulert daizke errez.
Hemen orroitzen gira Xalbadorrez.
Batzuk diote: *egon ziteken haserrez*,
euskara aurkituko baitzuen nigarrez.

Gero jinen ahal da berriro argia
hobea hel dakigun bertsu-loraldia?
Kontzientziaz joka bedi koblaria.
Herriaren galdea da hemen nabaria:
gustu onagatik eman euskara garbia!

2010-I-25

Mezulariak eta txantxalariak

Nahiz eta bazakien ez dela beti errex hortara heltzea, Ferminen ikusmoldea zen bertsulariak nehondik ahalaz mezulari ere izan behar lukeela. Hots, egiazki senditzen eta pentsatzen duena kantatuz behar duela saia. Alegiaz aritzea ez zitzakon hainbertze gustatzen.

Bertsuz jendea argitze hunek funts onikan baldin badu, bi ikuspegi aski desberdin nahi ginituzke azaldu. Bertsularitza alde batetik nahiz ez den bate maingu, txantxalarien emaitza soilik nolaz ohi da zabaldu?

Filosofoaren begitikan izaitearen fruitua. Bertzerik ez den bertsua da maiz bertze gisan sesitua. Kirol-arloan sartu nahi da koblarien predikua. Distira-gose denak galdetzen: nor izan da saritua?

Izan-ukanak bereixteko on Xalbadorren hau iduriz:
Euskara goxoz mintzatze hutsa bizipide ona balitz, naski, erdaraz ez genituzke gehiago entzungo lau hitz!, baina baldintza gehiegia da hau hizkuntzarentzat egiz.

Hainbat lehia ta txapelketa ohi dirade antola...
Ez dugu erran nahi artetan beharrezko ez dagola.
Baina ez zaigu hau arras zuzen bertsua denik kirola.
Ukaitearen arloan ezin da osorik sar nehola.

Zerbait gehiago esplikatzeke jo zagun poesiara, frantses idazle Teophil’Gauthier hurbilduz doi bat hunara. *L’Art pour l’Art* molde bereziaren bultzatzaile izana da, zerbitzurik deus ez duenari hartuz ederraren kara!

Horren parean ezar dezagun bertsulari txapelduna, duen trebetasunarendako guztiz miresten duguna, baina jendea argitzerikan ez dagoela diona. Bere ustean entzulea da bera bezain jakintsuna.

Baina segidan zuzen dezagun sortu gabe arazoa.
Bertsularia kantari bat da, gainera umoretsua.
Gutienean ohoratzen du gure hizkuntza gozoa.
Txantxalari bat izanik berdin badu bere zerbitzua.

Hori erranik, gatozen berriz txantxalarien harira.
Gustaraztea gustatzen zaio, ahal guztiez ari da,
finki plegatuz jendeak entzun nahi duenaren neurrira.
Bertze helburu izpirik gabe, baizik plazako distira.

Txantxalariak hobe du izan ateo bat finitua,
zentzu ttipiko arinkeritan ahalaz atrebitua.
Etika kontuetarik urrun, haize alde ohitua.
Erradazue gisa horretan non dagoen meritua.

Bertze ikuspegi batetik joz, Boileau hartuz eredutzat,
gure iritziz diferenteak gerta daitezke emaitzak.
Lehenik berdin, agradatzea ere kausituz behintzat.
Hunek jendea argitzea're zaukan bere helburutzat.

Eta berriro balia gaiten, bai, Xalbadorren argiaz.
Aholku batez hauze zion: *ez ari beti alegiaz,*
bakotxak frango ekar dezake lekukotasun garbiaz.
Fidatzekoa badago, naski, Xalbador mezulariaz.

Gaurko mundua ez urosena egin daiteke oharra.
Miseri frango badago, eta nonahitik deiadarra.
Izpiritualtasun-gosea ere zerbaitek dakarra.
Mezularia sendoa bada, badago horren beharra.

Ez pentsa gero besta batean hau ez denik hainbat trebe.
Bertsu onaren giltza duenak eskutan bere botere.
Kantitatea doi bat baztertuz kalitatearen alde,
txantxetan ere hor ariko da nehoi zorrikan gabe.

Gure aburuz mezularia gora daiteke ikusi,
baina haizean doan jendeak nahiago hau bazter utzi.
Horrek ez dio bate axola, nola berez dun maiz kausi.
Barnez dago hain zoriontsu, ta bihotzak egiten jauzi.

Adarra jotze apur bat ere normal zen sartzea hunat.
Bide hortarik ez ote doaz maiz koblarrien jardunak?
Izan klase bat edo bertzeko, denak ditugu lagunak,
ta jarraileak bitez artistak diren bezain bihozduinak!

2004-II

Donostian telebistatik

1992ko urtarrilaren 19an, Lapurdi, Baxenabarre eta Xubero-
roko txoko guztietara ez zen heltzen ahal Euskal Telebista
eta, beraz, igande arratsaldetan Joxerra Garziak kudeatzen
zuen *Hitzetik hortzera* emankizuna ez zitaikeen ikus. Hortaz
ari zauku azkaindarra.

Iparaldeko bertsu-gurdia
nola ez jalgi argira?
Ez pentsa gero erori denik
dena gainekoz azpira.
Plazetan jende gutixko bada
heltzen saioen erdira,
airean dabil errex bert sua
irratitik irratira.
Etxetik irten gabe milaka
gozatu ohi baitira.

Halere, pozik gurekin datoz
gaur bertszuzale kartsuak.
Bertzalde Alkhat ta Arzallusek
haurreri hedatzen sua.
Hemengo bera dauka han ere
bertsuak bere mezua,
euskaldungoa lagun artean
daikela parabisua.
Hori erakusten telebistatik
Joxerra dugu maixua.

Tamalez denek ezin ikusi,
hori da penagarria.
Irakurgaiak aldiz ditugu
Herria, Egunkaria...
Ta borondatez gainez badaude
bertako bertsulariak,
bide hertsian doala gurdia
mementuz da nabaria.
Nere ustean falta zaizkigu
Hernandorena³ berriak!

Aiziritzen

Beñat Laxaguek antolatu bertsu-saio batean, 2005-X-9an, Mixel Itzainak honako gaia eman zakoten: Internet bidez Martinikako neska batek atxeman du bere senargaia. Fermin Mihura neska Patxi Iriart mutikoarekin harremanetan hasi da nolakoa den erranez.

³ Teodoro Hernandorena, Iparraldeko bertszolaritzaren eragile 40. hamar-kadan.

Mihura:

Internet hunek nola baduen alimaleko gradoa,
zerbait gehiago, mutil, zurekin nonbait frogatzera noa.
Euskal Herriak guretzat ere badu fama arraroa.
Ea, neskatxa, kunplitzen dugun elkar ikuste-gogoa.

P. Iriart:

Ni ikusita nolakoa naizen ez duzu hartuko pena:
begi makurrak ditun mutila, hortzak hala dituen.
Baina ez zaite bate kexatu, ez laike bate zuzena!
Niri amak beti hala erran dit: Patxi, hi haiz ederrena.

Mihura:

Hori entzunda doi bat ttipitzen zaut lehenbiziko presa.
Halere egun elkar'kustea izanik gauza errexa;
ederrena zu nonbait halere, horrek badu interesa.
Nire aldetik pollita nauzu, bakarrik kolore beltza.

P. Iriart:

Izan behar zira neska goxoa, ederra eta epela.
Kriterio hoiek bete itzazu, ez zaitut hartzen bertzela.
Kolore beltza ez zait inporta bertze jendei bezela.
Jakin ezazu amodioak kolorerik ez duela.

Eta bertze gai bat: Baionako apezgai-etxea hetsi dute.
Hamar urte huntan ez da izan apezgai euskaldun bat se-
minarioan sartu denik. Zoin da arrazoina, eta bihar apezak
nahi baditugu ukan, zer da aterabidea?

M. Xalbador:

Elizaren aldera guk bai eginbidea,
baginuen baina da hau ezin betea.
Eta gainerat ahultzen ari da fedea.

Mihura:

Eliza dugu beraz apalxko jarririk.
Aspaldi ez dagola apezgai berririk.
Lengoek eman ote hor aski argirik?

Laka:

Gizartea delakotz osoki aldatu,
behalako plazerrer nahiago behatu.
Hortakotz Eliza da langilez gabetu.

M. Xalbador:

Trantze triste hau zauku gaur jina holakoa.
Denbora batez apez zena zen bapoa,
baina orain nunahi ere bada oilaskoa.

Mihura:

Oilaskoarena ez daike aski fina.
Gaur egun ez bilatu behar atsegina.
Apezak ezkongabe, hori da ezina.

Laka:

Nahiz hainbertze jende den bai goseak hiltzen,
oilaskoaz bakarrik bat ez da asetzen.
Jendearen bihotzak bertzerik galdetzen.

M. Xalbador:

Gai hunek guri bertzerik galdatzen ordea,
ta erantzutea da gure eginbidea.
Beraz, pentsa zuek nun den aterabidea.

Mihura:

Beraz, joanak dira apez-fantasiak.
Aterabide hoiek ez ordea jautsiak.
Emendatu beharko bai irabaziak.

Laka:

Irabazien hori bakarra ote da?
Apez berriak nahi badira atera,
beharko ginituzke utzi ezkontzera.

M. Xalbador:

Ezkontzea apezeri, beraz, nola galda?
Hori galdatuz ere bada zerbait traba.
Bertzalde ezkonduatarik jada aski bada.

Mihura:

Diozu ezkonduarik hor badela aski.
Baina hortik hasiko laiteke preseski.
Seminarioa idek laike bereziki.

Laka:

Arazoari hartu behar zaio aurre,
hortakotz jarri gabe sekula haserre.
Lana egin dezala laikoak ere!

Ondoren bertze gai hau jarri zaukuten: Fermin artzain-xakurraren jabeak sari asko irabazten ditu. Baina, sarien ordainez zer emaiten dakozu Mizel Mateo xakurrari?

Mateo:

Hasiak dira beraz gu bien aferak?
Txapelketa badoa enekin onerat,
sariak irabaziz hainbat eta hainbat.
Gehienik jaterat emaiten daut berak.

Mihura:

Jaterat ta ez kontent, horretaz estona
daike bada nausia jabea dagona.
Niri esker baituzu hor daukazun forma.
Azkenik irabazi erramu-korona.

Mateo:

Nahiz eta gizon hau den frango arraro,
medailak ditu hunek etxean oparo.
Segur medaila duela askoz nahiago.
Hura perekatzen du ni baino gehiago.

Mihura:

Sobera pereka ez emaita hobe,
bertzela xakurra da jarriko herabe.
Oraingo moldean hau nola dugun trebe,
zaude kontent eginaz gizonaren pare!

Mateo:

Nahiz eta xakurra den forma onenean,
gauza gutti ukaiten du xakurrak lanean.
Ta bera ostatura joaiten denean,
ni beti utzi behar omen nau kofrean.

Mihura:

Gaur hunen mespretxua da aditzekoa.
Finak ditu burua ta berdin lepoa.
Beti emaiten diot atsegin nahikoa
Bertzela sortzean zen hau itotzekoa.

Bertze gai bat bakarka kantatzeko: Azken denbora hauetan emendatzen ari dira kamikaze delakoak zapartagailuz bete zakuarekin beren burua zapartarazten dute ahalaz jende anitz den lekuan.

Mihura:

Mende berrian emendatu da kamikazen ibilera,
mundu osoko terrorismoa hortaraino baita lerra.
Beren ustean omen dabilta justizia egitera.

Zer filosofi jarrera
ekarri nahi gutartera!

Bitartean da hauen jarrera joana bide hitsera.
Sendotasuna nahi badute, nolaz doatzi hiltzera?

Palestinan ta Iraken gaindi ikusten da holakorik.
Beren buruaz bertze eiteko ez da faltatzen erorik.
Nungo ximistak ote ditu ba horiek buruan jorik?

Alá! goraki deiturik,
kontzientziz gabeturik.

Debruak baitu, naski, izango sarraskirako gogorik.
Maitasunaren uhinez kanpo ez daike finka Jainkorik.

Jendeen bizia sakratu dela, hori ahantzia dute.
Itsuskeririk beltzen hori da deitzen dutena bertute.
Nago bai Kristok bezala lehenik sufritu behar balute
martir gutiago laike.

Ez da dudatzerik bate.

Ta bistan dena, manatzaileak daudela beti aparte.
Bakerik ezin da izan denek maitatzen ikasi arte.

Bertze gaia bat bi-bitarako: Ferminen badu etxegintzarako
lur bat salgai. Kanpotiar batek gaitzeko eskaintza egin dako,
baina Patxi Iriart Azkaingo gazteak ere erosi nahi luke.

P. Iriart:

Orain duzulakoan zuk tratularia,
hark ez du izan behar hain irrigarria.
Neri saldu zaidazu, hau dut igerria.
Gelditu behar baita hau Euskal Herria.

Mihura:

Eskaintzaz hain ederra daukat nik arrotza!
Hor ere ikusten dut ba gaitzeko funtsa.
Gehiago egiteko hori salduz untsa,
gero semeendako daukat horren sosa.

P. Iriart:

Ez duzu eginen hor errana araiz,
hemen lurrak saltzea ez da egiten maiz.
Aterabidea dut pentsatua garaiz:
Zure alabarekin ezkondu behar naiz.

Mihura:

Zuk ederra atera hor azken kontua.
Hola izanen dela ez da frogatua.
Hala balitz, egingo ginuke tratua.
Orduan merkea ez laike bekatua.

Punttuka

Lak.: Hamarreko ttikian seiok ari behar.

Xal.: Eta seiak hartzeko ez hainbertze indar.

Mih.: Halere gazte hoiek badute aski kar.

Hirib.: Kantatu nahi dugu hainbat bertsu suhar.

Mat.: Bukatu nahi baitugu ahal bezain azkar.

Iri.: Zergatik uzten naute ni beti aparte?

Lak.: Bertze bertsuari neri Patxi lotu arte.

Xal.: Bertzeak geldituta beti lot ditaike.

Mih.: Seien artean ere zerbait daike bete.

Hirib.: Kostaldeko horiek ez ditugu maite.

Mat.: Baina, Gilen, zoin duzu hor kostaldekoa?

Iri.: Nik ez diat ulertu, hi haiz hi astoa!

Mih.: Denak ez ote dira hemen gogokoak?

Lak.: Kasu, Aiziritze da Baxenafarroa.

Xal.: Ez dugu egin behar saio luzexkoa.

Hirib.: Hiriburu ez dea beraz kostaldea?

Mat.: Patxi, erantzun zazu oraingo galdea!

Iri.: Nun hartu behar dut nik gaurkoan aldea?

Mih.: Lapurtarrak hementxe dirade trebeak.

Lak.: Gure desberdintasun anitzez gordeak.

Lak.: Lapurdikoak hemen ditugu gaztetsu.

Xal.: Amikuztarrak ere ditugu halatsu.

Mih.: Ea denen artean ateratzen den su.

Hirib.: Hemen diren guztiak direnetz berdintsu.

Mat.: Egin beharko dugu horiekin kasu.

Iri.: Nahi duenak kantatu nahi duenean.

Lak.: Nahi dena egitea libro da denean.

Xal.: Beldur naiz bortxaz ari girela lanean.

Mih.: Karga haundi bat hemen ezin jasanean.

Hirib.: Zama bat badugu guk hemen azkenean.

Mat.: Bertsulari-modeloa ere erraiten da.

Iri.: Mizel, erran duzunaz ados naiz, zuzen da.

Lak.: Lehengoa, oraingoa, ditzagun gomenda.

Xal.: Modernitate hori dadila emenda.

Mih.: Askitsu egin dugu, gelditzea hobe da.

2005-X-9

Aiziritzen

2010eko abenduaren 12an, Beñat Laxaguek Aiziritzen antolaturiko bertsu-saio batean kantatu zuten Fermin Mihurak, Mixel Xalbadorrek, J.L. Lakak eta Xan Alkhatek. Gaiak emaiten, Joana Itzaina.

Gaia: Fermin Mihura garajista da. Hilabete huntan hirugarren aldikotz panan gelditu den Mixel Xalbadorrek bidebakteretik deitzen du hilabete huntan. Mihura ohartzen da lehengo aldietan bezala ezantza panan dela.

Mihura:

Mixel, zuk deituta berriz ere hunara nauzu hurbiltzen. Ezantza falta izanik panan, gehiago ez naiz harritzen, ikusten baitut bestarik besta zu hortxe nola zabiltzen. Aizazu, Mixel, beti zirea zu gisa hortan moxkortzen?

M. Xalbador:

Lehen egiten nintzen menturaz, orain aldiz ez, zuk jakin! Gaizki nabila, Fermin, nik zuri erosi otoarekin. Laugarren edo hiru bederen aldiz zira niganat jin. Hemendik goiti niganat txauri zu beti ezantzarekin!

Mihura:

Ezantzarekin jina naiz jada, horra egina gaurkoa. Bazterrik bazter nunahi gero egiten duzu saltoa. Mixel, zu hola bakarrik balitz gauza hori behingoa, hemendik goiti erosi beharko ezantza gabeko otoa.

M. Xalbador:

Halako zenbait nunbait balago, egin nezake galdea. Ez dut galdatzen, berdin badakit halakoik ez da ordea. Zuk salduta, Fermin, egin nintzen ni oto hunen jabea. Ni ez naiz moxkortzen gehiago, baina hau dugu hau edalea.

Mihura:

Otoa duzu edalea zuk, hori normala da eta.
Arrazoin haundi hau botatzeko baduzu ere kopeta.
Ideia on bat etorri zeraut niri hunarat hel eta:
bertzaldi batez salgai baduket zuretako bizikleta.

M. Xalbador:

Bizikleta bat salgai duela hunek seriocki dio.
Xaharrarentzat ez du Ferminen errespetu, amodio.
Hirugarren aldiz jin da hau gaur pana bat dela medio.
Hemendik goiti izengoitia emanen dautazu Xio⁴.

Bakarka egiteko gaia: Zientifikoek diote amodioak zikloak dituela, lehen hiru urtetan pasioa dela. Zer heldu da pasioaren ondotik?

Mihura:

Hogoi urtetan maitasunera dena gogoz hurbildua,
orduana baita nesken ondotik ta gure ahalegindua.
Eta kausitzen ez baldin badu, ditaikela samindua.
Baina kausitzen delarik dena derauka borobildua.
Zoin ederra den garai batean izaita maitemindua.

Egia da bai, hori guztia pasatua dut nik jada.
Zuk hiru urte erran duzu, ta berotasuna hegaldia.
Kondatu behar ote da gero dela izigarriko malda?
Oraino ere zerbait onikan izan daiteke nahitara,
maitasun bero horren ondotik hoztasunikan ez bada.

⁴ Beti oinez zabilan urepeldar gizon prestu baten izengoitia.

Denek dakite, maitasuna da gauza gozoa benetan,
berdin ditaike Euskal Herrian eta berdintsu bertzetan.
Baina, Joana, nik segituko dautzut zure erranetan.
Hirur hogoi bat urtetan nago bai oraino lorietan,
gure etxean maitasun hori oraino baita loretan.

Honako hau ere bat-bateko gaia da: bertsu-saio batzuetan
bertsuen itzultzaileak agertu dira. Mihura euskara ulertzen
ez dutenentzat bertsua frantsesera itzultzaileen presen-
tziaren alde da eta Xan Alkhat, berriz, aurka.

Mihura:

Eztabaida zergatik jalgi zauku aurten?
Ezin bururatua ahal du ematen?
Frantximentak hain hurbil badira izaten,
itzul dezagun beraz konpreni dezaten!

X. Alkhat:

Nik ez dut zurekilan emanen pausoa.
Itzulpen-kontu hori ez da hain goxoa.
Ez dea euskalduntzen ahal frantximent auzoa?
Euskara itzultzen da, baina ez bertsoa.

Mihura:

Bertsua ez duguia euskaraz muntatu,
eta jende guztia nunahi onartu?
Ez zazu frantximenta batera mendratu.
Hola baitezazkegu gurerat tiratu.

X. Alkhat:

Beti frantsesa beheiti ta frantsesa gora.
Gure ingurumena ez dea horren froga?
Itzulpen-lan hoietan ez galdu denbora!
Euskara itzultzen bada, fite galduko da.

Mihura:

Denendako ikasiz euskaldun alorra,
hori konpreni zazu zuk ere, Xan, horra,
zure mintzoa baitzait sobera gogorra.
Gu euskaldunak izan gaitzke baikorrak.

X. Alkhat:

Dena itzultzen dugu hemen azkenean.
Zenbat min pizten zautan bihotzain barnean!
Aritu nahi badugu euskarain onean,
atxik dezagun beti gure mingainean.

Mihura:

Arrazoin duzu, lagun, egun jinik hunat.
Bertzeak mendratzeko ez da ez eguna.
Emendatu behar dira segur euskaldunak,
Baina mugarik ez du nehoiz maitasunak.

Bi-bitara egiteko bertze gaia: buruz buruko hitzordu batzuetara jende andana bat jin da bizilagun baten bila. Bakotxak bost minuta pasatzen ditu presuna batekin, gero bertze batekin, nork bere gustukoa atxeman arte. Huna Mixel Xalbador eta Fermin Mihuraren elkarrizketa.

M. Xalbador:

Fermin, zu ere baitzira ihardesten hoin trebea,
erantzun batekin egin zadazu gaur ohorea.
Pentsatzen dut bai oraino sano daukadala kolorea.
Errazu zertan ote duzun zuk maitasunaren lorea!

Mihura:

Ez da bate txarra izan elkarrekilan bolada.
Maitasunez gose bada, usu-usua hola da.
Ea loretan dutanez orain alde hori behar bada,
baietz errango dautzut, ta pasa gaitezen gu praktikara!

M. Xalbador:

Fermin, gai-emaile hunek nahi du zerbait erraitea,
eta xahartuen ganik gazterik argi daikea?
Lorean baldin badago orain zure amodio izaitea,
maitasunaz arras kurios da Joana Itzaina maitea.

Mihura:

Bertzetara zuk igortzen nauzula fede onean,
baina nik zu izan zaitut parez pare helmenean.
Berotasunik sortu daiteke egonikan hurbilean?
Hautatu nauzun erradazu ba gero ate-giblean.

Laka eda Mihurak eginiko saio huntan, Mihura artzainak
Beltxuko bortuan Laka atzerritarra atxemaiten du, eta
hunek harriturik galdatzen dako nolaz haren xakurrak eus-
kara ulertzen duen.

Laka:

Beltxun ibilki bainaiz gaur goxoki oinez,
aro ederrarekin eta atseginez.
Xakur horrek euskara hola dakienez,
zinez harritzen nuzu, nihaurek jakin ez.

Mihura:

Zu kanpotar, ni hemen, hola elkar kausi.
Mixterio batzuek hor ote doatzi?
Entzun dezazun bada oihera ta garrasi,
euskaragatik hori diot erakatsi.

Laka:

Xakurrari atxeman diozu lotkia.
Egia erran, hori zeraut egokia.
Baitezpada ez dut nahi bilatu gaizkia.
Zure semeak hola euskara dakia?

Mihura:

Mixteriorik ote den dezagun argi,
gure kanpotiarra ez dagonez nagi.
Guk etxean euskara daukagu hazkurri.
Berdin erakatsiko nauzuke nik zuri.

Laka:

Artzaina hartua du nik uste beldurrak,
nik egin ondoan hor berari agurrak.
Horrentzat garrantzi du biziki xakurrak.
Erran nola dabilzan, Fermin, zure haurrak!

Mihura:

Ni bezala dirade hek euskaldun finak,
gure etxean denak baigira berdinak.
Hemen ditugu, jaunak, ustezko jakinak.
Dena dakite ustez tontorik haundinak!

Laka:

Banakien, ez zinen isilik egonen.
Goiz edo berant dira guztiak jakinen.
Bukatzeo hau dautzut, artzaina, erranen:
berriz ere Beltxura ni nizala jinen.

Mihura:

Plazerrekin hartu dut halako batean
zure azken hitz hori hementxe kolpean.
Beraz, jin zaitetz bada heldu den urtean,
eta euskara ikasi zazu bitartean!

Laka:

Galdera zehatz batzu eginik lehenago,
orain gauza orotaz jakinean nago.
Nik'e zuen hizkuntza duk ikasi gogo.
Horrela izanen da batto gehiago.

Mihura:

Orain alegrantziaz gira hemen bizi,
elkarri nola garen gu biok gaur josi.
Beraz euskara zazu aitzina ikasi,
ta zure xakurrari berdin erakatsi!

Laka:

Xakurrik oraino ez baitut harrapatu,
zure kontseilueri diotet behatu.
Egia erran, hunat jitea manatu,
Oztibarre ederra nahi dut populatu.

Punttuka

Xalb: Puntukako gai hauxe dukegu azkena.

Alkh: Beharba jendearentzat unerik onena.

Laka: Zuek hor aspertzea bailitaikena.

Mih: Ez dut uste oraino denikan problema.

Xalb: Egin duguia bedein egin behar zena?

Alkh: Gure parean egun horrenbertze gazte.

Laka: Ez nago baitezpada horrendako triste.

Mih: Bihotza gazte dute, horixe dut uste.

Xalb: Geienak xintxo dira, ez da aunitz traste.

Alkh: Gazte egoiten dira ta zahartu bate.

Laka: Izpirituz gazteak baitzirezte denak.

Mih: Hola izaiten dira ontasun onenak.

Xalb: Ez dira izpirituz motel xaharrak direnak.

Alkh: Aitzinean baitituzte urte luzeenak.

Laka: Hor daude euskaltzale ezagutuenak.

Mih: Entzun ditugu ere maitasun-loreak.

Xalb: Ote dira, Fermin, zure baino hobek.

Alkh: Banitin Mixelentzat nik ere gordeak.

Laka: Joanak eman dauzkigu suiet dotoreak.

Mih: Bertsulariek hemen, ai, zer botereak!

Xalb: Joanak ezarri gaitu gu lauak kantuan.
Alkh: Maitasun-kontuekin ere bekatuan.
Laka: Edozoin suietekin kantatu gustuan.
Mih: Hara hola zabilan hau ere hautuan.
Xalb: Berak argitu nahi du maitasun-kontua.

Alkh: Ez zena hau taulako lore pollitena.
Laka: Xanek atera du hor erran nahi nuena.
Mih: Nik ere baniola bai begiramena.
Xalb: Hori da pollitena, hori bistan dena.
Alkh: Ta gu lauen artean hautatu behar dena.

Laka: Mixel ta Fermin ere gizon argituak.
Mih: Ta Jean-Luik gu ere gaitu aurkituak.
Xalb: Denak hor utzi ditu denak harrituak.
Alkh: Nun gorde ote ditu Jean-Luik sekretuak?
Laka: Gazte-sendimenduak gu denek piztuak.

Mih: Mixelek ahantzi du etxean boneta.
Xalb: Hastean kendua dut bero baitzen eta.
Alkh: Hobe zuen jalgirik leku huntan zer gerta.
Laka: Nolanahiz Mixelek du argia kopeta.
Mih: Harekin ederra da daukazun potreta.

Xalb: Ez ote laike untsa orain buka dadin?
Alkh: Bearko dugu azken bat haatik, Mixel, egin.
Laka: Ez dakit gure lana ongi dugun egin.
Mih: Gelditzeko beti prest dagola bai Fermin.
Xalb: Joana, agur pollit bat nahi nuke egin.

2010-XII-12

Liburu berria

Franck Dolosorrek idatzitako Matxin Irabola bertsulari senperraren liburuaren aurkezpenean, Fermin Mihura, Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Mixel Xalbador ziren bertsutan. Gai-emaile, Franck Dolosor bera. Hauxe eman zakoten biori: Fermin, Senpereko serora da; Sustrai, *Sexe Center* denda baten irekitzailea.

Mihura:

Serora naiz ta usu elizan hola da nere modua.
Harrigarria ikusiz behintzat gaurko egun hauxe doa.
Badakit ongi aldatzen ari zaigula ere mundua,
baina Senperen ez ikusi nahi nik infernuko debrua.

Sustrai:

Bai, kontuz ibil zaitez, ze laster sar zintezke ifernura,
alde ttikia dagoelako pertsunatik deabrura.
Serora batek zergatik ditu hainbertze kexa ta duda?
Mundu osoan da ezaguna misionestaren postura.

Mihura:

Zerbait atera behar ta hunena, naski, orain ederra zen.
Nere bidea ez da ordea leku hoietan mantentzen.
Misionestaren postura eta hunek ditu ateratzen.
Erradazu, bai, debru haundienak direla saindu bihurtzen.

Sustrai:

Zergatik zaude, serora maite, leiho aurrean babak urtzen?
Zergatik zaude neri begira izpiritua lapurtzen?
Ez naiz hasiko erraiten zer den gaur okerra ta zer xuxen,
baina errexagoa da askotan sainduak debru bihurtzen.

Mihura:

Barne horretan puska batzuek ikusten baititut, zera,
nik ez dakit ez zer egiteko diren holako aferak.
Gaur zure alde ez nago eta, ez zaitezen, ba, atera.
Elizai buruz berriro noa otoitzaren gitera.

Sustrai:

Eliza beti izan delako Jaungoikoaren hotela,
nahiz ta batzutan erraiten duten guztion etxea dela.
Joan zaitez, bai, egizu otoitz ta piztu zazu kandela.
Herriko apezak jada hartu dit fidelitate-txartela.

Mihura:

Pentsamenduak haundi dituzu, eta ez egin nahi uko.
Guztia egi denik segidan ez dut behintzat sinestuko.
Zuk nahi duzuna, ahal zirela horrela aberastuko.
Dirua eta Jainkoa nehoiz ez dira ez elkartuko.

Sustrai:

Zu bezalako ezpainestuak ezagutu ditut usu.
Asmoak haundi baina ekintzak bertzelakoak dituzu.
Azken aukera emanen dizut, eman debruari muxu.
Zuk pekaturik egin ezean zer konfesatuko duzu?

Mihura:

Bere ustean sortu nahirik hemen zinezko aldapa,
sexu-denda bat ireki du, ta hau da gizonaren planta!
Nik zer konfesa jakin nahi luke, hauxe daukagun pirata?
Ez diot erranen konfesioko hauk sekretuak dira ta.

Sustrai:

Hainbertzeraino ez dira heltzen alproja hunen eskeak.
Ene serora, ez du balio hola kopeta belzteak.
Gure patuak ber-berak dira nahiz desberdinak usteak.
Belaunikatzen segiko dugu bai batak ta bai bertzeak.

Senperen, 2010-XI-28

Zuhaitzak Euskal Herrian liburua

2010eko azaroaren 20an, *Hemen* elkarteak Aldudeko antzokian aurkeztu zuen *Zuhaitzak Euskal Herrian* liburua, zatirik haundiena aita Adrien Gachiteguyk idatzia. Elkarrekin ziren bertsutan Mihura eta Mixel Xalbador. Ferminen bertsuak jaso ditugu ondoren, Ferminek berak transkribatu bezala.

Aita Adrien Gachiteguyk du
segur anitz adiskide.
Etxeko norbait bezala hartu
izan nau beti ni ere.
Ta naturari hurbil bizi da
hantxetan Beloken fraile.
Otoizlari on eta oraino
izpirituz, ai, zer erle!
Hainbat alderdi onekin zira
herriaren sustatzaile.

Mirentxu, Gabi eta Pantxika,
zuekin ere plazerra.
Herria maitez, fruituak maitez
deramazue sail ederra.
Gutziz zaindu nahi dituzuenak
gerezia ta sagarra,
fruituetarik jukatzen baita
arbola ez dela txarra.
Agurtzen dugu zuen baitan den
emankortasun-pindarra.

Erakaspenak guretzat badu
gustu on ta zaporea.
Naturarekin partaidetza hau
daukagu ezin hobea.
Adrienek ez du ebatsia
egin zaion ohorea,
ezen, guretzat bederen bada
hemen probetxu doblea.
Jakintza haundiz fruitu onak, ta
gure euskararen lorea.

Esnatsuko jatetxe batean bazkal-denboran

Lakak bakarkako gai hauxe eman zakon Fermi: zuhaitz
makurra landatu berritan zuzendu behar dela diote. Haurra
denean ongi hezi behar dela.

Oihantzain behako xamurrez hartzen zuhaitz ta landare,
haunditzen makur doana laster zuzentzea hobe.

Baina jendeekin konparatzea bitxi eiten zaut halere.

Gauzak arras parez pare,
nere gustuko ez daude.

Joera ona duen burrasoa haurrekin dabila trebe,
eta haurra ez daikea hezi makurtzerat utzi gabe?

Goazen xumeki, ez naiz hasiko hemen dener erakasten.

Baina gogoan ditut halere ez dakit zenbat gertapen.

Hola egizu, hala egizu, beti errex da erraiten.

Zenbat teoria daiken
zuhaitzek ere emaiten.

Denbora joan ta gero nintzen ni ere hasi ikasten,
behar delarik nola jokatu ez baita beti jakiten.

2010-XI-20



Fermin, Jean-Louis Laka eta Mixel Xalbador, 2010.
Iparraldeko bertsulari gazteen txapelketa, Azkaine, 1996.
Bertsu-saioa, Zuraide.
Fermin eta Beñat Soule, Heleta, 1993.

Xalbadorren eguna Urepelen

Mezarako gogoan erabilitako bertsuak:

Xalbador zenak fede sendoan eraman zuen bizitza.
Gaurkoan berriz bizien Jainko onaz ukan dugu hitza.
Zeruko Jauna, sustenga zazu zeurea duzun Eliza,
mundutarrerri esperantza bat sorraraziz dadin mintza!

Mundu nahasi baten oihartzun asko badaude gaurkoan,
eta Bush jauna lau urterentzat finkatu bere postuan.
Bi bahitu frantses hor daude, Jauna, Irak delako bortuan.
Ta euskal preso horiek noiz dira sartuko atsedeen-portuan?

Hainbertze xahar, eri, ezindu baditugu're aldean
bide neketsu bat begiztatzen dutenak aitzinaldean...
Bizien Jainko zarena, goitik zer ez da zure ahalean?
Pairamen latza bederen bazter zaiezu gutiengan.

Behar orduez batera dugu, Jauna, zure egarria.
Ta ezagutzen dukezu hemen den egoera larria.
Gaur Urepelen ez dea bildu fededun talde garbia?
Goitik bedeinka gaitzatzu, otoi, bai eta Euskal Herria.

Azken agurra:

Ai, zer giroa gaur Urepelen! Zerua ere da urdin.
Lehen kantuz ta gero bertsutan izan da gure ahalegin.
Zuen presentzi anaikoren bero horrek izan du eragin.
Odola ez bada mintzatu ere poxi bat dauku irakin.
Datorrenean ea biltzen garen berriz danok elkarrekin!

2004-XI-07

Urepeleratekoan gogoratuak

Holako gaiak bihurtzen gaitu bihotzetik amultsuak,
ta Xalbadorren egunean gu nola ez izan kartsuak?
Dena grazia den izarrari nork ez bota intsentsua?

Maite badugu bertsua,
ukanik barneko sua,
euskalduneri zabal dezagun gure bertsuzko mezua.
Xalbador dugu beti izana gidari eta maixua.

Oi, *Odolaren mintzoa* edo delakoan formatoa!
Hainbat ta hainbat euskaldunek hau ukan dute gogokoa.
Ta hirugarren argitaldia dugula berriz gaurkoa.

Urepel bezalakoa,
gaur dago herri bapoa.
Bai, Xalbadorrek zituen osa hola obra on askoak.
Ta liburuak hortxe dakarzki poetaren arrastoak.

Bertsu sakonak eta jauntziak, nolako euskaltasuna!
Gure hizkuntzak zer mirespena dezaken hortxetan suma.
Jauzi ttipian Xalbadorrek zun aurki goiko erresuma.

Poetan eginkizuna,
argia eta txukuna.
Gaur ere segur naiz zerutikan dariola maitasuna.
Herri zahar hunek ukan dezala hark amestu osasuna!

2004-IX-07

Zer litzake Euskal Herria kirol eta kultura gabe?

Euskaltzalea guztiz kartsua aspalditik Urdiñarbe.
Gaur musikaren egun hunetan bertsuak jalgi dirade.
Kulturak eta kirolek dute berotzen hainbertze labe.
Ta bat-batean zer galde?
Zer litzateken Euskal herria kirol ta kultura gabe?
Etxe bat ere nola finkatu ez badu zonbait zutabe?

Xibero huntan lehenik kulturaz gaitezen goraki mintza.
Dirudi kantuz eta musikaz doala hemen bizitza.
Pastorala ta dantzariekin bertze gako edo giltza.
Zer edertasun baldintza!
Euskal ohiturak iduri luke bihotzeko zilargintza.
Erdian perla bat begiztatuz, ta hori bertsularitza!

Kirolak elkar neurtzeko baitu errexxi pizten desira,
gazte bipila erne dabil, ta helduak berriz begira.
Futbol, rugbia edo lasterka, nonahi bada dirdira.
Edo berdin sokatira.
Baina herrian elkartasunez sortu nahi bada pilpira,
euskal pilota altxa dezagun bai goreneko alkira!

Euskal natura zein egokia kirolekin gozatzeko,
eta mintzaira maitagarria hainbat gauza uztartzeko.
Jazko aldiak koblagai hura hemen zagon aparteko:
Jaunak, euskara zertako?
Kirol-kulturan gainetik bada jendea aholkatzeko.
Euskara izan bedi zimendu hobeki elkar maitatzeko.

2002-V-19

Sokoa lantegian akziodun

Bertze anitz bezala, Fermin Mihura Hendaiako Sokoa lantegiko akziodun izan zen. Galdatua izan zitzakon Miarritzeko kasinoan iragan Sokoako biltzar nagusia burutzean egunari zoazkion bertsu batzu kantatzea.

Gaia: Zergek zer efektu egiten dautzute? Irriz aipatzen ahal direa?

Zergen kontua hemen nehoi eta nehoiz ezin gusta.
Zerga kontuan irri solasez ezin daitekela josta.
Baina ekaitzak latzagoak guk iragan kostarik kostari.
Hargatik diot Sokoak dula segituko bere trosta.

Urtean zehar dira sasoinak, udara eta negua,
ta inposena jiten delarik guztientzat ernegua.
Baina parean ezartzen'tugu lanpostu ta enplegua.
Muturreko bat harturik ere altxako dugu burua.

Gaia: Irabazi zatiak (dividendes) zer derizkiozu?

Irabaziak gure begitan hartzen baitu hainbat grado,
izaiten ahal zirela ere diren baino beherago.
Jornal dexente pollitak eta interesamendu frango,
lantegi txarra denik Sokoa nehork ez baitu errango.
Ona ez balitz ni're ez nintzen ez akziodun izango.

Zerga-kontuak oxtian zuen holako ezten zorrotza.
Irabazien hauze berriz da beti guztiz aproposa.
Irabazirik deno lehenbailehen laster bete gure moltsak.
Eta gelditzen bada bakarrik gero pagatu inposak.

*Bertze gai bat: gizon-emazte andana eder hau, duela 25 urte
Sokoa lantegiko sortzaileen zerrendan.*

Gizon-emazte agurgarriak, nik ezin izendatuak,
hastetik ongi finka zituzten bai Sokoako tratuak.
Bihotz sendoa behar zuen ta zainak altzairuztatuak.
Intxaurrak ere behar zirela Sokoan ongi lotuak.

Abertzaleok berekin beti ekartzen hainbat helburu.
Lanpostuentzat zuten xedea, eta sortu da enplegu.
Sokoa gero bilakatu da bertze anitzen eredu.
Holako nausi finen ondotik beti prestik gerade gu.

Agurgarriak, eskertzekoak ditugu hoinbertze lagun.
Ta euskararen aldera ere lainoki dutela jardun.
Abertzaleen bide sendoa emankorra du ezagun.
Gaur bezalaxe elkar hartuaz luzara segi dezagun!

1996-II-24

Bertsularien Txapelketan

Nafarroa eta Iparraldeko Bertsularien Txapelketan Fermin Mihurak Izuran kantatu zuen zombait bertsu. Gai-emaile Beñat Soule. Hauxe erran zakon kartzelako gaia emaitan: Zure alaba eri da. Bihotz berri bat behar du transplantea egiteko. Bihotz hori ekarriko dizun hegazkinaren beha zaude.

Aspalditxotik gure etxean apal daukagu gogoa,
ene alaba bihotzetikan ez baita hainbat sendoa.
Baina esperantza bat hor heldu zauku, naski, oraingoa.

Ez da, naski, hau leloa.

Pollita gaurko ondoa. (bis)

Hegazkin batek berria ekarki, eta nere esperoa,
luzaz ikusi nahi bainuke alaban bizi beroa.

Hainbat denbora eritasunez, kexu dirade bazterrak.
Medikutara ezker ta eskuin egin ditugu lasterrak.
Batzutan uste ongi doala, eta heldu da okerra.

Baina barrenean garra,

halere dago suharra. (bis)

Norbaitek bihotz bat emaita izango gauza ederra.
Oraindanikan hartu ditzala bihotzez nere eskerrak!

Sobera luzaz izanik ere gaur arterainoko tratu,
azken batean uste dut ongi denik dena akabatu.
Hegazkina da urrundarikan laster behar arribatu.

Ginaizke beraz sendotu
eta bideari lotu. (bis)

Baina hegazkin hori ez bedi orain sobera luzatu,
gu etxeoak alabarekin gero gaitezen gozatu.

1991-III-3

Etxahun Iruriren omenaldia

Euskal Irratiek grabatu zuten bat-bateko bertsu-saiotik hartuak dira hurrengo hauek. Zoritxarrez geroztik zendua den Urdiñarbeko Dominique Aguegarai zen gai-emaile egun hartan.

Lehenengo gaia: zonbaitek dio bertsularitza ez dela sorrarazten ahal Xuberoan, hizkuntza berezia delako. Mendiburu xuberotarra bertsutan hasi nahian dabila aspaldidanik. Mihura Bertsulari Elkarteko zuzendaria da.

Mendiburu:

Bertsularien Elkarte on bat badela nik baitut jakin,
ta, Mihura, gaur zuri galde bat egin behar dut Irurin:
Bertsuka edo koplaka ariz banuke anitz atsegin,
bertsularia izaitekotan zer debru behar da egin?

Mihura:

Lehen-lehenik hortan behar da aurkitu borondatea,
gero errexki bertzeekin betan hartuko duzu parte.
Xuberon ere bat izaitiak poztu luke elkarte.
“Ü” horren partez aski zinuke zuk beti “u” emaita.

Mendiburu:

Lagun maitea, kontseilu hori hartua dut egiazki.
Baina Xuberon “u” horrekilan nik kantatuko dut gaizki.
«U» hori beti «ü» atxikita ari nahi nuke preseski.
Euskalkienak nahi baititut Euskal Herrian atxiki.

Mihura:

«U» emanikan gauzak hain gaizki ez dira ez iraganen.
Gauza horretaz ukana dut lehendanik segurtamen.
Euskal mintzairak Xuberon ere hola bailuke iraunen.
Beha kukuak udaberrian hemen nola eiten duen.

Mendiburu:

Udaberria eta kukua, denak dituzu nahasi,
ta horrek badu uda hunetan Xuberon hainbat garrantzi.
Xuberoa ere euskaldun baita, gainerat nere probintzi.
Nahi nuke nik bere onetan bertsu-teknika ikasi.

Mihura:

Xubero huntan bertsulariak izaiteak du garrantzi,
eta nik ontzat hartzen dut behintzat zuk ukaitea fantasi.
Gauza beharrezkoena hau da: Lehenbailehen nonbait hasi.
Bertsu-eskolan oraindik goiti baitezakezu ikasi.

Punttuka gai libroan, Ezponda, Mihura, Laka, Mendiburu.

Ezp: Bistan ikusten baitut Etxahunen harria.

Men: Nik ere gogoia dut harekin jarria.

Lak: Bederatzi urte ditu dela ezarria.

Mih: Egiten dauku egun ongietorria.

Ezp: Harria izan arren badauka irria.

Men: Alabaina hortan da Etxahun Iruri.
Lak: Oraino bizi dela hortik du iduri.
Mih: Hura baitzagon segur Xuberoko txori.
Ezp: Horrenbertze etsenplu utzi dauzku guri.
Men: Iturri onetik du guretzat ixuri.

Lak: Azkaingo Saint Esteben horren egilea.
Mih: Bat erreusitzekotan hoberik badea?
Ezp: Gainerat badu Etxahunentzat eitea.
Men: Harriz ezin da egin itxura hobe.
Lak: Hura da olerkari denen maitalea.

Mih: Harek eginik daude hainbertze kantore.
Ezp: Harri hoi gelditzen da bertan geroko're.
Men: Ai, Etxahun maitea, agur ta ohore.
Lak: Zure kantuak bizi dira oiraino're.
Mih: Orroitzapena bizi orain ta gero're.

Ezp: Guk badakigu hari zenbat zor diogun.
Men: Beraz, Etxahun denek goretsi dezagun.
Lak: Haren segidakoak dirade ezagun.
Mih: Denentzat paregabe omen zela lagun.
Ezp: Egin lan guztientzat milesker, Etxahun!

Men: Orain hasiak zaizte nik uste berotzen.
Lak: Izerdia kopetatik da ateratzen.
Mih: Gure kantuak zerbait ote du harrotzen.
Ezp: Nere zintzurra ere hasi da idortzen.
Men: Beraz, hasi beharko saio hau bukatzen.

Lak: Zikiro-bestatikan Ezponda heldu da.
Mih: Besta anitz maite du, horretaz ez duda.
Ezp: Atzokoa untsa zen, egungoz galdu da.
Men: Sobera besta egin duk hik, Txomin Barda.
Lak: Zintzurra hobetzeaz badauka mentura.

Mih: Ixtante egin behar guk denek bazkari.

Ezp: Jende guztiendako ote da janari?

Men: Ogitarterik ez duka hirekin ekarri?

Lak: Egina zuelakotz goizean gosari.

Mih: Isiltzen gira, eta atsaldeon deneri!

Irurin, 1989-X

Nafarroa eta Iparraldeko Bertsularien Txapelketa

1996an, Baigorriin egin zen Nafarroako eta Iparraldeko Bertsularien Txapelketako kanporaketa bat. Mikel Erramuzpe izan zen gai-emaile, eta hunela parekatu zituen bertsulariak: Ferminen emaztea ospitaleko haur ukaiteko gelan dago, eta galdezka hasi zako gelatik atera den Eztitxu Arozena erizainari.

Mihura:

Haur-minetan zen bizi-bizia hortxet nere andretxoa.

Gero ederrak pairatzen, naski, ez baita hori goxoa.

Zu erizaina, galdetzen dizut nola ote den gaixoa,

eta sanorik etorri ote den, bada, gure semetxoa?

Eztitxu:

Gaur eguerdiko erditze hori ez da izandu motela.

Zure emaztea ederki dago, errango nizun bertzela.

Nahiz ta bakarra espero zenun, denok espero bezela,

jakin ezazu hiru umeren aita izandu zarela.

Mihura:

Baten partez hor hiru, beraz, gaur etorri dira gainera?

Eta sufritzen hori datorkit berriz gainetik behera.

Erran duzunez, beraz, pollitak hortxet dira atera?

Baina zergatik ez nauzue bada utzi hori ikustera?

Eztitxu:

Galdera hoiek egitera gaur ez etorri neregana.
Dirudienez ados jarriak zinezten zu eta ama.
Hiruko xifra ez da gehiegi, ez da hainbertzeko zama,
kolpe batean egin baituzu bizi guztirako lana.

Mihura:

Kolpe batean hainbertze egin, ibili beharko umil.
Eta etxeko lan garratza're laster ikusten dut hurbil.
Hara, beraz, hor famili oso bat guk kolpe batean bil.
Zenbat neskato ote dirade, eta ere zenbat mutil?

Eztitxu:

Hiruak neskak izandu dira, zure poza nabarmena,
nahiz eta hemen firmatu dugun zure bizitzan kondena.
Hiru soberan baldin badira, bat neretzat ez da pena,
senarrik gabe ama izaitea baita gauzarik onena.

Ondoren, bertze bi bertsulariak hunela jarri zituen la-
nean Erramuzpek: Fermin ile-apaintzalea da. Jesus Arza-
llus lo gelditu da, eta Ferminnek burua osoki soildu dako.

Jesus Arzallus:

Exerita pasa dut nik arrats gehiena.
Harrigarriko lana honek ein duena.
Esnatu naizenean haxe nere pena.
Erdia moztu eta soildu baitit dena.

Mihura:

Harritzen naiz hunekin nola naizen junta.
Hau lokartua zeraut, atzo mozkortuta.
Burua utzi daiat guztia moztuta.
Ez kexa, emango haut, bai, hiri peluka.

Jesus:

Gutienez egin dut siesta bikaina,
ondoko hau lanean aritu da baina.
Buru dena utzi du benetan apaina.
Jakin nahi nuke nola moztu duzun gaina.

Mihura:

Zu lo zinen hortxe, ta ni lanez alegre.
Ez nago sos pixka bat irabazi gabe,
ta ilea mozteko ere hain trebe.
Hain gutti baitzinuen, kentzea da hobe.

Jesus:

Nere buruarekin zer gauza dun lortu.
Pollita nagoela nahi diot aitortu.
Nahiz eta honek neri sos pixka bat ostu,
pozikan, belarriak ez baitizkit moztu.

Mihura:

Hortako doina hemen nik lanean jakin,
eta arizana nahiz anitz zentzurekin.
Pollit izango zira peluka batekin.
Hura asurti baita bai bizarrarekin.

Zuraideko trinketeko bertsu-saioa, Euskal Irratiek grabatuta

Jesus Telletxea zen gai-emaile bertsu-saio hartan. Joanes Arrosagarai, Txomin Ezponda, Jesus Olalde, Andoni Zelaia eta Fermin Mihura bertsutan.

Hauxe agindu zakoten: zer diozue Euskal Herrian gertatzen denaz.

Arrosagarai:

Euskal Herrian zer pasatzen den orain dut erran beharra,
irria behar laiken tokitan izaiten baita nigarra.
Gure odolak nahi du jakin non daukan bere pindarra.
Bake osoa behar tokitan daude sua eta garra.

Mihura:

Euskal Herrian pasatzen denaz denak gaudela hain triste.
Gertakari txar bat izan gabe ezin da pasatu aste.
Holakorikan halere nehoiz ez nuen nik ere uste.
Hola segituz bazter guztiak zapartatuko dituzte.

Zelaia:

Bake izena daramatenak maiz ari gerrak piztutzen,
Euskal Herria maite duenak ongi baitu ezagutzen.
Bortxakeriak ukitzen gaitu, kostatzen zaigu altxatzen.
Denon indarrak batu ezkeru ea hor saia gaitezen.

Arrosagarai:

Euskaldun onak zuzen gaudenak, otoi, ez gaitela izi.
Gure odolaz jauntzi herrian guk behar ginuke bizi.
Ene aldea daukazue gaur, aise daitaie ikusi.
Bakez beztitu behar laike, ta ez bortizkeriz buluzi.

Mihura :

Sendimendua aspaldixkoan dugu arras ilundua.
Zuek ere hor ikusten duzi nola dagon ingurua.
Gogoetatu daitaie anitz gisa horretan burua.
Noiz argituko ote da, bada, Euskal Herriko zerua?

Zelaia:

Batek indarra, beraz dirua, hori da gaurko auzia.
Ta haundi harek beti ttikiak kendu oi dio guzia.
Eta nondik, bada, etor liteke Euskal Herriko grazia?
Abertzaleak espetxerat, eta gainerat langabezia.

Arrosagarai:

Ikusi nahi nuke urratsa gaurtik zonbait urtetara.
Zoriontsuak kausi gaitezen batetik eta bertzera.
Bihotz-bihotzez zuzen direner egin nahi dut galdera:
bihotz guztiak bake osoan bildu gaitezen batera.

Mihura:

Ez dakit norat ari giren gu gisa horretan joanez.
Nik behintzat hortan, erten dautzuet, sinisterikan batere ez.
Zerbait eiteko prest gira beti, beteak hainbertze lanez.
Zernahi egin ditaik, baina odol-ixurtzerikan ez.

Zelaia:

Argi-izpi bat emango ahal du biharko egunsentiak,
nola geraden bortxakeriaz aski sarri ibiliak.
Euskal Herrian bizi nahi dugu egun euskaldun guztiak.
Ea ba noizko elkartzen geran behingoz zazpi anaiak.

Ondoren, puntuka gai libroan, Ezponda, Zelaia, Olalde eta
Mihura:

Ezp: Lauetan hemen nago orain zaharrena.

Zel: Begira jarri eta lotsik ez duena.

Mih: Nik ez dut uste gaurkotz nautenik txarrena.

Olal: Nere ustetan nago mutil ederrena.

Ezp: Gainerat nik orain det adin haundiena.

Zel: Gaztearo berria zuk hartu asmotan.

Mih: Hola ikusten dira batzuek askotan.

Olal: Hemen emakumeak gaur nere gogotan.

Ezp: Ez hadila, Olalde, atrebitu hortan.

Zel: Andregai eske hasi al zera bertsoan?

Mih: Segitu dezagula funtsez ta serio.

Olal: Hemen bertso-kontua aurretik dario.

Ezp: Olaldeak bai omen du hainbat amodio.

Zel: Batek maite duela lehen esan dio.

Mih: Baina oihukatzeak guti du balio.

Olal: Sasoi eder batean nago ni oraindik.

Ezp: Kontu emak, denborak lana egiten dik.

Zel: Neska berri bat nahi du horrek hartu hemendik.

Mih: Zer egin ote laike egin bada horrengatik.

Olal: Adiskide pollit bat hartuko nuke nik.

Ezp: Neskazahar batekin baluke grazia.

Zel: Gazteakin baino gehio hori ibilia.

Mih: Ez luke behar harek izan itsusia.

Olal: Zaharrak ez du inondik botako hazia.

Ezp: Zaharrik ez badago, berdin da gaztia.

Zel: Laurok ezkonduak ta gabiltz neska eske.

Mih: Uste delakoan hoi behar bada merke.

Olal: Jendearen parregarri zer esan genezake?

Ezp: Enkaska galde bat eiten dute hauk'e.

Zel: Zuek hola bazizte nik'e hartu parte.

Mih: Lehen gustukoa bat behar zen hautatu.

Olal: Dena jende-aurrean ez garbi kondatu.

Ezp: Baina berri bat ere laiteke maitatu.

Zel: Ezpondarekin behintzat izan zazu kontu.

Mih: Oraindik ere hauek nahi dute lauzkatu.

Olal: Ikusirikan hemen zoin pollitak dauden,

Ezp: Eta Olaldeak nola galde egin duen.

Zel: Zahar eta gaztetik aukera da hemen.

Mih: Baina arratsean hoik ez hortxet egonen.

Olal: Isildu gaiten orain berotu baino lehen.

Omenaldiak (ezagunenak)

Xalbadorren eguna

2012ko urriaren 27 eta 28an, Deiadarra elkarteak antolatu Xalbadorren eguna egin zen Urepelen, Xalbador eta Joakin Berasategi omenduz. Ez dakigu xuxen egun hartan Ferminnek Urepelerat joaitearik ukan zuenentz. Dena den, hiru bertsu hauek idatzirik utzi zituen kaier batean.

Hainbertze jendek miresten dute
Urepeleko artzaina.
Naturarekin hitz eginez zen
hau bertsulari egina.
Euskal Herrira azaldu zuen
bere barreneko grina.
Molde harrigarrian zerbait zen
haren berezko dohaina.

Urepel herrira joaitean
hurbiltzen gira zerura.
Gain hortarik Xalbadorrek zuen
hasi bere abentura.
Abere, zuhaitz ta loreekin
zebilan beti gustura.
Baina nola debru egin zuen
lantzeko literatura?

Profeta baten gisa golkoan
zeraman Euskal Herria.
Gutziz argi tratatu izan du
bai euskararen haria,
plazako zirtotatik aparte
zelakotz mezularia.
Xalbadorrentzat herrian bada
atxikimendu haundia.

Mattin Ahetzekoa

Gazte-denboran Fermin Mihura sarritan joaiten zen inguruetako bertsu-saioetara bere aita zenarekin. Ez da erraite beharrik Mattin, “irriaren giltza” Xalbadorrek izendatua, aldi guztiz deitua izaiten zela taula gainean kantatzerat.

1991n, Bertsularien Lagunak elkarteak nahi ukan zuen molde berezi batez omendu hamar urte lehenago zendua zen Mattin bertsularia. Ahetzeko plaza-izkina batean aurkitzen da Piarres Erdozaincy Etxartek zizelkatu Mattinen orroitharria. Geroztik egin dazkogun omenaldietan ere han izaiten zen Fermin Mihura. Gainera, Ahetze eta Azkaine auzo-herri dira erraiteko maneran.

Mattin Ahetzekoaz
nahi nuke mintza.
Umoretik hartua
zun bertsularitza,
bi begi zorrotzekin
prestatuz ekintza.
Batek hortza falta edo
sudur luze gaitza,
kitzika kokinez zen
irriaren giltza.

Beti nahi zituen
bai giro alaiak,
ahalbideak ere
izanki nasaiak.
Beti prest jorratzeko
neska-mutil gaiak,
ez zaizkion ta falta
sekula ideiak.
Elur-kontuak baino
nahio udan plaiak.

Batzu pobre bizitzen
aberats hiltzeko...
Esaldi hau gogoan
hartu nion seko.
Nonahi andre-kontuak
sarturik tarteko,
bihotz ona zuela
dugu orroitzeko.
Filosofia berriz
ongi bizitzeko.

***Herria* kazetaren bilkura**

Herria astekariaren bilkura egin zen Hendaian, 2013ko apirilaren 16an. Maiatzean larogeita hamar urte bete behar zituen Jean Haritxelar jaunari omenalditxo egin zakoten. Mihura eta Laka ziren bertsuka.

Mihura:

Jean Haritxelar laguna, zuri gure agur berezia.
Euskaltzainburu hainbat urtez, ta beti erreferentzia.
Euskara eta *Herrian* alde maiz ein duzu garraisia.
Miresten dugu zure izpiritu zabala eta bizia.

Laka:

Jakin baituzu hainbertze urtez goratzen gure hizkuntza.
Baigorriarrak herritarrari zorionen agiantza.
Zure adinera heltzen bagina ta osagarri hain untsa,
ez dakit ekar ginezakoken zuk eman hainbat laguntza.

Mihura:

Idazle fina, azken *Enbatan* idatzi duzu *Gauden gu*,
herri huntako hainbat ekimen oni ekarriz sustengu.
Herri-izpiritu hori zu baitan nola den gure eredu,
primadera du euskarak hantxet, eta hemen beti negu.

Laka:

Erakaslea goi-mailakoa izan zinelakotz, naski,
euskaraz ala erdaraz berdin idazten duzu errexki.
Frantximent askok euskaratzaz zu eredutako izanki,
baina Frantziak Euskal Herrian ez du zuzentasun aski.

Mihura:

Zure lumak du goxo aztertzen kondaira, literatura.
Aspaldidanik segitzen duzu euskaldunen abentura.
Garbi dagona, euskarai esker da gure arteko lotura.
Ezin jasana gure *Herrian* mintzo hau dezaten muga.

Laka:

Hogoita hamar urte badira sortu zela *Pizkundea*.
Urrats ttikika gero muntatu zen kultur-erakundea.
Elkarrekilan bizi ukana dugu bilkura aldea.
Parte haundi bat zuri esker du euskarak egin bidea.

Mihura:

Aspaldi zure lema hauxe da ahalaz: Jasan eta iraun.
Elkarbizitzan animatzaile ta bakezale ezagun.
Ados gaude, bai, mintzairak lehertuz Frantzia dago hobendun.
Ta Gehexan Pontto zirtolariak beti ukanen du erantzun.

Laka:

Politikako gorabeherer ere jarraikia zira.
Euskal Herritik mundukoari egoiten zira begira,
gu hurbiletik jotzen gaituzten lege batzu hor baitira.
Parisetik da berri on gutti etortzen Euskal Herrira.

Mihura:

Zirtolaria, euskaldun gisa errex ateratzen broma.
Eta segidan behar delarik, ai, zer arrazoin sakonak!
Luzaz gurekin jarrai dezazun denak gaitezke konforma.
Besarkada bat denen partez, Jean, hartu gure zorionak!

Laka:

Gertatzen zauzu Saran bezala omendua izaitea.
Euskal munduak erakusten du zoin ziren gizon maitea.
Zuretzat berdin Emile Larreri kantatua gaur urtea:
Euskararentzat makur laike zuk idazteari uztea.

Basusarriko omenaldia

Basusarriko Makila ostatuan Eusko Alkartasuna fundazioak omendu zituen Filipe Oyhamburu, Jakes Casaubon, Ingrid de Graeve, Juan Mari Feliu. Laka eta Haritza Camblong zituen laguntzaile Mihurak bertsu-saioan. Gai-emaile Manex Pagola. Mihurak han kantatu zuen zombait bertsu jaso da hemen.

Alkartasuna fundazioa gaurko babeslea jakin,
merezidun haundi batzu bildurik dirade gero gurekin.
Euskal munduak zer anaitasun, zer lotura giro sorgin!
Nahiz ta adin kontuan gauden gorabehera batzuekin,
miragarri bat dugu bizia. Ospa zagus elkarrekin!

Jakes Casaubon, guretzat beti izan zira jakintsuna.
Edozein lore, landare, zuhaitz duzu izenez ezaguna.
Entziklopedia bat osoa zure baitan daukazuna,
zoinen goxoki ta umoretsu gero aletzen duzuna.
Izar ezti bat bezala zaude gu argitzen gaituzuna.

Hainbertze urtez arduraduna jarraitzeko pilotari,
ta irratian loturik zinen *Gure bazterrak* sailari.
Gutziz euskaldun, jite fineko, lagun artean kantari...
Euskal ondare xaharrak ikertuz beti herri-zerbitzari.
Bihotz-haria zinon segitzen, ez axola diruari.

Mundu guztira hegaldatzeko sorturik zagon txoria.
Ai, Oyhamburuk musika-dantzan bazuen jeinu joria!
Lau haizetara mundua kurri ukan zinuen zoria.
Londres ta Mosku, Teheran, Bogota, San Frantsisko, Pretoria...
Etorki Ballet hioen bitartez bizi euskal historia.

Lehen soinu-tresna akordeoia, musikan zen dohatua.
Koreografo bilakatu, ta taldeburu plantatua.
Koru-gidari ibiltzeko ez azken eurian sortua.
Burrutatzean errex aditzen dut nere amaren kantua:
hunek lan zotzik tiratu gabe bizitza du pasatua!

Oraino ere kantu-oihartzuna, entzuten da itsasoa.
Gogoan dugu irratietan Filipen euskal mintzoa.
Euskal deituren hiztegi hori hiru tomo kuriosoak.
Erran zaharren bilduma gero, txukuna ta erosoak.
Eskerdun gaude, ezen miretsi duzu euskara gaixoa.

Ingrid Graeve, nola zaitugu Flandria aldetik jina?
Miarritzeko haurtzaindegian gaur zinezko erregina.
Nola sorturik zaizu bai zuri euskararen maitemina?
Ta gustatzea ez baita aski, gero hainbat lan egina.
Gurea ere zindezke pixkat, hauxe dugun atsegina!

Bertsulariez euskaldun berri batzu maiz maiteminduak,
ta hola sortzen zaizkigu zorrak ia ezin ordainduak.
Dena den, zure hautua hemen ezin hobeki heldua.
Andere maite, zarenagatik hartu bai konplimenduak.
Besta-hondarrean ikusiko da nola okupa orduak.

Feliu jauna, nafarra zira ta guztiz mendizalea.
Mendi-inguru izango zira lagun askoren jabea.
Euskaldun jator zira betitik, gainera abertzalea.
Bidezidorrak esplikatzeko liburuen idazlea.
Guretzat hemen izango zira Nabarrako Erregea.

Nafarru goitik behe aldera zira goxoan etorri,
ta pozten gira gure artean zaitugula, Juan Mari.
Behazu bada zer jende-sailen erdian zaitezken jarri.
Hemengo izar hauen artean sortzen da mila lokarri.
Ezin ahantzizko besarkada bat emanen diogu elkarri.

Laka:

Filipe, Jakes, Ingrid, Juan Mari, egun lau izarrak betan,
bistan zirezte Euskal Herriko zeru goren-goretan.
Zuen izenak agertu dira hemengo hedabidetan.
Zuen beharra dagola beti aitortzen dugu benetan.
Argi zazue oraino zuen eremu berezietan!

Filipe, dantzak eta kantuak maite dituzu azkarki.
Olaetako maixu izanik sortu zinuen *Etorki*,
ikusgarrien antolatze lana eginez gogorki.
Mundu guztian Euskal Herria agertu duzu ederki.

Gauza horien gainera gero bertze lanik ere bada.
Adin batera heltzean zinez abiatu ikerketara,
izen-deituren erranahiak emanik liburutara.
Zure interesa izan da beti gure arbason euskara.

2013-III-23

Jean-Pierre Soudre *Larrekoren* ehorzketetan

Senpere huntan Larreko ginuen lagun bat maitagarria.
Bertsu idazten aspalditikan bazuen zinez tirria.
Maitatu izan du Senpere, ta halaber Euskal Herria.
Familiaren alderat ere atxikimendu garbia.
Gaur herioak ez dezake hauts gure arteko lokarria.

Batzuk erranen dute hau zela euskalduna klasikoa,
itzalgabea balitz bezala gaurko moda berrikoa.
Trantzealditan Jean-Pierrek ere tinkatu du gerrikoa,
esperantzaren iturri hartuz bihotzeko Jaungoikoa.
Gaur maitasuna gozatuko du nasaia, neurri haundikoa.

Liburuan du aipu herria, eliza eta lagunak,
garbi agertuz bere bizitzan zituen gardentasunak.
Familiaren leku haundia ederki zaiola suma.
Erreferentzi ederra hori gaur datorkiguna hunat.
Jan-Pierre, goitik finka zaguzu guztien elkartasuna!

Lakak:

Hara, Larreko, etorri zauzu zeruratzeko orena.
Zu harat joanik pozik ditaizke Matxin ta Panpili zena,
hirukotean zu zinelatutz bertsulari gazteena.
Heien bidea hartu zinuen, baitzen bide ederrena.
Euskal Herrian iraunkorra da bertsu-jartzailen omena.

Zure bertsuak zauden *Herria* astekarian leitzeko.
Senpertarrentzat maiz bazinuen zerbait pollit kondatzeko.
Hainbertze urtez arizan zira, nola egin eskertzeko?
*Ez da Musik-ek*⁵ egin bilduma gelditzen da bitarteko.
Lagungarri da gure euskara bizirik atxikitzeko.

Senpereko elizan, 2013-II-9

Jan-Battitt Lekuona Biriaturkoa

Jan-Battitt Lekuona, Mixel Lekuona Makeako apez bertsu-
zalearen anaia zen. Hau ere euskaltzalea, eta luzaz Biriaturko
hautetsi izana. Gizon indartsua izanagatik, sukar haundi

⁵ Senpereko kultur-taldea.

batek hartu zuen eta zonbait egun barne gorputz gelditu,
berri txar horrek ezagutzen zuten guztiak harriturik utziz.
Fermin Mihura urtero gurutzatzen baitzen harekin Biri-
tuko artzain-txapelketaren kariatara, bertsu hauek moldatu
zituen bere omenez.

Berrogoita bederatzi urte hautetsi zituen pasa.
Herri-kontseilu hortan zintzoki eraman bere urratsa.
Gizon xumea ta maitatuak pizten zuen adiskidantza.
Ta gertakari garratza,
kolpez heldu azken hatsa.
Duela guti zen ezpain guztitan, Urteberri on! agiantza.
Eta herrian gaur senti denak dirudi garrasi latza.

Euskaltzalea, bertsuzalea, berez presuna airosa.
Artzain-xakurren jokoan ere epaimahaia zuen osa.
Zernahitako beti prest zena, hori gizon baliosa!
Egin gabe harrabotsa,
zerbitzu-egile zorrotza.
Ustekabeko biltzar hunek du guretzat gustu mingotsa,
ta ez dakigu nola eskertu gaur Jan-Battitten bihotza.

Usu erraiten da pena dela hoberenak joaitea,
ta Jan-Battittek ere bazuen, naski, urrezko jitea.
Laket zitzakon guztiz gainetik kristau fina izaitea.
Gaurko eliza betea
plazer baita ikustea.
Guretzat hau da azken agurra, zuretzat argi-hastea.
Harremanean jarrai dezagun, ta ikus arte, maitea!

Familiari berdin diogu atxikimendu sakona.
Zueri esker ere izan da Jan-Battit zinez gizona.
Ezinbertzeko bereixtean gaur nola behar da konforma?
Jainko maitea, emozu, otoi, zeru-goian leku ona!

2012-I

Manex Pagolaren omenez

Manex Pagola kantagile eta kantari ezagunak Euskal Herriaren aldeko borroka anitzetan parte hartzen du. Berari aitzinetik deusik erran gabe Eusko Alkartasuna fundazioak omenaldi xumea antolatu zakon Larresoron, 2011ko azaroaren 26an. Manexen adiskideak gutunez gomitatuak izan ziren etortzerat. Bertze anitzen artean Laka eta Mihura ber-tsulariak.

Gaztetandikan Manexen soa zoan Euskal Herriari,
militantismo sano batean hola eman zen kantari.
Herri guztian kontzientzi bat zadin altxa, zadin adi,
esperantzazko izar on batek egin zezan aski argi.

Haundien ganik ttipiendako bazagola abusua,
hola Manexen joera hori militante baketsua,
herri hunetan garden-gardena hedatu nahiz mezua.
Zuzentasuna, libertatea ta gainera maite-sua!

Jarraitzaileak piztu zituen Manexen kantu-hariak.
Badirade gai abertzaleak ta umorezko garbiak.
Haurrenak eta amodiozkoak, denak erakargarriak.
Zerbaitengatik Manexi segi eman ziren kantariak.

Denbora hortan zer panorama tristea zen aurkitua.
Iheslariez, preso hartuez laguna zen xufritua.
Manex gogotan zagon geroaz, halere ez etsitua.
Bortizkeriatik urruntzekoa beti izan du predikua.

Gaur egunean zorioneko egoera dugu bizi.
EA ta bertze abertzaleek elkartzte on bati eutsi.
Hauteskundetean Bildun ondotik Amaiur gora iritsi.
Gaurko egoerak azken batean arrazoin eman Manexi.

Omenaldia Baionan

Nestor Basterretxea, Andoni Iturriotz, Ugutz Robles-Arangiz eta Libe Goñi omendu zituen Eusko Alkartasuna fundazioak Baionako Moderne trinketean, 2010eko abenduaren 18an. Mihurak ospakizun hartan kantatuak dira ondorengo bertsu hauek. Bertsulari laguna Laka zuen.

Andoni Iturriotzi:

Euskal Herriarentzat baitzira zu izan dena bihotza.
Hori zerbait da gibeletikan gero badelarik sosa.

Ai, zer laguntza dantza, antzerki, olerki, bertsularitzan!
Aspaldian zu nola eskertu ezjakinean genbiltzan.

Zure laguntza errotik dugu herrian estimatzeko.
Beharrik, Alkartasuna hor da gaur zure ohoratzeko.

Nestor Basterretxea:

Nestor Basterretxea,
famatua eskultorea.
Zure obrekin agertu duzu herri hunen balorea.
Zarela eskuzabala,
gizon haundia izanagatik zerbitzu egile apala.

Distiratsua agertzen zira gure aitzinean aski.
Ea guk ere eiten dizugun bihotz barnean eguzki!

Ugutz Robles:

Ez da dudarik biltzen duzula zuk denetan esku-zarta,
baitzira bihotz-txokoan jotzen dun kondalari aparta.

Ai, zer pasaia izan zen hura Euskal Telebistakoa...
Denetako on geratzen baita zure solasen jokoa.

Gaurkoan ere hasten bazira egunaren osagarri,
zure ondoan berriro ere pozik egingo da irri.

Libe Goñiri:

Ikastola zuhaitz gazte zelarik zu zinen horren lorea.
Hargatik gure maitasun hauxe, edo gure amorea!

Zorionean izan baitzinen euskarak behar zun pindarra,
zure obrak ta bertze batzunak eman du uzta ederra.

Gu elkarrekin goza gaitezen, hori komeni da, hara,
ta denek betan bultza dezagun oraino ere euskara!

Berriz ere omenaldia

Baionako Moderne trinketean Eusko Alkartasuna fundazioak omendu zituen aita Junes Casenave xuberotar idazlea, Danièle Albisu urruñarra eta Andre Darraidou Ezpeletako auzapez ohia. Gomitatueta kantari, Jean-Mixel Bedaxagar. Bertsulari, Mihura eta Laka.

Danièleri:

Erakaslea zinen, Danièle, ofizio bat garbia.
Ta haurtzarotik, naski, maitatu euskara eta herria.
Ongi etorria da zuretzat gaur ukan duzun saria,
euskararentzat beti ukanik borondate eta argia.

Artikuluak zoinen polliki zintuen bada idazten,
ta telebistan arizan zinen euskararen erakasten.
Irudi xarmant hura gogoan oraino're dut ikusten.
Bertze askotxo poztuko dira gaur zaitugula gorensten.

Junesi:

Betharramisten ordena hortan zu apeztua, hain zuzen,
zure lehia beti izan da herriaren zerbitzatzen.
Euskaltzaindian zu ohorezko zintuztela izendatzen,
Euskaltzain oso izanen zinen han lekurik izan bazen.

Andreri:

Beti sanoki atxikia du herriaren lokarria.
Departamenduaren aldera ez zagon ez lan urria.
Gaur Laborantza Ganbararentzat badu zeregin berria.
Gutienetik hartzen zinuen ekimenaren saria.

Bazkalondoan, Lakarekin kantatuak:

Kanpoan euri izanik ere bihotza dugu lorian,
elkartasunak bere urratsa segiturik bazkarian.
Jende balios ta lagunkinak ohoratuz molde garbian,
hauek xumeki egin lan hori ongi baita agerian.

Ohorezko sari-banaketa hau goxo gure inguruan.
Gure herria hauk ohoratu bakotzak bere moduan.
Merezi zuten, bai, ezartzea behingotz beren graduan.
Hauk baititugu gure izarrak Euskal Herriko zeruan.

Andre Darraidou ezpeletarra ezagun aspaldikoa,
kargudun zintzo ta maitatua, guztiz buru argikoa.
Denbora batez ber'esku zuen diru-kutxa *Herrikoa*.
Andre daukagu abertzale bat hain ardura haundikoa.

Oi, aita Junes, zu aipatzeko alai daukat aurpegia.
Zu gorestea gauza errexka, bortxatu gabe egia.
Baina umila baitzira guztiz, barka gure ausardia.
Obra distirant asko egin duzu, horietan hiztegia.

Gizon umila baina bihotzak egiten zauzulakotz su,
zure bizitzan aspaldi huntan sail ederra deramazu,
Pastoralgintzan ta apezgoan eginik hainbat zerbitzu.
Idazle gisa guztiz aparta beti izan zaitugu zu.

2009-I-22

Ernest Alkhaten ehorzketa

Duela bi urte Iholdin zakoten
omenaldi bat egina.
Beti irria ezpainetan ta
bertsulari atsegina.
Ta sortzearen ordaina zaio
gaur Alkhati ere jina.
Jaun ona, otoi, solei ezazu
famili hunen bihotz-mina,
bai ta zurekin lorian hartu
gure Ernesten arima!

Joan den astean *Herrian* zuen
bertzen dolua idazten.
Guk ezin pentsa hain laster zerbait
berari eror zaioken.
Gure Jainkoak denen gainetik
ekarriko du sustapen.
Seme leialak egundainotik
nola dituen goresten,
mina estaltzeko, Jaun ona, eman
ezaguzu itxaropen!

Urte bat goiti-beheiti joan da
Xalbadorren adinean;
gehiago dena, heriotz-egun
hori zen data berean,
harek bezala liburu on bat
guri utziz eskumenean.
Ernest argitan sarturik bada,
gu nigarrez ilunean.
Ongietorria egin bezote
orain zeruko taldean.

Armendaritzen, 2008-XI-10

Joxe Mari Aranalderen ehorzketa

Oi, Aranalde jauna ginuen
zinezko gizon argia.
Euskararentzat, herriarentzat
egin du lan bat haundia.
Hunen errotik segitzen zuen
bertsularien haria,
eta gogoko zuen biziki
Xalbador miresgarria.
Hori dela ta zordun gelditu
zaio gaur Euskal Herria.

Horren aurpegi sendoa beti
ezaguna zen denetan.
Zenbat itzuli ez ditu egin
Urepeleko gainetan.
Apez izanik, beraz artzaina,
sinesten zuen benetan.
Harrigarria, paregabea
zagoen hitzaldietan.
Haren argitik zerbait gelditu
bedi gure bihotzetan.

Holako lagun on bat joanik
gu ere tristerik gaude.
Halere, horren bizitza ez da,
naski, izana debalde.
Herriarentzat bake saildua
Jaunari zakon maiz galde.
Labe bizi bat izana zira,
Joxe Mari Aranalde.
Ea zerutik zer egin daiken
bada euskaldunen alde!

Gaztelun, 26-IX-2005

Manex Bergara gogoan

Manex Bergara, Sarako bertsu-idazlea, 2003an zendu zen, laurogoita sei urtetan. Hurrengo urtean, Mixel Guerendiain saratar bertszulearen inguruan bildu taldeak argitaratu zuen Bergararen bertsu-bilduma ederra, eta haren omenaldi bat antolatu. Mixel Xalbador, Laka eta Fermin Mihura ziren bertsutan, Ellande Alfaro gai-emailearen agindura.

Pentsa zer gai hautuzkoan
sarturik naizen gaurkoan:
Manex Bergara gogoan.
Ai, zer txoria edo zer perla zagon Sarako txokoan!
Hunen bertsuak lerroan
gaur irakurri ondoan
bihotza daukat beroan.

Gure Euskal Herritik kanpo
bizi izan zinelako
bilaka ote holako?
Azken denboran Sara herrian piztu duzu irri franko.
Arraileraren gako,
ez zagon hala-holako,
bertsuak zekarrelako.

Zure bertsu idatzia
beti gozoki hazia,
baitu zinezko grazia.
Badu errima aberats, eta zoinen poliki josia!
Zorrotza eta bizia
lerro-andana guztia.
Azkena ezin ahantzia.

Aipatzen baduzu Sara,
berekina dauka euskara.
Bihotzak zer gorakada!
“Aiten hizkuntza” diozularik errespetu haundiz, hara,
hau jalgitzea plazara,
arras normal den gisara.
Egun ere zerbait bada.

Halaber, Euskal Herria,
gure ideal garbia,
zuk muinean ekarria.
Euskaldunek bat eginez hemen zer parabisu neurria!
Horra zure egarria
gutziz ageri jarria.
Zoin zinen maitagarria!

Ametsak behar egizta,
eta zu errealista,
ez nehundik konformista.
Gerla-denboran omen zinela zuhaur ere terrorista.
Justizi bat nahi begizta,
edo nolazpait konkista.
Nork onets presoen lista?

Mixel Lekuonari esker onezko ekitaldia Makean

Mixel Lekuona apeza hastapenetik Bertsularien Lagunak elkarteko zuzendaritza batzordean izan zen, bai eta Iparraldeko ordezkari Bertsuzaleen Elkartean. Ustekabean osagarria galdu baitzuen, omenaldia antolatu zakoten bera apez zen Makeako herrian. Mezatik hasi eta bertsulari andana eder batek kantatu zuen egun hartan. Huna Fermin Mihuraren zonbait bertsu:

Elizan kantatuak:

Ongietorri beraz deneri Makean.
Zein goxo bildu garen guztiak batean!
Mixelen inguruan gaude elkartean.
Anaitasun bat sendi da bete-bete.

Lana zintzo egin ta goresmen Jaunari!
Gaurko mezu garbia izanen da hori.
Meza sainduan hartu dezagun hazkurri
umilki jarraitzeko denen zerbitzari.

Erlisioe edo arrazaz datozen bereixkeriak,
gerla-bideak bilatzen ere batzu ez dira nagiak.
Falta egiten dauku askotan goiko maitasun-argiak.
Zur'izpirituz hazkitzu, Jauna, hemengo buruzagiak.

Bazkal-denboran kantatuak:

Bazkari hunen ondotik indar izan dezake kantuak.
Hegoa eta iparra bitez lehenik izan agurtuak.
Gauza normala gure Mixel hau izan dadin ohoratu.
Hau da gizona andrerik gabe guztiz familiatua.

Badakigu hau nola dabilen artzain eliza partean,
koperatifan sortzaile eta bertsulari elkartean.
Hainbertze alor jorratzen ditu, maitatua da Makean.
Holako jauna estimatzen da, bai, beti lagun artean.

2002-XI-3

Xanpun zenari

Airea: Pello Joxepe

Inarrosaldi haundia sortu du Xanpunen hilberriak.
Bizi luzeagoa merezi lagun estimagarriak.
Lagun artean finka zituen erroak ta lokarriak.
Zinez figura bat loriosa galdu du Euskal Herriak.

Gerla ondoan hasirik zuen bertsutarako urratsa.
Herririk herri, plazarik plaza mende erdia du pasa.
Mattin-Xalbador lagun zitula, ez zaiken giro eskasa.
Ta gaurko gaztek aitortu dute hunen jite aberatsa.

Kristau-balore ederrena guk nola dugun maitasuna,
ta, Xanpun, zure bizitza zauku izan horren oihartzuna.
Familiari atxikia ta dirdiran laguntasuna.
Nago ez dugun zurekin jasta hemen goiko erresuma.

Oi, zer grazia ez zen loratzen usu zure aurpegian!
Jendekilako bertute hori ongi zagon agerian.
Bertsu errexa, baina espantu gutti zure alderdian.
Orain nahitez sarturik zira gure euskal historian!

Fede azkar bat oinarri zuen zure baitako dohainak,
iturri gozo baten emaitza zekarren berriz mingainak.
Horrela bazka izan dituzu lagun-andana bikainak.
Orain Jaunari otoizka gaude sor ditzan zure ordainak.

Jakizu, Xanpun, zu itzaltzea izan zaigula pisua.
Faltako zaigu zure bihotza ta berdin zure zentzua.
Baina tristura estaltzeko gai daukagu zure mezua.
Jainko onaren eskutik bedi zuretzat parabisua!

Herria astekarian argitaratuak, 2002-II-14

Jean-Mixel Bidart zenari

Jean-Mixel Bidart, Bankako artzaina, biziki trebea zen xakurren hezten eta txapelketa askotan irabazle izan ohi zen. Minbizi bortitz batek eraman zuen berrogoita bost urtetan.



Fermin, familiako bazkarian, Ibarra, 2012 (arg. Olivier Iglesias).

Lehen batean egonak gira kantu-gogoa joanta.
Doluak nola joak gaituen arras hurbiletik, zanpa!
Jean-Mixel Bidart zendu zaigula behin nork sinets erranta?
Bankako artzaina falta.
Lagunendako zer zaflakoa, eta zenbat ziliporta!
Xakur-hezlea ginuen, baina nolako gizon aparta.

Berrogoita bost urte zituen, eta sasoin ederrena.
Gaitz zitalaren aztaparrak du hobenik gabe kondena.
Hain laster joaiten ikusiz dugu zinez ukan anitz pena,
baitzen lagun hoberena.
Leialtasuna, freskotasuna zitun gaztetxo batena.
Ehorzketako jende osteak finkatu du hori dena.

Omena entzun dutenendako ere ederra da saila.
Mende laurdenez zazpi xakur ta beti goreneko maila.
Iparraldean zazpi bat aldiz lehen zitzaigun apaila,
eta nork atxik mutila?
Euskal Herriko final batean gainditu zuen kasaila.
Oñatin, berriz, gorenekoan bitan hartu abantaila!

Bankarrarentzat jendeek erraiten: hori duk hori manua,
xakurra urrun zela ezagun zinezko esku fermua...
Jitez gotorra, ta ez zakien beretzat zer zen pleinua.
Horrela zuen jeinua.
Baina jendeekin zein bihotz xamur, melodiatsu doinua.
Xakurrek zakoten errespetu, ta adiskidek estimua.

Abereekin hola heltzeko izan behar dira maite.
Eta maitatzen dakien harek mugak gainditzen dituzke.
Gaur edozeinek ez du agertzen lanean hainbat bertute.
Artzain gazteak jo ta ke.
Gur'alderdian hasteko batzuk zer ikasia daukate.
Motoan zaldiz dabilta, baina ardi-xakurrik ez dute!

Apal agurtu nahi nituzke daudenak doluminetan.
Sarraski hori sartzen bide da bizkarrezur ta muinetan.
Baina, Jean-Mixel, ontsa zindezke Artzain Onaren oinetan,
goiko pentze jorietan,
Jaunaren ardi bilakaturik lagunekin lorietan.
Zuk pentsa guri, guk ez zaitugu ahantziko otoitzetan.

2001-VI-02

Reyes Corcostegi zenaren oroimenez

Fermin Mihura artzain-xakurren txapelgoen antolatzaile eta aurkezlea, urteoro joaiten zen Oñatin egiten den azken haitaldira, Iparraldeko artzainer laguntzerat. Horrela eginak zituena Reyes Corcostegi alkatearekin ezagutzak.

Bazkalostean oroipentxo bat guk Corcostegi zenari.
Hemen hutsune haundi bat ere ez ote da gaur nabari?
Orain urtea gure alboan ekin zakon bertsoari.
Bertso bi eskain ditzagun bada hainbat eman zigunari.

Hark bazakian zer zen mendiko eguzki eta lainoa,
hark bazakian euskal artzainak zeukala bizi sana.
Hauk goratzeko praktikan eman zun aspaldiko asmoa.
Eta nola ez, alkate gisa baitzagon fenomeno!

On Joxe Mari apezarekin hura zen hura pare!
Bakotxak bere kargua, eta gogoa euskaltzalea.
Kurritu zuten herri osoa, hego ta iparraldea...
Askotxok ez du ahaztuko haien bihotza ta umorea!

Oi, Reyes, beti izanen zira gure eredu garbia.
Hauxe da pena zuri itzalirik eguzkiaren argia!
Baina fedeak salatzen digu duzun zorion-neurria.
Artzain Onak zu izango zaitu arkume maitagarria.

Oñatin, 2000-IX-23

Otxalderi omena

Bidarraiko Herriko Etxeak Bertsularien Lagunak elkartearen laguntzarekin, Otxalde bertsulari famatuaren omenaldia antolatu zuen, 1997ko otsailaren 28an. Ferminek ere kantatu zuen jaialdi hartan Iparraldeko bertze bertsulariekin.

Orroitharriaren ondoan kantatuak:

Auzapez jauna, hartu duzue obra hunendako arta,
ta Bidarrairi berdin emenda lezaioke arrakasta.
Ezen, Otxaldek bere denboran ukanik fama galanta,
hilarrietan zen hutsune bat, haren seinalea falta.
Euskal Herriak eskertuko du zuen orroitharri aparta.

Mangianean sortu zen, eta Saskoenean hor hila.
Otxaldek anitz herri kurritu zituen hazkurri bila.
Guarda eta fakturra⁶ zen, baina bertsulari bat bipila.
Orroitharri hau xutik ezarriz, hara amets biribila:
menderik mende euskal jendea Otxaldez orroit dadila!

Eskola gutiz bertsu-alorrek olerkiaz orraztatzen
zakien harek, eta jendea berdin irriz zapartatzen.
Jakin zun besta, toberak edo plazak kantuz loreztatzen.
Gaur egun ere zirtolaria beti baita preziatzen,
pentsa, Otxalde ohoratuz dugu gure arima goratzen.

Gaurko mendean aldakuntzatik ez gira bizi aparte.
Auto, hegazkin, ordenagailuz badugu zonbait suerte.
Zoritxarrean hizkuntzak dauku sortzen mila buruhauste.
Azkenik erdal-telebistena eskaintzan berrogoi gate.
Gurea salbu daike Otxalde miretsiko den bitarte.

⁶ Guarda eta postaria.

Xanpunen omenaldian

Begien bistan dagoen perla sekula ez da ahanzten,
ta gure Xanpun bertsularia dirdiran ginin ikusten.
Herririk herri hainbat lekutan ibilirik jende pozten,
halere gaurko ohorea ez zuen neholaz amesten.
Euskal Herriko seme maite hau Donibanek du goresten.

Omenaldia, beraz, dezagula segi.
Bertsuak ere jinen, nola egon geldi?
Tenore huntan nonbait gosea da sendi.
Janari-edarier eman ba aurpegi.
Opa dizueguna da, gustukoa bedi.
Bai, eta oraino on daitzuela deneri!

Zure baitako bertute bat da, oi, Xanpun, laguntasuna.
Bizi ta hilen ganik Xanpunek du bertsu-mamia suma.
Lazkao Txikin orroitzapen bat guk ekarki dautzuguna,
mugagabea nola dagoen kobleri-elkartasuna.

Hainbat opari eder Xanpuni hemen zaizkio eskaini;
andreari ere dugu pentsatzen ez ahal zena komeni?
Anttoni, zuri esker Xanpunek badu hainbertze harmoni.
Hargatik esker onezko lore-floka har zazu, Anttoni!

Omenaldiak zer mogimendu einarazi jendeari!
Zinez estimu haundia zaio gure Xanpun maiteari.
Harrera eder bat egiteko predikuz Alliot Marie.
Ta hunek berak kasu ein bezo bertsulari-mezuari.
Euskal Herrian kudeatzekotz jarraik bedi euskarari!

Donibane Lohizunen, 1995-IX-24

Bertsularien Lagunak

1992ko urtarrilaren 19an, Donostian egindako omenaldia baino bi aste aitzin, 1992ko Trufania⁷ bezperan, Bertsularien Lagunak taldearen eskutik Baxenafarroan omenduak izan ziren Teodoro Hernandorena, Mariano Izeta eta Emile Larre bertsularien lagun eta gai-emaile ezagunak. Goizean, Emile Larre urte haietan erretor zen Irisarriko mezan kantatu zuen Fermin Mihurak. Gero, Baigorriko Manexenea jatetxean egin zen bazkalondoko bertsu-saioa, Iparraldeko eta Nafarroako zombait bertsularik parte hartu zuelarik.

Mihurak elizan fededunen otoitza:

Eguberritik Trufaniara Jesus Haurraren dirdira,
lehenik artzainak, gero magoak miretsiz zauden begira.
Ta Elizatik kanpo gaur egun hainbertze jende badira.
Begi itsuekin behatzen badute Eguberriko argira,
Jauna, egizu zu ikusteko ukan dezaten desira.

Hernandorena eta Izeta jaun hauetxen ezagutza
balios zaigu. Nola ez eskain haueri gure laguntza?
Ta Emil Larre bertako artzain, zuek artalde urosa.
Hauen ondoan filosofian anitz baigare kamutsak,
Jauna, egizu fedetik haste har ditzagun etsenplutzat.

Munduan gaindi bada miseri eta badago gosea,
sosa errege delarik sortzen jende artean leizeak.
Bertzalde, berriz, gure aldean eritasun-oinazeak.
Jende zintzoen gainera berdin ez da errex ulertzea.
Jauna, fabore bat egiguzu: solegi ezinbertzeak!

⁷ Erregeen eguna.

Gaia: Baigorriko Marzel Errotabehere "Berro":

Manexean zu, Marzel "Berro",
guk zintugula ikusi,
zure orduko kar beroa guk ezin dugula ahantzi,
Euskal Herriko izar batzu gaur omentzen girenez hasi.
Bertzela hemen izango zinen, eta zu gaur ezin kausi.
Nehor aipatzekotz, zure izenak aipatzea du merezi.

Zure iduria, Marzel "Berro",
hemen daukagu gordea.
Bertsularia zinen erdia, osoa bertsuzalea.
Zerbitzatzeko beti prest zinen zu euskaldun ondarea.
Ta ezindura jasan ondoan, merezi gabe ordea,
bertze munduan loratu bedi zure bihotz maitalea.

Zer tristezia alde batetik ahalmena galtze hori!
Zure inguruan bilduko dute merezimendu ugari.
Hodeiartetik halere so bat bizi den iguzkiari.
Zur'alabatxi Maialen denez gur'artean soinulari,
zuk ereindako hazia dela fruitu on emaiten ari.

Entzun dudanez, gainera zinen gizon fede haundikoa.
Zure bihotza ez zagon hutsa, baizik dena mamizkoa.
Mundu hunetan guztiek dugu ezbeharren irrixkoa.
Zur'agiantzak ez dakit nola daizken Urteberrikoak.
Guk ere guti laguntzen ahal, lagun zaitzala Jainkoak.

Etxahunen omenaldia eta euskal kantu txapelketa

Pierre Bordazarre *Etxahun Iruri* omendua izan zen Irurin,
1989ko ekainaren 25ean. Jendetza haundia bildu zen
goizez, eta arratsaldean euskal kantu-txapelketa egin zen.

Lapurditikan Xuberoraino jiteak non zer kanore?
Baina Etxahun haundiari guk egin nahia ohore.
Talendu haundiz hark moldaturik daude hoinbertze kantore.
Gure ganikan hark mereziko zituen bai zombait lore,
orroitzapena biziko baita bai orain eta gero're.

Hura're nozbait ibiliko zen zainetan edo urduri,
baina herriaren maitasuna erakutsi dauku guri.
Arratsaldean gaurko txoriek egingen dute tiruri...
Zinezko bestan plantaturikan ikusten dugu Iruri.
Besozabalik hartzen gaitu ta zeru ttiki bat dirudi.

Etxahun bizi izan balitz gaur jinen zen gure erdira.
Kantu ta bertsu, xirula, dantza, denetan zuen dirdira,
baina Jainkoak eraman zaukun betiereko argira.
Gure kantuak Etxahunentzat otoitz bihurtzen baitira,
segur naiz egun hortxe dagola zeru gainetik begira.

Zuen artean hemen aurkituz ezin gorde gure poza.
Hoinbertze kantu ta xaramela, nork ez dezazke ba goza?
Erranen dute lehen bezala: euskalduna zoin airosa!
Herri zahar hori ohidurekin beti dabila hain ontsa,
eta Iruri bilakatu da Euskal Herriko bihotza.

Aspaldixkoan orroitharriaz beztitua da Iruri.
Itxura horrek errespetua sortaraziko orori.
Iduri luke hor ezarria dela guztien zaindari.
Gur'arbasoen lekukotasun bat zaio hartzen berari.
Ta mezu hauxe: tenk atxikiak izan beti euskarari!

Dударик gabe gaur bazagoen bertsutarako lotkia.
Agian, zuen gustuko izan da eman diogun hunkia.
Beti Xuberon aurki izan dut nik gustuko berokia,
eta agurtu beharra daukat paregabeko tokia.
Ea gero're sortzen diraden berriz Etxahun ttikiak!

Piarres Larzabal zenaren omenez

Airea: Pello Joxepe

Azkainen Herriko Etxeak eta Euskaltzaleen Biltzarrak antolatatu zuten Piarres Larzabal zenaren omenaldia, 1988an. Mihurak, Lakak eta bertze bertsulari batzuek ere kantatu zuten. Mihuraren bertsuak bildu ditugu hemen.

Sortzez azkaindar, Larzabal zena ginuen apez kartsua.
Harek barnatu izan du beti Ebanjelio-mezua.
Bazakien bai nola zerbitza pobre eta behartsua,
gutziz egiten zuelarikan herriaren zerbitzua.

Sokoa Urruñako auzoan sartuz erretor kargura,
laster eraiki zuen eliza koxkor pollit garbi hura.
Baina anitzez zabalagoa agertua hedadura.
Aurkitzen nion Ars-eko apez famatuaren itxura.

Gaztedanikan erakutsia izpiritu bat bizia,
eta beretu zuen hain laster euskaldun kontzientzia.
Nahi duenak ez dauka haren talenduaren grazia.
Ai, zer altxorra deraukun gero oparitako utzia!

Bihotz xamurra ta sendimendu onez gaindika betea,
iheslarien gerizatzeko sorturik Anai-Artea.
Zakonez zela aski paperen behin xuxen emaita,
anaieri zor giniotela ahal zen borondatea.

Askok ez dute, ez, estimatzen gure berezitasuna.
Euskal Herria Piarresentzat, ai, nolako ontasuna!
Ez zen harentzat ez deuskeri bat populuen nortasuna.
Hortarik kanpo anitz falta du jendeen urostasunak.

Antzerki eta idazlaritzan obra bereziki fina.
Guk nahi baino lehen zitzakon azken ordu hura jina.
Ehorzketako begiratua zaukun azken katixima:
iraultzailea izan daikela gizonaren herrimina.

Berez gizon bat alegera zen, omore on eta broma,
eta umilik bat izaitekotz, hura ez zen fanfarrona.
Ez harritzeko Hego-Iparrek dioten estimu ona.
Nola ez maita mugari tiro bat sartu zakon gizona!

Bizitza iraganik xumeen zerbitzu leial, garbian,
gure Jainkoak beira dezala orain zeruko lorian.
Populu hunek altxatuko du aldiz bere historian,
izar-argiak dirdira dezan luzarat Euskal Herrian!

Popaul Peryren 60 urteak

Gain-gainetik bertsuzaleak ez diren euskaldun batzuek nahi ukaiten dituzte bertsuak entzun gertakari berezi bat ospatzen dutelarik. Beraz, horrelakoetan bertsulari bat deitzen dute. Fermin Mihurari ere laket zitzakon jendeeri plazer egitea. Bertsuak moldatzeko xehetasunak galdegiten zituen familiari, zeren ospatuak izanen zirenak gehienetan ez baitzituen ezagutzen. Bertsuak prest zituelarik, bertsuen galdetzailea bere etxerat etorrarazten zuen, eta hari erakutsi, hala beharrean zuzendu, eta kantarazten zazkon doinu ezagun batean.

Hirurogoi urtekin bestan dugu Popaul.
Lagunarte-giro hau da zorion arbol,
ta melodia goxoa dugu bai: do-re-mi-fa-sol...

Ziburutar mariñel-seme zintzo baita,
ez harri hau anitzek dezakete maita.
Untzi xuria zuen muntatu eta izendatu «Aita».

Atxikimendu dio famili ederrari.
Laguntasunak elur hura bezain garbi,
ta itsasoan aingeru on bat du bere zaindari.

Errugbiko maillota berez du xuria,
*Gorakiko*⁸ atorra hura iduria.
Famili xarmant huntan badago segur harmonia.

Esku onetan daude Maina ta Ramuntxo,
ta Maritxu fier da etxekoeri so.
Geroa ere irriz dagoke zabaldurik beso.

Panorama margotu diogu aparta.
Popauli tatxarik ez ote zaio falta?
Lehen saltxitxoia, gaur gozokitik, pixka bat gormanta.

Popaul, zuretzat huna lagunen mezua,
bihotzeko desira, ta guztiz kartsua:
jarrai dezazun luzaz hain zorionsua!

2013-VIII-3

⁸ Azkaingo abesbatza.

Kanboko Jean-Marie eta Yvette Biscay 40 urte ezkondurik

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Berrogoi urte dira gaur egunez egun
zuek ezkondurik, ta kantatu dezagun,
Jean-Marien gustua guk nola badakigun.
Bertsutan maitasuna ez dea ezagun?

Elkarrentzat lilura bi urtxo gazteek.
Gero elkarri junta Jean-Marie ta Yvette.
Bat izaitekotz hauxe familia plaxent.
Guk bezala nork ez du zuekilan laket?

Pier eta Jean-Michel haziak lorios,
salaren prestatzeko bat prest zagon airos.
Bertzalde zuek hantxe, Urkoin ere gogoz.
Koinatak laguntzeko bazinuten bihotz.

Familia laguntzen zuen gutizia,
ogitegian sortu zelaik Patrizia.
Ezin kondatua da han egin guztia.
Stephan ere baita ia zuek hazia!

Batetik Azkarate, bertzetik Donaixti,
gazte-denbora hura joan zen airoski.
Gero Kanborat jinak ez zirezte gaizki.
Laster promenatzeko izanen da asti.

Makil pollit batzuek zuk arta osoan
moldaturik dituzu emaiten auzoan.
Ta gero kaietekin ihizin urtzoan.
Gustu hoberik ote da parabisoan?

Erretretaren xantza nahiz ez orona,
Yvetti ere laster hor heldu zaiona.
Luzaz beira zazue gaur duzuen forma.
Jainkoak lagun, hartu gure zorionak!

2010-IX-1

Battitta eta Maddi Zaldunbideren diamantezko ezteiak

Diamantezko dira egungo ezteiak.
Guk nola ez agertu umore nasaia?
Zoin lorios aitamen biziko bidaia.
Beharrik, entzun zuten amodio-deia!

Battitta eta Maddi, oi, Etxeparean
zoriontsu zitaizken elkarren aldean.
Trabak gainditzen dira maitasun-garrean.
Hauena loratu zen gerlan gibelean.

Jakin zuhaitz sendoak fruitu dakarrena,
holaxe sortu baitzen famili ederrena.
Froga bat huna, gero gar haundi horrena:
biritxiak gertatu emaitza lehena.

Lehen laukotea're muntatu zenean,
hain mutikotzarrak ez gindezken denean.
Lauak juntatu ginen komunionean,
betiko gelditua orroitzapenean.

Xaubeur, Gilen ta Panpi, Matias laugarren;
Pierrot ta Maiteexa jin ziren ondoren.
Guztiak izar baten beha baiginauden,
azken izar horixe denetan ederren!

Ezin dira baztertu hemen ez daudenak.
Bat jada aipatua, Mixel bigarrena.
Zorte txar batek jorik landare onenak.
Berdin izan daitezke gaurko hurbilenak.

Aita-ametara gatoz, nahi azpimarra.
Orduko bazinuten zuhurtzi ederra.
Guri ulertarazi eskolan beharra.
Hori gabe gaur egun laike martxa txarra.

Hara, haurrak ditugu bertze loraldia.
Dirudi badutela hemen poz haundia.
Xurga bezate lehengo iturri garbia,
gurasoeri eman fiertasun gaindia!

Nahiz primadera ez beti gure esku,
txoriek hau urtero ohi dute amestu.
Hemen fedea ere ez daike saihestu,
sinesle finak negu-beldurrikan ez du.

Jaunaren eskertzeko holako egunak,
guretzat begiratzen ditu sari onak.
Goiko kutsurik badu giza-maitasunak,
aitañoi, amañoi, hartu gure zorionak!

Pagolan, 2005-V-15

Mugerreko omenaldia

Xantal eta Migel Torre senar-emazteek erretretan sartzeko besta zuten Mugerreko trinketeian, eta berrehun bat lagun bildu ziren. Huna Ferminek eskaini bertsu batzuk:

Bertsuen bidez ele bi.
Kanta gabe nola geldi
gure Xantal ta Mikeli?
Bihotz-barneko laguntasun bat ez dea hemen ageri?
Nork du hainbertze alderdi
kausitzeko jendeari?
Mila zorion zueri!

Oi, Seaskan⁹ Mikel Torre,
dena kurai ta adore.
Ez zuen bilatzen ohore...
Martxa bat latza bizi izan du, hala daike oraino're.
Nahiz batzutan haserre,
hau ez da hor nehoiz erre.
Bazuen hainbat umore!

Xantal emazte garbia,
urrundanik etorria
maitatzera gur'herria...
Denbora guti barne egin zen hauxe euskaldun berria.
Militantzi egarria,
Hemen-en zauku jarria
etsenplu miresgarria!

Egin gabe harrabotsa,
senar diruzain zorrotza.
Seaskan bazuten poza.
Huna galdeño xingle-xingle bat, zueri badaike pausa:
jakiteko daiken gauza,
kurios gaitezke ontsa,
etxean nork duen moltsa...

⁹ Iparraldeko ikastolen elkartea.

Bi seme eta alaba,
zein uso ta zein ainara!
Ber-xaramela euskara.
Manu, Maialen erne badaude, Gorka hain gora hegald.
Deputatuen mailara
igana baitzaiku, hara,
etxean fiertasun bada.

Hainbat gisako aipamen
egin dezakegu hemen,
nola gaia zabala den,
saltegi justu deitu daiken bat irekirik *Han ta hemen*¹⁰.
Haize kontra joan arren,
lan libreko bada kemen,
ez dira erneaturen.

Gaurko egunak distira
anitz duela sendi da,
ta zueri esker mila!
Euskal Herriak, zuzentasunak zaituzte betitik tira,
itsaso ala mendira,
beti lagunen erdira.
Maitasun-urratsak dira.

Erretretako adina
omen zaizuela jina,
kasik sinetsi ezina,
hainbertze jendek nola zaituzten bihotzeko lagun minak.
Zuen osasun gordinak
lagunt zaitzaten aitzina,
laike gure atsegina.

2004-VIII-1

¹⁰ Miarritzen bidezko merkataritza saltegia.

Abadieren etxean 60 urte bete eta erretretan sartzea

Airea: Primaderako florian

Holako bestan badaike bertsuño batzu jostea.
Hauxe dugun apairua ta hauxe lagunartea!
Mehaindar hauen etxean badu bihotzak bere partea.
Urre-kolore dira Jeannoten hiruetan hogoi urteak.

Udako ibilaldiak hoién ondorio ona,
gaur bezalako egunez garbi agertzen zaiguna
gure artean zimentaturik dagola laguntasuna.
Nik bietan dut hau estimatzen, baita giro euskalduna!

Lagun on batzu baditut bertzalde einak karrikan,
haien aldean ez bainaiz ere sendi bakarrikan.
Halere, gauza bat aitortzeko dautzuet gaur hitz garbitan:
erdaldun horien bestak ez dauka gurean itxurarrikan.

Ai, zer xede xamurretan zagon Abadie gurekin!
Nahiz lanean segitzen, adin ederra zaio jin.
Erretretaren aldia ere baliatu nahiko du fin,
lagun oneri zafraldi batzu eman ez bi xakurrekin!

Dena den, etxalde hauxe aitzina doa, alafede,
eta Maijan gaur artean laguntzeko bazen trebe,
oraindik goiti hor izanen da bi aldiz etxekandere.
Kontsolatzeko Jeannot-k har bitza xakurrekin zonbait ohore!

Gaurkoan gelditzen gira gu sekulako zorretan,
baina amor emaiterik nola ez dagon plazetan,
ordaintze ttipi bat bertzerik ez ein duguna denek betan.
Ea gustu on hartzen duzuen behintzat bidaia horretan!

Hirurogoi urterekin gizon gazte baten forma,
gisa horretan adinaz errex daiteke konforma.
Gomita hunek guretzat izan du erranahi sakona.
Gure aldetik harzkitzue ba bihotzeko zorionak!

Mehainen, 2004-V-15

Armand eta Germaine Ostizen urrezko ezteiak

Besta-giroan errex gabiltza kantari
sustengu on ekarriz batzuek bertzeri.
Baina gaur kar bereziz nahi ginuke ari,
zorionak eskainiz aitatxi-amatxiri!

Zuek esposaturik berroitamar urte.
Irauteko're behar du zonzbait bertute...
Famili eder hunek ohoratzen zaituzte,
maitale gisa beti zaudetela gazte!

Lanean eramanik bizitza gehiena...
Arrain turnadan Armand, zer orroitzapena,
jendeer ekarririk zerbitzu onena.
Ongietorria gaurko maiatzan lehen!

Amatxi Germaine berriz izana joslea,
zuhurtzia osoan eginez berea.
Guk zerbait ordaintzeko laike tenorea.
Bihotzez dakarzkigu zuentzat loreak!

Zuen seme-alabak, ta hioen haurtxoak,
eta zabalagoan famili-besoak,
denentzat hauxe dugu egun bat goxoa.
Zuentzat izan bedi esker on osoa!

Gaurko bestari zuek emanik neurria,
segur ez daukazue ospe-egarria.
Baina gu dener anitz duzue ekarria.
Zuetaz fier daike Ziburuko herria!

Ta ondoko egunak ongi ditela jin!
Hartzeko dituzue irriño batekin.
Goiko Jaunari otoitz dezakegu egin,
luzaz beira zaitzaten goxoki gurekin!

Ziburun, 2004-V-1

Jean-Pierre Iciagak 50 urte

Berrogoitamar urte zoinen eskergarri
doi bat xantza delarik eta osagarri.
Gure zorionak gaur doaz Jean-Pierri!

Orain ere urteak on ta txar nahaste,
esperientzi on bat ez daiteke kalte.
Jean-Pierrek hau badu dagolarik gazte!

Balonarekin daki nola daiken josta.
Entrenatzea ere izan zaio kosta.
Ta mendian daukana ahuntzaren trosta!

Kiroltzaleak dohain batzu agerian,
engaiatzen zarela beti kar haundian.
Nork ez daki hemen ta zure sorterrian?

Zerbitzu-gose hori da zinez ederra.
Zu hola Ezpeletan kontseilura lerra,
ta ez zaizu faltako gatza ta biperra.

Pausu onean zoaz zur'ofizioan.
Tindatzaile ibili zinen lehengoan.
Ateak zabal daizke zintzo izan ondoan.

Horiek hola, dauka emazte panpina.
Hemengo errezeta daiteke berdina.
Marijok ez ziron har ez balitza fina.

Biligarroa gero jalgitzen zelarik,
emaztea batzutan etxean bakarrik.
Maite behar zuen ez eiteko nigarririk.

Gauzak antola daizke denbora joanean.
Gaur mendiko urratsa sosegu hobean,
senarrak hartzen baitu andrea aldean.

Lehengo batez ziren hola abiatu,
sasi-txoko batean goxoki kokatu.
Paparratxi batek, ai, zezaken filmatu.

Famili-aipu labur bat gure kronikaz.
Xabi ta Peiok anitz dezakete ikas.
Fier izanen dira amaz eta aitaz.

Jean-Pier erroeri baita atxikia,
euskarak hemen hartzen du bere tokia.
Askorentzat etsenplu zoinen egokia.

Hola bilduz lorian ezarri gaituzu.
Familiaren partez horra zombait bertsu.
Milesker, ta zaitezte izan zoriontsu!

2002-VI-21 eta 22

Santa Ageda kantari, Miarritzen eta Baionan

Seguruenik Miarritze izan daitaie Santa Ageda ospatzen hasi zen Lapurdiko lehen herrialdea. Olaeta eta Oldarra Balletetako kantariak abiarazi zuten Hegoaldetik ekarri ohi-tura hori.

Miarritzera Mattin bertsularia gomitatzen zuten lehenengo; gero Alkhat, eta azken hamabost urtetan, Mihura eta Laka. Orain *Arroka* batasunak antolatzen du urteko besta hori. Egun osoko jarduna izaiten da, etxez etxe kantari ibilki. Kantariak aldizkatzen dira, baina bertsularientzat lan luzea da, dena segurtatu behar baitute.

Baionakoa *Errobi Kanta* abesbatzak antolatzen du Santa Ageda- aitzineko larunbat arratsaldean, Miarritzekoa ez tratatzeko. Baionan ere urte askotan Mihura eta Laka deituak izaten ginen koplak edo bertsuen kantatzerat. Nehori deusik erran gabe, etxerat heldu bezain laster Ferminek zombait oren lehenago kantatu bere bertsuak kaierretan idazten zituen. Hauetarik zombait irakurgai dauzkazue hemen, zoin lekutakoak diren seinalaturik.

Miarritzen

Maitena ostatuan:

Otsailaren bosta dugula ta Santa Ageda eguna ohitura zaharrean hola ospatu nahi duguna.

Zer poza den aurkitzea bakan'kusten ditugun lagunak!

Markagarria zauku biziki turnadaren hastapena,
jakinik goizetikan hain ontsa artatzen gaituzuen.
Izena ontsa ezarria du ostatu hunek, Maitena.

La Marina arrain-saltegian (orain janari saltegi):

Hemen salgai ikusten ditugu arrain on eta itsaski.
Hurbiltzean senditzen baitugu usain on hortarik aski.
Guk berriz ekarri nahi duguna umore onetik bi saski.

Ama-alabek saltegi huntan haundia duzue funtsa.
Saltze onarekin beteko da gero zuen diru-kutxa.
Eskerrak behintzat euskararentzat eiten duzuen laguntza!

Charlotte Mertzzerian:

Lagun onak aurkitzea baita guretzat miresgarria.
Eder da Marijo, ta guztiak zuen ongietorria.
Zuek gabe estimu ttipitan ginuke zuen hiria.

Marie Pierre Uhart kinkailerian (ez kantatua):

Milesker, etxeko anderea, zuk egin harrera gaitza.
Gure artean har zinezake berdin-berdin partaidetza.
Marie Pierre, hola zira guretzat: Miarritzeko printzesa!

Cellier des halles:

Liluragarria dugu zinez Sotoa arnotegia.
Sinesten dugu arnoak dula aiosten ahal begia.
Eskaintza on bat hortik baletor, guretzat, ai, zer loria!

Guilhou okindegian:

Sabela galdezka dugularik gauza ona da opila.
Jendea airoski hor dabila hori ta ogia bila.
Eta egun entzun ezazue *Arrokak* duen ezkila!

Paqui tratatzailea:

Tenore txarrean gu agertzen baigira hunarat beti,
nahiz ta Paquik onartu zakon hauxe gutarik zonbaiti.
Hortikan zingar-azpi bat laike gure etxeko egoki!

Ekhi dendan:

Beso zabalik ta guri beha zirezte hementxe Ekhin.
Ekhi Miarritzeko perla bat daukagula nork ez jakin?
Denda ttiki bat dugu hau, euskal bihotz haundienarekin.

Santa Agedako itzuliak emaiten daukun gustua,
urtero Paulette agurtuz eta hementxe gira poztuak.
Nola eskertu ongietorria ta zuek egin jestua?

Miarritzeko Herriko Etxean:

Gure itxura makilekin ta, ez da politikakoa;
nahiz jakin hiri-kudeaketa den gauza beharrezkoa.
Harrera eder hunentzat hartu esker on bihotzekoa!

Gure bidean zuen eskua inoiz izan da aurkitu.
Halere, gure euskara maiteak bizitzeko lanak ditu.
Zuek aitzindari zirezte ta izan hunentzat mediku!

Bi hitzez ohoratu nahia dugu Jakes Abeberry.
Jakesek ongi badaki, segur, euskal gudukaren berri.
Biba zu, ta kar hori pasatu ondotik datozeneri!

Ithursarry familian:

Udala ta Ekhi_utzirikan hemen gatoz tira ahala,
agurtu nahi dugu bereziki duzuen bihotz zabala,
talde hau guztia hemen sendi baita etxean bezala.

Kaiet eta Mayi, pozik gira Vivi ere ikusita.
Gaur Santa Ageda ginuen ta apirilean korrika.
Elkartasunean ederrena da bihotzeko musika.

Xirla, muskuilu ta otarrainxkak badute beren grazia.
Atuna, mihi-arrain ta bixigu, ahotik ezin utziak.
Mahaineko plazerrari bedi euskal kantua josia!

Maite Maniort:

Hara, bi urte du ez girela hemen zu ikusten izan.
Bihotzez agurtzen zaitugu guk, hori komeni den gisan.
Ta orroitzapen goxo bat dugu egiten duzun pastizan.

Zure bizitzan arizan zira zu justiziaren alde.
Hainbat presuna defendaturik ez da izana debalde.
Gure ganik, Maite, sinpleki har ezazu, otoi, ohore!

Zigor eta Karine Goieaskoetxea:

Agur zueri, Zigor ta Karine, ta familia guztia.
Zuen eskaintza urterokoa dugu oso berezia.
Euskal atxikimendu haundia praktikan erakutsia.

Egunkariak ta Udalbiltzak jasorik argi-izpiak,
Aurore Martinen auzia berriz artetik zer ausikia.
Egun beltzak gibelean utzirik goaita zagun eguzkia!

2011-II-5

Baionan

Bar Dacquois:

Agur eta ohore, hemen dugu jada jende gixakoa.
Ate-zabalik eta guri beha dagola barra *le Dacquois*.
Ea segitzeko diguzun ba berotzen guri moko!

Ez naiz hemengoa ta ez nuen ezagutzen nik Fred Bonin.
Fama ona segurtaturikan daukala jadanik hemen.
Ez da dudarik, ingo dizugu publizitate hoberen!

Marie Hélène Chabaud, Herriko hautetsia, Kanpo harremanen arduraduna:

Agur eta ohore bihotzetik bai zuri, andere Xabaud.
Herri hautetsien artean zu zindezke perla arraro.
Noranahi joanik ez zira lagun txarrena izango!

San Ferminetan zu ibiliko zira berdin Iruñian.
Harremanaren gustu gozoa zein eder besta denian.
Gaur ere gure bihotza pozez dago zure konpainian.

Lestrade ogitegian:

Ogitegia nola daukagun hain puxka onez betea,
ta komeniko zauku hementxe oharpen bat egitea.
Gaur arte ez nekien bazenik nehun ona ta merkea.

Ogitegiko usain on hori beti ezin ahantzia.
Hemen jendea goizean goizik baita lanean hasia.
Paregabeko janaria ta nagusi hauen grazia!

Sagarnotegi ttipian – Christian eta Isabelle Bakardatz:

Nondik heldu ote da izena, Sagarnotegi ttipia?
Barne eder hau ikusi eta ez da eskaxa tokia.
Maitagarri erran nahi badu, hori izen egokia.

Sagarnotegien fama hori moda gisa da hegaldia.
Estakuru horrekin jendea goxoki doa bestara.
Hegoalderat joaiterik ez da, hemen behar dena bada.

Jacky Lopez egun hortan uzten erretreta hartzeko:

Le Chaudron *bertzaren* ostatuan aspaldikoa da Jacky.

Erretretaren aldia ere nola jiten den polliki,

desir dautzugu osasun on ta zorion hemendik goiti!

Gazte batentzat hemen ukanez gaur plantatzeko parada,
suerte on desio diogu, ta har dezala patxada.

Ta, Jacky, zu Errobirat sartu, airoski egin trukada!

2011-I-29

Santa Ageda eskea Miarritzen

Maitena Ostatuan:

Arroka taldeak arras ontsa badaki bai nondik hasi.

Kantariantzat ostatu hunek zer begitarte, zer grazi!

Hemen bi herri ospatzen dira: Miarritze ta Garazi.

Badakizue bertsu-laguna oraino ez dut nik hemen.

Harek ez daki Maitena haxe guretzat zein goxoa den.

Askaria hutsegiten du, ta ez daki zer galtzen duen.

La Marinan:

Kaxkarroten herritik baitzira, anderea, hunat jina.

Denboraldi ederra baduzu jadanik hemen egina.

Askok hola ezagutzen dute zure aurpegi atsegina.

Urtean behin etortzen gira zuri agur egitera.

Bi solas goxo trukatuz gatoz gu elkar sustengatzera.

La Marinak distiran segitu beza urtetik urtera!

Charlotte Mertzera:

Marie Jo, izpiritu ona da senditzen zuen etxean.

Zoin goxo irriño pollit hori zuen ezpainen ertzean.

Bertzerik ez ginuke nahiko gure euskal baratzean.

Cellier des halles:

Arno gozoaren aldekoa da maiz kantaria sutan.
Arno beroa onartzen dugu beti holako kasutan.
Soto barnean laketuz denak hasi gintezke bertsutan.

Kinkaileria Uhart Marie Pierre:

Begi eder, aurpegi argia, Miarritzeko printsesa.
Gure bisitari ez diozu errex erraiten ezetza.
Andere Uhart, har ginezake nonahi zure defentsa.

Ekhin:

Denda ttiki hau Miarritzen da euskal munduko izarra.
Segur naiz erakartzen duela berdin-berdin kanpotarra.
Gaur euria kenduz zabal zazu zur'eguzkiaren garra!

Beti lorios, aferatua ikusten baitugu Paulette.
Urtean behingo bisita hau guri ere zaigu laket.
Prestatu ditun jaki onentzat bihotzez esker dezaket.

Herriko Elxean:

Miarritzen sorturik duzue euskararen bulegoa.
Gaur egun lan egin beharra da hobetzekotan geroa.
Santa Ageda kariatara, har gure esker beroa!

Hautetsien artean normala beti ados ez izaitea.
Mundu huntan aniztasuna da betiko ezinbertzea.
Horren gainetik eraiki zagon denentzat ongizatea!

Filipe Oyhamburu:

Urte osoa egonak gira gu egun hunen haiduru.
Dantzari-kantariekin beti zu izana zira buru.
Gure agiantza hoberenak zuri, Filipe Oyhamburu!

Idazle ona ere bazira, zurekin, ai, zer grazia!
Ederrena da euskara noizbait izan duzu ikasia.
Ehun urtez goira joan bedi airoski zure bizia!

Zigor eta Karine Goieaskoetxea:

Zigor eta Karine, huna berriz gur'urteko hitzordua.
Euskaraz kanta, euskaraz mintza, hori gure sosegua.
Bide hortarik zabal dezagun, zabal gur'euskal mundua!

Askotan mundua bortitza da, bortitza euskaldunekin.
Zer ari dira, ba, gure kontra denetan ekin ta ekin?
Ez dakitea zilegi dela sortzea nortasun batekin?

Ithursarry familian:

Mayi, Vivi eta Kaiet, hauxe familia bat suharra.
Bertze batzuekin *Arrokak* badu segurki zuen beharra.
Biba zuen euskara garbia, bai eta umore-pindarra!

Pentsa izan dut baneuka zuen kozinako alderdia,
zuen etxean bururatzea, hauxe atsegin gaindia.
Kartsutasun hortaz zangun bezti euskaldunen irudia!

Paqui:

Kantuz alegera heldu gira, aizu, tratatzaile Paqui.
Miarritzen leku onean ta lanean ari artoski.
Janaria saltzen duena ez dezake krisiak hunki!

Xirla, muskuilu ta otarrainxkak badute beren grazia.
Atuna, mihi-arrain ta bixigu ahotik ezin utziak.
Mahaineko plazerrari bedi euskal kantua josia!

2010-II-6



Santa Agedakari etxez etxe Errobi Kanta eta Arroka abesbatzarekin.
1-2: Baiona, 2009 (arg. Errobi Kanta). 3: Miarritze, 2004.
4-5: Miarritze, 2010 (arg. Arroka).

Santa Ageda eskea Baionan

La cave Gaillacoise:

Beñat Videgain hunen sotoan pozik gira geldituak.
Gure gisako jauntto bat hauxe, lagunkina, kunplitua...
Arno onak ekarri bezauku eskualdun izpiritua!

Arno onaren alde ariko da maiz kantaria sutan.
Arnoa beroa ere onartzen dugu holako kasutan.
Soberaxko egoiten bagira, denak hasiko bertsutan.

Martine Bisauta, Baionako auzapez ordea:

Aspaldiko ezaguna dugu segurki Martine Bisauta.
Ahulak defendatzeko ere aspaldidanik da planta.
Hau ofizioz erizain, baina beharko zuen abokata!

Urtarrilaren hoita hamarra, itzulika gu hunat jin.
Ingurumenaren axola zuk, eta gureztat atsegin.
Zerbait gehio're ospa dezagun: besta on gaur zuri, Martine!

Ingurumenaren aldekoa zure karra ta furia,
noizbait buruzagientzat ere zu izana bihurria.
Zurekin hautetsi-ekipak du hoberena irudia.

Café bar le Cardinal:

Agur eta ohore, bai zuri Romatet jaun mugertarra;
harrigarria ostaler hauek maiz agertzen duten karra.
Hauen zerbitzu ona daukagu kantuz osatu beharra.

Pala Antxa atxikia duzu lehen Mugerren gustura.
Rugbilaria ere izana, kirolaria, ez duda.
Bide laburra izan da beti kiroletik ostatura.

Ramuntxo Dulong-Xina:

Santa Ageda-taldea dugu *Errobi Kantan* egina.
Ramuntxo, zure ostatu haxe guretako atsegina.
Pozgarria bekizue gero gure xaramela fina!

Ezpeletatik etorri zira kirolari kunplitu.
Dantzari ona, lasterkaria, hori dugu aditu.
Guk berriz baso bat arnorekin nonahi dugu laketu.

2010-I-30

Miarritzen Santa Ageda kantari

Goizean:

Lehen hegalkada emana du aurtengo Urteberriak.
Bazko goizik dela ta, presaka badatoz ihauteriak.
Santa Ageda zuzen dabil airosteko ihauteriak.

Urtero Maitenatik hasita pizten zaizkigu indarrak.
Jende xarmantak ditugu gero Miarritzen garaztarrak!
Esker onez kantatu dezagun urratu arte zintzurak.

Agur eta ohore zueri, arraintegi La Marina.
Barnea pizteko ez da txarra arrainki hoi en usaina.
Erraguzu salgai baduzun, ta zenbatean den sardina.

Nahiz arraina jaki on izan, asko medikuk dio ta,
gaur arrantzaleak nekez dabiltz, hartu dezakegu nota.
Baina nonahi aterako da saltzaile den kaxkarrota.

Xarloten mertzerian deneri opa dezagun zorion.
Euskaldunak dauden lekuetan beti dugu harrera on.
Bizia non da ederragoa, hemen ala Larresoron?

Arratsaldean:

Goiztirian ekialdetikan agertzen da klarezia,
ta laster ekiak argitzen du gero inguru guztia.
Ekhi dendak Miarritze huntan dirudi harri bitxia!

Denda ezaguna Miarritzen gure denda Katalina.
Emazteen jantzi apain hoietan berezitua ta fina.
Hemen ez dezatela galdatu musulmanen mantalina.

Bozak ere heldu zaizkigu, ta jendea ez dago lotan.
Bortizkeri gabe ari daike sano-sanoa borrokan.
Euskaltasuna aberasgarri daike eremu frangotan.

Bi hitzez ohoratu nahia ginuke jaun Abeberry.
Jakesek ontsa badakiela euskal gudukaren berri.
Biba zu, ta kar hori pasatu ondotik datozereri!

Miarritzen lekua egina Etxeberri garaztarrak.
Hau ere tirriatu izan du bai kirolaren izarrak.
Ta bezero anitz ikusteko ez dira ez molde txarrak.

Urtero egoiten baitzira hor talde xume hunen beha.
Errespetuz agurtzen zaitugu, oi, Maniort anderea!
Gainera etxe hau ez ahal duzu euskaltzaleen labea?

Zure etxean sentitzen dugu zinezko anaitasuna.
Ta neurritz gorakoa're bada beti eskaintzen daukuzuna.
Hargatik jakin esker on beroz kantari gatozkizuna.

Agur eta ohore zueri, lagun Zigor eta Karine.
Programa arintxagoa gendun doi bat goizago gira jin.
Zer gustua ez dugu hartuko une batean zuekin!

Euskal Herria zertan dagoen erran daike betikoan.
Hegoaldean tratatzen dute euskalduna ostikoan.
Salbatzeko elkar hartzea da beharra modu tinkoan.

Ithursarry familiari:

Egunaren puntan zuekilan gaitezen apur bat geldi.
Aitzinetikan eskertzekoak, Kaiet, Mayi eta Vivi.
Dirudi hemen kontsolamendu gisa zerbait dugun sendi.

Jadanik egin izan ditugu bukatze paregabeak.
Nago hotzik ez duela sendi nehoiz zuen sukaldeak.
Ta bihotz bat hementxe badauka segur *Arroka* taldeak.

2008-II-2

Santa Ageda kantari Miarritzen

Santa Agedakari hementxe has dezagun abestia.
Argazkilari huneri eman niro kontseilu ezta:
fresko gareno hobeko duzu hartu gure argazkia.

Saltegi ezaguna daukagu Miarritzen La Marina.
Urterik urte beti freskoa hemen saltzen den arraina.
Gaurkoan ez gira gu erosle, baizik mirespenez jinak.

Nahiz Miarritze berez izan aski aberatsen hiria,
gauza xume batzutan jendeak berdin badu alderdia.
Hala nola estimaturikan den Xarloten mertzeria.

Euskararen griña aspalditik sartu zitzaigun gugana.
Hau biziartzeko gentzake har asurantz on bana.
Baina ez dut ikusten garbi zer lezaken egin Groupamak.

Emazte balios bat hementxe kinkaileriaren buru,
ahalmen onen jabe dagola horixe baita seguru.
Barkatu, anderea, baina guk zinez miresten zaitugu.

Hauxe dugu merkatuko xaia, edo bertzela sotoa.
Edari finez osaturikan daukala bere golkoa.
Zoinek ez luke toki hunetan berotuko bere mokoa?

Tratatzaile hunen aitzinean gelditzea erabaki,
hemen ere izanen baitugu aski edari ta jaki.
Oraidanik eskertzen zaitugu harrera on huntaz, Paqui.

Aratsalde eta gauzez:

Gure arteko jende sanoak zarete, Kattin ta Zigor.
Badakigu zer den euskal besta, berdin lan eitea gogor.
Elkarrekin gozatu gintezke, xumeki dezagun aitor.

Famili guztiz euskaltzalea Mayi, Vivian ta Kaiet.
Hainbat sailetan inplikatuak eta guztietan adret.
Ideal sanoa daukazue ta atxiki beharra de Tenk.

Gutziz pozikan gatoz hunarat gure bertsuak kantari,
izan ere hainbat zor ukanik zuetarik bakotxari.
Pena ez dugula Olentzerok dakarren hainbat opari!

Agur eta ohore bihotzez, oi, Valdivielso jauna.
Bidean gentozelarik zauku berriz agertu iluna.
Baina argi da nola zeraden izigarriko laguna.

Bertzalde erran dautatena mendia duzula maite.
Sekretu on batzu hola dira luzaz irauteko gazte.
Ongi jan ta mendian ibili, zu biziko ehun urte!

Jean-Marc Harriet urepeldarra eta euskaldun zintzoa,
ezagutu dukezu hurbildik zuk Xalbadorren bertsua.
Hari esker Urepel guretzat da zinez parabisua.

Lagun estimagarria berriz izenetik Cécile Candau.
Sorterrira omen zira gero Arrangoitzera joango.
Gehienen gisa kanpoan ontsa, baina herrian nahiago.

Anitz goaitan egon ondoren Miarritzen gaztetxea,
gazteentzat ere zilegi da lagunekin jostatzea.
Ez kexa eguna motz bazaie ta gaua berriz luzea!

Baina gazteak ere badauka aski bihotz eta buru.
Euskara maite baldin baduzue, hori estimatzen dugu.
Artetik esplika zaiguzue zer daiken xuxen Mizanbu?

Etsiturikan joan badira, orain zer erremedio,
hemen gehiago luzatzeak ez baitu batere balio.
Besarkada kartsuak deneri, musu onak eta adio!

2005-II-5

Baionako Santa Ageda

Auzapez jauna, gaur agurtuko zaitugu apal-apala.
Herria bihotzez zerbitzatzen duzu, baitzira leiala.
Beraz, kontutan dukezu hemen sentitzen dugun itzala.
Ea euskara sustatzen dugun zuk eta guk tirahala!

Pozikan etorri gerade jaun erretorraren etxera.
Mehetegiko xakur hura ez zaiken hemendik atera.
Lukainka-puskak ta oilaskoak ez doaz behintzat galtzera.
Ta soberaxko baldin baduzu, gu gonbita bazkaltzera!

Ostatu-atean gaude hemen entzule-andanarekin.
Kantua gustuko daukate ta gureztat ere atsegin.
Zintzurra leuntzeko trago bat pozik dezakegu egin.
Ur pitxerra're onartzen dugu nahasteko Rikarrarekin.

Mahainean jarrarazi gaituzte, edateko zela hobe.
Ez kexa, mahainari guk berdin egingo diogu ohore.
Eta dirutan ere badator, naski, zonbait paper doble.
Kosta behar zaigu egun heltzen pixka bat moxkortu gabe.

Etxeko nausia ohora zagun. Urrezkoa du bihotza.
Laster kantuan junta dezake gureari bere boza.
Ta Santa Agedak lagundurik eskean ez baigira lotsa,
diru faltan berdin zauku, jauna, xingarra edo bildotsa.

Etxe huntako etxek'andrea hain jendekina izaki,
zoinek ez dezake bila gero hau ikusteko aitzaki?
Kanpoan miraila bat bezala, etxe barnean iguzki.
Datorrenari eskaintzeko prest du kafea edo whisky.

Etxe huntako alabak zinez iduri duela arrosa,
nahi balu mutil liluratzen hauxe pinpirin airosa,
gorputz t'aurpegiz hain distiranta, paregabeko bihotza.
Nolaz ez zoriontsua gerta hartuko duen esposa?

1997

Artzain-xakurren lehiaketak Ipar eta Hegoaldean

Urteoro, uztaileko hirugarren igandean, Baigorriko *Zaharrer segi* pilota batasunak antolatzen duen lehiaketari garrantzia berezia emaiten zakon Fermin Mihurak, zeren egun osoko ikusgarria izaiten baita horkoa. Goizean lehen kanporaketak, eta aratsaldean iraileko azken haitadara Oñatira joanen direnen bereiztea.

Artzain-xakurren lehiaketak arrakasta haundia du Iparaldeko hiru lurraldeetan. Udan artzainak azkarki galdatuak izaiten dira Azkaine, Biriatu, Sara, Itsasu, Larresoro, Izura, Donibane Garazi, Heleta, Aldude eta bertze herri frangotara.

Fermin Mihura izan ohi zen artzain-xakurren lehiaketako aurkezle, eta aldi guztiz bertsuak kantatzen zituen joan ari ziren artzaineri. Bertsu horietako asko kaiurretan idatziak zauzkan etxean. Heiekin bakarrik bertze liburu baten gaia balegoke, liburu hunentzat hautu baten egitera behartuak izan gira. Ferminnek berak argitaratu nahiko zituzkeenak dira, segurrenik!

Atariko xakurra

Gure ate-xakurra da sen haundikoa,
etxean denek dugu zinez begikoa.
Xanpa goxoa badu, kasik lirikoa,
errespetua sortzen hori betikoa.
Ozar-itxuran ere hau ez da gaixtoa.

Gaztain-kolore arin ontsa presentatzen
ilaira harroa, ta Artxain dugu deitzen.
Labriko, maleziaz bizkorra, hain zuzen.
Neska gaztea edo bat badu ezagutzen,
buztan motxaz jakinen du hura agurtzen.

Ez da nehoiz ikusi joaldi debrutan.
Artzaintzan ere daki ibiltzen batzutan.
Gustura dago zinez etxe ingurutan.
Norbait itsusi bada hurbiltzen jestutan,
izaitekotz huraxe laike irrixkutan.

Baserrian bizi zarenez, zein duzu abere gustukoe- na?

Gure ustez, ariketa moduan, bere buruari jarritako gai bat
ditaikete ondorengo saio labur hau.

Xakur batekin eder doa panorama.
Aberetan hauxe da gustatzen zaidana.
Zintzoa da, ez gaitu sekula engana,
gainera errexu du ere harremana.
Duen zerbitzua ez zaio bate lana.

Arra ez ginuen hartu, bazen pentsatzeko.
Urrixak gehiago du burua etxeko,
arrek hain guti aski dute biziatzeko,
auzokoen ondotik hor abiatzeko.
Beharrenean gero etxaldean peto!

Xakurren letain horiek ez dira xamurrak.
Haragia usnatzen du berriz sudurrak.
Gure etxean izanik apur bat xuhurrak,
haragitik gutixko du horren zintzurak.
Aldiz, ukanen ditu errexki hezurak.

2012

Azkainen

Azkainen Haranederreko artzain-xakurren txapelketara ez zen joaiten ahal izan Fermin, 2013ko abuztuaren 11n, ospitalean baitzen ordurako. Egun hartan, beti Fermin gogoan, Jean-Louis Iratzokik kantatu zituen ondorengo hiru bertsu hauek:

Ikastolako urratsa,
gure atsegin ta mahatsa.
Egun artzainen inguruan da zabaldu konpasa.
Euskal Herriko artzaintza
bizia ta aberatsa.
Kanpotar hauen liluratzeko hasi behar dugu dantza.

Xakurrek ta artzainek ongi elkar aditzen,
artzain artean berriz giro eder, hain zuzen.
Eredutzat badira presuna hauk hartzen,
euskal salbamenaz naiz ariko kantatzen.

Beti izan dugu, bai, hementxe hizlari,
ohitura zaharren, artzainen gidari...
Hitzen maisua dugu gure bertsulari.
Besarkada bero bat Fermin lagunari!

Baigorriko txapelketa

Baigorriko artzain-xakurren txapelketara ezin joan, eta ondorengo bertsu hauek jarri zituen Mihurak, bere ezina eta tristezia nabarmen uzten duelarik.

Jin zauku bada eguna
trebeska zetorkiguna.
Ta gaur pozikan gira lagunak bildurikan huna.
Gure artzainen oihartzunak
badauka freskotasuna.
Artzaintza bular sanoa baitu gure herri euskaldunak.

Hogoi mende pasa ta hamahiru urtea,
artzainek gaur Baigorri besta dexentea.
Txapel berri batentzat lehia betea.
Ontsa heltzeak ez du sekula kaltea.

Eskua pasatzeko jina zaut aldia,
aipatzen baikinuen lehendik egia.
Osasun-arazoez da presa haundia,
entsaia behar dugu gaur martxa berria.

Artzainen egun hunek badu kolorea,
asmo onez jantzia baitugu taldea,
nork bisitatuko duen gero hegoaldea.
Erantzuna hurbil da, ez egin galdea!

2013-VII-21

Biriatuko eguna gogoan

Irratian kantatuak

Jaz ez zen ez egin, ase ginen euriz.
Aurten Biriatur da programatu berriz,
xakurren lehiaketa joko miresgarriz.
Artzainek dute osatzen hain talentu haundiz.
Gustatuko zaizue bertara etorritz.

Agur zuri, Biriatu.
Euriarekin abiatu...
Nolaz ez dugu, bada, eginen oihu, txixtu, kantu?
Banderak dira landatu,
hesiak ere prestatu.
Ea ba zoinek korrale hortik ein dezaken kukurruku!

Irratian gu ere arizan euskaraz,
hunat euskaldun batzu jin dira patxadaz.
Nahiz erdalduneri mintza behar boladaz,
elkarrekin ditzagun egin zonbait solas!

Itsasu ta Iholdi, Aldude, Baigorri...
Bisitaz dauzkigute artzainak igorri.
Hauen presentzia da atsegin-iturri.
Bertze bisitarier guk ongiatorri!

Ezin pollitagoa Biriatu herria,
aldapa malkarrean delarik jarria.
Malkarrean da berdin gaurko ikusgarria,
nola malkartsu dagon maiz Euskal Herria.

2012-VIII-5

Esnatsuko Mentan bazkaria artzainekin

Airea: Begiak farrez farrez

Batzu atzotik bestan, ta gaur ere besta,
hola tenorea maiz ezin errespeta.
Zer sorginkeri oren osoa jin zauku presenta!

Bederatzi lekutan gure sasoinean,
sei irabazle kartsu atera taldean.
Horrek berak nau bozkariatzen eginahalean.

Hiru aldiz garaile izana da Xintxo,
gero Jean-Paul entzuna irratian mintzo.
Askok berentzat har lezakete hainbat errekurtsio.

Txiko deituko dugu aurten txapelduna.
Hau da anitz zorion ekarri daukuna.
Hegoan guri txapela uztea ez dute kostuma.

Lehenik Biba eta ondotikan Ekhi,
donamartiriar hau ari da abilki.
Esnatsun ere jaunen jaun izan, ez da segur guti!

Michèle daukagu beti Iholdiko printzesa,
noranahi joan ta pizten duena interesa.
Alai beti hor, ta gibeletik desafio Beltxa.

Umil izena, baina hain umil ote da?
Behintzat xakurra ez da batere minbera.
Ardi bortitzak hunekin gomit dira umiltzera.

Izar izar bat dela ageri segidan.
Kuanek eman dio aitzina aski lan.
Gaztea da, ta oraino luzaz izanen distiran.

Baina nola aipatu daitezke ba denak?
Izendatu gabeak ez dira txarrenak.
Pentsa zazue, denen beharra du gure zinemak!

Beñat Parachuk ere aitaren ezpala,
nahiz oraino ez dun sorbalda zabala.
Dominik aurten egon da hartza neguan bezala.

Umore pixka bat da hunela ageri.
Laguntasun eder bat baita hemen sendi.
Adiskideak, negu partean kuraiakin segi!

2010-X-31

Itsasun

Bidean lagun on bat galdurik¹¹ bizia doa aitzina,
bizi beharrak eginarazten baitu ere irrintzina.
Sano-sanoa hemen goretsi dezagun, bada, artzaina,
Euskal Herria ere goratuz, ta gure txoko apaina.

Has aitzinetik doi bat berotu baldin bada're mokoia,
jendeeri zerbait erakustea hauxe dugu gogokoa.
Denak lerroan hein bat goxoki hastera goaz gaurkoa.
Gure ustean dopinik gabe baita artzainen jokoia.

Aurtengo huntan berritasuna, badugu artzain berri bat.
Mutiko gazte, erne, bipila, badu borondate hainbat.
Ea xakurra molde onean dabilan ba harat-hunat...
Bertzela ere barka izanen da. Ongi etorria, Beñat!

¹¹ Pierre Lascaray itsasuar zena gogoan.

Hara semea aita bezala xakurrarekin hasia.
Gure ustean gerta daiteke bai irrisku berezia.
Neskatekilan ardiets lezake gero arrakasta bizia,
baldin ez bada artean sartzen bere aita itsusia.

2007-VIII-4

Urrixkan

Egun Urrixkan¹² bildurik gira, airea daukagu sano,
ta mahainean deus faltarik ez, haragi, biskotx ta arno.
Lagunartean bihotzak dio: bota bai zonbait kantuño!
Atseginago zaigu giro hau okasione txar bat baino.

Baginakien lan aitzinetik zer estimatzen den anitz.
Apairu on bat egin ta gero indarrak daitezkeela pitz.
Ta ikusgarri ondotik ere zuek biltzen zonbait aldiz.
Xakur-lanik ez ginero ikus jabea asetzen ez balitz.

Hainbertze aldiz elkartu eta hainbertze bazkari egin,
kanpotik ere erranen dute hortan dugula atsegin.
Gaur aparteko hunentzat ere agertu zaigu gogo fin.
Ni ere, naski, gizendu naike ardura banintz zuekin.

Aroa mottel dugu kanpoan, bihotz barnean beroa.
Gisa hunetan elkartzen ez dugu amets bat zoroa.
Biba zu, Marzel, zuri eskerrak dugu gaurko zikiroa.
Zuhauri esker urte batentzat goxatu zaigu giroa.

¹² Elizondotik gora Beartzunen barna, Aldudeko mugatik hurbil aurkitzen da Urrixka.

Urrixka huntan ukana dugu zinez zerbitzu garbia.
Etortzea zen neketsu, baina ez damutzeko aldia.
Eskertzekoa dugu oraino hemengo sukaldaria.
Egun huntarik eramanen da orroitzapen bat argia.

Arnoarentzat urtealdi ona izan daike aurtengoa,
eta artzainen artean ere alai dugu gogoa.
Poliki goaz eta besta hau ez da, naski, behingoa.
Segi aitzina, lagunak, eta ez bero adar ondoa!

2005-X-23

Sarako bestetan

Bestan goxoki gabiltza.
Ai, beti hola balitza!
Baina ez daizke hain gaizki bizi gure artzainak ta artzaintsa.

Hauetxek ere aski lan
dutela erranen segidan.
Egun goxoak dituztelarik pasatzen xakurrekilan.

Iholditikan huna bi
senar-emazteak jalgi.
Hauen heinerat heltzeko bertzek hartu beharko zurubi.

Biek xakurrekin dantza,
hauxe dagon konfiantza.
Hauen etxean arin behar du artalde inguruko martxa.

Artzaintsak duen grazia
laster daike ikusia.
Manatzen ongi badaki, eta ez egiten erasia.

Xakur bat harrigarria,
Jeannok dauku ekarria.
Heztearekin batera baitu egin euskaldun berria.

Iriquin pilotaria
xakurrekin zen abia.
Ez zaio, naski, ttipituz joan irabazteko errabia.

Eta Felix bizarduna,
begi xabal, betiluna,
artzain bezainbat ematen baitu oihaneko basajauna.

Xakurren joko garbia
dezagun bada abia,
ohoratzeko egungo besta eta Sarako herria.

2005-IX-12

Iratiko Pedroren txaletan lagun arteko bazkaria

Irati huntan bildurik gira, airea daukagu sano,
deusen faltarik ez mahainean, haragi, bizkotx ta arno.
Lagun artean bihotzak dio: bota bai zombait kantuño!
Atseginago dugu giro hau okasione txar bat baino.

Nik banakien lan aitzinetik zer estimatzen den anitz,
apairu on bat egin ta gero indarrak daitezkeela pitz.
Baina ikusgarri ondotik ere bildu dira zombait aldiz.
Xakur-lanik ez giniro ikus jabea asetzen ez balitz.

Hainbertze aldiz elkartu eta hainbertze bazkari egin.
Pentsatzekoa badu nornahik hortan dugula atsegin.
Ta aparteko hunentzat ere agertu zaigu gogo fin.
Ni ere laster gizen naiteke usu ibiliz zuekin.

Esker beroak, nor baita ere eman duena ardia.
Horreri esker osatu baita, ai, nolako bazkaria!
Baina artetik eskertzekoak dauzkagun sukaldariak.
Edozeinek ez dezake egin zuen zerbitzu garbia.

Nehoren lana gaurko hunetan ez nuke gutietsi behar,
hainbat presunek borondate onez nola egin duten indar.
Sukaldaritzan halere zeinen ontsa doan Zeanbelar.
Emazte hauentzat balio duzu urrea ez bada zilar.

Abadie dugu holakoetan aitzinean barra-barra,
ta ezagutzen dugu lanean hunek dakarren oldarra.
Halere hunen kasuan bada egitekoa nigarra:
bi xakur onak ukan, ta beti bat etxen utzi beharra.

Aurtengo huntan don Parachuk du harturik bere ohore.
Baigorri lehen gertatu eta gero Donibanen doble.
Kuan Miurarekin osatzen dute zinezko ekipa noble.
Ta fier gira hauk ditugula kanpoan enbaxadore.

Arnoarentzat urtealdi ona omen dela aurtengoa,
eta artzainen artean ere alaia dugu gogoa.
Ofizio bat gustagarria daike hola artzaingoa.
Segi aitzina, lagunak, eta ez bero adarrondoa!

2003-IX-10

Larresoron

Larresoroko aldean
gira forma ederrean:
artzainak besta gorrian eta zakur gaixoak lanean.

Arrosa ta krabelina,
jendearen atsegina.
Erleen gisa artzainek ere hemen dute erregina.

Sasoinak bururapena
ta Pinttori goresmena.
Xakur onakin josteta bat da artzainen lan bortitzena.

Itsasutikan Iriquin,
jaz bezain pindartsu aurten.
Izigarriko lan bat ein gabe huni ezin partidarik ken!

Bertze itsasuar bat, Koan,
fantasiduna jokoan.
Hau ere ez da ez eroriko artalde zailen zepoan.

Jeannon herria Mehaine,
ta xakurra bedi erne.
Entrabaleko lanakin ez da nehoiz jabe hau konforme.

Lekuan dira ardiak
eta gaitezke abia.
Jendeen gustua dugu helburu, eginez lan bat garbia.

Hara nolatsu gabiltzan,
ez beti bide errexan.
Makur kantatzen saiatu nahiz gaur euri pixkat egin dezan!

2003-VIII-24

Azkainen

Andre bat beharrezko zela,
ta Michèle daukagu perla.
Huneri esker ezitzen baita mutilen arteko gerla.

Kuan bi urtez nagusi,
atzo Itsasun du kausi.
Holakoeri neskatxek diote lepora egiten jauzi.

Garaipena maiz hain hurbil
bihotza jarririk pil-pil.
Jean-Paul, ez kexa, gauzak berriro jarriko dira biribil.

Don Parachuri
txapel eder bat buruko
baduzula gu lekuko.
Kasu, emazu anitzek orain ez dautzute barkatuko.

Zer erran daike Abadiz?
Aurten garaile bi aldiz.
Gaurkoan ezti ibil zaitetz ez itotzeko egarriz.

Nola ote da Mendiboure?
Itzalean hobeki, segur.
Urinik duenak parte bateri beharko dio egin agur.

Lotsatu gabe beruan
beharko aitzina juan,
hau baino joko ederragorik nola ez dagon munduan.

2003-VIII-10

Itsasun

Itsasuarren lehia,
ez aspaldiko ideia.
Ederrena da hainbertze jendek hau dezakela balia.

Hauxe da giro epela,
arras goxoa hunela.
Erran daiteke bero hauekin hemen kausitu dutela.

Haundia eta lerdena,
Jean-Paul da jazko lehena.
Ustekabeko ez da izanen, badatorkio garaipena.

Kuan herritar berezi,
dakarrena mila grazi.
Itsasun nehoiz ez du galdu, ta asko aldiz irabazi.

Lanjeros ez zelakoan,
itsasuarrek ondoan
hartu zuten, ta hara Parachu burua gora gaurkoan.

Xakur fornitzaile ona,
Felixek gaitu estona.
Miura zezenen pareko dute Felixen xakurrek forma.

Leku bat uztea gazteer
zaigu ona eta eder,
ta Eder-ekin Filipi segi Itsasu daikela fier.

Zorte txarrak zenbat piru,
bi xakur joan dauzkigu.
Felixen pena ez duela eiten lehen hainbertze apairu.

Izan ardi edo zikiro,
xakurrekin gira fido.
Hastera doa partida eta orain parioak libro!

2003-VIII-9

Donibane Garazin

Xakurrak eta ardiak,
ta artzainen alderdiak,
gaurko artzainek ez omen'tuzte ateratzen izerdiak.

Iriquin itsasuarra,
jaz irabazle suharra,
ta segur gira aurten ere ez zaiola faltako garra.

Oihu, txistu ta irrintzin...
Nor da airosik Kuan bezin?
Hunek lan ona eginen baitu Itsasun edo Garazin.

Mendiboure trankil xamarra,
ta lanean zer oldarra.
Lasterkatzeko hunek bazuen xakur on baten beharra.

Parachu izar berria,
makurtu gabe gerria.
Pilotan ere punpa jitean egiten da lan garbia.

Hau Garaziko artzaina,
eta artista bikaina.
Suquia forman, baina xakurrak ahul aire duzke zainak!

Ansolak anitz harmoni,
so eiteko zaio huni.
Baina batzuek nahiagoko zutela ikusi Ani.

Aski eginik prediku,
jujerik ez dut hunkitu.
Zerbait merezi zuketen berdin ontsa ezagutzen banitu.

Eta Parisen ardiak,
mutur beltz, adar haundiak.
Hau da artzaina xakurrik gabe, ta hunentzat izerdiak.

2003-VIII-3

Baigorri

Batzuk oihi, bertzek dantza,
xakurrekin zer fidantza!
Gustu bereziz osatzen dugu Euskal Herrian artzaintza.

Gur'Iriquin txapelduna,
bi aldiz gainera, zer jauna!
Plazer gehiago ez zuen ukanen irabazirik fortuna.

Gure Abadie mehaindarra,
ari dena zirri-zarra,
Oñatin ere ontsa heldu zen, egin zaiteken oharra.

Mendiboure gizon urosa,
besta batean ez lotsa.
Txapela bila dabilzanetan hau ere da lanjerosa.

Kuan Miurak badu Lindo,
ez txantxetan ari gogo!
Musean balitz, erran lezake gaur hamar tantoz inbido.

Bidarraitarra da Garai,
agertzeko on da nonahi.
Gorderik zagon baina zakien zuela talendu nasai.

Garaztarra da Ansola,
Iratin dauka etxola.
Eta plazara agertzeko du beharrik ukan axola.

Bidarraitarra Parachu,
ikusle ginuen usu.
Aktore ona bilakatu da nahiz ari kutzu-kutzu.

Andre bat beharrezko zela?
Michèle daukagu perla.
Huneri esker ezitzen baita mutilen arteko gerla.

2003-VII-20

Aiherran artzainekin

Gure artzainak prest-presta.
Lana dea ala besta?
Pindar gehiagoz ez da jalgiko gaurko hemengo orkestra.

Iriquin da txapelduna,
askotxoren ezaguna.
Kontrariotzat hartu lezake orain arteko laguna.

Artzaintsak xakurra Alai,
ta bera kriket nolanahi.
Lanean daki, baina pentsatu, jendea biltzen ere bai.

Hau Mehaineko Abadie,
bertzen gisa gustu haundi.
Ahalmen ona duena beti trankil eta errex ari.

Hau Itsasuko Miura,
ez da txarrena, ez duda.
Itxura hutsa egiten behintzat ez laiteke abentura.

Mendiboure irisartarra,
trenpu onez barra-barra.
Mahainean lehen dena ez daike lanean izan hondarra.

Ta Bidarraiko Parachu,
ariko dena jo ta su.
Semea anitz maite du, eta xakurra ere halatsu.

Aiherrako gazteria
zaigu ohoragarria,
artzainen gisa mintzo baitute hemen euskara garbia.

Gure txaranga kuskustu,
emanez hainbertze gustu.
Egonaldiak badira baina, otoi, ez zaitetze hoztu!

Eta goazen lanera,
ederra dago manera.
Zer kondatua utzi dezagun hemendik urte betera.

2003-VI-29

Izuran

Oztibarren txapelketa
ta xakurren errekesta.
Artzainen lana dela estakuru hemen guztientzat besta.



Koxe artzain, semea lehiaketa-aurkezle, 1977. Artzain-xakurren lehiaketak: Azkaine, 2012 (arg. Annie Dumay) eta Baigorri, 2005.

Gaur egun artzain izanta
xakur gabe ezin planta,
probetxu ona emaiten baitu ikastolatik pasata.

Arantsusiko artzaina
da manatzaile bikaina.
Xakurrarekin maitagarria, euskara ez daki baina.

Bunuzeko Jaime ez galdu,
ezen, xakurra du Filou.
Goizean ere lehen zaiteken tranpa agertu ez balu.

Hastera doa borroka,
xantza on diegu opa.
Zuek ez duda, beren indarrak nahiko dituzte bota!

Aurten Jean-Paulen xakurra
aitzinean da ardura.
Ez da gaixtoa, baina batzuek horri diote beldurra.

Talenduaren gorena
ez ote Miurarena?
Xakur berria hartu ta berdin beti aitzinean dena.

Mehainetikan Abadie
ukaiten zonbait aipaldi.
Hain xakur fina izan ta ezin zaiteken etxean geldi.

Irisarriko Mendiboure,
konpaini huntan ez uzkur.
Len ere ez zen dudan ibiltzen, orain lan ona du segur.

Michèlen manamendua
xakurrari zuzendua.
Lan ona egin ta senarrak har liro konplimendua.

2002-VIII-18

Azkainen

Artzainak Itsasun atzo.
Jokabidez dira zintzo.
Hondarrean ez baitzen jendea hautaz bate gaizki mintzo.

Ta gaur Azkainen furia,
nahiz lana ez guria.
Ea oihuka agertzen duten gaurko bazkari-neurria!

Iriquin hau txapelduna,
artzain artean zer jauna!
Xakurra aurten ez da filmatzen. Egin dezake lan ona.

Iholdiko andereñoa,
ez baitu esku banoa.
Artzain artean Michèle hor bada, baztertzen zaigu lainoa.

Gure Mehaineko artzaina,
lan eder edo apaina.
Egin nahiko du Abadiak ere izateko kapitaina.

Kuan Miurak badu fama,
ta aurten aldatu plana.
Xakur berria, beti hain ona, ez da deneri emana.

Saint-Pier txapeldun ohia
ta manatzaile garbia.
Seguru gaude Felixi berriz jinen zaiola aldia.

Parachu bidarraitarra,
ari zaigu barra-barra.
Hunek duena, semearentzat beti gehio ein beharra.

Hara, martxan da errota,
xantza on diegu opa.
Zuek ez duda, bost eginahalak nahiko dituzte bota.

2002-VIII-11

Itsasun

Hainbat jende ikustean
kuriostasun betean,
zerbait pollitik izan daiteke gure artzainen artean.

Entrenaturik xakurra,
hemen josi edo urra,
bakotxak ez du beti kausitzen denen artean segurra!

Izar bat itzulka biran
eta bi txapel segidan.
Gure Jean-Paulek bizarra balu izanen luke dirdiran.

Kuan errege zen jarria,
ta aurten xakur berria.
Lindo-kin ere irabazteko bertzek haina egarria.

Gure Amaiurko anaia,
berez, ai, zer pertsonaia!
Amerikarren kontra're berdin hauxe laiteke engaia.

Parachu hau zer gizona!
Hobetuz derama forma.
Seme ernea, xakur argia. Nork du hunen zoriona?

Herriko figura Felix,
lehen txapeldun joko haundiz.
Saindu deitura, otoitz gutikin heldu daitekena berriz.

Filipe da gaztetxea,
Baigorri hura pausoa.
Aitari ere nausi zitzakon urrun joan daiken urtxoa.

Hastera doa partida.
Denak emanen argira.
Bihar erranen ote da: lehen itsasuar bat jalgi da?

2002-VIII-10

Baigorri

Bazkaltzean:

Duela urtea zorte txar baten ondorioz zer goibela!
Kasikan ezin sinets Pier ta Jean-Mixel falta zirela,
eta geroxago Biscaichipy joan zitzaikun horrela.
Hemen behar zuten lagun on hoiak goiko lorian daudela!

Zorioneko eguna dugu gaur artzainen inguruan,
hauk xakurrekin bederen sano ari baitira guduan.
Bertzela diren tirabirak hain ttipi herioan onduan.
Anaitasuna, elkartasuna preziatzen dira orduan.

Bizitzaren gorabeheretan dira hainbertze alderdi.
Halere hemen onginahi bat gure artean da sendi.
Elkar harturik zoinen goxoki dezakegun bada segi.
Bazkari ona presta daukute, on daizuela deneri!

Ikusgarrian:

Mende laurden bat gehio,
Baigorri ari serio,
euskal artzainek hartzen dutela beren lanaz laudorio.

Taldea daike begizta,
aldean laneko pixta.
Artzain artean hauek ditugu hemen zinezko artista.

Iriquin itsasuarra,
ta xakurra du Izarra.
Xakurrai baizik gizonari're ez zaio falta pindarra.

Gure Iholdiko artzaintsa,
gizon artean ez lotsa.
Ikusgarriai ekartzen dio bere biper eta gatza.

Itsasutik Kuan Miura,
manatzaile on, ez duda.
Txapela bere neurriko duken hortan badu arrangura.

Hau Mehaineko txoria,
Abadiiek jeinu joria.
Gaur ontsa helduz urte guztiko izanen du melodia.

Parachu ere da aipu,
apetitu ona baitu.
Ai, zer frailea sotanatxo bat eta bizarra balitu!

Mendiboure hunen kasua,
berdin mutiko sutsua.
Hunentzat aski bitoriari altxatuz geroz basua!

Hastera doa partida,
ikus dezagun astira.
Ta hoberenak joanen dira Bizkaira ta Oñatira!

2002-VII-21

Iratin Pedroren txaletean

Doinua: Egun da Santi Mamina

Xakurren joko apala
hasiko da berehala.

Gure artzainek nola daukaten hortan talendu zabala.

Parabisu bat Iratin;
besta hau zaigu atsegin.
Gure artzainek elkar neurtzeko dute desafio egin.

Hau da artzainen potreta,
ikusleentzat laketa.
Ohora dezagun gaurko besta hau ta Isabelen txaleta.

Holako besta ederra
erdaraz jauntzi beharra...
Zer egingen da erdaldunak gaur hemen badira bakarrak?

Gomendio bat aparta,
neurtzeko doi bat kalaka.
Isilik egon ta lan ondotik nasaiki jo esku-zarta!

Iriquinek badu Izar,
xakur erne, dena pindar.
Eta ardiak behar lekuan dezazke errexki ezar.

Abadiak izena Jeannot,
xakurra Bat fenomeno.
Hunekin bada garantia bat, ez dela ariko bano.

Kuanek badauka Paxtor,
hau ere ariko gogor.
Jenden ustean Labrika bati errespetua zaio zor.

Pinttorekin gaur Mendiboure,
jend'aitzinean ez uzkur.
Lanik zailena hunentzat daike errecki josteta bihur.

2001-IX-2

Xakur-sariketan Senperen

Miurak Heletatik dakarrena, Argi.
Ez nausi ez mutila ez baitaude nagi.
Baina xakurrari da botatzea izerdi.
Jaz hau ginuen lehen eginik lan garbi.

Beñat Mendibourena deitzen baitu Beltxa,
Senperekotz eginik baditu ametsak.
Badu oldarra eta badauka defentsa.
Eta nausia bestan ona dela pentsa!

Argi xakurrarekin Itsasutik berriz,
airoski etorria Senpererat Felix.
Andrea hartu zuen hemen egun-argiz.
Gaur xakur-jokoan da esperantza haundiz.

Michèle gur'andereak, zer xakur pollita!
Izena ere berdin hori baitu, Txika.
Artalde inguruan errex daike finka.
Jendeak bedeinkatzen du hauen musika!

Jean-Mixel Bidart heldu zerauku Bankatik.
Xakur bizkorra badu, eta izena Dik.
Lanari lotzen daki gainera gogotik.
Ahuntzetan usatua errex ardi ondotik.

Abadieren xakurra fier jin da hunat.
Artisten gisa dauka bere izena, Bat.
Behar delarik gozo, behar bada ausart,
lehen izaiteko egin dezakena hainbat.

1998-VII-26

Artzain-xakurren ikusgarriak hogoi urte

Ardi-xakurrek ikusgarritan badute joera gaitza.
Iparraldean jokoak ditu bai hogoi urteak pasa.
Xixtu eta oihu, makila gora ta ohar gabeko dantza.
Diote xakur bizkorren jabe izaitea dela xantza!

Miarritzetik hasi ginen, ta gero Azkaine, Baigorri.
Ondoren Xuberoan ta Garazin ongiatorri...
Hegoaldean, Amaiur, Yantzi artzain bestaren egarri.
Ta Oñatitik ere ditugu kopa ederrak ekarri!

Behin xakurren ongi hezteak badu aski lan emaiten,
jendeen bistako jokaldi hortan oraino daike ikasten.
Baina holako mutil batekin zenbat ez da irabazten,
eta artzainak zoin plazagizon diren ere da ikusten.

Lehen entzuna, artzaintzarako emaztea zela xuhur.
Xakurrarekin bat jin zauku, ta denek apal egin agur.
Hau laster hasi da laguneri emaiten zigor ta egur.
Emaztekiak erakutsi du ez dela mutilen beldur!

Jendeen aldetik zer arrakasta datoz ikusminarekin!
Ta artzaintzat jalgitze horrek badu zonbait ekarpen fin.
Nehoz gertatzen bada artzainetan sobera donado samin,
bat baino gehio zauzku plantatu biziko lagunarekin!

Andre hartzeaz errex laiteke hemen lekukoak biltzen,
baina espantu ez da eginen, kontuen gaineko baitzen.
Ehunetik ehun ez bada ere nehungo sailan kausitzen,
beldur bat dugu: menditar asko hastera guri segitzen...

Euskal Herriko bazterrak kurri: Ipar, Hego, eskuin, ezker.
Lagun artean pasatzen dugu hamaika umore eder.
Xakur abilen erabilpenak sortzen duelarik plazer,
gure artzainen sotiltasuna nola ba hobeki ager?

1995

Iholdin

Acheritogaray Jean, ta xakurra Youki.
Lanean gogor ibil, ardirik ez hunki.
Ezti ibil ditake, edo berdin brauki.
Iholdiren fama zuek behar gora eduki.

Mixel Suquia gero, ta xakurra Xumi.
Ezterenzubitarra, kasu egin huni.
Balentri ederrikan dezakezu eskaini.
Baina hitz frantsesik ez xakurrari forni!

Beñat Mendiboure, eta xakur hori Pintto,
nausiak maite duela kantu eta zirto.
Bestaren artetik lan egin eta kito!
Lagun ona nola ez guk izan begiko?

Kuan Miura Itsasutik, ta xakurra Bobi.
Gizona lixtoa da, ez sobera lodi.
Hein batean portatzen bad'artalde hori,
harriaraz dezazke hunek bat edo bi.

Jeannot Abadie, eta bere xakur Linda,
hauekin ere errez gintaizkela fida,
Mehainen egun oroz ibiliz hazinda.
Gehio ahal duenak hau einen balinba!

1991-IX-1

Oñatin, bazkaltzean

Nagusia ta etxek'andrea pertsuna agurgarriak,
ezin hobea gaurkoan ere egin dugun bazkaria.
Jantzia dauka berorrek, eta bera da sukaldaria.
Gutziz iaioak agertu dira hemengo zerbitzariak.
Eguna bukatzeko hauxe da benetako oparia!

Oñati huntan ederra dago urtero desafioa.
Xakurrek hainbat lan egitea bada ia misterioa.
Ta zorionak zuri, Antonio¹³, berriz txapeldun iaioa.
Ez zendun uste, baina baduzu ba kristoren jenioa.
Xakurra fina, baina artzainak baitu lehen balioa!

Lagun artean igarotzen da zorioneko eguna.
Aitzaki ona zagon goizetik xakur horien jarduna,
baina nortasun eder batez da jantzia agintzen duna.
Artzainak oro goresgarriak, ez bakarrik txapelduna.
Gora ditzagun hauen langintza ta denon laguntasuna!

Noski, artzainak ahalik ondoen eitea du helburuan,
eta xakurrak hortxe dabilta bakoitza bere moduan.
Euskal Herria ipintzen dute hauk egundoko graduan.
Berotasun bat sentituko da ondorengo otorduan.
Zer elkartasun gozatzen dugun artzain hauen inguruan!

¹³ Antonio Alustiza.

Ta elkarrekin egon gaitzke luzaro eta astira,
begiek baino gehio bihotzak baitu hemen ikusmira.
Lagunarte hau ederra zinez, gozotasun ta distira.
Zorion hunek iraun dezala da bakotxaren desira,
eta zabaldu dadin ondoren, bai, Euskal Herri gutzira!

2012-IX-23

Oñatin 50. aldia

Berriro ere Oñati huntan zoragarriko eguna,
urterik urte biltzen baigira artzainak eta lagunak.
Berrogoita hamar urtean hola distira ta oihartzuna!
Lagun on batzu geroztik zendu, pena ematen diguna.
Haien orroipen goxoak gutan pitz beza elkartasuna.

Urterik urte etortzen gira zorionez Oñatira.
Txapelketa bai, baina gehienbat laguntasunezko jira.
Euskal Herria gorestekoa gure artzainen mugida.
Hainbat urtean kontakizunak dabiltz mihitik mihira.
Guztiok egin dezagun besta, goikoak poztuko dira!

Gaur txapelduna ez zen bakarrik duena ongi eraso,
Iparraldeko ordezkariak ikusi dira eroso.
Podiumeraino bi igo eta baitute burua jaso,
erakutsirik nola dabiltzen gustura ta animoso.

Aldaketa bat izan da aurten betiko joko hortatik,
xakur guztiak pasa baitira artaldearen ondotik.
Ikuskizuna ederra zagon artzainen jeinu sendotik,
eta eskerrak antolatzaleari ausardia horrengatik.

Beti bezala aurtengo hori zer egun zoragarria.
Xakurren lana ederra, eta hementxe zer bazkaria!
Gure artzainek ohoratzen dute, oi, gure Euskal Herria.
Eta eskerrak bihotz-bihotzez zuri, Oñati herria!

2009-X-27

Oñatin

Eskerrik asko, hauxe daukagun giro goxo ta epela,
ta txapelduna gorets dezagun, ezin daiteke bertzela.
Mendigurenak gaur Oñatin du jaso laugarren txapela.
Edonork ez du, noski, izango Enrikek duen nibela.

Iparraldetik oso gustura etortzen gerade hona.
Dagon harrera ta bazkariaz errex daiteke konforma.
Ta artzain-xakur kontuan berriz askotxo dirade onak.
Danoi batera opa ditzagun hemen gure zorionak!

Hau lagunarte ederra, eta bereixtea dago neke.
Gaurko eguna gure ustean jatorki dugula bete.
Urtean behin elkartzen gira, ez gaude oso aparte.
Anai-arrebok, besarkada bat, ta datorren urte arte!

Besta hunetan jauntzirik daukat nere trikota iluna.
Napartar artzain haundi bat galduta, zer dolua duguna!
Oñatin Patxi Etxeberría hiru aldiz txapelduna,
lan bat txukuna egiteaz gain gendun guztien laguna.
Goiko argian aurkitu beza betirako zoriona!

Artzaintzarako haurtzarotikan Patxi zagoen jarria.
Paregabea xakurrarekin hark zedukan lokarria.
Ta ez dugula gehio ikusiko guretzat penagarria!
Titulu asko jasorik baina zer lagun maitagarria!
Patxiz orroitu bitez Oñati, bai eta Euskal Herria!

2004-IX-26

Oñatin euskal artzaineri monumentua

Monumentuak gure artzainen
fama digu zabalduko,
nahiz ta herri maitarazle hok
ez genituen ahaztuko.
Urterik urte Oñatiraino
badator hainbat lekuko,
nortasun eder bat daukagula
oraino gure eskuko.
Aupa, artzaina, zuri segituz
geurea da goralduko!

Lehiaketa bat martxan ezarriz
plazaratzeko neurriak
hartu baitziren. Artzain ta xakur,
hori da ikusgarria!
Jendearentzat jolasa gerta
zen osoki pozgarria.
Zerbait eginik badu hortako
gur'Oñatiko herriak.
Ta arduradun denoi eskerrak,
xutik da orroitharria!

Euskaldunaren gogokoa da
beti hunelako jaia,
ta monumentu hauxe eraikiz,
noski, jo dugula goia.
Gaur ideal bat dugu ospatzen,
bitarteko da artzaia.
Elkartasunez behar genduke
beti hunelaxe saia.
Bildurik gaude zazpi izar ta
Amerikako anaiak!

1998-IX-20

Oñatin, Xebastian Lizasorekin

Gur'artzainetan ipini dugu
Jordi Muxak aitzindari,
ta katalana denez euskaldun
denen anaia dirudi.
Hogoi urtean saiaturikan
tira nahirik txapelari,
bi lortu ditu, ta guk txaloak
eskain ditzogun berari.

Iparraldeko emakumea
dugu aipatu beharra,
ezen, Michèlek Txikarekin du
egiten lan bat ederra,
pil-pil emanez jende guztia
ta pil-pil oñatiarra.
Artzain artean ez ahal dugu
dirdiran dagon izarra?

Iparraldean emakumea
ta hemen artzain gazteak,
poza ematen du soro batean
hauk lanean ikusteak.
Batek txapela baldin badu're,
hain dirdiratsu bertzeak.
Jose Urien ta Plazaola
ez dira, naski, trasteak!

Zorionean besta goxora
jin gira parte hartzera.
Hemen lagunak ditugu denak
elkarrekin batera.
Iparrekoek bai estimatzen
oñatiarren harrera!
Bizi guztian nahiko ginuke
zuen erdian sarrera.

1996-IX-22

Fermin bere buruaz

Lehenengoz hegazkinean

Gure bizitzan izaiten dira gertakari batzuk, berdin ezuste-koak, zorionsuak edo ez, bereiziki hunkitzen gaituztenak, edo orroitzapenetan egoiten zauzkigunak. Fermin ez zen segurki urgulu untzia, bere buruaz edo bere balentrietaz espantuka aritzen den heietarik. Anitzez nahiago zuen bertzek erranen entzuten egoitea. Hala ere, laket, irri egingarri eta jostagarri zitzaion berak bizi ukan zituen sentipen, une edo memento bereziak bertsutan kondatzea. Hala nola, lehen aldikotz hegazkin batean Euskal Herritik Parisera airatu zenekoa. Bertsuka trebatze gisa hartzen zuen ariketa hori, baina apaltasunez, ez zituen argitaratzen horrelako bertsuak. Aldiz, ongi irakurtu ondoan, iduritu zauku zonbaitek bederen merezi dutela ezagunak izaita.

Goizik jaikitzen ginen, errex zait gogora.
Soldadutzan jartzen zen hango erritmora,
aireportutik gero hegazkinan gora.
Airean ez ginuen sobera denbora,
ta jauzi egin behar abioitik kanpora.

Jauzilarietan hor ez nintzen nagia.
Izendatua zira, ezin da kanbia...
Kirola eginez da lantzen ausardia.
Hemezortzi aldiz nun froga ukaldia.
Behartua ez banintz ez naiken abia.

Hegazkin normalean behin Parisera,
bertsutarako ginen herritik atera.
Xanpun ta Lakarekin jo Euskal Etxera.
Orroitzekoa izan zen hango harrera.
Halako aldia bai noake berritzera.

2012

Jauzgailuan

Orroitzekoa dudarik gabe
soldadutzako denbora.
Paraxutista izendatua
egiteko zen aproba.
Gazte ginen ta beren gisara
nahi gintuzten balora.
Berezia zen gure hegazkina
laster garamatzan gora.
Haatik zeru aldetik fite
jalgi behar zen kanpora.

Abiatzetik irekia zen
hegazkineko atea,
ta bakotxari zegokiola
han pentsakor egotea.
Jauzi egin ta paregabea
kanpoan libertatea.
Txorien gisa goitik behatuz
eder lurra ikustea.
Aro onakin gozatzen baita
ustekabeko bakea.



Fermin eskolan, lasterkari, 1969; armadan, 1965.

Ez dakit ez zen gure lan hori
alferrik edo debalde,
baina orduan ez zagon, naski
nehorri eiterik galde.
Gorputza malgu ginuen aski
eta kirolean trebe.
Griña ginuen lurreratzea
zangorik ondatu gabe.
Jaunari esker hortan zortea
beti izan nuen alde.

2012

Zoe Brayek bertsulariak marraztu zituelarik, Andoni Iturriotzek manaturik

Gaurko eguna zein ohoragarri hemen goxoki doala!
Baina galde bat: hainbat ohore ote da gauza normala?
Artetik zinez miresgarria Zoek agertu ahala.

Nire itxura apala,
aski zuzen nola hala,
eta distiran ezarri baitu nere aurpegi azala.
Irudia da gaur denen bistan gerla ein banu bezala!

Metro batean zagoen taula aski hurbil ezarria.
Hemendik beha ta handik keinu, ai, zer lan miresgarria!
Deusik ez falta, izaitekotan mugitzea beharria...

Solasa ta irria,
ginuen ere hazkurria,
eta bi hitzez esplikatzeko une katibagarria.
Aitor dezadan ia nintzela maitemindurik jarria.

Gure Andonik bota baitzuen egun batean inbido,
Zoe andereak gu ikusteko bidea zedukan libro.
Eskuaire ona duela ere erran behar da garbiro.
Gure etxean zen giro,
hasi gintezke berriro.
Ta koadroa behin pintatzeko omen zagola motibo.
Beharrik, Andonik sustatu zuen, nik ez bainuen egingo.

Hormirudian nere potreta, bada zonbait mila sorgin,
Zoe anderea gure etxerat behin batez zelakotz jin.
Hori marrazten ari zela ta gu ez gaizki elkarrekin.
Arkatz-kolpea zoan fin,
gusturat zuen alegin.
Eta potretak luzaro iraun dezakela nahiz jakin,
zaharrek zakoten ez fidatzeko jaten duten sainduekin!

2010-X-9

Laster erretreta duzua, Fermin?

Erretretako adina heldu, hori ote da hobe?
Hainbertze alor landurik dago gure biziko goldea.
Dena den, hortxe hurbil daukagu gelditzeko tenorea.
Hauxe dugu umorea,
ta libertate lorea.

Urte bat ere irabaziko preziagarri ez dea?
Nik segurikan estimatzen dut Jaunak egin fagorea!

Bizi beharrak ekartzen ditu berekilan zonbait hautu.
Ogibidea ta ezkontzea, eta ezer ez damutu.
Nere bidea egin dut, eta familia dut garatu.
Gaur kolpetik naiz ohartu
zenbat urte den pasatu.
Azken denboran bertsularitzan ukana dut zonbait gustu.
Huntan bederen erretretarik ez dezaket hola hartu.

Gizonak bota ohi du izerdi nola itsasoak kresala.
Gogoetabide batzu badatoz gu bidean gabiltzala,
ta Xalbadorrek utzia dauku bere biziko itzala.

Gazterikan nola hala,
badakigu joan zala.

Gaur erretretan sartzean dugu nahi izan zerbitzala.
Goia-behea zerbitzatzeko, bai, Xalbadorrek bezala.

2006-XI

Euskadi Irratiak deiturik

Berak ez zuen hortaz xehetasunik idatzi, baina pentsatzeko da Euskadi Irratiak Iparraldean duen ordezkariak nunbaitetik jakin zukeela Ferminek berrogoita hamar urte bete zituela egun hartan. Zela. Beharbada Irulegiko Irratitik jakin zuten, zeren egunero norbaiten urtebetetzearen karietara izaiten baitira kantu-eskaintzak, familiako edo adiskide batek irratora deiturik.

Nola debru asmatu duzue egun hunat etortzea?
Egun haundia dut, berroit'hamargarren urtebetetzea.
Gogorra egin duzue, bada, hola nitaz orroitzea.
Ederrena da anai batekin hunela besarkartzea.

Harriturikan nago egitan, bai, gaurko zuen deiari.
Euskal Herrian sentimentu on askotxo bada nabari.
Nere eskerrik anaikorrenak Euskadi Irratiari.
Ta goraintziak bidaltzen ditut zuen entzule guztieri.

Badakizue mende-erdi bat gaurkoan dutala bete,
eta Ferminek bertsu-munduan daramazki hamar urte.
Osasunaren zaintzeko ere umorea ez da kalte,
ta herriari bertsutan diot errango dudala maite.

1996-IV-6

Familian Azkainen, Bidarrain, Urnietan...

Zer herentzia zinuke zure haureri uzteko?

Gure etxean lehenik dago Euskal Herriaren xarma.
Dena eskura dator, gainera ez da nehungo fantasma,
bakotxak baitu preziatzen ahal gure euskara laztana.
Eta semeek bildu bezate bertsutan aurki dutana.

Bertze balore haundi bat dago eta barru-barrukoa,
sinestearen hegaletarik aspaldi hartutakoa:
kristautasunari tiratzen ahal zaio zinezko zukua,
eta buruan horrek zer duen? Zoriontasun zakua!

Bizkitartean ikus dezaket, jendea zein soraioa,
eta jaunaren alderat falta dela motibazioa.
Ulertu faltan ez da ikusten kristautasun-balioa,
adimen ona baino gorago nola den amodioa.

Ondore gisa batzuk nahiago usaindu lurra, harria...
Gutziz gainetik bertan ikusiz dirubide-iturria.
Azkaine txoko pollit hunetan xutik dago baserria.
Gure ondokoek bertan dezaten eraman bizi garbia.

2012

Aita

Ttikidanikan nere aita zenak zailtasun zuen aurkitu:
mendian bizi, ta eskolarat nehork ez zuen segitu.
Beregain etxen muntatu ordu gerlak bizitza murriztu.
Urte hoberenak etxetik kanpo, zenbat ote zun sufritu?
Handik jin eta xamurtasunez familia zen haunditu.

Etxen kokatu ta lau haurtxoak hortxetan gintuen hazi.
Baserria zen ttipia, eta kontrabandan behar hasi.
Gau eta egun hola lanean gorputzari pekarazi,
aberasteko irrisku gabe, baina biziari eutsi.
Behiak eta ardiak maite, horrek baitzuen garrantzi.

Ardietarik xakurretara bazagon tarte atsegin,
eta xakurren hezten agertu zuen zinez talentu fin.
Bai lehiaketa batzutan jalgi ere arrakastarekin.
Garraztasunaren puntan zakon josteta horrek on egin.
Noiznahi ere beti xarmanta baitzagon jendearekin.

2012

Ama

Gure amaren aipamen hauxe izan daike aproposa.
Orroitzapena bera heldu zaut goxo eta agradosa,
hainbat zerbitzu etxekoentzat maitez zituela osa.
Hala ez balitz izan deitzen ahal ginukena esklabotza.
Izpirituz zen zorrotza, eta paregabea bihotza.

Esperantzetan zagolarikan senarra gerlara altxa.
Hortik aitzina eguneroko hori izango zen latza.
Azen ontzeko lehen haur koxkorak aurki eritasun garratza,
bizi guztikotz zagola gaizki, hori zen hori arantza!
Halere, amak sendo eduki zuen beti esperantza.

Gerla bukatu, aita etxerat, eta emaitza baikorra.
Hor sortu nintzen, ta bi arreba, familia zen ohora.
Nonbait pozteko bazagon, baina amarentzat lan gogorra.
Ez da sobera jakiten nola ordaindu maitasun-zorra,
ta nik amari pentsatuz nahi nuke izan emankorra.

2012

Marracq elizaren inguruan Maddiren bataioko besta Baionan

Inguratua dugula Mayi hain familia amultsuz,
eta mintzatzen baino lehenago hasi behar zaigu kantuz.
Ez da dudarik joanen dela azkartuz eta haundituz.
Aita eta ama arta onean noiznahi daitezke ikus.
Sanoki haundi dadila Mayi gorputzez eta izpirituz!

Esku haundiak ditu ta begi urdinak.
Jada badaki egiten irri atsegina.
Zaindari hoberena du Ama Birjina,
baina aldizka omen da bertsulari fina.
Laster aman gisako neskatxa panpina.

Gogotik eman dugu hementxe kantua,
frantsesez ta euskaraz berdin osatua.
Urrundik jin jendea guri juntatua,
eta bazkal-denboran errex berotua.
Laguntasun hau bedi luzaz beiratua.

Abuztuan zen sortu Maddi, ta gaude urri-hondarrean.
Denek atsegin nola ez hartu hunelako biltzarrean?
Hemen bataio-urratsa ez da, noski, hartzen arinean,
hau bizitzako garantia bat bezala ikusiz denean.
Gaurko aingerua biharko dadin, bai, saildutzeko bidean!

2011-XII-6

Maitaneren bataioa Azkaingo elizan

Azkaingo eliza eder hunek Maitanek du lehen pausoa.
Argiztaturik ez ote dea aurkituko hunen soa?
Sustengatzeko jada izanik hor familia osoa,
goiko eskuak nola ez lagunt ba gure aingerutxoa?

Nola soinean emana duen bere arropa xuria,
hilabeteak guti ditu, ta da xamur eta guria.
Bataioaz da parean hartzen ur biziain iturria.
Elizaren haur dena dadien izartxo bat iduria!

Bataiatua dugu holaxe Maitane,
ttipi izanagatik hau zein dugun erne.
Gaurko ikuspegian bada argigune,
Jainkoa betirako izanen du berme!

Ta euskaldun izanen da Maitane, kasu,
Antoine eta Joan hor baitira berdintsu.
Huni opatzen diogu dadin zoriontsu.
Denen partez diozkat emanen bi musu.

Fede kontua dugu hemen gauza argi,
ta aski naturalki doala dirudi.
Bataiatzeko ez dira buraso hauk nagi.
Gure eskerrak doaz Xalbat apezari.

2011-VIII-28

Xabier semearen eta Eliseren ezkontza

Elkartzearen atsegin hori konda da familietan,
ta esposeri guk zorionak opatuz hitz goxoetan.
Aitor dezagun, bozkarioa ez da falta bihotzetan,
maitasun-arbol hori baitugu egun jarria loretan.

Maitasunez da jendea usu izaiten egarriritua.
Batzutan ezin ukanez gabiltz, hau ezin konprenitua.
Elisek eta Xabierrek dute bide on bat kurritua.
Ta maitasuna fedean bada polliki oinarritua,
gure Jainkoak bedeinka bitza berdin biharko fruituak.



Fermin eta Gracie ezkonduak, Bidarrain, 1972. Beren bi semeekin,
Marc eta Xabier, 1998 (arg. Olivier Iglesias).

Galda diteke gaur non dagoen gur'euskararen haria,
hau ere baitu loreño bat guk bihotzean ekarria.
Ezberditasun sanoak hola ez dira kaltegarriak.
Deus uka gabe kinka dezagun elkartasun lokarria,
harremanean ginen baita mundu hau maitagarria.

2010-V-14

Sortetxeari

Fiertasun bat bezala daukat sortu izana baserrian,
Azkainen Esnaur menditxo horrek duen hegalño garbian.
Hautzaroa dut hor iragana, behi, ardien erdian.
Bere xarma paregabea du bizitzeak mendian,
eta etxea sakratua da benetan Euskal Herrian.

Sortetxe hori izanagatik berez hain maitagarria,
arranguraño bat baginuen, deskartean zen jarria.
Eskolako, elizarako bidea nekagarria.
Horrek ekarri zuken hain segur aldaketaren tirria.
Auzo bereko etxalde batek ein zaukun ongietorria.

Nik hamar urte, ta ezagutu hola bigarren egoitza.
Etxalde hori haundixagoa, guretzat aterbe gaitza.
Herritik frango hurbildu ginen, maiz oinez baitzen baldintza.
Laborantzatik ta hazkuntzatik zoala beti bizitza,
ta geroxago guretzat jin zen etxaldearen jabetza.

Alde batean behitegia, bertzean bizitegia.
Gure esnea biltzeko ez zen ez trosta urrunegia.
Etxe-aitzina goiz eguzkiai gelek hego alderdia.
Azienda haien gainean berriz neguko belartegia.
Gaur dena hutsa ikusiz doi bat tristatzen zaigu begia.

Guraso onak oraino sendo biziko ziren garaian,
lanera hiri aldera ginen gu abiatu kuraian.
Laborantzatik jada mozkinak ez zetozen hain nasaian.
Anai gehienak bizitzekoa atera zuen ezbaian,
ta guk aldean etxe berri bat hortxe eraiki dirdaian.

Etxe berria, itxuraz kriket, Lapurdikoen klasea.
Lorioa ta balkoina ere komeni zen ezartzea.
Aldean errex lantzen baitugu beti lehengo baratzea,
ta inguruko soroetan da maiz ardien alhatzea.
Baina zein goxo, preziagarri, guhaurk eraiki etxea!

Sortetxe hura bermoldaturik beti martxan da parean.
Haur-denborako bigarren hori, hutsa sosegu onean.
Berritzekoa izanen da, bai, aldia heldu denean,
baina gehienik preziatzen dut euskara ingurunean.
Etxeek aina finkatzen gaitu hizkuntzak zorionean.

Oi, Xalbadorrek zion bezala, gaitza kasik da auzoan.
Erdara oldar haundian dator, gu ezin joan pasoan.
Etxe maiteek hazi gaituzte halako era goxoan,
orroit gaitezen hor haundituak garela euskal kutsuan,
eta hau gabe bihotza ezin aurki sosegu osoan.

2010-I

Mattin Mihura bere anaiaren ehorzketan elizan kantatuak

Airea: Habanera

Abnegazioa hitzak, ai, zenbat duken balio!
Bizitzan Mattinek ez zuen izan hainbat bozkario.
Ttikitik diabetarekin, eta zer erremedio,
alferrik zen ixurtzea sobera negar-jario.

Bertzerik ezin zuen ta laborantza ofizio.
Ezkontzea irrisku bat, beraz segitu serio.
Hunen arrosak bazuen hainbat arantze arraio.
Zinez zail baita izaiten gehiago abnegazio.

Bazakien alferrikan zela eitea marmarra,
hunen filosofia ez baitzen azkenean txarra.
Fede kartsuz osaturik joaiteko barra-barra,
etxeari ekarriko zakon laguntza ederra.

Bazakien dirdiretan ez dela beti izarra,
bertzetan ere jasaiten dela usu ezbeharra.
Bizitza gerta bazaio zama dorpe ta kaxkarra.
Otoizlari gisa izan du ihardokitzeke indarra.

Mattinendako atsedean zaiken azkenean pausatzea,
eta nolaz ez bozkarioa bere zeruan sartzea?
Gutziz ederra da berarentzat zuek denak hurbiltzea.
Bihotzez dautzuegu bihurtzen gure esker on luzea.

2009-III-19

Urnietako ahaideekin bazkaria

Amaren aldeko aitatxi urnietarra zuen Ferminek, gipuzkoarra. Azkaindar batekin ezkondu eta Azkainen bizi izan zen. Ferminek, bere anaia-arrebek, bai eta Azkaingo kuxinek ere harremanak atxiki zituzten Urnietako familiarekin. Ez dira ardura elkarretaratzen, baina atxikimendu haundia dute elkarrentzat.

Zorionean aurkitu dugu
Gipuzkoako Aduna.
SendiarTEan egiten dugu
hemen bilera txukuna.
Ongi bazkaldu eta hizketan
oroimenezko eguna,
ta sendian ez bada probatzen
nun proba anaitasuna?

Zorionean gu etorriak
Urnietako en erdira.
Aspaldidanik hori ginuen
guk bihotzean desira.
Ondo gozatu, datuak bildu,
piztu barruko pilpira...
Antzinakoak egongo dira
hemen goitikan begira.

Justo, Arantxa, Kontxi, Isabel,
gero Aitor eta Patxi.
Zuek ikustea gendun helburu,
haundia zagon gutizi.
Bertze aldian Azkaineraino
beharko duzue iritsi.
Ta bitartean besarkada bat,
denok ondo-ondo bizi!

2009-II-14

Gracieren despedidako afaria Arruntzan

Atsegin da hunela besta egitea,
hainbat urten buruan zen ezinbertzea.
Nahiz ez den azken aldiz elkar ikustea,
lanaz ez damu, baina lagunen uztea.

Lanean nekez eta artetik alaiki,
askon bihotza hola daike, naski, hunki.
Gauaren gibelean argia izanki,
laguntasun-indarrak sortzen du iguzki!

Lehen bertze Gracie bat, ta ondotik Maite.
Ondoan izanik ez enoatzerik bate.
Baita zer elkartasun, huna sala bete.
Ez da horrelakorik irauteko gazte.

Orain ez idurian bizitza berria.
Denbora libroak du bere alderdia.
Hiritik gutiago, gehiago mendia.
Gero elkar kilika eiteko irria!

Eskertzeko ditugu hainbertze opari.
Horiek ere asko dute erran nahi.
Estimatzeko baita ikustate hori,
zuek gogoan gira ariko kantari.

Mikrotikan ez dago sobra luzatzerik.
Denentzat dago besta, bada jostatzerik.
Eskertzen zaituztegu bihotza beterik.
Ordainez ezin erran milesker bertzerik!

2007-IX-28

Leonie eta Mixelen diamantezko ezteiak

Elizan, fededunen otoitzean:

Aspalditik goaitatu da egun haundia.
Gaurko espos hauentzat da omenaldia.
Jainko ona eskertuz gaitzke abia,
ta benedika beza gure familia.

Beti kataska eta denbora da joan,
zortearekin ere ez beti libroan.
Hurbileko zenduak maiz dira gogoan.
Jauna, begirazkizu zorion beroan.

Gazteria eder bat badator ondotik.
Ez dena ez gabea behintzat zentzutik.
Ahal dena har bezate lehengoan ildotik,
ta, Jauna, gidazkizu zuk bide sendotik.

Elizak ere baitu bere garrantzia,
Jauna ez bedi izan hemen ahantzia.
Fedez sustenga zazu lurtarren bizia,
eta guztiz lagundu ezkondu guztiak.

Meza burutzean:

Bidarrai huntan diamantezko ezteiak, oi, zer distira!
Leonie-Mixel, egun ta beti zuer hurbil-hurbil gira.
Iraupenaren haizeak hemen goxoa dauku firfira.
Sendotasun hau erakusteko zimendu onak behar dira.

Zuen batasun horrek eman du, eta emaiten fruitua.
Zer mirespena ez dugu denek bihotzean senditua!
Familia eder hunen grazia, arbola bat lilitua,
Zuen moldeak gure bidea ez ote du argitua?

Fedeak dauku goitik emaiten bihotz-bake eta gustu,
ta esperantza berekin doa, hola gindezke airostu.
Arrazoin eder bat hemen dakart, noizbait entzuna hain justu:
primaderan sinesten duenak negu-beldurrikan ez du.

Bertze pundua euskararekin, ez zirezte nehun lotsa...
Zer balio dun askok ez dute ez konprenitua ontsa.
Nahiz aferetan bertze hizkuntza ez zaigun ere arrotza,
nonahi zuen hunek hobeki altxatzen dauku bihotza.

Elizan gaude eta normala gure aipagai sakonak.
Laster jokoan sartuko dira umore on eta bromak.
Egin duzuenagatik zuentzat dira gure esker onak.
Eta gaurkoan, gurraso maite, hartu gure zorionak!

Bidarrai, 2006-X-30

Nire izeba eta osabari

Esposaturik hara hirurogoi urte,
Pilar eta Dominique hor dabilta tente.
Diamantezko ezteiak besta egin dute.
Ez da beti bortitza izan zuen zorte.

Pixkat soildua zaio buru hori, baina
gizona aurkitzen da fresko ta apaina.
Gapelu beltzak dio maiz estaltzen gaina.
Euskaldunak hau baitu ileen ordaina.

Gaztetan mutil bizi, pilotari fina.
Haundiak garaitzea gerta zen aitzina.
Baina zer zintzotasun ta laneko grina!
Etxe hortan Pilar da izan erregina...

Hiru alaba, Françoise, Denise ta Klarita.
Osatzen baitzinuten famili pollita,
ta ondokoek berdin hor zaituzte maita.
Ekuadorretik ere bat etorri baita!

Ai, zer sustengu ona zinuten fedea!
Nolazpait arindu're dautzue bidea.
Hortik ez kantitzeko zen zuen xedea.
Non aurkitu laiteke etsenplu hobea?

Ezkonduen bizitzan goiz zinezten lotu,
ta kukuak geroztik egin anitz kantu.
Maitasun-labe zaharrak beti du berotu,
ta biharko argia bertan bedi sortu!

1998-VI-13

Mixel eta Leonie Etcheverryren urrezko ezteiak

Elizan kantatuak:

Izpiritua hazten dugunez maiz telebista-eskolan,
ta ondorioz finka gaitezke, naski, arin-arin modan.
Edo nor bere alde jokatzuz, Jauna, baitago nahiko lan,
ea fedezko argi bat pizten daukuzun ba bihotz-zolan.

Gure burrasoek jakin bazuten zer zen joaita gerlara,
hortara gabe berdin samurgoz sartzen da beldur-ikara.
Familieta makur-biderik zoritxarrez heldu bada,
Jauna, erakuts barkamen bidez nola daiken errepara.

Berroita seian ukan zinuten esposatzeko grazia...
Eliz-urratser jarraikiz eta fruitu eman zuen haziak.
Jauna, Leonie ta Mixelen partez zuri esker on guzia.
Geroko ere benedikatu ezazu hauen bizia.

Noblia jatetxean bazkari-hondarrean,
urrezko ezteiak hasi ditugunez otoitzean,
joritasuna're jin da ostatuan bazkaltzean.
Jende haundien dirua bada maiz sarturik banketxean,
jende xumeen urrea berriz aurkitzen da bihotzean.

Berroitamar urtetako esposen leialtasuna...
Ederragorik munduan zer ote daiteke suma?
Batzutan bazko-loreak datoz, ta bertzetan garizuma,
baina ez du ez sosak egiten jendeen haunditasuna.

Berroita seian ezkondu hala manatuz zorteak,
pasa berriak zirela gerla-denbora dorpeak.
Geroztik ere izan direnez ekaitzak ta elurteak,
ni're orduan sortu nintzen, ta ona zaiten urtea.

Zortzi seme-alabekin, denak guztiz loriosak.
Leonie-Mixel, zer famili zintzoa duzuen osa!
Hori dela ta aitortu behar guk ere dugula goza.
Guretzat ere zorioneko izana zuen ezkontza.

Baina arrosen ondoan nola dagoen beti arantza,
Añan izena aipatu gabe nola gindaizke ba pasa?
Nonbait fedezko argi batekin bagira, hori da xantza,
oraino denak bateratzeko fermu dugu esperantza.

Bidarrain, 1996-IX-28

Ama zenaren ehorzketan

Kasu hauetan pasatzen dira
zinez mementu estuak.
Amak burura eraman ditu
mundu huntako jestuak.
Jainko aurrean halere gu ez
esperantzatik hustuak,
nola bihotzaren mirail onak
zituen beti eskuak.

Hiltzearekin, sinesten dugu,
ez da bukatzen bizia.
Baina herio-haize hau beti
denendako da gazia.
Estimatzeko dauzkala amak
zuen otoitz presentziak
Ordainez zuek harzkitzue, bai,
gure esker on biziak!

1991-XI-23

Frantxua eta Baberen ezteietan

Pantxua eta Babe, hauxe da eguna.
Kutsatzen gaitu ere zuen zorionak.
Pentsa Jaunaren ganik dela maitasuna,
benedika dezala zuen batasuna.

Maiz kezkabide dago gaur ogibidea,
bakotxak segurtatu behar du berea.
Eta Jaunari egin dezogun galdea,
destinoa ager dadin zuen partaidea.

Gaur konfiantza bada bihotz ta gogoan,
kabia prestatzeko txoriak ez loan.
Jauna, ardura zaitetz hauetaz geroan,
fruitu eman dezaten ba molde sendoan.

Ezkondu ta ezkongai, gogoan hartuz oro,
Amerikan daudenez gu orroituz gero.
Gure familietan ez denean aro,
zure maitasun-suak dezaukula bero.

Afalondoan:

Arrain-salda bat bixi-bixia, beroa ta paregabe,
izokin-puska gaitza bat eta gero idikia ere...
Ez ahal da nehor hemen gelditu goserrikan kendu gabe?
Eta eskerrak dauzkitzuegu, gure Pantxo eta Babe.

Deserta ere xupatu dugu goxo milik'eta jasta.
Izozkia ta pastiza ona nori ezin hainbat gusta?
Denak kantari, guztiak dantzan, hauxe dugu errekesta.
Apur batean ahanztekoa ez da izain gaurko besta!

Ezker ta eskuin, zahar ta gazte, guztiak agertzen alai.
Jaun-andre espos horiek aldiz agertu dutela kurai.
Alde batetik Etcheverry ta bertzetikan Alzugaray...
Molde hobean ezin elkartu Urepele ta Bidarra.

Orain kantatu nezake, naski, zerbait gure amarena.
Zortzi haur eder hazirik hola, familirik ederrena.
Gure artean nola ez du, ba, gaur hartuko gozamina?
Gaur hegaldatzen baitzaio hola bere ttipitto azkena.

Duela zombait aste ginuen hartu bestaren abisu,
eta pentsatu ere segidan: hori etxeko probetxu.
Bihotz-bihotzez nik eskainirik harzkitzue ba bi musu.
Zuen bizitzan izan zaitezte kuraios ta zoriontsu.

Bururat eman behar dut orain hemengo nere kantika.
Sobra janta ere gero ez daizke gauzak hainbertze esplika.
Baina aitzina goatzi kantuz, dantzan, gazteak jauzika...
Denentzat zaigu gustagarri, ta jo dezala bai musikak!

1989-XII-9

Azkaine eta auzotarrak

Fermin Mihuraren familia Azkaingo Aldagaraia auzoan bizi da. Bertze auzunetako gisan, Aldagaraian ere jende-familia asko kokatuak dira, eta ez dira denak euskaradunak. Harelere, elkar hobeki ezagutzeko eta harremanen atxikitzeko, ohitura zuten urtean behin bazkari edo afari bat egiteko, gehienetan hurbileko jatetxe batean edo, bertzenaz, herriko biltokian.

Azkaingo bere herritarrei gain-gainetik atxikia zen Fermin. Harentzat egiazko azkaindarrak ziren euskara mintzo edo maite dutenak. Ospetsuenen balentriak aipatu ditu bertsutan. Ospetsuen horietan badira bere burrasoen belaunaldikoak, bere adintsukoak, eta badira ere aise gazteagoak. Gustatzen zitzaion azkaindar horiek Azkainetik kanpo ere estimatuak izan ditezen. Horietan dira pilotariak, kantariak, idazleak, kantu ala antzerki-egileak, herriko kargudunak, bai eta azkaindarren zerbitzuan ikusi zituen apezak. Erran gabe doa, haietan zombait zenduak direla bulta huntan. Huna beraz nori eskaini ukan diozkan bere bertsuak: Piarres Larzabal, Andde Elissalde, Roger eta Mixel Idiart, Andde Luberriaga, Xalbat Martinon, Sebastien Gonzalez...

Maite zuen lagun artean egoitea eta solastatzea. Gizon alaia zen. Eta horrelako topaketetan ez zen egoiten egunari zoakion bertsurik kantatu gabe. Funtsean, galdatzaileak ere izaiten zitzaizken afaltiarren artean, batzutan norbaitek gai bat emaiten zakola. Bertzenaz, bakotxaren lanbidearen eta afizioen berri ongi baitzakien, Ferminek berak asmatzen zuen nola bere auzokideak zirikatu. Beti bezala, behin etxeratuz geroz, kantatuak oro paperean idazten zituen.

Auzokoen elkartzea bazkari batean

Bi presuna xarmanteri esker auzokoen bazkaria.
Hemen garbiki beiratu dena da elkartasun-haria.
Zoin eder zaigun dena horrela alegeraki jarria,
umore onari bako txak diola ekartzen bere harria.

Gure egoitzen txoko horixe Aldagaraiko altzoa.
Gehienak hemen bildu gira, ta altxa dezagun basoa!
Ditxolarien baratze bat zen denboraz gure auzoa.
Hargatik euskara beiratzeko da eginbide osoa.

Laxaro ginuen Onddikolan ta Erramun Uhartean.
Jan-Pier Maxondo, ai, zer jaunttoa Etxegaraiko partean!
Holako lagun bipil batzukin denak zauden aldartean.
Nere gustua ez baitzen sortu gur'auzotik apartean.

Behereko etxe horietan orain zer haur parrasta garbia.
Bakan nabila hoiekin, baina hurbiltzean zer loria!
Ikastolan ta etxean dute aurki lehengo iturria,
zoriean euskara baita hoiien mihitan jarria.

Bizpahiru bertsuz eginik dago bihotz-hitzaren bilduma,
jakinik hurbil hurbila dela inguruan erdalduna.
Jakin dezala den bezalaxe guk estimatzen duguna,
elkar adituz diferentzia dela aberastasuna.

2006-XII-2

Azkaingo plazan

Urtezahar, agur t'erdi erraitea da zilegi.
Baina bizia aitzina doa, eman behar aurpegi.
Hamahirua dena berri, osasuntsu etor bedi.
Bakotxak galda bezo berea. Urteberri on deneri!

Zonbait neke eta kezka geldi zitezken trebeska,
baina alferrik izanen da gaur eitea protesta.
Sinestea zagun freska, baikortasunez gainezka.
Hamahirugarren hunek bizia diezagula lorezta!

Ta agiantzazko hitza goxo prestatzen gabilta.
Lehen-lehenik osasun ona, hortxe baita giltza.
Urteberriak geriza beza gutarik bakotxa.
Gure aldetik hobeko dugu sanoki elkar zerbitza.

2012-XII-31

Ikastolak 40 urte Azkainen

Berrogoi urte gure ikastolak, Azkainerentzat ohore.
Ukan dituen lau egoitzak gaur begiztatzea da xede.
Sala maiz gerta da ttipiegi, eta egin behar alde.
Orroitzapenak kondatzeko ta edozein daikela trebe.
Izan ere gu herriko zonbait katebegi hemen gaude.

Proiektu hori gogoan hartuz behar zen izan abila.
Nahi bezala ez zoan beti ikastolaren gurpila.
Diru poxi bat emaileari ginion, bai, esker mila!
Hortarik usu falta zen eta jarraitzea aski zaila.
Irautekotan maiz gindoazen zerbait oldar berri bila.

Seaskarekin aitzina joan da beti mugimendua,
eta bi mila ikasletarat gaur egun dela heldua.
Badakigu zer trantze estutan dabilen euskal mundua,
ta ikastola bilakatu da euskararen zimendua.
Ederrena da hola elkarri diogun atxikimendua.

2012-V-5

Herri-bazkaria Azkaingo kirolen gelan

Azkaingo herriak ez ditu, naski, batere ate hertsiaik.
Begiratzea aski da hemen dauden presuna guztiak.
Auzo-herritik ta Azkainetik hauk dira indar biziak.
Gainera denak dira mahainean ongi egoten ikasiak.

Hainbat kondaira ta istorio, edo hainbertze komedi,
zenbait gezurren artetik berdin doatzila zenbait egi.
Denen artean elkartasun bat nola den guztiz ageri,
guk eskuz esku aitzina ere holaxe dezagun segi.

Bazkari ona eta guztiak gustura.
Kargudunek bazuten guretzat ardura.
Ta euskalduna laster baitoa kantura,
hola emaiten dio bestari itxura.

Euskaldunak berezko du kantu-haria,
lagunekin gertatuz horretan loria.
Horrelaxe lorios dabil kantaria.
Mozkortuta ere du burua argia.

2010-VIII-16

Bihotz onekoen afaria Azkainen

Airea: Amodioa zoin den zoroa

Borondatezko lan egileak egun dira ohoratzen,
eta dirurik biltzen badute hori bertzentzat, hain zuzen.
Bertsulariek leku askotan urririk dugu kantatzen.
Baina dirua emanez geroz badakigu ere hartzen.

Pentsatu zonbat atsegin zaigun ukan dugun afaria,
bihotz onekoak ez duelako nehoiz galdetzen saria.
Bakotxak baitu hain naturalki egiten obra garbia.
Denen artean fiertasun bat dugu hunat ekarria.

Gauza goxoak dira hauk denak bertsuetan kantatzeko.
Loriagarri da ikustea jendea borondatezko.
Laguntza behar kirol-taldetan, ta hainbat sail bultzatzeko.
Elkarrekin har dezagun indar gur'herria altxatzeko.

Borondatezko presuna hauek gora daukate ametsa.
Hauen laguntza gabe mundua laiteke bai arras beltza.
Borondatetsuak nekeari guti ohi baitu pentsa,
bertzen artean txalo dezagun Xalbat herriko apezka.

2008-VIII-29

Gure Irratiarentzat Gure bazterrak emankizuna

Airea: Sorlekua

Azkaingo herriak badu, naski, berezko distira,
guztiek ikusten dute iguzkiaren argira.
Plaza apaina, etxe pollitak, loreak irriz astira.
Larruni dago loturik eta itsasoari begira.

Sara, Senpere, Urruña, hau baserriz inguratzen.
Donibane ta Ziburuk kostaldetik besarkatzen,
eta Larrunen gibelaldean Bera dago barrandatzen.
Kontrabandaren garaian gehio baiginen hor gurutzatzen.

Laborari-etxe horiek nola zauzkigun gutitu,
ta lekuka etxe berri andana frango xutitu.
Azken denboran anitz gazte hemen ote da kabitu?
Mendez aldatzeak, naski, denetan zailtasunak sortu ditu.

Lanartetan arduratzen gira segurki kirolez.
Erregia osatzen da jokolariz eta zalez.
Baina euskaldunok pilotan, hau gurea daukagunez,
hola miretsiz Berasategi, Jon Laduche edo Gonzalez.

Bertsulariak berriz du euskararen maitemina.
Ikastola're badugu, hau da gure atsegina.
Bertz'eskoletan egiten dute berdin beren ahalegina.
Mintza dezagun, goza gaitezen zainduz herriko arima.

Azkainetik, 2008-VIII-24

Azkaingo ihauterietan

Ihauteriek gaia badute hemengora kantatzeko,
eta burrunba egin behar da sen gaixtoak haizatzeko,
zirtzil batzuen jokabideaz bada ere beldurtzeko.
Eta san Pantzar saindua bazen, nola ein du debrutzeko?

Kargudun askon ekintza ez da gehien batean uzkurra.
Berekoikeri batek derauku sortzen zinezko beldurra.
Jazko Pantzarrek zerrikeritan busti bazuen muturra,
aurtengo hauxe izana zaigu hartza den bezain maltzurra.

Barkatu, hartza, ez nuen zuri kalterikan egin nahi.
Erroen bila hor gabiltzala horixe daukagu garbi.
Lehen Olentzero, gaur hartzarekin gu pentsakor hemen gaindi.
Eta ikertzen segi hobe da aurkitu artean argi.

Iker-bidean erakusten da supindarra eta garra.
Nundik gatozen, norat goazen jakitea da ederra.
Erro hoietan bat segurra da: gure mintzaira euskara.
Etorkizuna begiratzekotz hauxe da zaindu beharra!

Sabela dugu oihuz hasia, ta krakadara goazen.
Ongi pentsatuz gaur bazkaltzea jadanik aspaldixko zen.
Gero emanen dugula beraz Pantzar gaixtoa erretzen.
Biba gazteak, biba zaharrak! Guk segi hola elkartzen!

2002-II-16

Leihotik besten irekitzea Azkainen

Gaia: Andredena Mari eguna

Azkaingo bestak aurten guretzat aurretik zuen aipua,
Xanpun, Ezponda eta Ferminen egiteko predikua.
Hori gabe're egin ziteken, naski, besta kausitua.
Baina Azkainen beiratu nahi da euskal izpiritua.

Ama Birjinak herri huneri eskainiz bere itzala,
pentsatzeko da, gurekin nahi luke harreman zabala.
Gaurko bertsuak airean dabiltz plazan pilota bezala.
Ama onari galde dezogun besta bedeinka dezala.

Gaia: Edan baina ez moxkortu,

Besta giroan errex hartzen baita gustu,
ni gutik moxkortzen nau, ta dena ezin moztu.
Xanpun-Ezponda ikusiz, hauxe ez zait justu:
freskorik dezakete hamar baso hustu!

Elkarrekin pasatzen badute arratsa,
hauekin lorietan dago ostalertsu.
Edari ona dute bertsuen ezantza.
Gero urrun ezagun da Cognacaren hatsa.

Oharkabe burura nola gare heldu? (bis)
Gomitatzaile onak eskertzen ditugu.
Besta gauza pollita, bihotza pizten du,
bizitzak eskaturik hainbertze sustengu.
Ikus, apezak ere gaur parte hartzen du!

2000-VIII-14

Azkaingo Martintxon afaria

Airea: Santi Mamiña

Errepika: Gaur da Martintxon arratsa,
umorez dezagun pasa.
Euskal kantuz agertzen dugu
gure bihotzaren gatza.

Gatoz dantzari, kantari,
esku emanik elkarri.
Umore ona, giro airosa nahi ditugu lokarri.

Martintxo horren ondotik
Mixel joan zen gogotik.
Zaletasuna edo kutsua guztiek bildu geroztik.

Hara Txomin Arizaga,
gitarrean zer patxada!
Gaupasa ere egin lezake segitzalerikan bada.

Mathilde, Eneka ta Anaiz
musikan umore alaiz,
hobe bainuke txoriño hauek ondoan baneduzka maiz.

Fleitean Jeannot Urchegui
bestari eman ez aurpegi.
Akordeoa aurretik dugu, kantuan dezogun segi.

Hara, Jean-Marc Iratzoquy,
kozinan ongi badaki.
Baina giroa sustatzen ere boz ozenean airoski.

Agurtzen duguna Maite.
Irri gozoz gaitu bete.
Diruzain hori gabe taldean gaur egun nola gindezke?

Parean da Pier Deliaert,
mutil eder eta azkar.
Hunelakoak Martintxon gisa ekartzen du zombait pindar.

Orroz ari da Duhalde,
nondik datorren ez galde.
Hunek oraino Martintxorekin egiten baitaiku bide.

Aldean Jean-Marc Criado,
doa beti alaiago.
Frantximent hunek, naski, euskaldun artean baitu nahiago.

Jean-Pascal eta Etienne
gur'adixkideak hemen.
Txori hauekin ere duela umore onak irauten.

Bizkaitar gapeluduna,
denek agurtzen duguna.
Hau euskalduna dela ezagun, eta gainera da jauna.

Non da Lahetjuzan Joset
altxatu daukuna kopet?
Eta holako laguntzailekin guztiek baitugu laket.

Txoko hortan Beronika,
erakasle bat artixta.
Keinu batean jende guztia emaiten baitu jauzika.

Horra kantuko bolada,
izan zombait gorakada.
Ta aldatzeko orain pasatu gaitezen denok dantzara.

1996-VI-21

Azkaingo errugbilariak Frantziako txapeldun

Doinua: Ume eder bat

Gure herrixka koxkor huntarik fama joan zaigu urrun.
Kirol ekipa pollit bateri gatzaizkio gaur eskerdun.
Errugbi joko paregabeen moldatu hamabortz lagun.
Ustekabeen egin zauzkigu bai Frantziako txapeldun!

Laster ageri da errugbiak badaukala abantaila.
Adin batean indar biziak atxikitzea da zaila.
Ongi uztartuz baloi batekin bakotxak jo du goi-maila.
Nork usteko gu bilakatzea Frantziarentzat miraila?

Arratsaldeko seiak aldera herriko ezkilak dantzan,
jaun erretorak errana zuen zer arrazoin izanen zan.
Gure mutilak talendu haundiz fleitean ta konfiantzan,
muga hertsia iragan'tuzte kausitu duten garaitzan.

Abendutikan emanak ziren ongi sasoinaren pixtan,
nehun galtzerik jasan gabe ta zirela forma pollitan.
Harritzekoa azken matxa ez pasatzea telebistan.
Jokolariek frantsesa mintzo dute nornahiren bistan.



Azkaine (arg. Olivier Iglesias).

Agurtzekoa dugu segidan herriko jaun mera ere,
lehen ekiparen sortzaile bat izana dudarik gabe.
Uzta biltzeko memento huntan tira bitza zonbait lore.
Gure herrixka hola eginik Frantzian enbaxadore!

Baina herria oso-osoan zen bestan partehartzaile.
Jokolariak ongi gogoan zituelako seinale.
Guti gorabehera badira gaur bi mila bizitzale.
Errugbiaren egun horretan bazen hainbat segitzale.

Azken eguna jin gabe frango hasiak ziren otoizka,
fermu sinetsiz bere denboran jin da garaitzaren keinka.
Bazterrak ongi harrotuz eta lerro-lerro zoan klika.
Adixkidetan inbiririkan ez dadila behintzat finka!

Egintza hunen bidez gu ere Europa bidean goaz.
Mendeurren¹⁴ bat dago Frantzian eta kukurruku, beraz.
Gure mendiak zoratu dira gertakarien itxuraz
Aurtengo marka datorrenean berritu laike menturaz.

1989

¹⁴ 1789-1989 Iraultza.

Berrogoita hamar urteko azkaindarrak bildurik

Apairu denboran:

Berrogoitamar urtekin nola ez gazte ta ez zaharra?
Hasteko hemen agertzen dugu gure odolaren garra.
Pixkat edanda egiten dute gazteek ere andarra.
Mahainean guk ere izanki haien haineko oldarra.

Komeni zen, bai, gertakari hau ginezan ongi ospatu,
ta besta elizkizunez ere sanoki dugu osatu.
Gero ez dakit behi zorotik duten jakia berotu.
Nere ustean orainokoan ez gira behintzat erotu.

Neska-mutilak berex ibiltzen ginen gure eskoletan.
Oraikoen xantza ez ginuen, egona naiz gogoetan.
Baina, beharrik, gu elkarrekin ibili euskal dantzetan.
Orduko zalointasun hartarik bada gure gorputzetan.

Beraz, gazteen bidetik ere ginezake doi bat ekin.
Kantuz ta dantzan arizan gira denak errespeturekin,
ta mahainean bezala gira ohean portatuko fin.
Bakartasuna gauz ona baita, baina lagun on batekin.

Lagun zaharrak aurkitu eta gelditu girela alai.
Zerbaitetako ginuen segur bestaño hau muntatu nahi.
Bortz urtetarik hola biltzeko izango ahal gira gai.
Orroitzapena gauza ederra, elkartasuna ere bai.

1996-IV-27

Azkaingo ikastolak 22 urte

Mila bederatziehun eta hirurogoita hamabian,
ordu an ere euskara sendi hain egoera larrian.
Lehen ikastola sortu berria zen Arrangoitze herrian.
Hura ikusiz azkaindar batzu gerta nahikunde garbian.

Andde Luberriaga izena nonbait daukagu entzuna,
Argitxu Noblian urratsari eman zakon erantzuna.
Bide berriak irekitzeko behar du bertuteduna.
Zueri anitz zor dautzue gaur euskararen osasunak.

Azkaingo ikastolak kondaira ez du hainbertze luzea,
Andden eskua behartu zitzakon, komeni da aitortzea.
Hastapen hartan gela prestatuz, haurtxoak, ai, zer printzeak!
Gero auzapez erabakiaz eraiki zuten etxea.

Lan tematsuan erdi isilpean sinestea behar zela,
edo burraso hoier galdegin, ongi dakite bertzela.
Philip Goyetche hemen beharra ginuen lekuko bezala.
Sufriturik da ardietsi gaurko hitzarmen ofiziala.

Zorionean hobeki doa gaur ikastolen programa.
Bertzalde zenbat egitekoa arindu dadien zama.
Euskara ontzen buru-beharri dabil Haritxelar jauna.
Mintzatu behar balia dadin Euskaltzaindiaren lana.

Hil edo bizi gauden lekutik beharra dago atera,
ta Mari Karmen Jaurlaritzatik jin zauku kontsolatzera.
Zu bezalako perla bat dugu hain maite dugun euskara.
Salbatu laike Ipar ta Hego indarrak bilduz batera.

Kooperatifak, kultur-etxea, ta garapen kontseilua...
Ramuntxo Camblong buruzagiak bota lezake oihua.
Zuk badakizu zoin garrantzizko den hizkuntzaren pirua,
gur'izaitea ez dadin izan bere arimaz bipildua.

Seaska sortu zinuen, Argitxu, nahi zinduzket goretsi.
Ta erran dena Anddek ere du konplimendua merezi.
Gaur euskaldunek har balezate zuen pixka bat kontzienzi,
gure Euskadi berpiztu laike, segur, bihar edo etzi.

Nehoz elkarren kontra bagira gogortu,
sekula gauza onik ez da hola lortu.
Anaitasun garbian gaitezen bizkortu.
Ikastola ere zen horrelaxe sortu.
Poz hunekin dezagun motorra berotu.

1994-VII-13

Azkaingo Uhertsiko zubiari

Zubi zaharra eraman zuen uholde edo ekaitzak,
ta urte batez hara agertu berriro obra bat gaitza.

Gutziz eskertzekoak,
laguntzaile-lerroak,
ta frantses ministeritzak¹⁵.

Eskertzekoa ere sartzea hemen euskarazko hitzak.

Harri pikatu-meta behar zen lehenik uretik atera.
Tresna moderno hoiek zilatu behar izan hain behera,
asentuak ta arkuak gero xutituz lehengo moldera.
Erromanoak norbait baziren, baina gu ere bagera.

Putzu haundian amurrainak hor jauzi erakutsiz poza.
Baina zubitik arrantzaleak amuhaga nahi luza,
edo angula-arrantzan gauaz hemen nehor ez da lotsa.
Guztiendako zubi zaharrak haundia dauka bihotza.

¹⁵ Han ziren Michèle Marie anderea (Gazteria eta Kirol ministroa) eta François Bayrou jauna (Hezkuntza Nazionala).

Adinekoak toki maitea du aurkitzen, ezin uka.
Andrearekin galtzada hortan polliki doa pausuka,
ta ilargitan maiteminduek gozatzen ere musuka.
Erromanoak erromantiko-itxura gutzia dauka.

Bi urratsetan zer ikusten dut? Etxe xahar bat, Errebira,
ustekabeen gaur hurbildurik Roger Idiarten kabira.
Hau gazterikan apez egin zen, neskatxeri ez zen fida,
eta poeta bilakatu zen zubi zaharrari begira.

Mendetan zehar biltzen baitira milaka orroitzapena.
Arbaso joanen izpiritua daike irriz dagoena.
Nahiz aurten bozak izan, hauxe da gora aitortu daikena:
gaur zubiari lotu zaiola Luberriaga izena.

Urperatu zen arku gotorra Uhertsin baitugu altxa,
elkartasunaren indarrean hartu daiteke fidantza.
Laguntzaileeri ez bazaiote agortu biper ta gatza,
orain euskara salbatzen ere badugula non zer dantza.

1995-III-18

Nortsu diren Azkaingo jende famatuak

Azkaine huntan bada izanik horrenbertze gizon argi:
Roger Idiart zendu berria, bertsu-idazle, musikari...
Ta bi pastoral ere artetik zor dizkiogu berari.

Bai, eta euskaltzainak bi,

bata gure Zerbitzari,

bertzea Larzabal. Hau ere baitzen teatro-idazle haundi.
Hirurok ohore egin zakoten gure Euskal Herriari.

Berdin orroitu gaitezke laster gure pilotari onez.
Iraganean urrun jo gabe orroituko Laduchetarrez,
azkenik Panpi ibili baitzen bertzaldean molde trebez.

Gaur Sebastien Gonzalez;

Berasateguy nola ez?

Lehengoan gisa hauk ere doaz arras molde naturalez.
Erran gabe doa, Azkaingo herria betetzen dute ohorez.

Aipagai gisa har dezakegu oraino lehengo mera.
Luberrriaga paregabeko gizona izan gainera.
Pena azkenik bukatu behar izan baitzuen minbera.

Haize aldatuz kolpera,

akabo lehengo joera.

Ez da dudarik, hori guztia gizon batentzat sobera.
Larogei urtetan gaur heldu da berriz Andde izaitera.

2010-XII

Sebastien Gonzalez txapeldun

Bi milagarren urteak ere zor zeraukun zombait grazi.
Azkaine huntan pilota dugu usu indarrean kausi,
ta Gonzalezek Donostian du txapel beltza irabazi.
Hegoaldean ez da maiz gerta ohi iparreko bat nagusi!

Panpi Laduchen arrastotik zen duela guti abia.
Ezkerparetak duen eskari bat da, indarrez gaindia.
Sebastienen beso ezkerak berez dakar zafraldia.
Askok diote: hau egingo duk pilotari bat haundia.

Buruz buruka kontrarioa zuen Segurako Imaz.
Hastapenean pilota ezin gozatuz zagon daldaraz.
Bote ta kintze, gero zezaken ia partida itzularaz,
hatsa hartuta berriz ez balitz gaztea ozartu arras.

Emaitzak hola iragan dira: lehenik, hamalau ta hiru.
Pario denak gaztean alde, ta gero denak isildu.
Baina ondoren hamalau eta hamazazpira hurbildu...
Azkenik, hogoita bi - hamabortz. Sos-galtzalerik ez mindu!

Bigarren mailan hasirik, baina gurea jarri da puntan.
Sake zitala, aire ederra, zinez badu gatz eskutan.
Bi paret eta joko haustea sartzen zaio're burutan.
Txapel horrek zun len aldiz hunat jin beharra ero bultan!

Hogoi ta hiru urterekin batek sasoina baitu gainezka,
laster lehen mailan ere jakinen dute huneri zer eska.
Panpi aipatu dugu. Bi txapel bildu zituen birazka.
Kantari segi dezake, badu gaur pilotan nork ordezka...

Oi, Sebastien, izartxo gisa bazaituzte ezarria,
guk badakigu zuk atxikiko duzula giza-neurria.
Mintzoan ere atsegina da zure euskara garbia.
Jarraitzaileetan lehen daukazu hemen Azkaingo herria.

2000-V-21

Xala txapeldun haundi

Esku-huskako finala berez ospeduna.
Hau intentsitatea aurtan hartu duna!
Kalapiten ondotik gertatua huna:
Olaizolaren kontra Xala txapelduna.
Historiarat doa holako eguna.

Txapelketa eder bat lehendik zen ezagun,
ikustekoa batzuk nola duten jardun.
Gonzalez, Idoate... Zonbat merezidun!
Irujo eta bertze, ez ziren hain urrun.
Azken gorabeherak kondatu ditzagun!

Apendizitarekin ezbehar nabarmena,
ernegu haundia bai Xalاک zekarrena.
Nausien ganik gero kolperik txarrena:
ordezkari batekin xahutzear dena.
Hau da hitz egin gabe egiten ez dena.

Berriak nola duen sortu asaldura,
medikuak, lagunek, denek kexadura.
Prentsaurrekora jo da, berdin gobernura,
salatzeagatikan injustizi hura.
Ta enpresaburuak hola jin zentzura.

Jokatzen hasi aitzin, hori lehen partida,
gainditu behar gero hainbat tirabira.
Zaleek zioten: bidea behintzat ireki da,
partida gibelatuz molde egokira.
Zer ikusmin sortu den gaur nola deskriba?

Bilbon partidak segur eman du berea,
bi izarren artean ez zen folklorea.
Kontrarioa ere zinez kapablea.
Hamazazpi ta hamar galtzen zoan gurea.
Kirolean etsitzerik ez baita, ordea.

Bazagon ba zertxobait aldatu beharra.
Ezkerretik sakatuz berritu oldarra.
Hemezortzitan, ados; kantxan zer sukarra!
Era berean Xalاک eraman hondarra,
erraietan aurkituz behar zen indarra.

Hogoita bi-hemeretzi, emaitza azkena.
jendea hor zagola txunditurik dena.
Jarraitzaletan askok malko nabarmena,
pozaren pozez hola agertu dutena.
Hau Iparralderako ohore ederrena!

Plaza osoan bakarka lehen txapela dela,
Iparraldera heldu gainez gain horrela.
Bertze hiru binaka bildu zituela.
Badakigu, Xala da txapeldun itzela.
Hemen guk ere diogu tiratzen txapela!

2011-V-22

Andde Elissalderen omenez

Azkainen Andde Elissalde herri-kontseilari ohiari omenal-
ditxo bat muntatua izan zitzakon, 1996ko mendekoste as-
telehenez. Karia hortara, ohorezko medaila eskaini zakon
Andde Luberriaga auzapezak. Ondotik lorioski bi bozetan
xaramelatua izan zen bertsu-sail hau.

Lagun on baten omenez huna zer biltzar laketa dugun,
egia erran, larre betean beharrak baiginen egun.
Mahain-harriraino joan ta ere ote zaiken aski urrun
erakusteko, Andde maitea, zer estimutan zaitugun?

Asmu hori zen gan den mendean gertatu bezalatsu.
Napoleon ta Eugenia hor ibili ziren jo ta su,
ihizelaietan pilotan eta gero fandangotan batzu.
Ospez ez baina gizontasunez haiek haina zaitugu zu.

Pilota kontu hemen Ottarren xixterak bazuen grazi,
ta pentsa Anddek duela berriz lotarik atzarrarazi.
Hunekin gaztek kopa ederrak dituztela irabazi.
Sustatzaile hau har zezaketen bizkarrean eta guzti!

Euskal dantzari airosak, berriz, beti izanik begiko,
ikasle-talde suhar bat zuen laster xutik ezarriko.
Txistu-soinuan eman dituzte zonbait dantza piko.
Zuri auresku zor ginautzun, bai, fandango ez zen askiko.

Bihotzarekin burutsu zinen, zinez ahalmen zabala,
lantegian ta lan artetikan hedatuz zure hegalak,
herria ere zerbitzaturik zure etxea bezala.
Gaurko gazteak ongi heltzeko etsenplu hartu dezala!

Baina bizitza ez da izaten dena lore eta irriz.
Zuri pentsatzen egonak gare lehen ere gu zonbait aldiz.
Gaitz maltzur baten eztenak zaitu sufriarazia anitz.
Beharrik, zinen bai armatua nonbait fedearen argiz.

Fedearekin zoin atxikia oraino zu euskarari,
ta maitasuna Azkainerentzat golkoan duzu ekarri.
Segurtasun bat baita zuretzat Larrun dugula zaindari.
Nortasun horren lekuko gisa xuti laizke zonbait harri...

Ohargarria dantzari-multxo horrek dakarren izena.
Ikasleak du erran nahiko beti apendiz garena.
Baina izerdiz hobetzen gira, hori da baliosena.
Gaurkoan berdin gure ezkila bedi esperantzarena!

Umil izanik, hau gizonaren gogo-aberastasuna.
Gure Jainkoak oraino zaindu dezauzula osasuna.
Ortzadarrean, zure kabian bedi bizitza leguna.
Artetan goza dezagun Andden urrezko laguntasuna!

1996-V-27

Lionel Landart apeztu

Apezteko ez aroa alde, hori ongi dakiguna.
Ongi kausitze soziala da denen helburu laguna.
Gero neskatzak segitu edo famili-gozotasuna,
hauk baztertzeo Lionelek ez dudako deia entzuna.

Ordenatzeko zeremonian galdeak sortzen egia.
Nonbait nabari ez den lekuan Lionelek pausa begia.
Hemen aitortzen bada munduak duela bur-xoraldia,
hunek ukan du bihotz beroa, edo buruan argia.

Nahiz apeza jende anitzez aldizka daiken ingura,
artzain bizitzak errex emaiten du bakartasun itxura.
Berri Onaren zabalitzean, bai, eskainiz kar ta ardura,
lan eskasirik ez du izango, hortan bederen gustura.

Gurutzean ta berpiztuz geroz, oi, Kristoren bihotz-garra,
zeruan beti dirauena da, egin daiteke oharra.
Ta apezaren bidez berriro mezan jausten barra-barra.
Girixtinoak estima beza apezan otoitz-indarra.

Itzuli koxkor bat egina du hemengo gorabeherena.
Funtsean, denek jakin arrosak arantzea baduena.
Baina maitasun-pindar bat baita Jaunak gu baitan emana,
hoi erakutsiz da apezgoa ofizio ederrena.

Hartu ta eman jokoan hazten da amodio-bilduma.
Kontrako indar bat du aldean daukana iluntasuna.
Ta gidari on bat da apeza, anai bezala duguna.
Jaungoikoari itzul dezogun berak eman maitasuna!

1994-VI

Piarres Larzabalen omenaldia

Piarres zenak hainbertze egin zuen euskara zaintzeko,
eta gu griña berarekin gaur gaude hemen bekoz beko.
Zeruko Aita, euskaldun egin gintuzun, ta zertarako?
Zure besoa zabaldu, otoi, pixka bat gerizatzeko,
euskaraz nahi baitugu bizi beti elkar maitatzeko.

Maitasuna da beti kristauen lelo garbi ezaguna,
ta mezu bera aita Larzabal zenak utzia daukuna,
gerorat ere zabal dadien elizaren oihartzuna.
Zeruko Aita, zure eskua, otoi, luza zazu hunat.
Apez balios bat ordaintzea da eskatzen dautzuguna.

Harri eder bat zizelkatua daukagula buruz buru,
apezak ez du lan hau egin, eta guk bedeinkatuko dugu.
Mezu zabala dator gugana, Piarres, zure inguru,
ta zuk bezala euskara beti zaintzea dugu helburu.

Larzabal apez zena goizegi joana gure mundutik,
herrian hainbat egin baitzuen maitasunaren ildotik.
Ta orroitharri hauxe da bertzen zaindari emana xutik.
Pentsatzeko da Piarres orain begira dela zerutik.

1992-IX

Parropia

Xalbat Martinon apezak 75 urterekin kargu berria

Gure apezak oraino bixi-bixia dauka pausoa, ta zuhurtziaz betea berriz erakusten bere soa. Hirurogoita hamabostetan hartu berriz zerbitzua. Egintza hori bera guretzat baita zinezko mezua. Ez bide zuen horrela hartu erabaki bat itsua.

Adin horretan karga berri bat nork dezake bada onets? Usu gehienek eginen dute atsedean hartzeaz amets, baina Xalbat ez zaigu etorri batere urrats baldarrez. Egiten duna egin nahi du guztiz borondate onez. Azkainen apez sartu baitzen kar haundi baten eraginez.

Hainbertze jende soleitu nahiz, ai, zer martxa deramana! Ta egunero herriko elizan meza ere du emana. Nonbait goragoko Norbaitena segitu ohi duen plana, eta ez aipa gisa horretan haundia duenik zama. Familiako zerbitzu gisa zaio hau dena, ez lana!

2013-VI-9

Zergatik dituzu haurrak hain maite?

Hamar urtez ibili zen Fermin lantaldean katixima euskarara egokitu eta herriko haurrei erakasten, haurrak maite zituelako, noski. Haatik egin zituen ondorengo bertsu hauek ere.

Haurren ondoan apailatzen naiz eta badut zonbait arte.
Berak hor daude hurbil-hurbil, ta zergatik egon aparte?
Gako balios batzu eskainiz arras ongi hartzen naute.
Harreman ona hazten dugu, ta nere aldetik ditut maite.
Haurtxo horiek freskotasuna goxo ekartzen didate.

Dotzena urte badituztela erran dezadan lehenbizi.
Izpiritua ia hegaldaka polliki zaiote hasi.
Adin horretan gogoia daike irek hainbertze ametsi.
Munduko ontasun batzun liluran ez dira oraino bizi.
Ongizatea doi bat aztertuz anitz daike irabazi.

Mintzatzen ere ongi dakite, ez dira soilik entzule.
Jadanik nola dauden, bai, zenbait ikuspunturen ekarle!
Harreman goxo ta aberatsa gisa hortan da posible.
Ta luzaroan nahiko nuke izan horren begirale.
Nornahirentzat gustagarri da, baldin badu jarraitzale.

2012

Parropiatik

Parropiaren aldetikan jin zaut eskutara papera.
Erdaldun batzun kexa¹⁶ agertzen du euskaldunen aldera.
Elizan erdarazko kanturik ez dela doaz salatzeraz.
Euskal kantuen ederra
ez ahal dute plazerra?
Jada, erdarak gure artean emaiten du bulldozerra.
Eta gehiago larrutzekotan, hau egitate ankerra!¹⁷

¹⁶ Arrangura.

¹⁷ Gogorra, krudela.

Euskaldunentzat den meza jada zaiku bipiltzen hasia.
Irakurgaien erdia baita horien esku utzia.
Guztiendako den Berri Ona frantsesean onetsia.

Ta holako garraisia,
kasik ezin sinetsia.

Euskaraz dagon apurra bada guretako oasia.
Horren lekuan ez ahal dugu ikusi behar sasia.

Gure Aitaren kantua bera zaiote jasan ahala.
Alta haurrekin entzun izan da hor erdara puntuala.
Ez al dakite presuna hoiek gurean zer den normala?

Hemen kontent nola hala,
baina eskatzen zer azala!

Euskal kristaua, iratzar zaite ta etorri berehala.
Gure euskara ez dezatela trata eulia bezala!

Herria kasetean agertua, 2011-I-10

***Piarres Larzabal* izena derama *Azkainen* apezetxe berrituko gela nagusiak**

Estreinatzean gogoan erabiliak:
euskaldun gisa zuen gora ideala:
lehenik apez zintzo, Jaunari leiala.
Gero, idazle haundi, jite naturala,
Piarres Larzabalek utzi duen itzala.
Omenez beteko da etxe huntako sala.

Zure omena sendo dator teatrutik,
agertu daike ere berdintsu kantutik.
Zabaldu izan duzu mezu ona gogotik.
Orroitzen gare beti Azkain ingurutik.
Piarres, otoi, lagun gaitzatzu zerutik!

Omenaldi hau asmatze hutsa ez zagon ez aldrebesa,
Larzabal apez ospetsu zenak sortzen baitu interesa.
Berez umila izan ahala nork erranen du ezetza?
Baina idazle artexa
zela dezakegu pentsa.
Euskal Herriaz dirdiratsua ekarri zuen ametsa.
Eredu gisa har ginezake Ixeleneko apez!

2008-I-26

Azkaingo elizan

Airea: Bedeinkatua zu

Urte bat gehiago da eraman burura.
Batzu hits daude eta bertzeak gustura,
goresgarririk ere bazuela ez duda.
Eskerrak bihurtzeko ditugu zerura.
Jauna, Azkaingo herria hortarat heldu da.

Itsas-ikara, edo bertzela orrona,
denen aho-mihitan gaurkoan dagona,
lurreko kataklismo haundien forma.
Herstura latzean du ezartzen gizona.
Gutaz urrikal zaite, otoi, Jainko ona!



Fermin haureri katixima egiten, 2012 (arg. Annie Dumay).
Azkaingo eliza (arg. Olivier Iglesias).

Bertzalde anitz lekutan zer giro kaxkarra!
Gizona gizonentzat frangotan da tzarra.
Aita Sainduak ere xede hau dakarra,
denetan badagola bakean beharra.
Jauna, anaitasuna behar den oldarra!

Urtats inguru bada agiantza ta poz,
giro horixe baita goxoena askoz.
Gero iraganean ezbeharrak datoz.
Jauna, zuk badakizu non ez dauden uros.
Erorieri altxa ezaiezu bihotz!

Azken berri hunekin batzu daizke harri.
Erretreta-ordua nori behar etorri?
Kontsola gaiten Jauna dugula sokorri.
Jaun ertora, eskerrak oraindanik zuri.
Gureztat beti izanen zira maitagarri.

2004-XII-31

Xeruenbordako gurutzean

Azkainen, 2005 arte, maiatzaren leheneko ohitura zen goizik meza entzun eta proosionean joaitea, otoitzean, Xeruenbordako gurutzerat. Gurutze hori aurkitzen da Larrungo mazelan, Xeruenbordako lurretan. Gainera, etxe hori da Ferminen amaren sortetxea.

Naturai hurbil debozioanean bildu daiteken oldea,
kanpo ederra nola ez goza baldin badugu fedea?
Hauteskundeen zurrunbiloan dabil Frantzian jendea.
Xeruenbordan zerualde joz ez dea bide hobea?

Manifestatzen ariko dira hiri hoietan jo ta ke.
Gutziz baketsu iragaitea denentzat hobe laiteke.
Bozen ondotik zer sumindurak! Zerbait badakigu guk'e
Maiatz lehenak lili ta guzti bihotza altxa nahi luke!

Nahiz politika berez ez daiken izan baitezpada txarra,
gizona gizon, batentzat ona, bertzearentzat kaxkarra.
Hargatik dugu gaurko gisara doi bat airezta beharra.
Mundua baino gorago baita gidari dugun izarra!

Axola faltan korapilatu omen direla entzuna.
Gerla-bidea baztertzea da gaur lehen eginkizuna.
Elkar hartzeak ta maitatzeak du beti argitasuna,
ta naturaz gain altxagarri da izpiritualtasuna!

2002-V-1

Azkaingo elizan Euskal Telebistarekin

Nahiz Kristo Erregeren bestan poza baden elizetan,
hoztasun puxka ere ageri gero eliz-urratsetan.
Hemen gaudenok Jainko onari itzul gaiten otoitzetan,
Kristo Errege izan dadien kristau denen bihotzetan!

Kristo Erregek bere sailetan uzten ditu gobernuak,
maitasuna ta zuzentasuna ditugu goiko manuak
Euskal Herritik zeruko Aitari hel bedi otoitz fermua,
lurreko legek ez dezaten nehoiz traba Kriston erreinua.

Jaungoiko onak gogoko ditu lehertuak ta pobreak.
Gure laguntza baten premian hok daudelarik ordea,
hara eriak, bihotz urratu ta preso dohakabeak...
Ea eztitzen dituzun, Jauna, zure semen nahigabeak.

Egun hauetan bataiatuak jauntzi dira kristau-markaz,
ezkonberriak hitza emanik badoaz molde ausartaz.
Maite ditugun hilak ere guk sustatu nahi otoitz huntaz.
Aldeko ohoinaz orroitu zinen Jauna, orroit zaite gutaz.

1995-XI-11

Anitarentzat katiximako prestatuak

Kantu-aitzaki zaizkit ilargi, izarrak,
zuhaitzen loreak ta udaberri-garra...
Kantubide gizonen emaitza suharrak,
ta Jesus goresteko gu ez azken haurrak.

Turutaren soinuak ozen du jokoa.
Kordeonak irria gozo betikoa.
Gitar ta xirribitek mezu gogokoa.
Hatsa duten guztiek kanta Jaungoikoa!

Zoin eder jostatzea denak elkarrekin,
zinez anai garela dugunez bai jakin.
Mezu hau emaiten zu, Jesus, arizan fin.
Gorabeheretan bada zorion zurekin.

Jaunaren maitasuna denetan gorena,
guri bizia goitik fresko dakarrena.
Egiaz oratua du gero izena,
bidea bozkarioz bete dezakena.
Kanta zagun Jaunari esker beroena.

1992-II-18

Ogibidea, lankideak, enpresa, erretreta

Arruntzan Marzel Laxagueren erretretan sartzea

Airea: Haurrak, ikas azue

Hara erretretako Marzelen aldia;
huni ere bizia behar zaio kanbia.
Goiz jaikitzerik gabe, hori da loria,
ta denbora gustura dezala balia!

Lagunek Makila bat eskaini diote.
Bi puntak kobrez eta hau zinezko arte...
Gomendatua zaio, luzaz bizi tente!
Ehun urterena badu punta higatu arte.

Orain arte lanera zoan egun oroz,
beti forma onean, izpirituz airos.
Gaur etxe bat sal eta lur-peza bat eros...
Hunek nonbait egin du guk baino gehio sos!

Gustuko martxa hartuz ez zalapartaka,
zonbait zerbitzu einez berdin tipi-tapa.
Garazin feira, edo Urepelen marka,
urtsoen gisa ibil bedi hegaldaka!

Gizona fresko eta etxe berrira jin,
pozik hartuko dute horrela Baigorriin.
Ez da ez galdatzerik zer dezaken egin,
ardien gisa alan hau lagun onekin.

Gambade norat doan kontuak atera,
euskaldunak gutituz ez itxura bera.
Gainera gaur arrotzak datoz manatzera.
Langile gaixoentzat ez dea galera?

2007-1-31

Ziburun Battitten erretretan sartzeko lagun arteko afaria

Airea: Ttiki-ttikitik

Afari hauxe lagun artean zenbat daiteken airostu.
Ez kanturik eta ez bertsurik ez bedi beraz eskastu.
Erretretaren eguna noiztik ote Battittek amestu?
Zorionean heldu zaio, ta guztiak gaitzke poztu.

Lamerraintarren etxe horretan eginik lehen apurra,
Peugeot markaren zerbitzu ona gero ez izan makurra.
Asetzekoa gertatu bada batzutan hori segurra,
bihotz-xokoan sartuko zaio gaurko lagunen agurra.

Orain burutik joanen dira kezkabide haien dantzak.
Lasaiagoak bilakatuko berdin goizak ta aratsak.
Itsaso bare baten gaineko laket untziaren martxak,
ahantzaraziko ditu laster lehengo laneko saltsak.

Zer bozkarioz agurtu daiken, oi, Ziburu sorterria!
Ta ingurua berdintsu dauka, baketsu, zoragarria.
Lekuko seme-alabek hemen duten ongietorria.
Non goza daike, bada, hobeki lagun arteko irria?

Orain barkatu eginen zaio apur bat autopistari.
Oinez ibiltzea ere on da, on egiten gorputzari.
Ta golfan ere jostatu daike, lehen ibilia Caddy.
Kaxketa bat buruan hartu ta, hara Battitta jaun haundi!

Goizean goizik mendi-txokotik heltzen da argitasuna,
ta geroxago eguzkiak du ekartzen berotasuna.
Gizonarentzat guztiz beharra dagolarik osasuna,
sendo ibiliz hiretzat bedi orain bizitza leuna!

2006-IV-8

Lantegiko estreinaldian **Errobi Kanta taldearekin**

Gambade enpresa Basusarrin
Doinua: Begiak farrez farrez

Ongietorri beroa dener Basusarrin.
Gambadeneak jauzi ederra du egin.
Ehun urte bete, larruberritu ta jarri pinpirin!

Ehun urtez nagusi berekin egonak.
Mendeak aldaketa ekarri du hunat.
Lehengo nausier eta berrier, gure zorionak!

Gaur arte bagirade zombait euskaldunak,
izan langile soilak edo kargudunak.
Baina haueri ttipitzen ari laneko egunak.

Nahiz lan hori ukan aski gustukoa,
gazteeri pasa behar gero lekukoa.
Erretretaren atean denak zer kukurrukoa!

Urte bat barne joanen Battitt ta Mendiboure.
Bertze batzu hurbildik beha daude segur,
ta Ximun ere laster prest dago egiteko agur.

Nahiz aldaketak sortu egungo mezua,
klientarentzat beti bada probetxua.
Kalitatezko izanen da, bai, hemen zerbitzua.

Auto berri bat dugu *Mila ta zazpia*.
Ontsa begizta barne, gaina ta azpia.
Gure lehoinak aztaparretan dauka garantia.

Hemen bildurik gaude gaur zorionean,
tragoño bat eginez hain giro onean.
Gerorat ere jarrai dezagun elkartasunean!

2005-IV-29

Lantegiko despedidan

Doinua: Begiak farrez farrez

Hemen eraman ditut hogoi ta bi urte,
atsegin gutixko, ta soberaxko neke.
Lagunak salbu, dena uzteko damurik ez bate!

Lantegiko martxa hau uztera noala,
inposak eroriko zaizkit berehala.
Halere pozik, librorik daude gaur nere hegalak.

Lana bukatzen eta gora doa kantua,
ez pentsa naizenikan orain damutua.
Lanean segi behar banu orain ni harrapatua.



Ferminen lantegian: Gambade garaia berriaren estreinaldia, Basusarri, 2005.

Alfer konturik ez dut ez aipatu hemen.
Hala banintz, ez nuen lanean irauen.
Baina atsedeen hartu hobe da akitu baino lehen.

Zuentzat ere jinen atsedeenaldia.
Pazientzia behar luze ta haundia.
Gaurdanik dener opa dautzuet zorion garbia.

Ez nuen gaur espero hainbat oparirik,
nahiz uzten nauzuen guztiz gastaturik.
Luneta pare bat askiko zen pizteko irrikik!

Bista maiz aipu zuten ni zirikatzeke.
Baina aise eiten dut sosak kondatzeke.
Zer nuken falta? Soilik boneta bilo estaltzeke.

2005-IV-22

Jeannot-k 50 urte

Larresoro Mordoian semetxo gehiena,
fenomeno gaia zen, Jeannot ber'izena.
Ttipitan maiz herabe gorde zitekera
ez balu izan sudurra luxe nabarmena.

Aita zena baitzuen gizon bat adreta,
haren ganik zituzken dohainak gordeta.
Teknika berrizale hau aitan potreta.
Erakasle gabeko hunen ikasketa.

Renault etxen sartu zen ezantza-emaile.
Geroxago piezetan egiazko erle.
Ondotikan bideetan bihurtu saltzale.
Ez kopeta faltarik, ta zirikatzaile!

Lainoa altxa ordu dator iguzkia.
Mekanikan gustua ez zen ttikia.
Karrozeri, tinduan, berdina hunkia,
beregain hasi behar zer erabakia!

Hainbat lanen artetik hau zela gautxori,
beti kostako zauku konprenitzen hori.
Ainhoako aldean maitasuna jori
aurkitu zuen, eta ez gaizki erori!

Etxeaz gain eraiki zuen autotegia,
neurritz nasaia eta eder aurpegia.
Renaultek eskaini ere titulu ageria,
horrela saristatuz askon izerdia!

Izaitekotz etxekotz zuen denbora eskas.
Denek badugu hola nonbait zerbait akats.
Beatrice ta Filipe datoz irriño pollitaz,
baita Bixente ere fier bere aitaz.

Lantegiak badauka sutegi edo labe,
jendeekin jasan behar zonbait atsegabe.
Batek zakon lehengoan, miretsiz halere:
-Mokoka badakite hauk samurtu gabe!

Gozamen-iturri bat bidaien aldia.
Jeannot-k daki bizitza nola desafia.
Ikusiz Amerika ala Australia,
hobeki maitatzeko gero Euskal Herria!

Berroitamar urteak gogoetan adina.
Bizitza ez daiteke beti izan berdina.
Hobe zakarra bazter ta atxiki fina,
uztarria bilaka dadien arina!

Bilo gris bakanekin, zer sasoin, zer forma!
Trenpu gaitzean dugu oraino gizona.
Desiratzen dautzugu guztiz zorte ona.
Irène ta Jeannot, bier gure zorionak!

1999-IX-18

Euskal Herri euskalduna

Bertze bertsulariek bezala Ferminek bazuen euskara ongi menperatzearen kezka. Beraz, erosten eta irakurtzen zituen hiztegi berri guztiak, *Bertsolari* hiruhilabetekaria eta abar. Interneta ere baliatzen zuen gaurko saio guztier gainbegirada bat emaiteko.

Laborari-semea izanki, irakurtzen zuen *Laborari* aste-karia, eta Euskal Herriko Laborantza Ganbararen bazkide ere bazen. Plazer hartu zuen hunen urteburuko besta batez, Ainhiza Monjolosen, Mixel Etxekoparrekin eta nihaurekin zonbait bertsu kantatzean. Bestalde, *Herrikoako* akziodun zen hastapenetik. Eta horrez gain, *Enbata* astekaria ere irakurtzen baitzuen, manifestaldi askotan parte hartu ukan du, Euskal Herri departamenduarentzat, *Deiadar*, *Batera*, presoentzat.

Beretzat argi zen hemengo gazteer eskaini behar zaiela lanbide bat Euskal Herrian berean bizitzeko. Hori ukanez, beregain hartuko dutela euskara, euskal kultura, ohiturak eta sorkuntza-mota guztien bultzatzea. Bere behakoa Lapurdi-txokoa baino urrunago zoan. Miresten zuen baxenabartar eta xuberotar batzuen euskal karra. Beharrezko ikusten zuen ere mugaz gaineko harremanen garatzea, bertsulari eta artzain-munduarekin berak ederki egiten zuen bezala. Euskal politikako gorabehera guztietaz bazuen bere ikusmoldea. Euskal Herriari buruz denak berdintsuak zirelaketz, Frantziakoak ez zitazkon hainbertze axola. Jokomota asko segitzen zuen, bertsulariena eta artzainena bezain hurbiletik ez bazen ere, telebistatik bederen. Kiroletan pilota zuen orotan maiteena.

Ez dut gordeko buruzagi batzu zinez estimutan zauz-kala erakusten zuten gaitasunarentzat: Haritxelar, Garai-koetxea, Abeberri, Camblong, Berhocoirigoin... Fermin, euskaltzale/abertzalea zen.



Ikasleak dantza taldea, Azkaine, 2014 (arg. Olivier Iglesias).



Urritzen ari omen gira

Euskaldunak urritzen, hauk dira kontuak!
Kopuruz bide gira aski mugatuak.
Egia erran, ez da ez gaurko kantua;
eta nori botako zaio bekatua?
Ez ote gira lehendik xuhur usatuak?

Jakina bizi nahi haundia duguna.
Lehendik ez gira ez izanak putrunak.
Jendeetan ezagun da jatortasuna.
Hortik urrats batera da duintasuna.
Hitz batez, nork ukatu gure nortasuna?

Euskara beiratzeko eina dugu zina,
izan ere, hau baita hizkuntza bat fina,
baloratzen daukuna bertsu-ahalegina.
Elkarrentzat bihurtzen gaitu lagun minak.
Har zagun konfiantza, eta jo aitzina!

2013

Iparraldea

Iparraldea naturalki da pollit, goxoa, ezitia...
Euskal jendea hemen sortua da berari atxikia.
Dirudi ere baratze sendo bat txoriekin jaikia.
Hegoaldeko anaiek haxe dute arreba ttikia.

Gure euskara Iparraldean da garbia, berezia.
Zoritzarrean jasaiten du erdararen erauntsia.
Hegoaldetik anaiak hurbil, horrek duen garrantzia.
Familia bat osatzen dugu, gaude ezin bereziak.

Herrian bizi nahi dugu hemen, bada hortako tirria.
Artetan adiarazten dugu gure euskaldun aldarria,
ikastolekin ta bertsuekin goxaturik egarria.
Bihotz guztiaz espero dugu olde bat salbagarria.

2012

Euskal Herriari

Beti pizgarri zaigu euskal oihartzuna,
hemen gozotasun bat nola dugun suma.
Herri huntan hazten da zinez osasuna.
Kantu, dantza, pilota, kultura txukuna...
Frantses baino lehenago gira euskaldunak.

Euskal Herrian dira bazter atseginak,
bertze lekutan ezin aurkitu berdinak,
baina gehienik batzen gu euskara finak.
Hunek gaitu lehenik euskaldun eginak.
Huni esker egiten gira lagun minak.

Erdara baztertzerik ez da nehoiz pentsa,
nahiz ta hurbil daukan batzutan ofentsa.
Errespetua atxik dezagun bertzeentzat
eta gurean finka guztiz partaidetza,
haziz bizi oldarra ta berdin ametsa.

2012

Hendaian Sokoak lantegiaren 40 urteak ospatzea

Bertsulari laguna, Maindi Murua

Maindi ta Fermin zein pozik gauden hemen kantari hasteko!
Berrogoi urtez Sokoak egin duenaz gaude fiersko.
Zenbat egin dun hainbat langile ta familia hazteko...
Iparraldean hau ez al dugu eguzkiaren antzeko!

Herrian bizi nahiak zuen ekarri hunen sortzea.
Aberastea ez zen helburu, bai oneski bizitzea.
Hainbat jarleku gustuz landu ta gero horien saltzea.
Egiten baita akziodunek preziazten diru-sartzea.

Lantegi hau da bihotz zabala, erakusten du denean,
partaidetzaren sustatzaile on kanpoan eta barnean.
Euskal elkarteen laguntzailea molderik hoberenean.
Itsasontziak aitzina jarrai beza sendotasunean!

Enpresa hunek haste hastetik zer martxa osasuntsua!
Berrehun ta gehio langilek egun giro onaren kutsua.
Irabazien partitzeko da zuzendaritza-maisua.
Lantegi hau da partzuergoaren sustatzaile bat kartsua.

2011-VI-25

Euskal Herriko Laborantza Ganbara sei urteren buruan

Atseginekin hurbiltzen gira gaurko hunetan kantara.
Hainbat denboran ia irakiten ari zitzaunkun galdara.
Gaur laborari euskalduna jin daike goxoki plazara.
Pasaturikan ikara,
gerla-bideak akaba.
Gatazkak buka ta azkenean sano ibiltzeko parada.
Bozkariotan gira zurekin, oi, Laborantza Ganbara.

Laborantzaren zerbitzuan da zure betiko morrontza.
Euskal Herriko baserri hoiek baliatzen dute ontsa,
berezitasun bat beiratzeko baitzira guztiz zorrotza.

Eta giro aproposa
egun dezakegu goza.

Auzi-batailan ihardokitzen ez gira izana lotsa.
Ta guk zu baitan ikusi dugu Euskal Herriko bihotza.

Burua sendo eduki duzu, ta izan zira leiala,
jakin baituzu beti uztartzen praktika ta ideala.
Zu zangopera bota nahian zoan botere zitala.

Ukan badute azala,
ez zira izan pattala.

Atera zira burua gora bidezko zagon bezala.
Bertze kolpean ea bihurtzen zaren bai ofiziala!

2011-I-15

Aurore Martin Espainiaratzeko baimena eman du Paueko auzitegiak

Aurore Martin hau ez dea ezagun aski emazte gisako?
Eta berari zer desgraziak dizkioten bai botako.
Iduri dute kondenatu nahi luketela sekulako.

Gainetik hainbat buhako...

Hori guztia zertako?

Justiziaren izenean hor bidegabekeri franko.
Gizabalore onak ukatuz, hau euskalduna delako.

Bidegabeko maltzurkeria hemen goaz salatzeraz.
Espainia da otso bat, eta bertzeek jotzen aurrera.
Estakururik ere ez dute, joanak itsumen batera.

Lege guztiak haustera

doa gaineko joera,

presuna gaixo hori bota nahi baitute bertan behera.
Deus makurrikan ein ez duen hau igorri nahi Madrilera.

Normal ez dena bilakarazi nahi dute naturala,
Europatikan heldu manu bat onarturik berehala.
Agertzen dena, juje horiek zer jendetasun apala!
Bola gorriz tira ahala
gaixoai ari dirala.
Ikusten dugu duintasun gabe otso gisa dabiltzala.
Zentzugabeek pertsona dute hartzen abere bezala.

2010-XII-10

Garraldako ezkerparetean

Laka eta Xabier Suquiarekin

Elkartasunez bilduak gira, agurtzen zaituztet denak.
Garraldan egun ditugu ospatzen orroitzapen zaharrenak.
Ta pozten gaitu Ibañetako euskaldunen garaipenak.
Konfiantza on sortzaile bitez gertatuen aipamenak!

Duela hogoita hamar urte Xuberoko pastorala,
Junes Casenave jaunak emana Ibañetan tirahala.
Gertakariaz alegeraki zer deskribapen zabala!
Kontura gaiten ba euskaldunak gu baitan dugun ahala!

Gerra-kontuak aipatuz eta hunela gira hasiak,
baina pentsatu gerra-kontuak beti dira itsusiak.
Ta izen hutsa ez badu behintzat hemengo demokraziak,
hitzaren bidez dugu lortzeko herri huntan justizia!

2008-VIII-15

Herriko bestak eta militantzia

Airea: Sorlekua

Besta antolatzaileeri buruz doa gogoeta,
Euskal Herria euskaldun begiratzeko da eta.
Herriko bestek ukan dezaten euskal kutsutik gainezka,
pilota, bertsu, dantza ta kantuz ditzagun bada lorezta.

Lehenago batez lorioski gertatu gira Aintzilen.
Arrosagaraiz orroituz, muntatzaileeri goresmen.
Meza bera zen guztiz kartsua, hartze lukena aipamen.
Euskara hutsez burutik buru, kasikan zeruan ginen.

Bazkalondoan bertsuak egunaren apaintzeko.
Sei bertsulari baginen elkarren zirikatzeke.
Euskarak duen distira hori bazen gozamen gaitzeko.
Gure hizkuntza ez ote dugu hobeki elkar maitatzeko?

Koblari gazteak datoz gaur egunean trumilka,
zaharren sekretu on bat dute bidean aurki ta.
Gaur badakite literaturak duela bere musika.
Guztiz eder da gazte-multxo bat horrela dadien finka.

Bertzalde gertatzen bada entzuleen urritasuna,
edo komiteburua dagoela erdalduna,
arrazoin askoz egoera bat trabagarria zaiguna,
pentsatu militantzia gabe zer laiken gaur euskalduna.

Bultzatzeko dugu beti militanteen errota.
Batzuentzat kezkabide badago ere pilota,
herriko bertzek atxik bezate euskaldungoaren nota.
Herri-bihotzak eskertuko du, ta zerk du gehio inporta?

2008-VII

Euskaldunak munduan

2007ko Xalbadorren Egunerako bidali zituen ondorengo bertsu hauek Fermin Mihurak, *Deiadarra* elkarteak Urepelen antolatu zuen bertsu idatzien sariketara. Gaia: euskaldunak munduan

Bizi beharrak hertsaturikan hainbat seme ta alaba,
Euskal Herritik urrundu ziren, aspaldiko oharra da.
Zorteak asko du eragiten, ez zen beti nahitara.
Ta atzerrian maiz preziatu euskadun prestuen garra.

Munduan zehar aurkitu baina gehienbat Ameriketan.
Garai batean plantatzen ziren artzain hango mendietan.
Ta gibelera ezin itzuliz zenbat ez gelditu bertan,
sorterri hauxe guztiz laztanduz ametsik gozoenetan?

Herritik urrun euskaldunak du agertzen bere arima.
Elkartuz geroz laster ezagun kantari, dantzari fina.
Pilotari esker gozatuko bihotzeko herrimina...
Baina deusek ez du atsegintzen euskara garbiak haina.

Euskal Etxeak ia berrehun dira xutik ezarriak.
Berdin larogei bat Argentinan, zer datu ohargarriak!
Ez daude, naski, bate gorderik gure ikurrin garbiak.
Zer kantatua nonahi baluke euskaldun bertsulariak.

Kanpotik berriz zer begitarte gure herri zaharrari?
Hiru zatitan barreiatu ia pusketan dirudi.
Espainia ta Frantzia bortitz dabiltzala bada argi.
Herri ttikia ez ote dago basapiztien janari?

Otañok zion: -Arrazoirik ez degu gutxi geralako...-
Ta batasuna bultzatu asmoz izan da deiadar franko.
Balore nausi indarra hartuz, maiz sendi gindezke flako.
Aldiz, gu baitan konfiantza da ongizatearen gako.

Harremanaren arte hori da guti ezagun hemen barna.
Horri jarraikiz aldatu laike, naski, herriaren plana.
–Indarra nausi, gogorrena juez–, hori ez da ez programa.
Pare parean hobets gentzake elkar kausitzearen xarma.

Oi, euskaldunen nortasun eder airosa ta berezia!
Herritik urrun ibiliz ere ezin da gutietsia.
Ta euskararen zimenduz bada anaitasun bat josia,
luzaz dezake gureak iraun, dugu sineste bizia!

2007-IX-29

Aezkoa eta Garaziren arteko hitzarmenaren izenpetzea

Muga zahar horren bi aldetarik gira euskaldun leialak,
gure bizitza segurtatzeko ditugu mendi-hegalak.
Sanoki dabiltz behi ta ardi, maite ditugun kabalak...
Ta elkarrentzat nola ez gira izanen eskuzabalak?

Hemen Garazi, han Aezkoa, Orreaga, Orbaizeta,
Leizar ateka edo Urkulu, Errozate, Ibañeta...
Gure gogoia librean dabil, nehork ezin du esteka.
Haize goxoan pareko bedi haurridetasun fereka!

Oi, Nafarroa gurea,
probintzi paregabea,
zure besotan berdin dauzkazu goia eta behea.
Zure natura berdea,
Euskal Herriko lorea...
Lehen bezala orain ere zuk duzu elkartasun partea.

Han ta hemen bi alderdi,
dena erreka ta mendi.
Guztiondako goraiatzea hori da zilegi.
Botatuz zombait izerdi,
aitzina daiteke segi.
Lagun maiteak, opa dautzuet besta pollit bat deneri.

Abeltzain eta artzainak,
izan mendi-kapitainak.
Ikustekoak gain horietan artalde apainak...
Kurriturik mendi gainak,
ai, zer harreman bikainak!
Holakoetan baliagarri umore onezko dohainak.

Garazi ta Aezkoa,
zer harreman funtsezkoa!
Laurehun eta berrogoitamar urteen heinekoa.
Hori seinalatzekoa,
jada izan zen iazkoa.
Ta aurten besta ere berritu bihotzaren betekoa.

Ezterenzubiko Irupileko lepoan, 2007-VI-23

Euskal Herriko Laborantza Ganbararen lehen urteburua eta auzibideak

Argia zagon guztiz gainetik Ainhizen pasa eguna.
Zentzu haundiko desafioak behar luke bide leuna,
ta kargudunek usu begitan hartzen berriz euskalduna.
Bizipide bat bada, ordea, guztiz zaintzeko duguna.
Guk laborantzan ere ukanik euskal berezitasuna.

Euskal Herrian den laborantza, ai, nolako baratzea!
Etxalde ttipi guztien alde gure joera klasea.
Egun ikusiz mundu zabalak bidaltzen daukun haizea,
komeni zaigu bai ordu deno zerbaiteri ohartzea.
Leher egin gabe hobe dugula gauzak eskutan hartzea.

Hainbat urtetan egin bideak guretzat bazuen munta,
bertze batzuek arras desberdin daukatelarik arrunta.
Tresna berri hau eraikitzea ez zagon ez ero-bulta,
nahiz ta goitik arizan diren jada gogor mehatxuka.
Bizimolde bat salba dezagun guztiek elkar hartuta!

Lehendik ere hor bazituzten maiz jokabide faltsuak,
ta alegia zerbait egingo xutik eman dute SUAT¹⁸.
Gure aldera on guti baina, auziak ta mehatxuak,
ttipien lehertzeko xedea dakar hioen ifrentzuak.

Lehenik moztu nahiko lukete herriko etxeen kemena,
ta egitura huni diote gero jelosi tzarrena.
Nahiz partida omen daukaten etxe hunek duen izena,
komeni zaigu, naski, egitea Paben egiten ez dena.

Mehatxu-kontu itsusienez ari auzoko oilarra.
Gure onik ez daki bilatzen, mezu faltsua dakarra.
Ta bide sano bati jarraikiz doa gure deiadarra.
Elkar sustatuz ez da hiltzerik, daukagu bizi-indarra.

Ainhiza Monjolosen, 2006-I-14

¹⁸ SUAT, Service d'Utilité Agricole.

Argi-izpi bat Hegoaldean

Bozak iragan dira polliki Euskadin,
aitzinetik bakotxak bazuen irrintzin.
Ondotik berdintasun harrigarri bat jin.
Elkar aditze on bat gabe deusik ezin.
Salbamendua dator portatzearekin.

Jeltzaleak ta EA noraino iritsi?
Hogoita bederatzi alki, ez da gutxi.
Ezker Batuak hiru bai, eta ikusi
Aralarrek duela leku on bat kausi.
Batuketa egiten hor gaitzke hasi.

Sozialistek gero bildu hemezortzi,
PP-ek hamabortzekin ez hainbat fantasi.
Baina biak elkartuz emaitza berezi.
Hogoita hamahiru. Ez dea hau bitxi?
Gakoa komunisten esku dela utzi!

Batasuna zagoen legez baztertua.
Madrilgo joko maltzur ezin onartua!
Demokrazian orde z nahi desertua,
jendeari ukatuz maiz errespetua.
Erantzun onez jalgi da nahigabetua.

Jeltzaleak goratzen du kristautasuna.
Komunistak hau gabe nahi laguntasuna.
Madrilgoak ardura bien kontra suma.
Halere, tanto onez doa euskalduna.
Herriak erakutsi du aniztasuna.

Indarkerizaleak gaur ari itzultzen.
Naski, zentzu poxi bat ari eskuratzen.
Sarraskia herrian kontra zen bihurtzen,
hori aspalditikan ulertzekoa zen.
Zorteak elkartzerat gaitu gaur bortxatzen.

Azken jinak barne guk berroita bi alki.
Espainolistak daizke menean eduki.
Kukurrukurik gabe, baina bai sanoki,
Ibarretxeren plana dezakegu kunpli.
Elkarri esku eman ta ez laike guti!

EHA-k bederatziko egin du kontua,
hortan berpiztu baita askoren kantua.
Martxa berri bati gaur gaitezke lotuak,
elkar hartzera nola garen behartuak.
Jaunak bedeinka bitza datozen tratuak!

2005-V-10

Goraki abesbatzak hogoita hamar urte

Airea: Begiak farrez farrez

Goraki-k daramatza hogoitamar urte.
Fama pollita ere duela diote.
Nolaz ez gero? Gizon argiek sustatzen baitute.

Bereziki bi Beñat kartsuer ohore.
Zueri esker baitu taldeak kolore.
Batek fineziaz gidatzen daki, bertzeak umore.

Beñat Castet hauxe da mutil arraroa,
besta doi bat maite du, erran gabe doa.
Gogoko ditu herri-kantua ta euskaldungoa.

Beñat Charriez berdin da kantuzalea,
ofiziokoa da, iduri erlea.
Erran daiteke esku onetan dagola taldea.

Nahiz diru-kontua ez den hain aparte,
Bankua lantokitzat ezagutzen dute.
Hori bai, baina lagun artea sakratu zaiote.

So eginez balore onen zurubira,
hauen zentzu onari gaitezkelata fida.
Bihotza lehen dagon tokian zeru oskarbi da.

Berrogoi bat girade andre ta gizonak,
aldean ditugula hain zutabe onak.
Eskaintza xume batez ditugu pizten zorionak.

Denek maite duguna da euskal hizkuntza.
Batzuk ikasteko're hartzen dute funtsa.
Eder da anaitasun huntarat horrek gaitzan bultza.

Giro onik sortzen da gure batzokian,
behin ahotsa heziz molde egokian,
entzulea da gero alaitzen nahi den tokian.

Gaztetxoekin horra hor bigarren talde.
Jada ez baita guti, txapeldun dirade.
Hoierei esker ez gira segur fiertasun gabe.

Batzueri ohore, deneri eskerrak.
Goraki-n magalean hauk egun ederrak!
Gerora ere lehia gaitezen harrotzen bazterrak!



Armadan, 1965; haurra, nerabea eta Azkaingo dantza taldea.

Senperen pilota eta euskara

Pilota, zuri esker munduan
gira frango ezagunak.
Euskal populu hunen fama zuk
jakina heda duzuna.
Orain artean begiratua
bada gure nortasuna,
jakin euskara gabe gu ezin
gintaizkela euskaldunak.

Pilota, zuri anitz zor dautzu
gure euskaldun izaiteak.
Eta euskara mintza dezala
pilotari den gazteak.
Berdin euskaraz kondatzea da
zor zaion egitatea,
iraganaren gai izan dadin
gaurko euskal gizartea.

Anai-arrebak, kenka estuan
egin elkarri laguntza.
Esku-ukaldi guti kanpotik,
guri da eitea funtsa.
Sendo loturik atxik ditzagun
pilota eta hizkuntza.
Bertzela ere herri zahar huntan
bada aski bereixkuntza.

1995-IV

Ongi heldu Euskal Herrian lehiaketa

Ahate-hazkuntza bertan egin ta urinetakoak hola,
janari presta edo kontserba parada ona dagola.
Lekuan lana sortzeaz ere izana baitu axola,
gizon balios ukazina guk Azkainen Manterola.

Berin optiken industria hau Hamed jaunak darabila,
bost langilekin lantegi zaharra berinki lantzen bipila.
Aerenotika Essilor treinen zerbitzari bat abila.
Berrogoi urte sortu zela ta, luzaro bizi dadila!

Ez da jakiten nondik jaunzten den supermerkatu barnea.
Baratzekari fresko hautatzen halere gira erneak.
Tomate, biper ta entsalada-egile euskaldun bermeak.
Balio luke ezagutzea Saran Xanti Errandonea.

Pastiz-egile paregabeak badaizke munduan zehar,
baina lekuko izar hau ez da nehundik ahantzi behar.
Singapour eta New Yorken gaindi armak xorroxturik azkar,
saratarrantzat goxoki egiten ari zaigu Marichular.

Ihizien laguna da Pierre Goyenetche,
eperkumeen hazkuntzan hainbat ari denez.
Ihiztari-jokoa da tiro emanaz.
Hunek nahio artatu bihotz-maitasunez.

Senpereko Panpi Haramburuk sortu baitzuen Tupina,
eskoletako ta langileentzat prestatzen janari fina.
Kanpoan edo etxean berdin badaki apaintzen maina,
ta erreusipen makilari dio begitarteon egina.

Maxaleneak merezimendu lau belaunaldi hazteko,
behi ta ardi-esnearekin arta on gasna eiteko.
Eta lotsarik ez du gainera etxe-mozkina saltzeko.
Deneri erakusten dio nola bizi etxez etxe.

Jean-Paul Mendiharatek Senperen pilota gogoko dauka,
bortz langilekin itzulikatzen lantegi pollit den Punpa.
Maxina berri batekin jo du asmakuntza onen punta.
Hamar urtentzat edan daike Xanpaina hurrupa.

Ez bada musik, loa kendu ta botatzen dute hordago.
Herrietan berezitasunen azaltzen bada lan frango.
Larrekon bertsu, mendi-bidexkak, erakuspenak gehiago.
Elkarte hunek Senpere dauku eman maila bat gorago.

Godarden kondu dago hegaztin moten begirakundea.
Departamenduan artaleku bakarra haxe ez dea?
INRA-tik dakar gustu, eskola, bai ta langintzan fedea.
Holako karraren premian da gure euskal ondarea.

1993

Oihantzaina

Laurogoi eta bederatziko urteak badu espantu,
Frantzian izan zen iraultzea bertzerik ez baita aipu.
Aurten bigarren mendeurrena goresia izan zauku,
ta euskaldunak arrazoinekin ezin gira egon mutu.

Alabaina, ez baitzen guretzat hortan dena goresgarri.
Aitzaki haundiz egin izan zen zonbait-zonbait abrekeri,
lepo mozteko tresna bat martxan, gauzak ez ziren ez argi.
Meza batzu ere izan dira bai hil haien orroitgarri.

Haundi-mandiek zuten ontasun eta abantail guztia.
Jende xeheak, aldiz, ondoan denetan ezin bizia.
Baina iraultza orendako bilakatu zen gazia.
Berrehun urte iragan eta beti falta justizia.

Herra ta oldar berezi bazen gauz sakraturen aldera.
Elizgizonak itzal haundiko ziren batzun arabera.
Giza eskubideen zerrenda gero nahirik atera,
nola demuntre jo zuten bada gixirtinoen legera?

Berdintasuna sortzean eta legearen aitzinean,
probintzi eta mintzairak bazter printzipio izenean.
Sara, Azkaine eta Itsasuk badakite zuzenean,
zer justizi zen denbora gutiz hainbertze hil zirenean.

Gizonak duen nortasun hori zaintzea bada zuzena,
errespetagarritzat daukagu bakotxan ingurumena.
Hortarik dator eskubide bat badela populuena,
demokraziak kopuru legez estaltzen ahal ez duena.

Guretzat lege berezi batzu onak baziren funtsean.
Libertate ta berdintasunen hitzak ez jotzen hutsean.
Abuztuaren laueko gauan kendu zituzten hotzean,
nausi berriek lehengoer zorrik ez zapatzaile sartzean.

Ez uste izan geroztik gauzak arras zuzendu zirenik,
haundi-mandiak itxuraldatuz bizi baitira oraindik.
Indarkeri bat maltzurragoa heldu zaigu hoienganik.
Indarkerira jotzen duenak ez dauka gizatasunik.

Garat anaiek departamendu euskaldun bat nahi zutela.
Ongi dakigu berrehun urtez zotzik mugitu ez dela.
Iraultza harek oraino ere hortan badauka itzala.
Bizi girade Euskal Herririk hemen ez balitz bezala.

Europa dugu gaur eguneko azkeneko alegia.
Kapitalismo salbai batena laike joko lazgarria.
Gure tantoak tiratzekotan irek ditzagun begiak.
Oraindik bere tokia finka dezan ba Euskal Herriak!

Aberri zahar huntan badugu emanik hainbertze fede,
eta bermatu beharra dago guztiz euskararen alde.
Ezin bizia ginuke laster aldakuntzarikan gabe.
Nortasun hauxe senda dezagun haize guztien aurka're!

Jesukristoren dizipuluok gabiltz sineste fermuan.
Ongiak eta amodioak nausitu behar munduan.
Herri-maitasun sendo batean eskuz esku daike juan,
guztiek elkar errespetatuz, ta elkarren estimuan.

1989-VIII-25

Eliza, Arantzazu, Angelu, Fedea...

Jainko bazina, zer egingo zinue?

Txapelketa batean entzun gaia da. Fede sendoko gizona baitzen Fermin, eta Elizarekin oso lotua bere ekintzetan. Hurrei katixima erakatsi ez ezik, igandero herriko elizara hurbildu eta behar zenean hango lanak egiten laguntzen zuen... Bertsuak jartzeko garaian ere bere sinesmen horren lekukoa sarri aipatu eta erakatsi dauku.

Holakorik ez nuen batere pentsatzen,
gure ahalak ttipi baitira, hain zuzen.
Neri bidea bazait hola irekitzen,
erieri natzaie laster urrikaltzen.
Has naiteke nonahi horien sendatzen.

Begirada bat ere aroaren gainean.
Eguzki ala euri sobra direnean,
miseria hedatzen dute gehienean.
Naturak fruitu ekar dezan badenean...
Hoiiek ezar nezazke oreka onean.

Hainbertze herrialde badaude pobreak,
eta eskualde batzu ontasun jabeak.
Denen elikapenak behar luke legea.
Hor ere ingo nuke partitze hobeia,
denei eman ez lana ta ogibidea.

2013

Behin batez herriko erretora hurbildu zen gure talderat

Gure ondora hurbildu zaigu holaxe erretor jauna,
ta elizako gako haundia eskutan dantzatzen duna.
Gure onetan derabilazu, bai, zure eginkizuna.
Hogoi zentimetroko gakoa erakusten daukuzuna.
Giltzaren jabe dagon presuna da beti botereduna.

Elkarri hurbil doa bidea ta destinoa gurea.
Artzainak beti bere ardiez erakusten amorea.
Etengabean zuk guretako baduzu argibidea.
Uztarri arin omen daukagu Jesukristoren legea.
Ongi erakuts horixe bada zorionaren bidea!

Astero hemen hola doatzi igande ta ortzirale,
zure ondoan irri egiten da, ta zira presuna noble.
Gaude jakinik Jainko maitea zenbat dugun begirale.
Zure gakoa izan dadila bide onaren seinale.
Zuk onginahia duzu guretzat, ta merezi jarraitzale.

2013

Gerla-lekurat abian zira misiolari

Misiolari batek behar du barnean zinezko garra,
bere bizia eginez bertzei eragitea ez txarra.
Ta gaur nik ere gerla-lekurat joaiteko deiadarra.
Badakit hantxe dena izanen dela itsusi, zatarra...
Hil edo bizi daudenek dute gehiago gure beharra.

Gerlak bortizki trabatuko du jende xehearen xedea.
Holakoetan bakoitxak sendi du egoera grabea.
Haur ta emazte, berdin xaharrak, nolako dohakabeak!
Goiko grazia eskatzen ere ikusiko da jendea.
Ongile zintzo gisa nahi nuke lagundu bake bidea.

Ezin ukatu neretzat ere badagola irriskua.
Denek bezala pasa beharko askotan une estua.
Ea izaiten ahal naizen ni ongile ta diskretua,
gizakiaren barneko garra baita Jaunaren eskua.
Horrek bultzatzen nau ta joaitea daukat ezin sailhestua.

2013

Aitatxi batek hiltzerakoan gogoeta eta kontseilu

Mundu hunetan zorion eske
gabiltz hainbertze bidetik.
Lagun artean hori bilatuz
goaz seguruenetik.
Kristautasunak bultzatu nahi
gaitu harreman onetik.
Familian ta harago hobe
segi maitasun-ildotik!

Batzuei zaie beharrez jiten
herritik urrun joaitea,
nonbait finkatu eta hantxetan
biziaren egitea.
Guk izan dugu Euskal Herrian
bizitzeko suertea.
Euskarai esker izan gaitezke
beti elkarren maiteak.

Zorionean fedeak gaitu
aspaldidanik lagundu.
Maitasun bizi horren haria
biharko ere bali zaigu.
Pentsa otoitza guretzat dela
betiko tresna seguru.
Gerorat ere Kristo baitan guk
beti bat eginen dugu.

2013

Omiásaindu¹⁹

Jean-Pierre Etcheverry Sarako apezak galdeginik fededunen
otoitza denek batera kantatzeko ondorengo lau bertsu
hauek paratu zituen Ferminék Omiásaindu egunerako.

Doinua: Galerianoarena.

Gau beltzaren ondotik jiten da argia,
neguaren ondotik hor udaberria.
Atzo zenduak egun daizke bozkaria.
Guk ere esperantzan dezagun paria.

Saindu hoiek mundutik lehen iraganak,
ta izenda gabeak badira andanak.
Hausnar ditzagun ere Jesusen erranak:
denentzat du bizia hitzimana Jaunak.

Biziaren seinale ditugu loreak,
hilarrietan gaindi zoin paregabeak!
Zer maitasun-miraila hoién koloreak,
gurekin poztu diten zeruko taldeak.

¹⁹ Domu Santu eguna, Santu guztien eguna.

Jendeak zoriontsu nahi luke izan,
ta zenbat nigar diren ixurtzen bizitzan!
Jaun ona, Zuri gaude kristau xume gisan:
hartu gaitzazu zure maitasun-gerizan!

2009ko ekainaren 19

Jatsuko Frantses Xabierrekoaren beilan

Lakarekin kantatuak

Frantses sailduaren historiak
emaiten daukun argian,
fedekontuak apal dabiltza,
gaur hori da agerian.
Zeruko Aita, zugana gatoz
gur'eskaera garbian.
Egizu fedepindarra dadin
loratu Euskal Herrian!

Frantses sailduak ere gogoan
zituen behartsuenak,
on egiteko nonbait kristauak
ez bitez izan azkenak.
Gutarik hurbil hainbat ezindu,
eri edo gaizki daudenak...
Jaun ona, otoi, solei itzazu
gaixo hoiengatik!

Gaur egunean hainbertze jende
bizi ta hiltzen goseak,
soberakinez gaindika ere
badaudelarik bertzeak...
Huna krisia, ta ahulentzat
beti gehio pekatzeak.
Jauna, zuk, otoi, egin denentzat
eman dezan baratzeak!

2009-III-15

Abesbatzen besta Garaziko Jatsun

Gur'elizaren lehen denboran apostoluek zer sua!
Zabaltzekoa zen denetara Kristoren pizte-mezua.
Jauna, gaur egun ere beharra nola dagon berdintsua,
munduak beza ezagut zure bihotz on urrikaltsua.

Denen jinpide edo mozkinak lehen zirela partitzen,
eta ikusi nor bere alde gaur egun nola gabiltzen.
Ea hemengo arduradunak, Jauna, dituzun argitzen,
ta jendarte on zuzentasun apur bat zaigun lilitzen.

Tomasen gisa gabiltza gu're, ahul dugu sinesmena.
Eta askotxon zortea, Jauna, ez dago nehun ez dena.
Hainbat eri ta dohakaberen nahigabea ta pena,
ahal baldin bada oinazeen orde emozute atsedena.

Behar orduetz batera dugu, Jauna, zure egarria,
baina gaurkoan alegeraki gaude kantari jarriak.
Entzun zazu, bai, egun Jatsutik gora doan kantu garbia:
behako batez, Jauna, bedeinka, oi, gure Euskal Herria!

2006-IV-23

Leon Labayen jaun erretorak apezturik 50 urte bete

Airea: Dama gazte bat

Labayen Jaunari gaur ohorezko besta
egiteko airoski gira denak presta.
Apez kargua beti hain errexa ez da.
Hunen txapela daike gaurkoan urrezta!

Unasoko semea, hain suharra jitez,
hunen ametsa ez zen ez duke ez markes.
Berdin mesfida zaiken ezkontzaren gategz.
Jauna lagun, zergatik ez eginen apez?

Uztaritzetik barna hasiz brixta-brixta,
ikasle jarraikia zaiteken begizta.
Hogoita bortz urtetan ametsa egizta.
Makil gabe artzaintzan beharra irriska.

Aldudetik hastea ez zitzakon gogor,
erakasle karguan usu hartuz opor.
Han ezagutu ere Mattin ta Xalbador.
Gutik egin ez baitzen bertsuka lotu hor.

Ta hamar urte gabe jo Miarritzera,
letraduna berriro han erakastera.
San Martin parropian bi urten afera.
Euskaldunentzat mendialdea hobe da.

Hiruetan hogoi eta zazpian Hazparden,
misionest-moldeak galdetzen du kemen.
Fede-bizitasuna sortuz han ta hemen,
predikari txarrena ez zinen izanen.

Hola ibilirikan Xuberoan gaindi,
Atarratze herrian hurren egonaldi.
Alaitasun batean, trailaila trailari...
Zu manexa izanik, hangoen iduri!

Zazpi urtez Atarratze, eta gero Pausu.
Horrek ez erran nahi batere deskantsu,
arrain haiek urean bezala zinen zu.
Hor ere anitz lagun eginik baduzu.

Larogeita hamekan gure deiadarra:
Azkaingo parropiak norbaiten beharra.
Auzotik inguratu zitzaigun izarra.
Aldiz duin ote zen izan azkaindarra?

Guztiz apez laketa euskaldun moduan:
umorezko pindar bat denentzat ahoan.
Zurekin sendi ginen kasikan zeruan.
Jaunak beira zaitzala sendoki geroan!

Pollitena, bazoaz berriz Xuberora,
lehengo zure ikasle on baten ondora.
Oraikoa dadila pausuko denbora,
paregabea izan baita zure obra.

Atarratzen Totekin²⁰, ai, zer goxotasun,
jaun erretora, hantxet pasa behar duzun...
Agian, luzaz duzu ukanen osasun.
Nork dudatu Jaun onak dautzula maitasun?

2005-IX-18

²⁰ Tote Saldubehere apeza.

François Gastambide jaun erreterari

Doinua: Mutil koskor bat

Hamasei urte luze badira gure aldean barra-barra,
jaun erretera, zuk erakusten daukuzula zure karra.
Koru hunentzat ere ez zira izan laguntzaile txarra.
Ustekabeko ez dea gaurko agurtzen hasi beharra?
Ahantzi ginuen ez zinela zu sortzez donibandarra.

Arnegitarra sortzez, ta gero paregabeko apeza
izan zarela, hori denentzat zaigu konpreni errea.
Zer bizitasun-iturri zaren beti izana guretzat!
Oroigarritzko elizkizunak, nola kortsarioen meza...
Gure Jainkoak seme zintzo hau sendoki begira beza!

Parropia hau gidatzeko zuk betiko buru argia,
auzo-herritan ere segituz zerreginarenen haria.
Nagusi baino gehiago zira izana zerbitzaria.
Gogoan dira telebistatik zabaldu emanaldiak,
guri begira ahozabalik zagola Euskal Herria.

Jenderi hurbil egona zira kudeatuz katixima,
sakramenduak ta ehorzketak, denetan gidari fina.
Eskola hoiene sustatzaile on, kurai ekarriz aitzina.
Erier ere zenbat bisita ez diozute egina...
Izana zira eta izanen askon adiskide mina.

Denak utzi ta katedralera gaur izendaturik zaude.
Norbaitek jakin hainbat sailetan zenbat ziraden kapable.
Jitez xumea eta egiten zaituzte orain kalonje.
Gogoz bederen gure laguntza hel dadila zure alde,
ta zu bisitaz etor zindezke, esperantza hortan gaude.

Donibane Lohizunen, 2005-VI-28

Joan Paulo II gogoan

Mundu guztiak segitu ditu Erromako ehorzketak,
Joan Paulo bia itzal haundiko izarra ginuen eta.
Misiolari, bidaiaria, ai, nolako jendeketak!
Ez ditu bildu mende laurdenez Jaungoikoaren atletak.

Berri onak du berez zuzendu nahi ekintza soziala,
pobreen eskubideak zainduz komeni daiken bezala.
Gizonen dretxo hoién zerrenda xutik bada nola hala.
Elizaburuak eman dio aldarrikapen zabalá.

Ebanjelioaren haritik da biziaren defentsa.
Kontzebitzetik hiltzeraino nonahi daike ofentsa.
Zientzilari begizorrotzak ere non du interesa?
Zaindari on hau saiatu zaigu jendea zedien zentza.

Gizakiaren eskubidetan badator inguramena,
globalizazio-mende hunetan ontsa zaintzekoa dena.
Osasun-kontu latzen ondoan behar bat kulturarena.
Baina gainari dena eskatzen ote gaitezke gu tema?

Hitzak bezala hainbertze mezu badakar Eukaristiak.
Hitzak bezala berex dezazke ongiak eta gaizkiak.
Dirudienez Aita Sainduak, on eginik eguzkiak,
mundu guztira zabal zezazken bihotzeko barazkiak.

Fededun sendo behar du, naski, datorren hau ulertzeko.
Jauna, hazkurri daukagu haren bizitikan xurgatzeko.
Joan Paulo biak sekretu hori zuela da pentsatzeko.
Bertzela nola egin hainbertze gazteren liluratzeko?

Mezan erraiten hasiz, –Hauxe da fedezko misterioa...–,
segi zezaken: –Kriston argia da gure bozkariora–.
Dena den, horren joerak badu etsenpluzko balioa:
otoizlariak lort dezakela fruitu onen jariora.



Fermin Arantzazun, 1972. Arantzazuko Ama Birjina, Bidarrai, Baigorri eta Angeluko Trinitate elizak (arg. Olivier Iglesias).

Baztertzekoa ez dago, naski, azken pairamen-ziria.
Holakoetan ahuldu daike lehen ibili-teoria.
Ageri zena, gurutzearen gaurko errepikaldia.
Jaunarekin bat maitasun-garrez nagusi zedin ongia.

Judu, protestant ta abarrekin hartuemanak oparo.
Gure sainduen zerrenda, berriz, orain doblaturik dago.
Azken orduan alferrik jin da ondora haundiki frango.
Lehendik hilek bakarrik zuten saindutze xantza gehiago.

2005-IV

Arantzazun beila

Arantzazura etorri gira Amaren altzo garbira,
ta konfiantza sendoz Jaunari otoizka hasiak gira.
Apez beharra Euskal Herrian ere hainbertze sendi da.
Ea, Jaun ona, langileak noiz datoz zure mahastira?

Herra gaixtoa baztertu eta kanta zagun bakeari.
Zeruko Ama izan daiteke guretzat bitartekari.
Zuzentasun ta bake-bidea, Jauna, zaiguzu ekarri,
zur'erreinuko gustu on hortaz bete dadien Euskadi.

Makur-bideak nolanaahi sortzen ditu munduko biziak.
Euskal Herriko hainbat preso ez bitez izan ahantziak.
Bertzalde eri ta ezinduak etxen ditugu utziak.
Ea soleitzen dituzun, Jauna, sufritzen duten guztiak.

Bertze grina bat euskaltzaleena dugu hemen agertzeko:
gure mintzaira dohakabea beheiti ari da seko.
Zure laguntza beharretan gaude, Jaun ona, ontsa heltzeko.
Baitezpadako zaigu euskara hobeki elkar maitatzeko.

Elizan kantatuak:

Baldin haziak ona aurkitzen badu lurraren baldintza,
munduko argi bilaka daike Jaungoiko onaren hitza.
Apez, serora, misiolariz osaturik da eliza.
Jauna, egizu fruitu-ekarle dadin horien ereintza.

Hazi-jaleak gerta omen ziren bidetako zombait txori.
Bertze bihiak galdu ziraden sasia zelakotz lodi.
Fruitu emankor aurkitzekotan behar lur onera erori.
Jauna, egizu lur on hortarik izan dadien Euskadi.

Munduan gaindi dabila goiko ereilearen urratsa.
Zeru ta lurren artean behar komunikazioak pasa.
Hazia koka bedi bihotzetan gero muskil eta altxa,
bihurtu dadin gazteen bizipoz ta zaharren esperantza.

Arantzazura hurbildu gira gu horrenbertze beilari.
Zeruko Amari ere gatzai o hemendik otoizka ari.
Kartsutasunez moldatzen gira arras polliki kantari,
ea kristauak bihurtzen garen denak goiko mezulari.

Autokarrean:

Agurño baten egitea zait gogoraturik kolpean.
Zer goxotasun paregabea den holako elkartean!
Beila ederra, egun goxoa Arantzazuko partean.
Doble plazerra hartzen baitugu guk euskaldunen artean.

Beila eder hau baitzen koraleen inguru ongi lotua.
Iragan dugun egun airosaz nor ez laiteke poztua?
Gutziz gagnetik agertu zaigu hemen kantuko gustua.
Gure elizak, etxeak, plazak izan bitez airostuak!

Izaitekotan eguraldia dugu hemen salatzeko,
Arantzazuko kaskoan nola zagoen karra beltzeko.
Egia erran, bertan ginaukan gai berri bat otoitzeko,
ez zezan egin egunaz euri ta iguzki arratseko...

Dena den, gu ez gira ibili halere sobera bustiz,
eta barnea argitu zaigu gaur bihotzeko iguzkiz.
Biriatuarrak ere gurekin dabilta atsegin haundiz.
Denen galdea, holako beila noiz muntatuko den berriz...

Nitarik hurbil ikusten baitut Adrienen aurpegia,
doi bat ausartziz egin nezoke orain galde bat garbia:
hemengo talde hauxe ez dea berez arras kantaria?
Denek batean kantu bat laike neretzat ordainsaria.

2002-VII-14

Denak Argian aldizkarirako

Katiximan martxari eman ez behako,
ohiturak ekartzen dio indar franko.
Elizakoa ez da ez alegiazko,
nahiz asteroko meza batzuntzat sobraxko.
Diot: hezkuntza on bat hobe haurrendako.

Bistan dena lehenik behar dela fede.
Apezak eta bertze otoitzean trebe,
baina kontrako giroz josirikan gaude.
Etxe aldetik nonbait etsenplurik gabe,
berriz ere haurtxoak izanen herabe.

Ez da kalte izaiten ikastea plantan,
gauza sakonik bada katixima hortan.
Bizitza doa anitz gorabeheretan.
Arnegatzen dutenak ere ez dira bakan,
munduko martxan zerbait konprenitu faltan.

Bizia ulertzeko, naski, zorbait gako,
erakaspenak ditu dener banatuko.
Gerokotzat da bali baina ere gaurko.
Hobe bagintu gazte hoiek lagunduko
zintzotasuna izan dezaten gogoko.

Konparantza bat hunat nahi nuke ekarri.
Nehoz nigar gabea, ez dea urrikari?
Zerbait eskas duela hor baita nabari.
Gisa hortan ekartzen segur zorbait argi;
hau gabe ez gaitezke hain goratik ari.

2003-X-29

Nafarroaren egunean, Baigorriko elizkizunean

Kristo dugunez mahatsondoa, eta gu berriz aihenak,
bataiatuak badu iturri zinezko biziarena.

Eta Elizak Jaunari ontsa uztarturik dagoenak,
sortaraz bitza bake, justizi, bere fruitu hoberenak.

Gure munduko ordena hauxe daukagunez maiz pisua,
bizi-nekeak ekartzen duna zalaparta ta kexua.

Jauna, zuk, otoi, argizkitzu ba politikarien pausuak.
Zure maitasun-iturburutik dadin hoiien zerbitzua.

Behartu eta pobreak ere hartu ditzagun gogoan.
RMI-agatik denek ez dute parterik salda beroan.
Bai zaurituak edo eriak bizi direnak lanbroan,
denek sustengu aurki bezate beren haurriden ondoan.

Nafarroaren eguna baita gaur Baigorri ospatuko,
ta kristaua da elizan sartu ezkila entzun orduko.
Eliz-batasun hauxe dadila, Jaun ona, zure gustuko.
Gur'adixkidantza, berriz, zure bihotz onaren lekuko.

1997-IV-27

Pierre Molerés Baionako apezpikuarekin

Jaun apezpiku hunek ez gaitu hemen guti ohoratzen.
Lehendik aski gustu harturik guk lantto horren obratzen.

Ikusiz helburua

doi bat neka burua,

baina izigarri ez zen.

Maite delarik badakizue ez dela bate kondatzen.

Katixima bat osa ginuen Euskal Herriko haurrentzat,
geroa ongi prestatzekotan zor giniela deritzat.

Gure barneko garra,
nunbait jalgi beharra,
hartua izan da aintzat.

Hainbertze egin ginezakela fede ta euskararentzat.

Fedea ere omen dugunez Jainkoaren ontasuna,
hortarik pentsa, ez gare hemen gu hainbat bertutedunak.

Ta jaun apezpikua
gaur luzatuz eskua.

Zoin zaren mereziduna!

Eskertzekoa duguna zinez zure euskaltzaletasuna.

1994-XI

Angelun Trinitateko elizan

Ebanjelioak ekarri du gaur ere bere argia.
Nahaskeritik begiratzeko eduki bihotz garbia.
Eliza dugu bide oneko gure izar gidaria.
Jauna, egizu zure grazia dezan lehenik balia.

Errusiako gertakariez durduzaturikan gaude.
Lehen partidu bat bortitza, ta gaur bakarka hainbat herrialde.
Hango fededuneri jarraikiz Jaunari dezogun galde,
tirabiretan joka ditezen beti bakearen alde.

Hasian hasi, aipa dezagun berdin ekialde hurbila.
Libanian ta Izraelen gaindi hainbat preso, hainbat hilak...
Gizona baitan goiko indar bat justiziketa²¹ dabila.
Han eta hemen eska dezagun nehoiz agortu ez dadila.

²¹ Justiziaren bila.

Munduan gaindi bada miseri eta badago gosea,
sosa errege delarik sortzen jende artean leizeak.
Bertzalde, berriz, gure aldean eritasun-oinazeak.
Jauna, fagore bat egiguzu: soleitu ezinbertzeak.

Otoizka edo eskainka, Jauna, huna hemen hardoitarrak.
Adin guztitan hauek badute gaztetasunaren garra.
Pilota dela medio gero egiten duten indarra,
beira zozute laguntasunak daukan iguzki-pindarra!

1992-IX-13

Haurren Sinodorako

Leloa:

Lagun eta adixkide,
elkarrekin bidez bide,
pinpilen gisa goaz ekiaren alde.

Gapelua emanik polliki buruan,
mokanes gorritxo bat loturik lepoan,
bihotza hain goxorik lagunen ondoan,
biziko argi bila gaiten bada joan.

Xamarra bizkarrean, pindarra begian,
zapat onak soinean, zinta bat gerrian...
Egiketa²² gabiltza molde bat garbian,
mundua moldatzeko fedezko argian.

²² Egiaren bila.

Eskuan harturikan makiltxo laguna,
jakinik geroa're parean duguna.
Herra urundu bedi, hurbil maitasuna,
ta alegrantzia zer bideko laguna!

1990-XII-9

Angeluko hardoitarren bestan

Ebanjelio horri botatuz begia,
guretako ontzaile daukan alegia.
Gur'artzainak kargutan dirade egia,
alde bat utzirikan etxe, familia...
Jauna, ixur zozute zure azkurria.

Gogoratuz munduko bertze kargudunak,
denak beti ez dira hoientzat lagunak.
Baina ahalak baditu gure otoitz onak.
Lagunt ditzala, ba, hoik zeruko Jaunak,
ikusteko non diren behartsu ezagunak.

Behartsuak badira gure herrietan.
Hoik egunak pasatzen berdin oinazetan,
gutartean badaizke're doluminetan.
Ez ditzagun ba ahantz gure otoitzetan,
gozoa har dezaten barna bihotzetan.

Besta pullita dugu gaurko egunean,
eta ongi hasia elizkizunean.
Pilotazaleak guk gaur aldamenean.
Jauna, beira gaitzazu bide zuzenean,
elkarri jarraik gaiten anaitasunean.

1989-X-9

Oxobiren omenaldian Bidarraiko elizan

Fededunen otoitza:

Ebanjelio frango garratza da beti Erramukari,
Jesusek zenbat sufritu zuen agertzen baitzaigu guri.
Gure otoitzean pentsatzen dugu federik ez duteneri,
Kristo hil eta piztu ez balitz bezala doatzineri.
Jauna, egizu hoiien begiak irek diten argiari!

Bizitza ere gerta ditaik askorentzat karioa,
eritasunez josiak, edo aski hurbil herioa.
Eskerrak, Jauna, erakutsirik salbamenduko lehioa.
Gaur ezti zazu gure munduan dagon sufrikarioa,
edo sailndutu zure gisara hemengo galbarioa!

Etsai anitz ta lagunak guti gurutzeko erasoan.
Ohoin onari ele pollitak zuk amodiozko soan.
Gure haurride hilak harzkitzu ere zuk parabisuan.
Eta aitaren nahia nola den erakuts guri osoan,
egun batean junta gaitezen berriz zorion gozoan.

Preso direnak gogoan, eta eskatzen dugu bakea,
zuzentasun bat guk egiteko hementxe dugun nekea!
Garizuman da aipatu izan munduan den gosetea.
Jauna, zuk, otoi, igor zaguzu zure hazkurri betea,
gizonak gero bere anaiari ireki dezon atea!

1988-III-27

Zer egin bakea lortzeko

Ez da dudarik ohi dugula
bakea gutiziatu,
ta ber-denboran libertatean
guk nortasuna finkatu.
Gero munduan den miseria
beharra kontuan hartu.
Gerlara gabe elkartasunez
hobe gauzak antolatu.

Gure baitako joera onez
zuzentasunai dei egin,
nahiz parean ikusten dugun
anitz egoera desberdin.
Aberatsaren ondoan usu
pobreak du barnean min.
Dauden mozkinak partekatzea
ez ote litaike egin?

Langilearen emaitza onak
baduelarik bertute,
dirudunek gaur espekulatze
hori gustukoa dute.
Jendez axola guti, askotan
soilik nahi sakelak bete.
Kristautasuna finka baladi
hori zuzendu lezake.

2013

Ezkontza denentzat legegai

Airea: Ttiki-ttikitik

Solasgai hau delikatua da, eta egiten du azantz.
Gaur egun holako legegai bat baizik ez ginuen eskas.
Berez desberdin dena ezin da hartu tratamendu, beraz.
Injustizia dator haurrentzat, klaseak ez daizke nahas.

Zentzugabekeri bat da plazan jendea hortan mugitu.
Ezkontzak sakratutik badauka, naturak ohi du argitu.
Aita-ama ezin izan dena nork behar du guraso deitu?
Horrentzat hobe da batze hori bere mugetan kabitu²³.

Garai batean gorderik zauden nonbait lesbiana ta gay.
Egun ezkondu nahiz dabilta, haurrak altxatu ere bai.
Gizona gizonakin, ta neska neskaikin zoriontsu, alai.
Ezkontzea ahal duten askok bat ere ez ezkondu nahi.

Gaur politikan begiak hetsiz hainbat gauza pasatzen da.
Aurkakotasun hori bai martxan, ta hortarik ezin senda.
Ta naturaren aldekoeri horrenbertze keremenda²⁴...
Bederen, ezkontza ez dena ez bezate hala izenda!

Herrian agertua, 2013

²³ Kokatu.

²⁴ Arrangura.

Gero eta depresio-kasu gehiago. Zer pasatzen da?

Depresioa nonahi agertzen,
baditaike arrazoina.
Gizartea da ahultzen ari,
hori ez baita fazoina.
Alde batetik hazi ohi da
itxura eder bikaina,
eta bertzetik maiz isilean
halako jasan ezina.
Batzuk diote horixe dela
haundinahiaren ordaina.

Bazter guztitan goizetik arrats
aipu dena da krisia,
lantegietan ta gizartean
desordena ikusia.
Estresatua dabil jendea,
ez bada inarrosia...
Familiatan agertzen dena
haustura ta garraisia,
eta hobendun ez daike juja
duena ezinbizia.

Kanpoaldean itxura onez
dabil gaurko gizakia.
Kontsumismoa errege da ta,
graduaren balentria.
Zentratu gabe baldin bagabiltz,
ongi heltzea garestia.
Norbere baitan sartu gabe ezin
errex segurta tokia.
Baina hortako gaurko hezkuntza
ote dago egokia?

2012

AHT²⁵ren kontrako manifestaldira bidean


Treinbide berri hori nondik asmatua?
Haundinahiaz batzu liluratuak.
Beharrik ez bada ere, ez axolatuak.
Bertzeen diruarekin daike osatua.
Holako kontua
madarikatua.
Gu asaldatuak,
ezin barkatua.
Arrastatuko ahal dugu munstrua!

Goiko batzun ametsek badute eragin,
zorrak egiten baizik hoiek ez jakin.
Europa dela eta hainbertze irrintzin.
Estatuen bermea daukate berekin.
Ta gure etsamin
nola den ezberdin,
Concorde-arekin
oroituko berdin.
Ez dira pasatuko hainbat kaskarin.

Hori dela ta goaz egun Baionara
erraldoia izanen den manifara.
Dirudunak ez diten ari beren gisara,
gure ganikan hartu dezaten pasada.
Gure indarra da
xume, beharbada.
Bil elkarretara,
haintzat segada,
asmo ustela joan dadin erre kara.

2012-X-27

²⁵ Abiadura haundiko tren a.



Bertsuak *Herria* kazetan.

Frantziaren zorra

Lehendakarigai kanpainan besta izan du demagogiak,
gai inportantak maiz baztertuz, ta aipatuz pegeseriak.
Ahal ez dena agintzerat bai berriz ere eroriak.
Luzaro gabe bere bidea ez al du behar egiak?

Demagogoak jendea alde ezartzen du lausengatuz.
Hobeki doa errealitate garratza disimulatuz.
Auzo-herritan batzu zorrekin dabilta ezin burutuz,
Frantzian, berriz, axola gabe doatzi hauk emendatuz.

Baloia sopra hanpatuz daike ustekabe lehertaraz.
Gerla ekonomiko hunetan paretari buruz goaz.
Ez du iduri demagogia egokia denik arras.
Politikari hoiek hau gabe bozketan ezin irabaz.

Usaia hartu zen gobernuan beti gehio gastatzeko.
Diru-sartzerik aski ez baina, ez beldur mailegatzeko.
Behingoa balitz, hamarka urtez zer ziloa azkeneko!
Baina ez kexa, defizita da hazkundera sustatzeko.

Politikoak kargutan sartuz errex dira liluratzen,
hauteskundetan baita bakarrik hauen zortea finkatzen.
Gehiago dena zorra eitea omen da ontsa etortzen.
Gu ENA-tik²⁶ ez ginen pasa ta ez dugu deusik ulertzen!

Denek dakigu, gure etxetan ezin daike jo horrela,
irabazten den baino gehiago xahutzea ezin dela,
enpresan berdin kontuak beti orekatzeko direla.
Aldiz gobernu batek nahi duna egin dezake bertzela.

²⁶ Ecole Nationale d'Administration.

Baina ikusi Espainia, ta han urruntxago Grezia,
aitzina ihes egite hortan iragan dute hesia.
Ogi idorra jan behar dute, alferrik da garraisia.
Pentsa, guk ere buru gainean dugu mehatxu guztia.

Baldintza aringarria bada nonbait buruzagientzat,
gertatu dena barkagarria alde batetik behintzat.
Nola jokatu jakinki, baina aitzinean traba gaitzak.
Huna zergatik, hauk gobernatu dituztelakotz frantsesak.

Injustiziak nork isilaraz diru gehio eman gabe?
Denbora berez burokrazia sasi haundi baten pare.
Zenbat interes, zenbat presio, bakotxa indarren jabe.
Ta aldaketa denek hastio, funtsezkoa bada ere.

Behingoagotik hartu nahi dut Estatuaren defentsa,
gain hortan denak xuri direnik nahiz ez den behar pentsa.
Kontra eiteko seta itsua gure ustez bide beltza.
Gero funtsezko behar xumentzat jinen da beti ezetza.

Danimarkan ta Alemanian negoziaketa kultura,
krisi denboran nausi-langile artean baliatu da.
Frantzian berriz goikoen aurka jo nahiago da itsura.
Ondoria ikusi gero egoerak dun itxura!

Laster bi mila miliar euro erresumak duen zorra.
Interesak berrogoita hamar miliar urtero, horra.
Bestalde krisi haundian dugu lantegien alorra.
Ta bide hunek buruan duna, denentzat trantze gogorra.

Zerbitzu publikoen aldetik usu borrokaren lema,
grebarendari egindakoak balira denak zuzenak.
Ahanzten dute untzi berean ibilki garela denak.
Gehienez bazter-nahasle ez dira behartsuenak.

Salatu nahi ginuke hemen batzun joera bitxia:
zernahi proiektu badela jakin ordu martxan da auzia.
Diote: etsaiekin adostuz akabo demokrazia!
Holaxe doa gure haurren gain gero hipoteka guztia.

Gizartearen nahasalditan mehatxu ta presioa.
Gobernariak dakite zer den bakearen prezioa.
Amor eman ta sosaren bidez pasatzen da olioa,
ordaindu gabe betiko balitz kredituen jarioa.

Gizartearen bakea hola kredituak ordaintzen du.
Baina indarren sokatiratik atera beharra dugu.
Etsaigoaren hari bortitzak errekaratzen gaitu gu.
Elkar adituz daike bakarrik zoritxarrai egin buru.

Bozen aldia pasa ta orain beharra da adaptatu,
errealite horrek luzaro ezin duelakotz barkatu.
Finantzen indar basa ta gehio dezazkegu hastiatu,
baina ez ote da gure falta menea bagira sartu?

Kontularitza gauza bat omen, ta bertzea politika.
Lehen erran dugu, errexena da batek bertzea kritika.
Hobe ginuke lehenbailehen errealitatean finka,
ez joaiteko sudurrez aitzin denak batean amilka.

Gero kontuen konponbideak falta omen du ideala.
Nahi dut baina, nola daiteke hain adimendu apala?
Makurbidean eskapurik ez dagolarik gaur bezala,
elkar aditzen saiatzea ez ote ideal zabala?

Eskualde huntan ez ote dute entzuna gure mintzoa?
Ofizialtasun baten galdezka dabil euskara gaixoa.
Euskal lurralde hunek merezi gero ezagupen osoa,
aniztasuna baitu ederra, ta zergatik ez gozoa?
Hau dena ez da fantasia bat, da eskakizun zintzoa.

Bertze gaia da urratu nahi duten treinbide berria,
beharrik gabe egin gogo da sarraski izigarria.
Hortan ere ez errespetatzen batere Euskal Herria.
Alimaleko zorrak ekarriz, joko okaztagarria...
Gaurko finantzen krisi gogorra bekigu salbugarria!

Herrian agertuak, 2012-V-19

Gaurko gazte batzuen joera

Harriturikan nago exotismoari²⁷.
Begira nola zauzkun zombait gazte jarri.
Eskolatikan haste usatuak kurri,
ikastaldi ta opor, trailara trailari...
horrek ondoriorik dezake ekarri.

Adiskide on bila urrun joan beharra.
Ezagunetan lista ez daukat meharra:
marokoar, kanadar edo brasildarra.
alemana bertze bat, edo maliarra...
Zoinen distiratsu den urrungo izarra!

Bizilaguntzat gero hartzekotan berdin,
ezkongai dabila maiz lilurarekin.
Arras bateratzeak nola ez argi egin?
Bizi-arauak eta izanik desberdin,
ondoko egun hoiiek bihurtzen ahal samin?

²⁷ Arrotzaren eta urrungoaren gustua.

Batzuentzat da labe gainean iguzki.
Hoiendoan berriz mintzo naike gaizki.
Ongi doana ez dut hartuko garrazki,
baina diot badela irriskurik aski.
Esperientzia txarrik bada maleruski.

Irekidura bat da hemen nabaria,
gaurko gizarte huntan garbi ekarria,
baina ifrentzuan du aitzin lokarria.
Herria ahantz daikea, itsumen haundia,
edo gaurko eskolak badu huts larria.

Hastetik lantzeko da elkarren lotura,
lokarri hurbil hori finkatuz gustura.
Erroeri iheska ez diten mentura,
segurtasunaz diten hobeki ardura.
Ta euskararen bidez nola ez lilura?

Herrian agertua, 2009-IX-10

Sarkozyri

Aspaldidanik hasia zen hau ber'arrakastaren bila.
Sarkozy hori telebistatik usu agertzen mutila!
Gero egin dun kanpaina hori ez zaiten ez umila.
Ontsarta hartu maratila,
arrakasta biribila.
President egin da azkenean frantses azeri abila.
Hau ez da Jainko izanen, baina bazter guztitan dabila!

Hainbertze gauza Frantzia huntan badirela aldatzeko...
Lehenik alfer dauden guztiak lantegietan sartzeko.
Auzitegiak batzu sobera, eta horiek kentzeko.
Izanen dela hitzeko
sinetsarazi du seko,
ta presidenta ez da ez beldur zezen-plazara jausteko.
Irrisku ederra hartuz, ordea, berdin muturra hausteko!

Gorabeheretan doala beti politikoen jarduna.
Zonbait agintzaren obratzea ez da izanen leuna.
Ta kunplitzeko omen da dena lehendik hitzeman duna.
Batzuendako fortuna,
eta bertzentzat iluna.
Gisa horretan nahi omen du izan guztien laguna.
Ea itzulian behar bezala tratatzen dun euskalduna.

2007-VII

3B eskualdeari²⁸ deputatuek ezetza eman dakote

Intxauspe jaunak departamendu-plana zuen eramana,
Iparraldeko proiektu hauxe legebiltzarrean barna.
Ta betiko lagunek,
eza eman diotenek
egina ezin jasana.
Une batean urriki zuken haien laguna izana.

²⁸ Bigorre, Biarno eta Iparraldeko hiru lurraldeak.

Parisen ez da maiz ikusia horrelako komedia.
Edo han beti mendratu izan delako Euskal Herria.
Hango harremanetan
nigargarri benetan,
hauxe da gaur nabaria.
Hainbat balaku emaiten daukun Bayrouren zakurkeria.

Frantses alderdi hoiek sekula ezin egin gure alde.
Orainarteko Intxauspen joko txar guztiak hortan daude.
Hauteskundeen adarra
laster jalgi beharra.
Egiten badute galde,
dudarik gabe zuek gomenda bozkatzeko abertzale.

Ministroen ibilerari so

Frantses ministro hoiien joera ez ahal da salatzen?
Zurikeria sabel beteka baitute hauek saltzeko.
Euskal kultura goretsiz ausart bai medailak banatzeko.
Itxura eder egiten dute hutseginak gordetzeko.

Pollit nintzela, baina larru beltz..., euskal kantu berezia.
Gaur ministroen jokoak hauxe deraut orroitarazia.
Mintzaira gutituen legea sinatzea ahanzia.
Europar denak alde ditugu, ez Grezia ta Frantzia.

Aitzinapenak gutietsi gabe, halere dira gutiak.
Edo galdegin zenbat hunkitzen duen Gure Irratiak.
Euskal erakunde ta Seaskak dutea argi-izpia?
Kultur-etxeak duena behintzat hiru urteren garantia.

Kargutan denak errex egiten, bat josi, bertzea urra.
Halere beti jaun horieri ekartzen zaie agurra.
Justizi osorik aurki daiteken nahiz nik izan beldurra,
erदारक hemen mami ona du, euskararentzat papurrak.

Esku eskuinak emana laster ezkerak kentzen baitio,
ziminokeri apailatzeak gurekin ez du balio.
Euskaltzaindiak diru-laguntzan ukan zonbait emendio,
ta entzun-ikus bideo sailak hura guztia gutio.

Egun eder bat behin Irisarrin bazen ondarearena.
Euskal arloa goraiatzeko Bayrou jauna da lehena.
Nola ez sinets finezia ta borondate hoberena?
Gero lagunak kontra ez balitu, baginuke behar dena.

Ongi egina, beharrik nehoiz ez zaiotela damutu,
ta pixkanaka aitzina ari: jaunak, ez gaiten beldurtu.
Hoiek ahal dena egingo dute euskara ez dadin mututu.
Telebistak du jada zabaltzen egunean bi minutu.

Gaur Donibanek Agirrerri're omena egin dio ta,
Lamassoure jauna lasterka jin ta kriston predikua bota,
ideal bera duela edo, hartu ginezan bai nota.
Ai, berdin balitz Estatuena ta populuen Europa!

Alliot Marie anderea hor hegazkinekin jauzika,
Euskal Herrian etxe ederra Ziburun du erosita.
Engainaturik ez gaiten geldi entzunik hauen musika.
Berdin otsoak gerta daitezke ardi-larruaz jantzita.

1994-VII-19

Mundua

Mundua zirko bat dela diote

Ikuspegiak hola sor daizke nolanahi,
zirko baten itxura emanik munduai?
Gogoak egiten du horrenbertze bidai,
zirkoa nola dagon umoretsu, alai.
Baina pailazo txar bat nehork ez izan nahi.

Konparantza pollita dela ezin uka.
Zirkoak beti besta itxura on dauka.
Desiratzen duguna da zorion-bulta,
ez ibili ahalaz sekula mainguka.
Bizia kontrolpean hola bageneuka!

Pailazo jostakina ta bertze juglare,
trapeziztak dabilta berdin airez aire.
Zirkoa beti dago hain leku xeble,
hazten baitu bizipoz ta sortzen umore.
Ai, bizian baginu horrenbertze olde!

2012

Etorkinak egoitza berria kausitu

Nire herrian, Afrika aldean
zagoen ezin bizia.
Zazpi haurride leku ttipian
nolazpait ginen haziak.
Miseriari ihes eitea
zen desafio guztia.
Gaur biziaren irrixkuan naiz
Frantziara iritsia.

Itsas-bidaia batel batean
izan zen osoki gaitza.
Jaunari esker, azken batean
ongi atera emaitza.
Desio nuen lurra aurkitu,
gaur lana eta egoitza.
Gutienean orain hobea
izan daiteke bizitza.

Ongi frogatu izan dut hola
zoinen latza den mundua,
eta sobera ez sufritzeko
kuraiak nau lagundua.
Zortea doi bat alde nuen ta
pasa dut lehen gudua.
Familia bat sortzea orain,
hara, bertze helburua.

2012

Munduko agintarieri

Denboraz komunistak gintuen ikusi,
ta gizabizitzari haiek ezin eutsi.
Gaur kapitalismoa dabila itsusi,
askon bizimoldea ohi baitu suntsi.
Dirua ezin daike hola utz nagusi.

Bakar batzuk bai neurrigabeko fortuna
ukanik, bertzerentzat zer kalte astuna!
Askotan dirua da gaur manatzen duna.
Munduak galtzen baitu oreka, zentzuna.
Gizonak behar luke alta lehentasuna!

Zuen esku baitago ere boterea,
ekonomia-oreka non dago ordea?
Sosaren aginteak non du kanorea?
Bide sanoagoentzat laike tenorea.
Zuhurki behartzeak baluke berea.

2012

Aberastasunak nola banatu?

Garaia laike segur hasteko
pobrezia ezabatzen,
partitzearen behar horixe
garbi baitzaigu azaltzen.
Praktikan bide eitea berriz
zein lanbro zaigun geratzen!
Mundua laster hobetu laike
baginaki partekatzen.
Baina ondasun-jabe direnak
beti berenari lotzen.

Mundu zabala kurrituz zoinen
desberdin ikuspuntuak!
Haur hutsak dira toki batzutan
lanerako behartuak.
Asko lekutan soldata ttipiz
langile ustiatuak.
Beheko pagak lurean eta
goikoek joz teilatuak,
diru-munduan nola sarraraz
jendeen errespetua?

Partekatzea gauza ederra,
segur baluke garrantzi.
Ta guhaur kristau fin izan gabe
kontseilatzera goatzi,
eskuzabalak izaiten ontsa
bagineza bai ikasi,
espekulatzailleak, ordea, ez
dira bertzeentzat bizi.
Ta aberatsek ondasun-biltze
horri nehoiz ezin utzi.

2012

Hogoi urteko emagalduari

Ekialdeko nonbaitik jina
bilatuz zerbait abaro,
lore bezala Parisen sartu,
baina segidan esklabo.
Lehendik zinuen miseria
ez zen apala izango,
eta egungo ezbehar hori
oraino da sakonago.

Zure aurpegi argiak ez zun
mereziko zorte beltza,
zu ilusioz etorri eta
segidan bizi traketsa.
Hain dirubide mekanikoan
barnetik zindezke kexa.
Sartzea egin zinuen, orain
jalgitzea ez errexka.

Zorionetik beti urrunduz
doake zure gogoa,
gorputza bortxaz saldu beharrak
sortaraziko malkoa.
Nahiago nuke eskutan banu
zu salbatzeko gakoa,
ene laguntza izan litaike
bai bihotzetikakoa.

2012

Munduko kopatik bertsuetera

Airea: Markesaren alaba.

Hastetik duda anitz, gero jo gailurra.
Frantses-taldeak ditu guztiak lilura,
haundienen kontra hor baztertuz beldurra.
Ta pena azken puntan hautsi behar sudurra!

Garaitu Espainia ta Brasil haundia,
jarraitzaleek zuten zorion gaindia.
Gero Portugeseri eman zanpaldia.
Finalaren atea, ai, zer miraria!

Zidane guztien buru, bera zoin artista!
Horri esker da joko ederrik begizta.
Gainera umila da, eta ez erdizka.
Frantzian denek nahiko zuten hau sarizta.

Karrera bukatzeko edertasun betez,
zer aukera zeraukan finalan bitartez.
Kukuak gaizki kanta dio gure ustez.
Denak utziz jalgi da buru-kolpe batez.

Afera hau gerta da hain nigargarria.
Zidanentzat izan da hor kartoin gorria,
antzara ferratzera hola igorria...
Arras tristeki zaio itzuli orria.

Finalak erakutsi du alderdi garratz.
Lehenik Vieira galdu, gero Zizou, beraz
ekipoa gelditu da umezurtz arras.
Italiarren kontra hola ezin irabaz.

Pentsa maiz hola dela lehiaren bidea,
gerlaren parekoa bertako legea.
Interesak nagusi, bihotzik gabea.
Bizi-aurpegi bat da hau dena, ordea.

Ber-igandean ginen goxoki Iholdin;
omendu dira hortxe bi bertsulari fin.
Alkhat ta Uhaldentzat jende anitz da jin.
Hemen zorionak ez zezaken hutsegín.

2006-VIII

Kamikazeak

Mende berrian emendatu da kamikazeen ibilera,
mundu osoko terrorismoa hortaraino baita lerra.
Beren ustean omen doatzi justizia egitera.

Zer filosofi jarrera
sartu nahi gutartera.

Bitarte hoién burua baita itzuli bide tristera.
Sendotasuna nahi badute, nolaz doatzi hiltzera?

Mundua zirku bat dela dute ...

Ikuspegiak hola sor daizke notanai
 Zirku baten itxura, emanik munduari;
 Gogoak egiten du farenbeste bidai;
 Zirkua nola dagon amonatsa alai.
 Baina pailazo txar bat nehenk ez izan uai ...

antza pollite dela ezia uka
 itxura on dauka;
 itxura on dauka;
 itxura on dauka;

Stokinok egortza berrin kausitu

Nere herria Afrika' aldean zegoen ezin bizia
 Zuzi haurrida leku tipian nolazpait ginen hazirik;
 Yiseriari ihes eitea zen desafio guzira,
 Ta biziazan irrixuan naiz Frantziara itzura ...

Itxas bidaiak batel batean izan ...
 gaunari esker ...

Munduko ajiataricari (201)

Denboraz komunistak gintuen ikusi,
 Ta gize-bizitzari haiek ezin autzi;
 Gaur kapitalismoa sabile itzusi
 Askon bizimoldea ohi baitu suntu
 Dirua ezin daite = hola utzi nagusi!

bi neurri- gabeko fortuna,
 kalte astuna;
 antza duna,

den bolada,
 zikuntza salbatzen bada!

politika
 hartu otoi ez has balentrika-
 kontzientzia ta etika.

Ferrin

lanerat behatu ...
 da apaizatu?

aurko gaia
 salbaia
 dela auziak

Ferminen bertsu-kaiarak.

Palestinan ta Iraq-en gaindi ikusten da holakorik.
Beren buruaz bertze eiteko ez da faltatzen erorik.
Nongo ximistak ote ditu ba horiek buruan jorik?
 Alá!, goraki deiturik,
 konfiantzaz gabeturik...
Debruaz kanpo nork ukanen du sarraskirako gogorik?
Maitasunaren uhinez kanpo ezin da finka Jainkorik.

Jendeen bizia sakratu dela hoiek ahantzia dute.
Itsukeririk beltzen hori da deitzen dutena bertute.
Nago bai Kristok bezala lehenik sufritu behar balute,
 martir gutiago laike,
 ez da dudatzerik bate.
Ta bistan dena manatzaileak daudela beti aparte.
Bakerik ezin ordea denek maitatzen ikasi arte!

2005-X-9

Mundualizatzea edo mundutzeaz

Komunikazio-garapenak du fenomeno hauxe jalgi.
Eska nezake zentzuak egin dezaukun lehenik argi.
Mundutze hori alde guztitan ausart zaigu sartzen ari.
Ondorioak onak ta txarrak datozela dago garbi.
Onak onartu, ta txarren kontra gizona nagusi bedi!

Hirurogoi ta bi urterekin emazteño bat amatu,
Amerikatik ukan laguntzaz Fréjusen da haurra sortu.
Hauxe mundutze sozialaren seinale daiteke hartu.

Baina nola satifatu?

Bertzalde're bada tratu.

Batean droga dela, bertzean haurrak lanerat behartu...
Gizarte-zauri horiek soleitzen noiz behar da apailatu?

Euskal Herriak bi erresumen gainetik hor du Europa.
Argi-izpi baten liluran dago herri ttipien borroka.
Politikari horiek badute denen onetan non joka.
Euskal nortasun hunen martxa ez dezatela behaztopa!

Merkatu librearekin omen daiteke munduan sosa,
horren izenean bateratuz otsoa eta bildotsa.
Estatu-mugak gaindituz nonbait intresak kentzen du lotsa.
Lan merkearen bila enpresek galdurik dute bihotza,
otso dirudun zapaltzaileer hobe haustea kokotsa!

Mundualizazioa ez bedi izan kultur berdinketa,
herri baktxaren nortasuna kulturaren finkatzen eta.
Telebistatik *Love Story*, edo emankizun pistoletara,
diruagatik mundu guztira zabaltzeko den kopeta.
Baina xoroak bakar-bakarrik dezazkela utz beteta!

Hedapenaren xantza euskarak, ai, zer nolako parada!
Interneteko sarean ere ongi sartzen ari gara.
Hegoko euskal erkidegoan horra zonbait gorakada.
Nahiz Iparralde ta Nafarroan apalago den bolada,
kulturaz gu ez gaitzeko kezka hizkuntza salbatzen bada!

Gaur laborantza industrialak, produktibismo itzela.
Heren mundu ta herri ttipientzat beldurgarria bertzela.
–Jitez aldatu organismoak!– gehitu nahi dazkotela.
Erradazue hori zertsu den ez bada joko ustela...
Osasunarengatik ta ezin onar holako koktela!

Orroitzen gira Txernobileko hedoiak egin kaltea,
oraindik ere zonbait lekutan ondorio txarrez betea.
Alta nuklear indarrak dakar bizitzaren errextea,
horretan da sinestea.
Ozonarentzat galgarri ere fabrikek botatu kea.
Martxa horretan nik urrikari dut biharko gizartea!

Urrungo haizeen mende kultura, ekonomia, politika...
Ta nonahiko gizarteak du erdian beharko finka.
Zonbait kausitze teknikongatik, otoi, ez has balentrika.
Zientziaren gainetik beude kontzientzia ta etika.

Euskaldun Gazteriaren egutegian argitaratuak, 2005-X-09an

Mende xahar, mende berri

Jaun-andereak, aipagai ditut mende xahar ta berria.
Bizi garenok ez ginuke nahi sobra makurtu gerria.
Eta gu baitan sendi baitugu euskal kultur egarria,
ospakizun hau izan dadila denentzat markagarria!

Espazio-ontzi ta satelitak ortzian dabiltz biraka,
eta lurrean ezin biziak jorik jendeak milaka.
Galdezka gaude bertze mendean zer beharko den bilaka...
Elkar lagunduz baizik ez daike agertu zuhurtzi marka.

Mende xaharra ez da ibili beti bide leunetan.
Behin ta berriz sartu izan da gerla-zilo ilunetan.
Monumentuko hilen zerrendak uzten gaitu gogoetan,
gizona guti hobetu dela bi mila urte hunetan.

Komunismoa bizkortzen ari zen mende hastapenean,
ta orain porrot eginik dago parterik haundienean.
Kristauarentzat, oi, zer seinale daiken gauz horren gainean!
Jainko gabeko eraikidurak maiz direla lanjerrean.

Baina teknikaz goratu gira joan deneko aspaldian.
Auto, hegazkin ta telebista, zinez ditugu furian.
Urtatseko mezuak dabiltz gaur Interneten begian.
Gur'amatxintzat asko gintezke sartzeko erotegian!

Bi milagarren urtea bedi usain on duen lorea,
andereño bat guztiz amultsu urdin begi kolorea.
Mende-atari huntan iguzki bake osasun ekarlea.
Mende berria bihur dezagun lehengo baino hobea!

1999-XII-31

Gure mundua

Txori kantari ernea dute ezarri bere kaiolan.
Zergatik bada libertatea ez diote horri eman?

Xahutzen ari dute oihana, horrekin kanpo ederra,
ikusi gabe ekintza horrek sortzen duela nigarra.

Elkarri hurbil ikusten dire dirudun ta behartsuak.
Nolaz ez daike bada antola dohakabeen kasua?

Lan eskasian biziki trixte aita familiakoa
nondikan bildu ez dakiela etxekoen haztekoa.

Adin onean bada gizona ta eritasunak joa,
zorte hobea merezi zuela, hori erran gabe doa.

Haurtxo ezagun batzuek nola falta duten burrasoa,
molde horretan kostako zaie biltzen atsedean osoa.

Gizagaixoa kale-ertzean, delakotz arras edana,
nonbait eskastu izana zaio horri ere zoriona?

Une bateko mina behintzat ez bedi etsigarria.
Negu beltzaren ondotik dator urtero udaberria.

Arrazoin haundirik gabe sortzen bazerauku hasarrea,
gure arteko laguntasuna ez bedi geldiri errea.

Nonbait nigarrez ari bada're usu haur sortu berria,
burraoentzat zer esperantza eta amets-iturria!

Mundu hunetan nonahi gaitza sartua zaigula, baina
gizona lehia bedi ongiak noizbait hartu dezan gaina.

1991

Hauxe garaia

Gure aitatzik ikus balitza tresnak kurri botoinekin,
bat zapatu ta guk telebistaz munduko berriak jakin...
Bizar eiteko "erle-burrumba" nork asmatu, mila sorgin!
Ta txuritzeko maxina bera itzulika zoin jostagin...
Botoin horiek bragetetikan dute bakarrik aldegin.

Anitz gorago ere badoa botointxo horien lota.
Baina gauzentzat den estimuaz nori zaio gaur inporta?
Briketa edo eztilo txarra bezala zernahi bota,
hoztegi zaharra ondarkinetan deus ez zuela balio ta.
Aldiz jendea maila berean ezartzea nork soporta?

Botatze horrek nonbait badauka gibelean mespretxua.
Gauzak hainbertze gutiestean nonahi aurkitzen kasua.
Paper, mokanes, botoil, plastika, galdurikan probetxua...
Liburu, dizka, erlisione, luzatuz lixta itsua.
Kasu oraino ezinduak ta umekai dagon haurtxoa.

Bakantzetako karabanean puskak ahalaz arindu.
Gure azita kartoinezkoak hobe baliamentu.
Gisa berean moralak ere, naski, gorena egin du.
Airatu dira pazientziak, engaiatzea epeldu.
Ezkontza bera gutietsia, baina gizartea mindu.

Denbora, naski, ezar ditaike galtzale haundienetan,
sendotasuna lehen sendi zen iraupenaren oinetan.
Gutziz ezagun familietan eta adixkidantzetan.
Lehen denbora hartzen oilasko edo urde-hazkuntzetan.
Gaur denboraren irabazteko lasterka gabiltz denetan.

Puska xaharrak lehen nolazpait gustu onez markatuak,
orrotzapenak ere zauzkaten beren baitan finkatuak.
Gaur egun, berriz, ibil ta bota nola garen gastatuak,
gehiago dena, Jainko-legeak noiz du hainbat pekatua?
Amatxik zion: *-Ez ginen segur gu horrela usatuak!*

Baina nonbaitik agertu zaigu, bai, lehengoaren mina.
Kozina laster ta telebistaz barnea bete ezina.
Hippy bitxiak liliekilan zuen bakearen grina.
Haren anaia ekolo hori egin liteke artzaina.
Aski industri, aski nuklear, ta kotsadura zikina!

Etxe xaharrak berri eta zura ageri ezartzen
ari garela, gure bihotzak nonbait atsegin du hartzen.
Aldiz, negurriz goiti batzuek molde xaharrak goratzen.
Lehengo artixtak, lehengo margoak, lehengo moda nola zen?
Iduritzen zaut hor buztanari ausikiz garela lotzen!

Gaztelu zahar bat argiturik, arpe-ziloa halaber,
ogi-joiteak, lehengo langintzak aitor direla eder...
Ohitura ta jauntzi artetik zer kausitzen lehengoer,
elkartasuna eta bihotza falta zaiena gaurkoer?
Eta guk nolaz ez osatuko hori euskarari esker?

1988-VIII

Funtsezko gaiak eta gogoetak

Libertatea

Ordurako eri haundi izanki, 2013ko ekainean Ferminen bertsu hauek Gracie bere emazteari eman zazkon galdatuz hurrengo larrazkenean Azkainen egin beharra zen bertsu-i-datzen lehiaketara bidali zitzala. Ez dugu uste jakin zuenik bere bertsuak sarituak izan zirela. Emazteak saria erreze-bitu zuen Ferminen izenean.

Oi, txoriaren irudi hori ohi duguna miretsi,
kantatu eta airean zinez emaiten du dela bizi.
Guretzat ere libertateak haundia dauka garrantzi,
nortasunetik sormen goxora egin bagineza jauzi.
Txorien gisa ez al gintezke konfiantzarat iritsi?

–Baten askatasuna bukatzen bertzearena hastean–,
hau lagun bati entzun niona hola erraiten kolpean.
Erantzun nion: –Horretan zira nonbait arrazoin betean.
Haizu zaiguna mugatua da, naski, zedarri batean,
baina gu biok elkar adituz gabiltza libertatean.

Demokrazian geriza eman nahi da banakoari,
eta ikusten dugu hizkuntza gurea nigarrez ari.
Guretzat zinez laidoa dela, horixe daukagu argi.
Sustengurik ez bazaio ekartzen aski gure euskarari,
hau lehertzeko baimena zaio hor emaiten erdarari.

Bere izenak izanen dira, pertsona, ingurumena...
Zentzu horretan hartu izan da herri-askatasun lema.
Eta hizkuntza da gure hatsa bateratzen gaituena,
bertzela gure egoera laike zinez ezinduarena.
Hargatik, entzun herri hunetan den oi-hu-min nabarmena!

Bertzalde, bada herstura-arrisku etxe, lantegi, herrian.
Andreak, haurrak, ez bitza nehork hertsatu gogorkerian!
Adierazpen-askatasuna eskubideen erdian,
ta kulturaren praktika berdin doatzila bide garbian.
Libertatea begiratzen da errespetuzko neurrian.

Beharrik, beti ez gare preso, hersturetan edo minez,
libertateak badu grazia arduradun on eginez.
Jendeekin bilduz, hertsapen franko gaindituz gogo arinez,
bertzeen zerbitzu xumean sartuz, ekimenen joko finez.
Erantzumenak bizi oldarra islatzen derauku zinez.

Bi usok elkar maite badute, zer gatza eta piperra
ez dien sortzen libre izaiteak! Ikustea da plazerra,
nahiz atsegin horren gainetik baden proiektu beharra.
Burua sendo eta eskutik laxatu gabe giderra.
Biena bada libertatea, ez dea guttiz superra?

Jainkoa bere obran nolazpait itsasoai konparatuz,
jakina hunek lurra agertu zuela erretiratuz.
Baina Goikoa present daukagu hazi ona barreiatuz.
Hazi on hori maitasuna da, ezartzen gaituena kantuz.
Libro gira, ta nola ez jarrai Kreatzailea ohoratuz?

2013ko larrazkena

Mina, oinazea

Batzutan zaigu anitz kostatzen
kontu hunen aipatzea,
okaztagarri etortzen baita
ustekabe oinazea.
Orduan norat itzul ez jakin,
ez da errex moldatzea.
Alta Jesusek ere ez egin
hori beretzat kentzea.

Zorionbide ikusten bada
maitasunaren denbora,
mina barnean lotzen delarik
akabo gure ganora.
Oinaze hori baita munduan
beti zinezko aproba.
Ordu txarretan gure morala
ezin daike izan gora.

Ahal baldin bada gu ezin geldi
gorputzaren artatzetik.
Laguna ere libratu nahi da
lehenbailehen oinazetik.
Ordu txarretan gure esperantza
doala otoitzen haritik,
Jaunari hola oihu eginez
begira gaitzan gaitzetik!

2013

Diruak egiten al du zoriona?

Diru pixka bat irabazteko
ari behar da jo ta ke,
erosi behar ditugun gauzak
ez dira segurki merke.
Batzuk diote dirutik ere
zoriona dela neke.
Nahi dutena pentsa bezate,
baina lagundu dezake.

Miseriaren ziloan denak
gauzak ikusiko ilun,
nahiz ta kasu hortan agertu
daiken zorbait laguntasun.
Batek bihoztun agertzekotan
behar du zerbait ontasun.
Diru-biderik ez dunari nork
galda eskuzabaltasun?

Dirugabezi hortan dagonak
ia badu etsitzeko,
anitz kostatzen baitzaio hari
heltzea bertzen pareko.
Nere otoitza doa Jaunari
hortarik begiratzeko.
Nahiko nuke diru puxka bat,
hori ongi partitzeko.

2013

Ezkonberriei predikua

Hara, apezak utzia baitaut behingotzat pulpitua,
ezkonberriei egin dezadan nere gisa predikua.
Bertsulariak ere behar du denetarat ohitua.
Eta maitasun hori badugu zeru gaineko fruitua,
izan dadila bete-betean zuen baitan kunplitua!

Ezkonlagunak bi dira, baina hortxe ttanpala-ttanpala,
hirugarren bat nik hurbil dakust, ez du garrantzi makala.
Harremana du hunek izena bi horiekin doala.
Hau ere sortu ta hazten dena, nahi du izan leiala.
Pentsa, polliki hartu hobe da, pertsuna balitz bezala.

Badakizue gaurko mundua dabilala nahasia.
Harremanaren kontua da maiz lanjerrean ikusia.
Hargatik, zuek har ezazue egun xede berezia,
bi aldetarik gogotsu berma begira argi-zuzia.
Segur naiz hola zuentzat dela jauntsiko goiko grazia!

2013

Herioa

Gogoetabide bat segurua dator herio hortarik.
Ez da izanen bertze gauza bat hori den bezain zakarrik.
Kristautasunak helduleku bat eskaintzen dauku, beharrik.
Eraldatze bat haundia da hau, baina pasaia bakarrik.

Euskalduna da berdin penetan ere ariko kantari.
Omenaldia maiz zor diogu kolpez utzi gaitunari.
Gisa horretan desafioa doala herioari,
ta konfiantza ein dezakegu hau garaitu duenari.

Denok dakigu hemen bizia zenbat dugun gogokoa,
ta maitasunak gainditzen daki herioaren zepoa.
Ongi maitatzea ikastea da bizi huntako jokoa.
Sinets dezagun gerizatuko gaituela Jaungoikoak.

Gustu saminaren hedatzaile aurkitzen da heriotza,
mementu hortan ikusten baita guztiz sarraski zorrotza.
Etxean eta inguruetan sentiarazten du hotza.
Baina Jainkoa gurekin bada, altxa dezagun bihotza!

Hastetik hori dakiguna da, betiko ez gira bizi.
Edo mundu hau holakoa da bere muga eta guzti.
Ongi gareno nahiz ez dugun aldegitoko gutizi,
azkena aitzin nahi ginuke gure arrastoa utzi.


Elkar adituz, laguntasunez zeruan gaurko afera,
ondasun-gosez, jeloskeriaz, goaz infernu parera.
Joanen gira ukana utziz izanean bizitzera.
Hobe ginuke gaurtik lehiatu horri buruz prestatzera.

2013

Bakea

2012an Azkaingo herriak antolatu sariketa batean lehenengo saria eman zakoten Fermin Mihurari ondorengo bertsu haueri esker.

Bakebidea irriskuan da miseriaren erdian,
aldiz sustengu ona hartzen du zuzentasun alderdian.
Bortizki joka ohi denak maiz ordaina bortizkerian.
Oi, bakearen usoa, nabil gaur zu eskertu nahian,
zorionean armak pausatu baitira Euskal Herrian.



Nafarroa eta Iparraldeko Bertsularien Txapelketako kanporaketa,
Heleta, 1993.

Erraiten dute bakea dela zerugain hortarik jina.
Hazia goitik helduta ere behar du hemen ereina.
Goiko maitasun horren fruitua bedi errespetuz egina,
baina nonahi harreman sano batek badu atsegina.
Elkar aditze sanoak beti dakar ondorio fina.

Onartzekoak dira denetan pentsamolde desberdinak,
beharrak haundi direlarik ta interesak ez arinak.
Gogor egite latzaren orde bermatuz tratulan finak,
jujamenduen orde agertuz elkarri non dauden grinak.
Bakezko sari onik banatu dezake zero urdinak.

Bakearentzat izendatzen da urtero Nobel saria,
ohoratuak erakutsirik merezimendu haundia.
Jende balios batzu ez dira bideurratzen nagiak.
Nola gainditu ohi dituzten traba deitoragarriak!
Ta huna hemen hoiien ganik hitz zenbait eredugarriak.

–Kanpoaldean desarmatu aitzin –hauxe dio Dalai Lamak²⁹,
lehenik gure baitan daudela, bai, desarmatzeko lanak.
Hitzetan ere zenbait bortitzak, hobe jartzea alarmak.
Untzi berean gabiltzalarik lurreko jende andanak,
ez ote dira bakez jaunzten ahal giroa ta panoramak?

Mandelak³⁰ zion, etsaiarekin eiteko aitzinabide.
Berarekin da mintzatu behar bihurraziz partaide.
Baketzearen bide xumeak maiz eskatuko du fede.
Ta harremanen iraupen hori bada konfiantza-bide,
azken batean sor daikena da barkamen galdea ere.

²⁹ Dalai Lama: Bakearen Nobel saria.

³⁰ Nelson Mandela: Bakearen Nobel saria.

Baina barkatze horrek zer lana, jendeek badute pairatzen!
Hilez oroitzuz, eta presoak preso direno geratzen...
Pentsa, etxekoen zauri biziak ez dira hola zerratzen.
Halere hemen Popieluszkon³¹ hitza ager bedi zuzen:
–*Bortizkerira jotzen duenak, ahulezia salatzen!*

Erran nahi du, harentzat lehen zagola duintasuna.
Bortizkeritik aparte da hau, sustatuz elkartasuna.
Ta elkarrekin partekatzea eder dela daike suma...
Zer nahi dugu? Libroki bizi, begiratuz nortasuna,
eta bakean izan dadila denentzat etorkizuna!

Amodioa tristea dea?

Gure barnean sortzen baitzaigu
maiz zorion egarria,
maitasunak du zorion hori
gorenera ekarria.
Amodioa tristea dela
zoinek du iragarria?
Tristea balitz ez bailezake
hainbertze jendek tirria.

Maitatzen dugun presuna errex
izendatzen da izarra.
Ta preziatzen da gain gainean
erantzunaren pindarra.
Kantu xaharrean erantzun faltak
samin sortzen du nigarra.
Amodiotik moztuz geroztik
bat daike trixte xamarra.

³¹ Jerzy Popieluszko: poloniar apeza, Lech Walesaren garaian, populu asaldatua sustatu zuena eta gero erahil zutena.

Gaur egunean ihes doanari
bidea zaio libratzen.
Behako xamurrak ikusten dira
errexki tokiz aldatzen.
Tristeena zait familiatu
ta dena bada urratzen.
Gaur lan gehiago da maitasuna
luzaroan begiratzen.

2012

Gaurko gazteak

Gaurko gazteen martxa aski berezia:
berandu eskolan ta zer irabazia.
Eskulana maiz bazter alderat utzia,
baina gizarteak du eragin guztia.
Ez ote da faltatzen zentzuzko hazia?

Hemen sortzea bera da xantza haundia,
euskara maitea ta gur'Euskal Herria,
nahiz kristau joerak dun apalaldia.
Ez legoke hain txarra gazteen zoria
goiz kausitzen badute bideko argia.

Ongi heldu ditezen badago ahalegin,
helduen laguntzak ez dezake hutsegin,
gazteen borondatea berma dadila fin.
Maitasunak ere izan dezake eragin,
zoriontsu izaiteko behintzat elkarrekin.

2012

Onez onean hobe

Airea: Amodioa zoin den zoroa

Lehengo ordena holaxe zagon: manatu eta obedi.
Gaur heziketa ez da hain simple, bederen hala dirudi.
Lehenik zergatik dagon manua, hori garbi izan bedi.
Gero zinezko libertate bat bakotzak nahi du sendi.

Manatzaileak, irakasleak, nagusiak, gurasoak...
Beren lekuan horiek denak izan daitezke zintzoak.
Bortxaketaren muga jotzean hasten dira arazoak.
Onez onean hobe ibili, halaxe dio zentzuak.

Bortxatzearen martxa jin daike gainetik edo azpitik,
maltzurren hura anitz alditan heldu delarik gainetik.
Baina problemei ez gaitezen lot beti indarraren aldetik.
Naturalago da konpontzea errespetuzko bidetik.

Kantuño hunek dirudi dela hastetikan moralista,
ta ez ginuke ez hori nahi, baizikan zerbait irrixka.
Indarrarekin injustizia ekartzea beti gaitz da.
Ez ahal dakigu parean dela errespetuaren pista?

Erlisione kontua ere etor laiteke burura,
ta hortaratu gabe ez dea ezagun indarren muga?
Gizona berez gizonarentzat otso denik bada duda,
ai, gure senez jo bagineza bederen errespetura!

Egun guztiez garelakoan anitz guduen lekuko,
gauza normaltzat daukagu batek bertzea badu lehertuko.
Beti horrela izan dela ta ez dela gaur aldatuko.
Uste horreri heltzea baita txarrena gure gustuko.

Uste duguna gatazka baten konpontzekotan indarra
hortxe dugula ezinbertzean, ai, errekurtsio bakarra!
Baina ez, orain badago ere hitzez bide bat zilarra,
metodo hori barnatuz geroz nonahi baluke pindarra.

Kolpeaz kolpeari ihardetsiz ez dela deusik konpontzen,
Herria huntan ez hain aspaldi hau ginuen irakurtzen.
Ta bakezale suhar batzuek zakotena zen, hain zuzen.
Ea fatalista izaitetikan noizbait garen ateratzen.

Gogo oneko jendeek egin dezagun bada karkula,
temakeria uztea, naski, anitzez hobe dugula.
Indar arteko ilusioan sarturik santa sekula,
guhaur gindezke berdin gaixtoak, zergatik ez dakigula.

Ta inguruan aurki daiteke bat adosean hunela,
badakiena zein hauskorra den indarrez jarri kordela.
Erranen baitu izpirituak aldatzekoak direla.
Hori diona, seguru izan, bertzendako mintzo dela!

Onez onean gehiago lortzen dugu, lema nagusia.
Hastean labur gerta daiteke, ordea, pazientzia.
Gizadi hunek behar lukena mendeen esperientzia,
ai, belaunaldi bakotxa ez balitz haurtzaroraino jautsia!

Aldaketa on batzun kasuan zail ikusten da praktika.
Iduri luke errexagoa bultzatzea ika-mika.
Deus nahi bada funtses aldatu, bihotzez behar inplika.
Bertzeak ere alda daitezke guhaur lehenik hasita.

Deus guti dugu aldatzen ahal ez badator bihotzetik,
ta elkarrekin adoste horrek badu zerbait ederretik.
Geldi gaitzen diferentzian mehatxua ikustetik.
Borondate ona errex pasatzen da asko gauzen gainetik.

Gakoño zombait ager ditzadan. Horietarik bat huna:
bakotxak gora edukitzen du daukan berezitasuna.
Izaite desberdinez jaunzten da mundu-aberastasuna.
Desberdin pentsatzeak ez luke hautsi behar laguntasuna.

Baina nagusi dena ez dago beti hain trankilki lotan,
meneko duen hura ikusten baitu zeharka frangotan.
Nahasketaren beldur haundia bakean utzi ordutan,
alta bertzena onartu laike berea ez galtzekotan.

Gure zimendu onena zainduz bertzerekin kausitzea,
nolaz ez egin esperimentuz urrats hori frogatzea?
Biek pozikan egon gaitezke, nola bat ala bertzea,
Jostalekua bertan badugu, hartuz euskal baratzea.

Nehor azpian ezarri gabe eman ez libetatea,
fermutasuna eduki daike, hori da gure ustea.
Izan kanpoan ala etxean, senar-emazteen artea,
bide beretik herriak ere baluke bere partea.

Konfiantza ta ardura ona emanik guztien esku,
uste duzia hartu daikela hola sobera irrisku?
Puntu desberdin batzu ezin lotuz ibili gaitezke estu,
baina elkarren onginahiak guretzat parerik ez du.

Denen gustua bete-betea ez dela beti eginen.
Ez da gaurkoa, lehendik ere hau ongi baginakien.
Elkar aurkitzen bada, ordea, sortzen da anitz gozamen.
Esperantzazko bide berri bat agindua zaigu hemen.

Ez pentsa gero dena fikzio birtualean garenik.
Bideo-joko edo Internet, gaur bada jostatzen denik.
Erakaspen hau emaila ez da ametsetan etzanik.
Fidagarri zait praktikan, baitu anitz frogatu izanik.

Bada zailtasuna laburbiltzeko liburu on baten gaia.
Harremanaren zientziak du merezi dadin barreia.
Ta indarkerian itsumena ginuen salatu nahia.
Onez onean molda gaitezen gaur baginuke garaia.

Herrian agertuak, 2007-VIII-21

Izadia

Fermin eta Gracie Mihura, biak baserriko seme-alabak, Baionan bizi izan ziren ezkonberritan. Hirian beraz, beren lantokietatik zombait urratsetan. Baina laster erabaki zuten etxe berri bat eraikitzea Azkainen, herriaren erdiko arrabotsetik urrunago, Saskoeneko pentze batean. Gure ustez hori da lehen seinalea izadiari hurbil bizi nahi zutela, baratzea eginez, pentze eta iratze-lekuak garbituz, eta denborapasa mendian kurrituz. Hori guztia izadiaren isiltasuna eta mintzoa entzunez, sasoinetik sasoinera izadiaren kanbiamentuak so, eta heietaz gozatu.

Primaderari

Desiratua zen primadera, ez nahi orduko jina,
baina etorri da azkenean airosa ta atsegina,
eguzki argi, giro epela eta zerua urdina.
Oraingoan bai ahantziko dugu neguak zuen gordina.

Oihan hoietan nagusitu da berriro ere berdura.
Txori guztiak argi-hastetik emanak dira kantura.
Lore pollitak nonahi datoz agertuz beren lilura.
Erradazue udaberrian nor ez ditaiken gustura.

Udaberriko zoramen hori denentzat liluragarri,
bertsularia ere airoski hasiko baita kantari,
biziak duen edertasuna oraintxe dela nabari.
Gure eskerrak bihur ditzagun biziaren nausiari.

2012

Babazuzak³² edo babaxizkorrak loreak xehatu ditu

Baratzezainak bazaukan arta
ta paregabeko maina,
denen atsegingarri horrela
zagon arrosa apaina.
Kolpean babazuza etorri
ta egin kalte haundina.
Naturak duen joera ez da
beti izaiten hain fina.

Arrosa maitea hortxe zagon,
denek ginezaken goza.
Lorearen parekorik ez da
izaiten hainbertze gauza.
Orain ekaitzak bazter guztiak
ditu suntsiturik ontsa.
Kontrola ezina bihurtzen zaigu
naturak deraukan funtsa.

Jendeak ere samindu ditu
ekaitza beldurgarriak,
ez zuelakotz hori merezi
hain lore maitagarriak.
Noizbait lekuan sortuko dira
oraino ordain berriak.
Biziak ditu estali nahiko
naturak egin zauriak.

2012

³² Kaskabarra.



Izadia Euskal Herrian (arg. Olivier Iglesias).

Negua

Udazkena're joan zen eta
orain negu mina horra,
haize hotzakin elur egin du,
xuri-xuri da alorra.
Kanpoan zuhaitz hoiek biluzik,
negua zein den gogorra!
Supazterrean bai dela giro,
sutan dago suhandorra.

Goizean goizik, halere, batzuk
behar lanerat abia.
Autoan goxo, baina kanpoko
gaitza behar desafia.
Kabalak, berriz, barnean daude,
artatsu laboraria.
Ta irratiak dio bidetan
dela lanjera haundia.

Negua negu izanik hola
berez dagoela latza,
hobe baletor eguraldian
lehenbailehen mudantza.
Euskal Herrian sobra bortitza
ez dela daukagu xantza,
ta primadera hurbiltzen ari,
emaiten du esperantza.

2012

Zer dio kukuak?

Bi nota ttipirekin hauxe kantaria!
Aurten ere hortxe da berriz etorria.
Kukua dugu txori bat maitagarria.
Bere kukuz markatzen du udaberria.
Euskaldunentzat beti da alaigarria.

Horren kantua dugu guztiz ezaguna.
Oihan batetik dator goxoa, txukuna.
Lehen aldian zarpan sosik bada suma,
segurtatuko dauku urteko fortuna.
Behintzat xurga dezagun digun maitasuna!

Arroltzeak, ordea, txantxangorriari
uzten ditu, ta hortan ez da zintzo ari.
Errotik emana da gu alaitzeari.
Barka beharko diogu egitate hori,
kantuari behatuz eta ez obrari.

2012

Umorearen haria

Andregairik ezin duzu aurkitu itsusia zirelako

Orain arteko bertsuek erakustera eman daukute Fermin Mihura gizon seriosa zela. Nornahi izan zedin ere, jendeari errespetu haundia agertzen zakon beti.

Ezagutu dugunok ez dugu hori ukatuko, baina denori bezala, laket zitzakon irri egitea ere, eta ahal zuen guztiz umore onean egoitea. Laket zazkon gai airosak eta umorezkoak. Kaiet batean idazten zituen han edo hemen entzun umorezko gaiak, gero bere burua eta irudimena hertsatzeko halakoetaz bertsuen moldatzerat, sekula berdekerietarat, neska edo emakume-kontueterat erori gabe.

Ttikitan izana naiz aski trufatua.
Itsusi xamarra naiz, hori da kontua.
Zer debru, jendea ez ote usatua?
Txorimalo egiteko ez naiz ez sortua!

Sudurra dut luzea, nahiz ezta soa.
Edatean betetzen du horrek basoa.
Izengoitia eman didate "mandoa".
Alta, bihotza daukat xamurra, goxoa.

Agertzen naiz errexki merkatuan, plazan.
Neska bat aurkitzeko nago esperantzan.
Hortako ikasi dut kantuz eta dantzan.
Ni hartuko nauena izanen da xantzan.

2012

Ezin diozu arnoari utzi

Xahakoa albotik dut ezin kendua.
Nere kemenak bertan badu zimendua.
Nor harri? Arnoak du bere sustengua.
Ongi frogaturik diot atxikimendua.

Bazkaltzean nornahik egiten du trago,
lagunari basorat ere dio emango.
Nik goizetikan arrats edaten dut frango.
Den hartarik hartzen dut, nahiz fina nahiago.

Arnoarentzat daukat zintzurra leuna,
ta ostatu-txokoa da leku txukuna.
Hantxet nabil airoski, naiz umoreduna.
Ni edalea, baina baditut lagunak.

2012

Irriari

Bere baitako du gizakiak zorionaren egarria.
Lagun onekin gozatzeko ere beti badugu tirria.
Neken artetik desio dugu alaitasun alderdia.
Usu ez bada egiten ere, nori ez gusta irria?

Bai, euskalduna uste dugunez berez da umoretsua.
Baina nonahi gerta daiteke bizi-fase neketsua.
Nere aldetik, zortea lagun, aski argi dut mezua:
irria maite dutalakotz dut hola kantatzen berttua.



Azkainen, 2009 (arg. Annie Dumay).

Atxik dezagun usaia on hau lagunekin elkartzeko,
eta bizia ahal dugula alde onetik hartzeko.
Goxoki elkar adituz daike gainditu hainbertze zepo.
Badago aski arrazoin gero usu irriz agertzeko.
Hitza mintza mintzaldirako antolatuak,

2012-XI-16

Bertze gai eta gogoetak

Kartzelan zaudela, urrunerat txori bat begiztatzen duzu kaiolan dagola

Edozoin gertakari-mota gerta daitaie pertsona baten bizitzan zehar. Batzu ezustekoak, arraroak ere bai. Ferminiek bazakien gertakari alaiak eta tristeak nornahiren etxean izaiten ahal direla. Orduan entseetzen zen zuzenean hunkiak ziren jendeen larruaren baitan sartzerat, eta ondotik bertsu batzu moldatzen zituen. Ondoko orrialde hauetan agertzen dugu horrelako adibide zonbait.

Oi, txoriño maitea kaiolan zaudena...
Ni berriz preso nago, bientzat ber-pena.
Gizarte hau ez dugu ez aski gardena,
ikusten baita zernahi egiten duena.
Errotik ulertzen dut zure pairamena.

Funtsik gabe ezartzen daukute katea.
Meneko denarentzat bertan da kaltea.
Zeuk ez dakizu zer den hobena ukaitea,
eta kendu dautzute hor libertatea.
Neretzat ere hori biziki dorpea.

Zu kaiolan, ni preso gaituzte arrima.
Geroztik nigarretan daukagu arima.
Libertatez baizik ez dut amets egina.
Gaurtik biharrera gu kanpoan bagina,
gozaleku ginuke, oi, zeru urdina!

2012

Hamabortz urtez haurra ezin ukanik, gaur esperantzetan zaude

Berri haundia hementxe daukat
laguneri kondatzeko:
hamabortz urtez haurrikan gabe,
etsitzeko baitzen seko.
Hain goaitatua zen berria
atzo ginuen hartzeko.
Haurdun naizela erran dautate,
eta lanak sinesteko.
Bizitzan ez da sekula santan
arras desesperatzeko.

Guk aspalditik desiraturia
noizbait jinen zela araz,
baina ametsa ez egiztatzen,
konkretatzea zoin den gaitz.
Senarra eta biok jarririk gaude
gaur aurpegi alaz.
Nik berrogoi urte baditut baina
oraino ere da garaiz.
Gau eta egun bozkariotan
Jauna goersten ari naiz.

Bertzeen ondoan ez nintzen, naski,
ez bekaizti ta ez samin.
Halere, pena ez ardieste
hainbat ginuena galdegin.
Zorioneko eguna orain
oharkabean zaigu jin.
Esperientziz dakigu segur
zortea zenbat den sorgin.
Baina kondatzen ahal dugu beti
barneko izarrekin.

2012

Haur sortu berriari

Ukan dugun berria da berri zilarra.
Ama zoriontzera noa barra-barra.
Haurtxoa da sehaskan, nolako izarra!
Artetan eginen du beharba nigarra,
baina polliki zaio piztuko indarra.

Lana sortzen du, baina zoriontasuna
ere da etxe huntan senditzen duguna.
Haurtxoa bekoz beko, zer edertasuna!
Hunek argituko du nehungo iluna,
naturalki pizten du eta maitasuna.

Laster ospatuko da ba hunen jitea,
ezen, etxea ez da neholaz tristea.
Presuna bat gehiago, gainera maitea.
Maitatzen ikasteko aukera betea.
Ta euskararen bidez zorion-atea.

2012

Anitz maite duenak, anitz sufritzen du

Xalbadorren bertsutik

Oi, Xalbadorren bertsu ederra
zorionez jin gutara!
Bi gauza hauek hola lotuak
ote dira baitezpada?
Maite duena da ongi nahiz
hornitua nahiara,
ta sufrituko du lagun ona
ezbehar batean bada.



Fermin artzain-xakurren lehiaketa prestatzen artzainekin.



Horrela, anitz maite duenak
anitz duela sufritzen...
Ontsa errana, baina hemen naiz
osatu nahiz gelditzen.
Zorionean, ez gira beti
ezbeharretan ibiltzen.
Maite duena lagunarekin
berdin baita atsegintzen.

Pairamenaren goxatzeko ez
da partekatzea txarra,
eta pozaren bikoiztea're
bide horretxek dakarra.
Hazi dezagun, susta dezagun,
hau sentimendu suharra!
Traba anitzen gainetik doa
maitasunaren indarra.

Haur sortu berria hil

Jende maiteak, aipagai daukat,
ai, zer gertakari latza!
Sortu berriaren heriotza
nork dezake bada altxa?
Haurtxo horretan emanik zagon
gurasoen esperantza,
eta orain nork ulertuko du
bizitza hunen norantza?³³

³³ Norantza: zentzua.

Bizi-aurpegi hori egonik
urrez ez bazen zilarrez,
bizipoza ta kuraia nasai,
maitasunaren indarrez.
Eta gaur berriz aita-ama gaixo
hoiek lur jorik nigarrez.
Berriz xutikan hauk ikustea
ez da ez izanen errex.

Egia, haurra amarentzat zen
jadanik frango kostai,
sortu ta laster familiak nahi
izan duena bataia.
Zorte txarraren desafioa
zenbatek behar garraia.
Jainko maitea, dohakabeei
emaiozute kuraia.

2012

Zergatik hiltzen dituzu abereak?

Aita harakinari semearen galdea

Mattinek beti maite izan ditu
nonahi animaliak.
Ongi badaki nola dabilzan
zaldi, behi ta ardiak...
Harategian berriz ikusiz
dela hoién haragia,
kabalak nola hil daitezkenentz
egin daut galde argia.
Gure semeak erakusten du
sentikortasun haundia.

Galde zorrotza semea hola
daukadala parez pare.
Nere erantzuna: –Heuren bizitzan
ez dira, ez, dohakabe.
Abereak ta jendek ez dugu
gradu ber-bera halere.
Nahiz kabalak elkarrendako
atxikimenduen jabe,
jakin hiltzea pasatzen dela
deus sufriarazi gabe.

–Bizitzan ongi tratatzeko da
egin behar ahalegina.
Basakeria nehoiz ez pollit,
seme, daukak begi fina.
Zein atsegina moxalarentzat
behorraren irrintzina!
Horiek hola, jendea dago
haragi-jale, jakina.
Abererik ez baginu hiltzen,
hor ginuke jan ezina.

2012

Amaren bularra

Lazkao Txikik ukan gaia

Haurtxoak dio, naski, helduko
hurbildikan bular horri.
Bularrak berriz eginen dio
haurrari ongietorri.
Altxor bat dela bertan kokatzen,
nork ez dezake igarri?
Esne ttanttaren ekarle dena
baita maitasun-iturri.

Zer misterio daukagun hortxe
amodio dariona!
Haurrendako amaren altzo
hori lekurik goxona.
Nahiz ttikia bularrean den
arras gustura egona,
halere ez du preziatuko
aski bere zoriona.

Preziagarria da munduan
maitasunaren nibela.
Harrigarri da nola garen maiz
hau aurkitzeko gibela.
Neurrigabea haurrentzat hor
den goxoa ta epela...
Aitak ere zun gozatzen jakin,
baina haretzek bertzela.

2012

Amaren besta Senpereko Ibarrunen

Pairamenetan amattok zaukun
guri eskaini bizia,
eta hainbertze kostarik gaitu
geroztik ere haziak.
Aitor dezagun gurekin behar
zuela pazientzia.
Eta egungo ohore pixarra
du ederki merezia.

Dakigu, ama, zu biziaren
sekretu hortan zaudena,
ta haurarentzat beti prest zira
emateko hoberena.
Nork ahantz zure bihotzak guri
ixuri zorion dena?
Hatsa bezain estimagarri da
zure maitasun antena.

Ongi grabatu baitzuen amak
aitaren komanda hura,
gure eranskin guztiekilan
ekarri gintun mundura.
Arrosa batzuk gaur eskaintzeko
izan dezagun ardura.
Behingo esker hau gabe zer laike
ba gure gizon itxura?

1996-VI-2

Donadoen abantailak

Ez pentsa gero faltso direnik
donado hauen urratsak,
haizea bezain libro bizian
jastatuz biper ta gatzak.
Ta lagunekin nola dituzten
harremanak aberatsak,
nehundik ere ez ezagutzen
ezkonduen mutur-saltsak.

Ezkontzak ere fallua baitu
orain agertzen orotan,

konfiantza bat nola ez jarri
gure ezkongabe hotan?
Hauen ezpainen txokotik entzun
dut trufaño bat frangotan:
ezkontzea zer arraiotako
gero apartatzekotan?

Nehoz nehorekin hauk gurutzatu
gabean beren kolera,
sortu ziraden hartantxe dira
helduak libertatera.
Etxen andrerik ez badut ere
Karlos³⁴ hauek ez galera.
Erleen pare ibilki dira
hortxe loretik lorera.

Askotan kezkabide izaten
dira haurtxoen kontuak.
Ezin ukana dutenak hain maiz
guk ikusten penatuak.
Ta dituztenek ez nahi bezala
haurrekin beren tratuak,
ta donado hauk haurretaz libro
ez'tuzte deklaratuak.

1992-IX-6

³⁴ Donado edo mutilzahar hauek.

Fermin Mihuraren ehorzketa eta elizkizunean kantatu bertsuak

2013ko urriaren 2an, haize hegoa eta larrazkeneko iguzkiak gogor jotzen zuen. Asteazken arratsaldea izanagatik, Azkaingo elizan koka ahala baino jende gehiago bildu ginen Fermini azken agurra egiterat. Aldarean apez euskaltzale multxo bat. Predikari, Xalbat Martinon, Azkaingo erretorra, eta herriko abesbatza kantari. Lekukotasun hunkigarrien artean hunkigarriena azpimarratuko nuke, Xabier semearena. Txomin Ezponda, Xumai Murua, Eneritz Zabaleta, Jean-Louis Errexil, Imanol Lazkano eta nihaurek bertsu bedera kantatu ginion. Hilerrian azken bertsu baten kantatzerat atrebitu nintzen. Elizkizuna hasi aitzin, Mixel Xalbadorrek gibelera joan behar ukan zuen, ama hilzorian zuela abisua ukanik. Ehorzketan ziren bertze bertsulariak: Kexus Arzallus, Jose Luis Gorrotxategi, Ekhi Erremundegui eta Haritza Camblong.

Huna arratsalde hartan kantatu ziren bertsuak:

Txomin Ezponda:

Doluan dagon familiari sustengu bat holakotan,
eta hilaren orroitzapenak gure gogo-bihotzetan.
Ni Ferminekin solastatu naiz nere denboran frangotan.
Mespretxu edo solas gaixtorik ez zagon haren ahotan.
Hunen arima zeruratuko da baten bat joaitekotan.

Imanol Lazkano:

Bertsolari ta gizon zintzoa, zituen ezaugarriak.
Bere amets ta gogo biziak ziren hortara jarriak.
Horregatikan goibeltzen gaitu aste hontako berriak.
Bertso-maitale nekaezin bat galdu du Euskal Herriak.

Jean-Louis Errexil:

Eliza huntan bildu gerala denak hor hire ondotik,
hainbertze urte badituela bertsuek gu elkarturik.
Ez adiorik, lagun maitea, bestaldi arte oraindik.
Fermin, gogoan haitugu hemen, pentsatzen dukek zergatik.
Zerua hor duk bai zabaldua, fededun hintzen bihotzetik.

Eneritz Zabaleta:

Fermin, hain goizik zinen lotu bertsuari,
ikusi ohi zintugun plazetan kantari.
Azkena artzain-xakur txapelketakari,
bertsularien lagun eta lehendakari.
Guk segiko diogu zure bideari.

Xumai Murua:

Bada, azken agur bat bertso lagunari,
begira ezarriaz joan denborari.
Hemen bertsula zela desagertzen ari,
zure arnasa eman diozu berari.
Ez dugu nehoiz aski eskertuko hori.

Jean-Louis Laka:

Fermin maitea, harrokeririk ez baihuen erakusten,
eskerrak hiri anitz harreman hintuelakotz errexten.
Adixkide bat galtzen delarik atsekabea duk jauzten.
Nahiz hi gabe ene geroa ez dutan argi ikusten,
hitaz orroituz saiatuko nauk bertsularitza ez uzten.

Mixel Xalbadorrek igorria:

Lagun bat egin duena egin duzun bezenbat zerbitzu
doakigula ikustea da arras gogor eta pizu.
Eman daukuzu hoinbertze bertsu zuhur, hitz eta abisu,
bide onean urratsez urrats baitzinabiltzan kurri zu.
Milesker, Fermin. Ez adiorik, jarraikiko gitzaizkizu.



Ferminen ehorzketa, Azkaine, 2013-X-2 (arg. Olivier Iglesias).

Hilerrian Jean-Louis Lakak:

Fermin, azken bertsu bat banikek buruan,
batzutan erabiltzen ginian doinuan.

Heriotza ez zian hire helburuan.

Noiztenka pastuko nuk hobi inguruan,
nik hemen kantatzeko, ta hik han zeruan,
Azkaine beti euskaldun dagola munduan.